

# TXOSTENA IXOSTENA


# 46

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO**

**HERRIETAKO JAIETAN**

**EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA**

**SUSTATZEKO ESTRATEGIAK**



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO**

**HERRIETAKO JAIETAN**

**EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA**

**SUSTATZEKO ESTRATEGIAK**

Txostenaren hartzailea:

Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea

<b>IZENBURUA:</b>	Euskal Autonomia Erkidegoko herrietako jaietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko estrategiak
<b>EDITOREA:</b>	EMAKUNDE - Instituto Vasco de la Mujer. Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz
<b>TALDE TEKNIKOA:</b>	Margaret Bullen, Lidia Montesinos eta Begoña Pecharromán
<b>MAKETATZAILEA:</b>	EPS Comunicación
<b>DATA:</b>	2021eko martxo
<b>DESKRIBATZAILEAK:</b>	Ohiturak, Sexu-bereizkeria, Gizarte-partaidetza, Herriko jaiak

## EDUKIEN AURKIBIDEA

<b>1.</b>	<b>HELBURUAK</b> .....	15
<b>2.</b>	<b>METODOLOGIA</b> .....	17
<b>3.</b>	<b>JAI EK UDALERRIETAKO BIZITZA KULTURALEAN DUTEN GARRANTZIA</b> .	23
<b>4</b>	<b>TESTUINGURU HISTORIKOA: BERDINTASUNERA BIDEAN EGINDAKO AURRERAPAUISOAK ETA LEGERIAREN BILAKAERA</b> .....	27
<b>5</b>	<b>EAE-KO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK JAIETAN BERDINTASUNAREN ALDE EGINDAKO EKARPENAK</b> .....	35
<b>6</b>	<b>ALDAKETA-PROZESU INSPIRATZAILEAK ARABAN, BIZKAIAN ETA GIPIZKOAN</b> .....	45
	<b>ARABA</b> .....	47
	Gasteizko Andre Maria Zuriaren jaiak .....	47
	Amurrioko San Joan jaiak .....	54
	Laudioko Inauteriak .....	57
	<b>BIZKAIA</b> .....	59
	Bilboko Aste Nagusia .....	59
	Berrizko Dantzari-dantza .....	67
	Gernikako Marijesiak .....	70
	<b>GIPIZKOA</b> .....	74
	Donostiako Danborrada .....	74
	Antzuolako Mairuaren Alardea .....	81
	Tolosako Inauteriak eta San Joan jaiak .....	86

<b>7</b>	<b>HERRIETAKO JAIETAN EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK</b> .....	99
<b>8</b>	<b>AMAIERAKO HAUSNARKETAK: NOLA ALDATZEN DIRA JAIK?</b> .....	119
	8.1 Emakumeen parte-hartzea sustatzeko aholkuak .....	126
	8.2 Herrietako jaien etorkizuneko erronkak .....	128
<b>9</b>	<b>AIPATURIKO BIBLIOGRAFIA</b> .....	131
<b>10</b>	<b>ERANSKINAK</b> .....	135
	I. Talde edo erakunde espezializatuen eskutik jaietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko ekimenak abian jarri dituzten udalen zerrenda. ....	137
	II. Argitalpenak eta aldaketa-estrategiak inspiratzeko bestelako baliabide erabilgarriak. ....	140

S

**SARRERA**







Tradizioak oso garrantzitsuak dira herrien kohesio sozialerako, eta garai berrietara egokitzea dute bizi-rauteko estrategiarik onena. Hala frogatu dute Euskadiko herri askok, beren jaiak eta tradizioak egokitu baitituzte egungo garaietara eta pertsona guztien beharrian eta interesetara.

“Euskal Autonomia Erkidegoko herrietako jaietan Emakumeen parte-hartzea sustatzeko estrategiak” txostenak protagonismoa eta ikusgarritasuna eman nahi dizkio EAEko herri askotan emakumeek eta gizonak jaietan berdintasunez parte hartzeko egin den lanari. Izan ere, Irungo eta Hondarribiko alardeetatik harago, euskal festa eta tradizio asko egokitu dira emakumeek gizonen baldintza berdinetan parte hartzen dutela bermatzeko.

Txostenak EAEko bederatzi udalerritan egiten diren festa tradizionalen aldatze-prozesuak aztertzen ditu, eta espero dugu prozesu horiek balio izango dutela EAEko eta EAetik kanpoko beste udalerririk askotan aldaketa iradokitzeko. Horretarako, zenbait gako eta estrategia identifikatzen dira, horrelako eraldatze-prozesu bati ekiteko orduan baliagarriak izango direlakoan, prozesu horretan ezinbestekoak baitira parte-hartzea, elkarrizketa eta adostasun-bilaketa.

Eskerrak eman nahi dizkiet beren testigantza eman duten pertsonari, eta, bereziki, Margaret Bullen, Lidia Montesinos eta Begoña Pecharromán egileei, duten aditu mailako ezagutza oparitu digutelako.

Jaiak berdintasunaren ikuspegitik eguneratzea, konplexua izan daitekeen arren, ezinbestekoa da justizia sozialari dagokionez, eta hala eskatzen dute emakumeek, mugimendu feministak eta gizarte osoak. Espero dugu azterlan honetan biltzen diren esperientziak pizgarri izatea beste herri batzuek ere jaiak gaur egungo errealitate sozialera egokitu ahal izateko.

Izaskun Landaida Larizgoitia

*Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria*



## ESKER ONA

Elkarrizketatu ditugun pertsona eta erakunde guztien parte-hartzeari esker gauzatu ahal izan da txosten hau; horregatik, ez ditugu hauek guztiak aipatu gabe utzi nahi:

Amaia Herrero, Norma Vázquez, Amagoia López de Larrucea, Belén Bartolome, Irantzu Landa, Itziar Martínez Ortiz de Pinedo, Enara Berganzo Zubero, Eukene De Miguel, Amets Meatza, Esti Ibarrola, Ruth Aguilar, Mireia Espiau, Cristina Sarduy, Pilar Etxaniz, Oihana Etxebarrieta, Noemí Alangua, Elena García, Odei Arrizabalaga, Jabi Asurmendi, Arantza Cañamares, Mertxe Fernández Boga, Josebe Iturrioz, Ana Txurruka, Naiara Garate, June González, María Jesús Torres, Iñigo Arratibel, Aritz Rodríguez, María Ajuria, Farapi Koop., Lur Etxeberria, Elhuyar, Coral García, AZ Participación, Jenny Pearce, Oier Araolaza, Dantzan Elkarte, Itxasne Martinez, Murgibe, Leire Diez, Laura Gómez, Unai Esturo, Joseba Rosales, Amaia Domingo eta María Luisa Aguirreche.

EAEko herrietako jaiak berdintasun-gune bilakatzeko lan egin izan duten pertsona anonimo guztiei ere eskerrak eman nahi dizkiegu. Txosten hau sortzeko ikerketa-prozesuan aipatu ziren horietako batzuk, eta beren izenak jaso nahi izan ditugu hemen, agertutako ausardia eta eskuzabaltasuna eskertze aldera:

Blusen eta Nesken Batzordeak, Yaiza Palacios Garlito, Marta Díez Sanz, Itsaso Sáenz López de Eguílaz, Arrate Ruiz de Escudero Vea-Murguia, Idoia Benito Ibañez, Jon Ruiz de Infante Anton, Donostiako Emakumeen Etxea, Mamiki Konpartsa, Izaskun, Amparo, Marijesiak elkarte, Rosa Artola, Pili Totorika, Itziar Ormaetxea, Mila Obieta, Florita Sarduy, Sixto Gorrindo, Alizia Azkarate, Merce Fernández, Belén Bartolomé, Guadalupe Bartolomé, Leire Pazos, Begoña Gaztelua, Eunat Madariaga, Susana Ramos, Olaia Urionabarrenetxea, Olga Naberan, Nagore Abando, Batirtze Uriarte, Mainer Iglesias, Irantzu Landa, Gloria Gutierrez, Iratxe Agirre, Susana Ramos, Zirats Anza, Alaitz Gezuraga, Nahia Lazaga, Iraultza Malaxetxebarria, Anabel Ispizua, Maitena Olabariaga, Eva Zarrandikoetxea, Garbiñe Biurrun eta José María Arakama.

Izenen bat ahaztu bazaigu, barkamena eskatzea besterik ez dugu; ez da gure asmoa izan inor ahantzean uztea. Izen horiek, izatekotan, Euskal Herrian jai-eredu berria eraikitze lanean irmo eta eskuzabal aritu diren pertsona anonimo guztien zerrenda luzera bilduko lirateke, goian aipatutakoekin batera.



1

**SARRERA**



2018ko irailaren 8an hainbat eraso izan ziren Hondarribiko jaietan, eta, urriaren 17an, gertatutakoa kondenatzeko erabakia hartu zuen Eusko Legebiltzarrak aho batez. Adierazpen horrekin batera, Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritza premiatu zuen horrelakorik ez errepikatzeko eskura zituen baliabide guztiak ezartzera, eta –Instituzioen arteko Mahaiaren bitartez– gaztaka horren inguruan lanean jarraitu zezan eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiari, Alardeetan emakumeen parte-hartzeari lotuta; izan ere, gogor astindu du bi hamarkadaz baino gehiagoz Hondarribiko eta Irungo herritarren bizitza.

Bidasoaldeko Alardeen inguruko polemikaren ikuspegia zabaltze aldera, Eusko Legebiltzarrak txosten bat sortzeko eskatu zion Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeari. Txosten horretan adierazi behar izan zuen Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) zein herritan egokitu diren jaiak emakumeen parte-hartzea ahalbidetzera, bereziki nabarmenduta prozesu horiek gauzatzeko zein estrategia eta metodologia erabili diren. Horrekin lotuta, hementxe aurkeztu dugun dokumentuaren helburu nagusia izan da Euskadiko herrietako jaietan emakumeen parte-hartzea hobetzeko garatzen ari diren estrategiak biltzea, erabilitako bideak eta prozesuan esku hartu duten eragileak kontuan hartuta.

Eusko Legebiltzarraren mozioaren bidez, emakumeen parte-hartzea bermatzen ez duten jai edo ospakizunak dituzten EAEko udalerriei deia luzatu zitzaion, herritarrekin batera aldaketa-prozesuak bideratzeko elkarrizketa- eta hausnarketa-dinamikak proposatu zitzaion. Hala, txosten honetan jasota daude EAEn garatu diren zenbait prozesu adierazgarriren indargune eta ahulguneak, beste udalerrri batzuetan baliagarriak izan daitezkeen jardunbide egokiak eta hobetu daitezkeen edo administrazioek indartu ditzaketen alderdiak.

## HELBURUAK

Azterlanaren helburu nagusia izan da EAEko errituetan eta jai giroan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko prozesu eta estrategiak biltzea.

- EAEn, emakumeen eta gizonen parte-hartze parekidea ahalbidetzeko, jaietan egokitzapen-prozesuak abiatu dituzten herrien kasuak biltzea.
- Parte-hartze parekidea lortzeko erabilitako estrategia eta metodologia biltzea, abiatutako prozesuen ezaugarriak jasota.
- Instantzia edo eragile ezberdinek abiatutako prozesuak bereiztea: erakunde publikoak, hezkuntza-erakundeak, elkarteak edo kolektibo feministak.
- Jai giroan emakumezkoen parte-hartzea handitzeko estrategia egokiak identifikatzea.

Txostenean, jaietari eta berdintasunari buruzko testuinguru historiko eta juridikoa azaldu ondoren, erakunde publikoek bideratutako esku-hartzeak eta tokian tokiko prozesuak deskribatu dira. Ondoren, identifikatutako estrategiak aztertu dira eta bertan jasotako jaiak eraldatzeko moduei buruzko hausnarketak, herrietako jaietan berdintasuna bermatzeko zenbait aholku eta etorkizunerako erronkak. Txostenaren amaieran, bi eranskin aurkezten dira: talde edo erakunde espezializatuen eskutik emakumeen parte-hartzea sustatzeko ekimenak abian jarri dituzten udalerrien zerrenda, eta gehiago jakiteko zein aldaketa-prozesuak inspiratzeko baliabideen zerrenda.



# 2

## **METODOLOGIA**



Txosten hau egiteko, metodologia kualitatiboa erabili da batez ere, eta teknika ezberdinak konbinatu, datuak jaso zein aztertzeko, EAEko herrietako jaietan emakumeen parte-hartzea handitzeko eman diren urratsen lagin bat aurkeztarren. Honako teknika hauek baliatu dira, eta lan hauek gauzatu:

## LAN DOKUMENTALA

# 2.1.

Lehenengo eta behin, dokumentazio lana egin da eta herriko jaiei buruz genero-ikuspegian oinarrituta egindako ikerketak bildu dira, etnografia-lana egin duten talde ikertzaileak bereziki kontuan hartuta. Lan hori guztia txostenaren amaierako bibliografian jasota dago.

Horrela, ezagunak diren eta EAEn bertan zein kanpoan ikertu diren kasuen azterketa dokumentala egin zen, herrietako jaietan emakumeen parte-hartzeari bidea eman dioten aldagai eta elementuak identifikatze aldera. Azterketa horren bitartez, aldaketa-prozesua amaituta edo abian zuten hainbat udalerrri identifikatu ziren eta, landa-lanaren bitartez, sakontzea me-rezi duten ildo estrategikoak aztertu ziren.

## LANDA-LANA

# 2.2.

Bigarrenez, telefono bidezko galdeketa egin zen, eta erdi-egituratutako elkarrizketa sorta abiatu zen jaien antolakuntzan eta berdintasunaren sustapenean esku hartzen duten eragile sozial eta instituzionalekin (autonomia, foru zein udal mailan). Hain zuzen ere, zazpi elkarrizketa egin ziren Arartekoan, Emakunden, EUDELen, Udalbiltzan eta EAEko hiru foru aldundietan diharduten berdintasun-arloko langile espezializatuekin, herrietako jaiak eraldatzeko eta emakumeen parte-hartzea sustatzeko abiatu dituzten lan-ildoak ezagutze aldera. Erakundeek emandako informazioa oinarri hartuta –udalerriko errealitatea ezagutzen baitzuten–, jaietan jardunbide egokitzat jo daitekeen aldaketaren bat ezarri duten udalerrriak hautatu dira.

Era berean, Farapi Koop. aholkularitza-taldearekin saio bat ere egin zen, zeinak, Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratatuta, genero-ikuspegian oinarritutako etnografia-lana egin baitzuen Gipuzkoako Lurralde Historikoan. Aitzindaria izan zen diagnostiko hura, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratu zuen 2010ean. Orduetik, hogeita hamaika diagnostiko egin dira EAEko hainbat udalerrri eta eskualdetan (ikusitako I. eranskina). Lan-saio hartan, herrietako jaietan

sentsibilizazioa eta berdintasuna sustatzeko erabilitako estrategia eta metodologiak identifikatu ziren, baita diagnostiko horietan izandako zailtasun eta emaitzak aztertu ere.

Lan dokumentalaren, Farapi kooperatibarekin egindako saioaren eta erakundeei –EAEko udalerrri guztiak biltzen dituzte– egindako elkarrizketen emaitzak kontuan hartuta, eraldaketa-prozesuak arrakastaz ezarri zituzten bederatzi udalerrri hautatu ziren (EAEko hiru hiriburuak eta lurralde bakoitzeko beste bi udalerrri). Horietako batzuetan aspalditik zeuden abian eraldaketa-prozesuak, eta beste batzuetan, ordea, abiatu berriak ziren. Kasu horietan guztietan sakontzeko, prozesuetan inplikaturako pertsonak elkarrizketatu ziren: hamahiru politika-arlokoak eta udaletxeetako teknikariak, eta hemezortzi jaien antolakuntzan parte hartzen duten bestelako erakunde eta elkarteetakoak.

Elkarrizketen bitartez, eraldaketa-prozesuak bultzatu dituzten profil eta pertsona zehatzak identifikatu ziren (bederatzi pertsona), eta horiekin Farapi kooperatibak dinamizatu eta zuzendutako lan-saioa antolatu zen, elkarrekin honako gai hauen inguruan hausnartzeko eta sakontzeko: eraldaketa bultzatzen duten faktoreak, antzemandako beharrianak eta arlo horretako etorkizuneko erronkak. Profil ezberdinetako kideek parte hartu zuten saioan: zenbait udalerritako kultura- eta berdintasun-teknikariak, jai-batzordeetako eta jai jarduerak antolatzen dituzten erakundeetako kideak, antropologian eta kultura-ondarean adituak...

Gainera, parte-hartzaileek bi behaketa egin zituzten. Bata Gernikan, Marijesietan (koruen Gabonetako errondak) emakumeen parte-hartzea sustatzeko egindako bideari buruzko dokumentalaren aurkezpenean. Bigarren behaketa Berdinsareak (Eudel) antolatutako Berdintruke jardunaldietan egin zen, herrietako jaien eta berdintasun-politiken inguruan egindako lan-saio ireki batean. Bertan parte hartu zuten Eudeleko berdintasun-arloko idazkaritza teknikoak (hiru teknikari) eta EAEko zenbait udalerrri eta eskualdetako berdintasun-arloko hamabi eragilek.

Paraleloan, EAEn berdintasun-arloan diharduten hogeita zortzi profesional eta aholkularirekin egin zen harremana, txosten honen xedeari lotuta egin duten lanari buruzko informazioa eskatzeko. Datu-bilketa eta dokumentazioaren kontsulta eginda, EAEko jaietako berdintasunari buruzko hamaika diagnostiko gehiago identifikatu ziren. Horrela, guztira berrogei udalerririk egin dute beren jaietako buruzko nolabaiteko diagnostikoa; halaxe islatzen du txosten honen I. eranskinak. Gainera, Dantzan aholkularitza-taldeak egindako lana ere jaso da, zeina islatuta baitago II. eranskinean, berdintasuna eta dantzetan emakumeen parte-hartzea sustatzera bidean egindako aurrerapausoen erregistroan, hain zuzen.

Azkenik, Jenny Pearce bakearen antropologo eta politologoari ere egin zitzaion elkarrizketa, duela zenbait urtetatik lankidetzan baitihardu Bidasoko Alardeetako gatazkaren inguruko Erakundearteko Mahaiarekin. 2018ko gertakariez geroztik, Hondarribiko Udalak sustatutako ekimen berri batean parte hartzen du Pearcek, gatazkaren alde bien arteko elkarrizketa bideratzeko beharrezko diren baldintzak ezartzeko.

## AZTERKETA ETA LEHEN DOKUMENTUAREN IDAZKETA

# 2.3.

Dokumentatze-prozesuan eta landa-lanean bildutako informazio osoa talde ikertzaileak aztertu zuen zenbait lan-saiotan, eztabaida kolektiboan oinarrituta. Horrela, lehen dokumentua

idatzi zen, eta inspirazio-iturri gisa hautatutako kasuei buruzko datuak eta informazioa eman zuten pertsonekin partekatu zen, berau berrikus zezaten.

## **KONTRASTEAREN ERAGILEEKIN ETA AZKEN DOKUMENTUAREN IDAZKETA**

# 2.4.

Aldaketa-prozesu inspiratzaileen atalean aztertutako kasuen zehaztapenak eta ñabardurak jaso ondoren, prozesuan inplikaturako erakunde eta eragileek azken txostena idatzi zuten. Lan horretan parte hartu zuten pertsona eta erakundeekin partekatu zen azken txostena, eta azken iruzkinak jaso ziren, baita azken berrikusketa eta zuzenketak egin ere, hemen aurkezten den txostena lortu arte.



# 3

## **JAI EK UDALERRIETAKO BIZITZA KULTURALEAN DUTEN GARRANTZIA**





Herrietako jaiak urterik urte errepikatzen diren erritual komunitarioak dira; bertan, hainbat zeremonia-ekitaldi eta jolas- zein kultura-jarduera programatzen dira, bizitza soziala antolatu eta ulertzeko modua islatuta. Hortaz, jai-erritualek jaiaren inguruko balio eta ohituren transmisioa dakarte berekin belaunaldiz belaunaldi, eta horrek harreman sozialetan eragiten du. Hori dela eta, jaiak rol garrantzitsua dute kidesan sentimendua eratzeko orduan, baita tokiko identitatea kanpora proiektatzeko orduan ere.

Era berean, Gizarte Antropologian nabarmendu denez, jai-erritualetan islatu egiten dira horiek ospatzen dituen jendartearen tentsio eta kontraesanak, baita komunitatearen barnean dauden antagonismoak eta botere-harremanak ere. Jaiak historiaren irakurketa, herriaren ideia, estatus, mundu-ikuskerak edo erlijio jakin bat erreproduzitu eta transmititzen dute, eta agerian uzten dituzte hierarkia sozialak, desberdintasunak eta prestigio- zein autoritate-sistemak. Jai-eremuan kondentsatuta ageri dira komunitatearen inklusio- eta bazterkeria-mekanismoak, komunitatearen barneko banaketaren eta desberdintasunen arabera.

Zentzu horretan, jaiak erreproduzitu egiten dituzte, baita ere, sexu- eta genero-desberdintasunak markatzen dituzten mekanismoak. Hain zuzen ere, Espainiako zein Euskal Autonomia Erkidegoko jai asko sozializazio maskulinoan oinarritutako espazioetan sortu ziren (elkarte gastronomikoak eta kirol-sozietateak, kofradiak, gremioak, batasun militarrek...), eta, hortaz, historikoki gizonak izan dira protagonista ia bakarrak, hala ere publikoan nola antolakuntzan. Emakumeak etxeko eremura alboratuta zeuden eta, jai ekitaldietan parte hartuz gero, ikusle, laguntzaile edo bideratzaile gisa parte hartzen zuten, jaiari eusteko funtsezkoak ziren egiteko ikusezinetan, erritual nagusietako protagonista izan gabe. Gainera, jai-erritualetan emakume eta gizonen genero-rol bereizirik erreproduzitu ohi dira, sexu-banaketan oinarritutako karga sinboliko handiarekin. Hori dela eta, jai herrikoietan emakumea barne hartzeko orduan, bigarren mailako edo apaindurazko rolak esleitu zaizkie, emakumeentzat espezifikoak, gizonen figurei laguntzeko edo eremu bereizi batean aurkeztutakoak: erreginak, kantinerak, banderariak... Emakumeek jai-giroan izan duten bigarren mailako presentzia hori larriagotu egiten da jai giroan beren segurtasun pertsonal eta sexuala arriskuan eta mehatxupean egoteagatik, horrek mugatu egiten baitie jaiak erabat gozatzeko eta heldurrik gabe eta berdintasunez parte hartzeko aukera.

Laburbilduz, jaiak ez dira aisialdi- eta dibertimendu-guneak soilik; hau da, zeremonia jakin batzuk era akritikoan errepikatzen dituen ospakizuna edo herritar guztiek gozatzeko moduko kontsumo-aldia izateak harago doaz. Jaiak garrantzia sinboliko eta materiala dute ordena sozialari eusteko eta berri erreproduzitzeko; ondorioz, eremu pribilegiatua da, eta funtsezkoa da esku hartzea, dinamika sozial jakin batzuk eraldatu nahi badira eta jardunbide iraingarri eta baztertzailerik aurre egin nahi bazaie. Jendartearen irudikatzen duen espazioa izaki, jaiak agerian uzten dituzte jarraitutasunaren eta aldaketaren artean sortzen diren tentsioak, baita praktika eta tradizio jakin batzuen errepikapen ziklikoaren eta bizitza sozialaren etengabeko eraldaketan zein belaunaldi arteko transferentziaren dinamismoaren artean sortzen diren tentsioak ere. Azken finean, transmisio-prozesu orok dakar berekin nolabaiteko eraldaketa.

Kontuan hartzen badugu, gainera, udal aurrekontuen ehuneko handi bat herrietako jaiak finantzatzera bideratzen dela<sup>1</sup>, garrantzitsua da jai-eremuan esku hartzea –bai herritarrei bai botere publikoei dagokienez– eta aniztasunari zabalik egongo den eremua sortzeko lan egitea. Horrela soilik balio ahal izango du kohesio sozial eta komunitarioa bultzatzeko, praktika diskriminatzaile edo iraingarriak, eta komunitatearen helburu sozialekin bat ez datozen ohitura zein balioak alde batera utzita. Jai-erritualak, kultura-jarduerak eta aisialdia bera berdintasunezko espazio anitz eta integratzaileetan garatzea lortzeko, ezinbestekoa da gaiaren inguruko hausnarketa kolektibo eta kontzienteagoa egitea, eta tradizio kulturalak eguneratu eta demokratizatzeko gai izango diren lan-prozesu eta eraldaketa sozial komunitariorako prozesuak martxan jartzea, tradizioen berezitasun eta historiari uko egin gabe.

---

1 Horrela izaten da bereziki udalerrri txikietan, eta, nahiz eta azterketa espezifikorik egin ez, gai hori azpimarratu dute udaletako kultura- eta jai-arloko teknikariek.

# 4

## **TESTUINGURU HISTORIKOA: BERDINTASUNERA BIDEAN EGINDAKO AURRERAPAUISOAK ETA LEGERIAREN BILAKAERA**



Ikuspegi historikoan oinarrituta, agerian geratu da jaiak ospatzeko eta jaiari esanahia emateko modua aldatu egiten dela prozesu politiko eta sozialen arabera, horiek islatu egiten baitira tokian tokiko giroan. Jatorri pagano edo erlijiosoan duten jaiak nahastu egiten dira «Errekorkista» garaiko edo XIX. mendean izandako hainbat gerratako garaipen militarren oroitzapenekin, ospakizun asko biziberritzeko edo folklorizatze baliorekin. XX. mendeko 30eko hamarkadan herrietako jaiak mugimendu iraultzaileen eta aldaketa-mugimenduen eragina izan bazuten –berezi ezaugarri erlijioso eta monarkikoak zirela eta–, diktadura frankistaren berrogei urteek ere eragin zuzena izan zuten luzaroan herrietako jai askoren esanahi eta garapenean. Izan ere, haren genero-politikak nazionalkatolizismoari lotuta zeuden, eta agerian geratzen zen herrietako tradizio eta folkloretarako hurbilketa propagandistikoak.

## BERDINTASUNERA BIDEAN EGINDAKO AURRERAPAUSSAK

# 4.1.

70eko eta 80ko hamarkadetatik aurrera eman ziren jaiak eta emakumezkoen rola pixkanaka eraldatzeko lehendabiziko urratsak –lege-arlokoak zein mobilizazio sozialekoak–, 1978ko Espainiako Konstituzioaren bidez emakumei eskubide jakin batzuk aitortu zitzaizkienean batez ere. Frankismo garaiko bizimoduarekin eta jai-ereduarekin apurtzeak jaien antolamendua demokratizatzea eragin zuen sarri, eta horrek herritarren (eta, ondorioz, emakumeen) parte-hartze handiagoa eragin zuen herrietako jaietan. Jaien kudeaketan eta, tarteka, finantzaketan kuadrillek, elkarteek eta kolektiboek gero eta protagonismo handiagoa zuten, emakume taldeek ere parte hartu ahal izan zuten jaietako protagonista gisa. Horixe aztertuko dugu Bilboko Aste Nagusiaren kasuan; izan ere, konpartsen ezinbesteko laguntza antolatzen dira jaiak oraindik ere, eta konpartsa batzuetan emakumeek ordezkari zabalak edo emakumez bakarrik osatuta daude (*Mamiki* kasu). Horrek guztiak nabarmen eragiten du jaietarako sortzen diren egitarauak eta jardueren ezaugarrietan. Hala eta guztiz ere, eredu hori ez da udalari guztietan ezarri.

Gaur egun, udal hartzen dituzte beren gain jaiak antolatzeko eskumen asko, eta haiek izaten dira sarritan jaien kudeaketa eta finantzaketan erantzukizun handiena duten erakundeak; iturri ekonomiko egonkorra berma dezaketen bakarrak<sup>2</sup>. Hori dela eta, udal dute

<sup>2</sup> 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakunde berruzkoak, xedatzen duenez, *kulturarako eskubidea eta kultura-ondareko ondasunetara iristeko eskubidea* dute herritarrek. Legeak xedatzen du, halaber, udalariaren eskumenak direla *kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea* (17.20 artikulua), baita *establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea* ere (17.33. artikulua). 10/2015 Legeak, abenduaren 23koak, Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jarduerari buruzkoak, eranskin gisa jasotzen du ikuskizun publikoen, jolas-jardueren eta establezimendu publikoen katalogoa. Jolas-jardueren artean, honako hauek azpimarra daitezke: zezenketa herrikoiak, jarduera kultural eta sozialak, jai herrikoak edo tradizionalak lotutako jarduerak eta kirol-jarduerak.

(zinegotziek, jai- edo kultura-teknikariek eta jai-batzordeek)–ia eurek bakarrik– jaietako egitaraua koordinatu eta antolatzeko, jarduerak gehitu edo ezabatzeko ahalmena. Ondorioz, eta txosten honetan ikusiko denez, une honetan udalak dira jaietan berdintasuna sustatzeko aldaketaren eragile garrantzitsuenetako bat.

80ko eta 90eko hamarkadetan, emakumeak espazio pribatutik, etxetik, ateratzen hasi ziren, espazio publikoak aldarrikatu eta okupatzeko asmoz, eta kolokan jarri zuten etxea eta familia (senarra, seme-alabak, menpekotasuna duten pertsonak...) zaintzeko esleitu zitzairen rol naturalizatua. Eskubide guztien (erreproduktiboak, lan-arlokoak, zibilak...) aldarrikapenak eta emakumeen sexu-askapen mailakatuak ere eraldatu egin zituen gozamenerako eta aisialdirako moduak, ordura arte gizonentzat baino ez zirenak. Prozesu horiek jendartearen gertatzen ari ziren eraldaketa handietan oinarrituta zeuden, mugimendu feministaren gorakadan eta 1978ko Konstituzioan jasotako lege-esparruan, zeinak ordenamendu juridikoaren oinarri gisa aitortzen baitzuen berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioa<sup>3</sup>. Espainiako Konstituzioak, gainera, herritar guztiei –emakume zein gizonei– aitortzen zien kulturaren eta jai-ospakizunetan parte hartzeko eskubidea<sup>4</sup>. Horretaz gain, konstituzio-esparruak azpimarratu egiten du botere publikoek dutela eskubide hori bermatzeko erantzukizun osoa, hau da, emakumeek nozitzen dituzten desberdintasun eta diskriminazio baldintzak eraldatzera behartu egiten ditu botere publikoak:

*Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bitzitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan ere. (9.2. artikulua)*

Horrek udal asko animatu zituen eta oraindik ere animatzen ditu emakumeen aldarrikapenak babestera eta herrietako jaietan inplikatu daitezkeen bultzatzera. Gainera, urte haietan, Espainiak pixkanaka bere egin zituen Generoagatiko Diskriminazioaren aurka Babesteko Europako Zuzentarauak, eta 1983. urtean berretsi egin zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 34/180 Ebazpena (New York, 1979ko abenduaren 18koa), emakumeen aurkako diskriminazio mota oro desagerrarazteko Biltzarrean adostutakoa<sup>5</sup>.

Hori horrela, emakumeak jaietan eta espazio publikoan parte hartzen hasi ziren demokraziaren lehen hamarkadetan, eremu kultural eta sinbolikoan ere berdintasuna aldarrikatu. Urte haietan nabarmen hazi zen jaietako parte-hartzea, eta jendarte osoari ireki zitzaizkion, Autonomien Estatu berriari lotutako prozesu politiko eta kulturaletan ere nahasten hasita. Estatu osoko jaiek emakumeen parte-hartzea barne hartu zuten; kasu batzuetan krisiak eta beharrezko ekonomikoak zein parte-hartze beharrak bultzatuta, eta beste batzuetan berdintasuna jai-eremuan ere gauzatu behar zela sinetsita<sup>6</sup>. Garai hartan emakumeek egindako eskariak agerian utzi zuten herentzian jasotako kultura-ondarea eraldatzeko beharra, eta,

3 14. artikuluan zera ezarri da: Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozial aintzat hartuta.

4 44.1. artikuluan zera ezarri da: Botere publikoek kultura eskuratzea bultzatu eta babesteko dute, guztiek baitute kulturarako eskubidea. 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak ezarritako ildoaren berri ematen du: Pertsona orok du eskubidea komunitateko kultura-ekitaldietan aske parte hartzeko, artelanez gozatzeko, eta zientzia-aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzeko (27.1. artikulua).

5 5. artikuluan zera ezarri da: Estatu alderdiek neurri egoki guztiak hartuko dituzte gizonen eta emakumeen jokabidearen inguruko gizarte-eta kultura-ereduak aldarazteko, sexuetairik edozein bestea baino gutxiago edo gehiago dela uste izanagatik edo gizonen eta emakumeen eginkizun estereotipatuak direla eta, izan daitezkeen aurreiritziak eta ohiturazko nahiz bestelako jardunbideak ezabatzeko asmoz.

6 EAEn badugu adibide bikaina: Kresala Kultura Elkarteko emakumeak. Donostiako Danborradan parte hartzeko erabakia hartu zuten 1980. urtean, eta urketariaren figura sortu. Emakumezko pertsonaia horrek harrera ona izan zuen herritarren artean, baita hiriko Udalaren aldetik ere; ikus dezakegunez, eredu garrantzitsua izan zen jaietan emakumeen parte-hartzea bultzatzera bideratutako araudia aplikatzeari dagokionez.

erresistentzia eta zailtasunei aurre egin behar izan bazieten ere, kasurik gatazkatsuenak salbuespena dira jai-fenomenoaren eraldaketa islatzen duen mapa zabalean. Bat-bateko aldaketa-prozesu ugari gertatu dira, aldarrikatzaileak edota bideratutakoak, hala EAEn nola espainiar estatu osoan.

## LEGERIAREN BILAKAERA

# 4.2.

Edonola ere, ezin ahaztu dezakegu leku batzuetan motelagoak izan direla prozesuok, edo konfrontazio eta gatazkak planteatu izan dituztela; izan ere, tradizioaren izenean, eta hura mantentzeko ahaleginean, emakumeei ukatu egin zaie jai-eremurako sarbidea. Zentzu horretan, ezagunak dira Alacanteko Mairu eta Kristauen jaiak, bereziki Alcoi hirikoak, baita Aste Santuko prozesioari lotutako beste batzuk ere Estatuko hainbat hiritan (Cagide et al., 2019; Gabeiras Fundazioa, 2020). Irungo eta Hondarribiko alardeena da EAeko kasurik gatazkatsuenak, baina gizonezkoen elkarte gastronomikoen antolatutako zenbait jaitan ere gertatu da halakorik, emakumeak onartzeak eragingo lukeen mutazioari uko egiten baitzioten (Farapi, 2009). Alardeen gatazkaren inpaktu soziala bereziki gogorra izan da, eta jarraitu behar ez den eredutzat dute udalerrri askotan; izan ere, beldurra eta errezeloa eragiten ditu, agerian uzten baitu gatazka bat ebaztea zeinen zaila izan daitekeen, hasiera-hasieratik behar bezala heltzen ez bazaio.

Gatazka-kasu horiek guztiak sakon aztertu dira berriki azterlan batean –batez ere, jaietan berdintasunari buruzko ebazpen judizialaren bila aldeek epaitegietara jo badute–, eta azterlanean bertan jasota daude, gainera, bai gai honen inguruan sortu den jurisprudentzia, bai gatazka sozialak bide judizialek ebazterakoan izan daitezkeen ondorio kaltegarriak (Montesinos, 2020). Nahiz eta gai honen inguruan eman diren epaiek aitortu egiten duten emakumeek eskubidea dutela udal osoaren edo partzialki antolatzen dituzten jai publikoetan gizonen maila berean parte hartzeko, egungo legeriak nahasmena eragin du eskubide horri dagokionez, batez ere, erakunde pribatuak edo elkarteak antolatutako jaiak badira eta horien helburua bada genero-rol zehatzak dituen tradizio jakin batzuk erreproduzitzea. Haren arabera, erakundeak ezin dira behartu emakumeak edozein roletan onartzera, ez behintzat baztertzeko behar bezala justifikatuta badago; izan ere, *borondate-autonomiak* eta elkartzeko askatasunak dute lehentasun osoa. Zentzu horretan, Bidasoko alardeen kasuan, adibidez, era independentean eta finantzaketa publikorik gabe diharduten erakunde pribatuak edo elkarteak sortzea estrategia arrakastatsua izan da berdintasun-printzipioa saihesteko. Elizari atxikitako fededunen kofradietako biltzarren autonomia ere baliagarria izan da –batzuetan– emakumeak Aste Santuko prozesio askotan sar daitezen saihesteko estrategia gisa. Gai jakin honen inguruko eztabaida juridiko eta antropologikotik harago, helburua ospakizun jakin horietan askatasuna babestea edo berdintasun-printzipioa saihesteko zirrikitu eta salbuespenak bilatzea ote den aztertzeak harago, gatazka horiek agerian utzi dute ezinbestekoa dela lege-esparrua berrikustea eta legea eraldatzea, baldin eta horrelako liskarrak saihestu nahi badira eta antzeko egoerei erantzun eraikitzailea eman nahi bazaio.

Zentzu horretan, horrelako erronka berriak barne hartuz joan da legeria eta mugimendu feministak sustatutako aldiak ere bere egin ditu, formalki aitortutako berdintasuna eguneroko praktikan benetan gauzatu dadin aldaketa-prozesu sozialak abiatzeko beharraz ohartuta. Hortxe dugu Europako Kontseiluaren 2004/113/EE Zuzentaraua, 2004ko abenduaren 13koa, ondasunak eta zerbitzuak eskuratu eta banatzeko garaian gizonen eta emaku-

meen tratu-berdintasuna aplikatzeari buruzkoa (aisialdiari eta kulturari ere aplika dakiok). Hurrengo urratsa izan da autonomia-erkidegoek eta Estatuak berak Berdintasun Legeak aldarrikatzea eta horien bidez diskriminazio zuzen eta zeharkakoaren definizioa zehaztea, berdintasun-printzipioa garatuz, baita botere publikoek praktika eta ohitura diskriminatzaile eta baztertzailak aldatzeko bultzatu beharreko neurri sorta zabala ezartzea ere.

2005eko otsailaren 18an, EAEn Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak, Estatu osoan era honetako lehenengoa, eta behin betiko finkatu zen, 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriakoa, onartu zenean, arlo honetan mugarrira izan baitzen<sup>7</sup>. EAeko Lege horrek jaiari eta kulturari buruzko zenbait artikuluko espezifikoko xedatu zituen, botere publikoen laguntza behar izan zuten gatazka kasu batzuetan bizi izandako esperientzian oinarrituta –Alardeetan batez ere–. Emakumeek kultura- eta jai-eremuan barne hartzea bultzatu eta babesteko neurri zehatzak jasotzen zituen Legeak<sup>8</sup>. Gaur egun, Lege horren erreforma-proiektua onartze bidean dago, zeinetan are gehiago zehazten baitira herrietako jaien eta kirol-jardueren inguruko hainbat alderdi<sup>9</sup>.

Azken batean, bereziki gatazkatsuak diren kasu puntual batzuk betikotu egiten diren arren, eta emakumeek jaietan parte hartzeko prozesua oztopatu egiten den arren, oro har, jaietan berdintasunaren aldeko lana zabalduta eta sakonduz joan da<sup>10</sup>. Erritual publikoetan rol protagonista berdintasunez betetzeko aldarrikapen espezifikorekin batera, jaietan, horien antolakuntzan eta jaien sustatzaile diren erakundeetako erantzukizun-postuetan kontuan hartzen eskatzen zuten emakumeek, erabaki-postuak ere parekideak izan zitezela aldarrikatuta. Indar handiagoa hartu zuten, baita, emakumeek jaietako kirol- eta musika-jardueretan edota jarduera gastronomikoetan, baita jaien eta, oro har, kulturaren inguruan egiten diren argazki eta irudikapen grafikoetan ere, presentzia eta ikusgaitasun handiagoa izatearen aldeko aldarrikapenek, eta genero-rolak nola irudikatzen eta sinbolizatzen diren hausnartzen hasi zen.

7 «Lege honen nobedade gisa, jokabide diskriminatzaile ororen prebentzioa sustatuko da eta berdintasun-printzipioa gauzatzeko politika aktiboak aurreikusiko dira. Horretarako, ezinbestekoa da berdintasun-printzipioa proiektatzea desberdintasuna sortu edo betikotu dezaketen errealitate sozial, kultural eta artistikoen antolamendu-eremu ezberdinetan». (III. zioaren azalpena)

8 25.1. artikulua zera ezartzen du: *EAeko administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, behar beste neurri hartu behar dituzte, bai sexu-diskriminazio oro saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonek parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izatea Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura-jarduerak guztietan. Debekatu egiten da gune publikoetan emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten kultura-jarduerarik antolatzea eta egitea.* Eta 25.2. artikulua: *Kultura-jardueraren batean –hor sartuta jai kutsukoak, artistikoak, kirolekoak, eta euskararen normalizazioaren arlokoak– sexuagatik diskriminazioa egiten bada, EAeko administrazio publikoek ezin izango diote jarduera horri inolako laguntzarik eman, edo administrazio horien ordezkariak ezin izango dute jarduera horietan administrazioaren ordezkari gisa parte hartu.* Autonomia mailako beste berdintasun-lege batzuek ere garatu dute beren artikuluko sorta propioa kultura-eremuari eta emakumeen parte-hartzeari dagokionez. Esate baterako, 2/2011 Legeak, martxoaren 11koak, Asturiasko Printzerriaren emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeari eta genero indarkeria deuseztatzeari buruzkoak, kultura-eremuari buruzko zenbait erreferentzia jasotzen ditu, eta emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa kulturaren integrazioa proposatzen du 22. artikuluan.

9 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, bigarren aldatzeko Lege Proiektuak, [2020ko urtarilaren 28ko Gobernu Kontseiluak](#) onartutakoak (Eusko Legebiltzarrean izapidetzeko), 25.3. artikulua aldaketa hau jasotzen du: *EAeko administrazio publikoek genero-ikuspegitik memoria historikoa berreskuratzea bultzatu behar dute, eta berdintasunaren aldeko kultura-politikak sustatu, ondareari eta kulturari emakumeek egin dizkieten ekarpenak ikusgarri egiteko eta estereotipo eta aurreiritzi sexistak gainditzen laguntzeko; eta emakumeen presentzia sustatu behar dute, emakumeek ordezkari gisa txikiak izan diren eremuetako erakusketak eta ekizpen artistiko eta kulturetan. Horretarako, beste neurri batzuen artean, laguntza publikoak ezarriko dituzte, edo daudenak egokituko.* Eta 25.6. artikulua aldatu egin da. *EAeko administrazio publikoek kirol-jarduerak estereotipoetan oinarritu gabe hautatzea sustatuko dute, bai eta emakumeen zein gizonen kirol-jarduerak babestea ere, bietako edozein gutxiengoa den modalitateetan. Era berean, handitu egingo dituzte gehienbat emakumeek praktikatzen dituzten kirol-modalitateentzako laguntza publikoak, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko da sariak eta aitopanak ematerakoan.*

10 Horrekin batera, kontuan hartu behar da emakumeek jendartearen izan dituzten rolen eraldaketa: parte-hartze handiagoa lan-merkatuan, tradizioz gizonek egiten zituzten lanbideetan, kargu eta instituzio publikoetan, erabat maskulinizatuta zeuden aisialdi eta kirol-eremuak erakundeetan. Egungo testuingurua egokiagoa da jaiak eraldatzeko, eboluzionatzeko eta emakumeek zein gizonek ezberdin bizitzeko.



## JENDARTEA ALDATU: ONDAREA ERALDATU

# 4.3.

Kultura-ondare immaterialaren kontzeptua nagusitzen ari dela ikusita, eta horrek tradizio diskriminatzaileak betikotzearekin duen lotura kontuan hartuta, kultura-arloan emakumeen parte-hartzea sustatu ahal izateko are beharrezkoagoa da legeak aldatzea (Cagide et al. 2019; Gabeiras Fundazioa, 2020). UNESCOk 2015. urtean argitaratutako txosten batean genero-berdintasuna jorratzeko beharra aitortzen zen kultura-ondareari lotuta, eta gai horren inguruko azterketa sustatzen hasi da. Interes berri horrek (berria, baina handituz doana) ondorioak izan ditu dagoeneko kultura-ondare immateriala babesteari buruzko 10/2015 Legean, maiatzaren 26koan, zeinak berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa aipatzen baitu:

*Kultur adierazpen immaterialak tradizioan sustraitzeak ez du inola ere esan nahi genero-berdintasunaren printzipioa urratzen duten ekimenak babestuko direnik. (3.b artikulua)*

Hala eta guztiz ere, ikuspegi hori gutxi garatzen da oraindik Kultura Ondare Immateriala Babesteko Plan Nazionalan, eta 6/2019 Legeak, maiatzaren 9koak, Euskal Kultura Ondarearenak, emakumeek tradizioz egindako zereginak duintzeko garrantzia soilik jasotzen du arlo horretan, beste ezein alderdi aipatu gabe<sup>11</sup>.

Jaietako fenomenoari lotutako esku-hartze politiko eta legegilea eremu berria da (kultura-ondare immateriala deritzo orain) eta erregulazio berriak zein jaiak eraldatzeko prozesu berriak eragin ditzake; horrek ondorioak izan ditzake, baita, oraindik ebatzi gabe dauden gatazketan, Alardeetan kasu; izan ere, jaiak ondasun komun edo ondare publiko gisa uler daitezzen sustatzen da, horien jabetze pribatu edo partikularra saihestu, eta emakumeen inklusioa sustatze aldera (Cagide et al., 2019; Bullen eta Pérez, 2020).

Ildo horri jarraikiz, 2019. urtean, Espainiako Kultura eta Kirol Ministerioak Kultura-arloko Genero Berdintasunaren Behatokia sortu zuen, emakumeek kulturari (musikan, antzerkian, kirolean edo kultura-ondasun immaterialan) duten rolari buruzko azterketak sustatzeko (kualitatiboak eta kuantitatiboak). Behatokia sortzearekin batera, aitortza ofiziala eman zaio orain arte bazter utzi izan den aztergai eta esku-hartze eremu bati. Hala, Behatokiaren jarduketan-ildoen helburua da emakumeen presentzia sustatzea ondarea babesteko erakundeetan, jaien antolamendu-egituretan eta, oro har, kulturari: artean, museoetan, erantzukizun-postuetan, musika taldeetan, kirolean...

## TOKIAN TOKIKO ETA FORU MAILAKO LEGERIA

# 4.4.

EAEra itzulita, aipatutako legeriaz gainera, emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru mailako arauak ere baditugu; bat Gipuzkoan, [2/2015 Foru Araua](#), martxoaren 9koa, emaku-

<sup>11</sup> Ondareztat aintzatesten da historikoki ikusezinak izan diren talde sozialen beste baliabide, jaraunspen eta jakintza batzuen multzoa, esaterako, emakumezkoena. Legean ondareari buruzko ikuspegi integratzaile bat jasotzen da, imajinario femeninoaren zentzuak eta esanahiak balio kultural gisa berreraikitzeak aukera emango duena eta balioko duena herentzia eta ekarpen femeninoa elementu bereizgarri gisa ikusarazteko eta birbaloratzeko politika publikoen jarduna errazteko. (III. zioaren azalpena)

meen eta gizonen berdintasunerakoa, eta beste bat Bizkaian, 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa. Araban, ordea, sortze-prozesuan dago oraindik. Biek ala biek kultura-arloari egiten diote erreferentzia.

Udalerriek berdintasun-arloko ordenantza propioak garatzeko tresna gisa, EAEko gizon eta emakumeen arteko berdintasun esparruko Ordenantza ere badugu 2012. urtetik, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak, Eudelek, Berdinsareak eta Eusko Jaurlaritzak egindakoa. 53. artikulua jaien ingurukoa da.

*1. Udalak aitortu egiten du udalerrian jaietako espazioak eta denborak zer-nolako balio sinbolikoa duten eta, horrenbestez, jaietan emakumeak diskriminatu ditzaketen alderdiak diagnostikatu, ezagutu eta aitortzeko konpromisoa hartzen du. Halaber, jaietako denbora eta espazioa osatzen duten elementu guztiak zainduko ditu, berdintasun eta zuzentasun irizpideetara zehatz-mehatz egokitu daitezzen.*

*2. Udala arduratuko da jaietako ekintzak eta haien sortzen duten giroa udalerriko pertsona guztientzako gozagarri izan daitezzen, eta sexu, adin, jatorri, hezkuntza-maila, egoera ekonomiko edo sexu-aukeragatik inork ez dezan mugarik eduki festarako esku-bidean eta jaietako ekintzetan parte hartze-koan.*

Orain arte, EAEko hamazazpi udalerrik sortu dituzte beren udal-ordenantza propioak berdintasun-arloan; horrela, udalek zein eskualdeek jaiak joratzeko araudi jakin bat izango dute, berdintasun-planen bidez osatu ahal izango dena<sup>12</sup>.

Horrez gainera, kontuan hartu behar dugu, azkenik, indarkeria matxistaren kontra sortutako lege eta neurriek aplikazio espezifikoak dutela orain jai-eremu eta jai-testuinguruei dagokienez. Autonomia zein estatu mailako legeriatan egindako aurrerapausoek eragin nabarmena izan dute herrietako jaien garapenean, eta hiri, herri zein auzoetan gauzatzen diren esku-hartze ugariak erabat lotuta daude kolektibo feministek eta erakunde instituzionalek hainbat urtetatik hona egin duten lanarekin.

---

12 *Diario Vasco* (2015/11/17) Diecisiete ayuntamientos vascos aprueban una Ordenanza de Igualdad de Mujeres y Hombres.

# 5

## **EAE-KO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK JAIETAN BERDINTASUNAREN ALDE EGINDAKO EKARPENAK**



Erakutsi berri dugunez, jaiiei lotutako interes eta esku-hartzeak ugarituz joan dira pixkanaka. EAEn, zehazki, interes horrek indar handiagoa hartu zuen 1996. urtetik aurrera, Irungo eta Hondarribiko udalerrietan gertatutako gatazken larritasunak eraginda. Hala eta guztiz ere, ez ziren kasu bakarrak izan, Arartekoaren ibilbideak agerian uzten duenez; izan ere, emakumei parte hartzeko aukera ukatzen zitzaizen beste jai- eta kultura-jarduera batzuetan ere esku hartu du<sup>13</sup>. Hori dela eta, hainbat kasu eta egoerek agerian utzi dute berdintasunak jaietan eta kulturaren duen garrantzia, eta, hala, legeari dagokionez, kultura-, jai- eta kirol-arloko berdintasunari buruzko neurriak eta tresnak garatu dira, edo gai horien inguruko diagnostiko eta partaidetza-prozesuak abiatu.

EAEko administrazio publikoak eta berdintasunerako organo eta teknikariek inpaktu garrantzitsua izan dute kulturaren emakumeen parte-hartzea handitzeko aldaketak bultzatu eta sustatzerakoan, bereziki jaiiei dagokionez. Jarraian zehaztu eta garatuta daude ekintza eta esku-hartzeetako batzuk, zeinak lau maila edo eremutatik sustatu baitira (autonomia-erkidegoa, foru-aldundiak, eskualdeak eta udalerrriak). Ikus ditzagun horietako bakoitzaren nondik norakoak, eta elkarren artean duten harreman eta koordinazioa.

## AUTONOMIA- ERKIDEGOEN EREMUAN 5.1.

Jaiiei dagozkien berdintasun-politikak, maila autonomikoan, Eusko Jaurlaritzak bideratu ditu, Legebiltzarraren funtzio legegilearen bitartez eta Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak egindako lanaren bitartez (Presidentetzari atxikitako erakunde autonomoa). Aipatu beharra dago, halaber, gaur egun Emakundez gain, badela berdintasun-unitate espezializatu bat Eusko Jaurlaritzaren sail guztietan; horrela, adibidez, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak zenbait ikerketa-lan egin ahal izan ditu genero-ikuspegian oinarrituta, eta horiek ere aplikagarriak izan daitezke jai-eremuan<sup>14</sup>.

**Emakunde** erreferentziako eragilea da gai honetan, batez ere, EAEko esparru juridikoari eta programazioari dagokionez. Legegintzari lotuta, aurretik aipatu denez, 2005. urtean xedatutako Lege aitzindari batek emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruko agindu sorta bat ezarri zuen, jaietan emakumeek berdintasunez parte hartzea sustatzera bi-

13 Arartekoaren abenduaren 21eko 3/2010 Gomendio Orokorrean, jaietan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoan, irakur daitekeenez, hainbat kasutan esku hartu du erakundeak, Irungo eta Hondarribiko alardeen inguruko gomendiok emateaz gain: Ugaoko indaba-jana (Bizkaia), Donostiako Danborrada, Laudioko Erroke Deunaren Kofradiaren bazkaria (Araba), Sarriako San Antonen Kofradiaren afaria (Araba), Sopolako erakusketa historiko bat (Bizkaia) eta Tolosako elkarte gastronomikoak.

14 Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa kulturaren (2018), Sorkuntzaren eta industriaren ikuspegitik antzerkia, dantza, liburu eta musika-erlano genero-berdintasunaren egoera diagnostikoa EAEn (2019), Eusko Jaurlaritza (2020/03/09)

deratua. Agindu sortan honakoak barne hartzen ziren, besteak beste: espazio publikoetan emakumeen parte-hartzea galarazten duten jaiak antolatu eta egiteko debekua, emakumeak baztertzeko dituzten ekitaldien antolatzaileei laguntza publikorik ez emateko agindua, eta sexuagatik diskriminatzaileak diren jai-jardueretan ordezkari publikoek parte hartzeko ezintasuna. Agindu eta debeku horiek funtsezkoak izan dira instituzio eskudunek neurri pizgarriak eta zehapen-neurriak ezarri eta aplikatzeko orduan (horietako batzuk txosten honetan jasota daude).

Plangintzari dagokionez, berdintasun-arloko esku-hartze publikoko zuzentarau orokorrak ezartzeaz arduratzen da Emakunde, EAE osoan plan zehatzak abian jarriz. Egindako zazpi planen helburu komun eta partekatua izan da, bereziki tokian tokiko erakunde publikoentzat, jaietan emakumeen parte-hartze soziala sustatzea; hala, udal mailako berdintasun-plan ugaritan jaso da alderdi hau, txosten honetan agerian geratu denez.

Udalerrietako jaietan emakumeen parte-hartzea sustatzera bidean, udalei jaietako diagnostikoak eta partaidetza-prozesuak egiteko laguntza ekonomikoa ematea izan da Emakunderen ekimen adierazgarrienetako bat (dirulaguntza programaren bidez).

Emakunderen beste esku-hartze ildo garrantzitsuenetako bat izan da kexak izapidetzeko zerbitzua, zeina *Begira*<sup>15</sup> batzorde aholkulariak (publizitatearen eta komunikazioaren erabilera ez sexista sustatzeko) eta Emakume eta gizonen Berdintasunerako Defentsa erakundeak eskaintzen baitu<sup>16</sup>. Horren bitartez, Emakundek jaso eta kudeatu egiten ditu komunikazio-arloan (kartelak, hizkuntza, irudiak...) berdintasunari lotuta sortzen diren kexak eta erreklamazioak, baita erakunde pribatuaren jardunarekin lotutakoak ere<sup>17</sup>. Kexa horiek agerian uzten dituzte jaietan sortu ohi diren arazoak. Besteak beste, irudi sexistak jasotzen dituzten jaietako egitarau eta eskuliburuen inguruko erreklamazioak egon dira (Urduñan, Leioan...); komunikabideetan jaiei ematen zaien tratamenduaren ingurukoak (trataera berezia, eraso sexisten tratamendua...); bigantzetako sexismoaren ingurukoak (Gasteizen); emakume eta gizonentzat sari desberdinak egotearen ingurukoak (Muskizen, Bilbon...); barraken kontratazioaren ingurukoak... Ukitutako aldeei gomendioak edo eskaerak egiten zaizkie, baina ez dira lotesleak eta, hortaz, erakundearen boterea mugatua da. Egoerak bere horretan jarraituz gero, legezko zehapenak abia daitezkeen aztertzen da.

Bestalde, Irungo eta Hondarribiko Alardeetan emakumeen parte-hartzearen inguruan sortutako gatazkaren aurrean, Emakundek babestu egin ditu bai Irungo Alarde parekidea bai Jaizkibel konpainia, udalerrri bietan bere presentzia bermatuz eta jarduerak finantzatuz. Hala, 2011. urtean, Berdintasunerako Emakunde Saria Irungo Alarde Parekideari eta Hondarribiko Jaizkibel konpainiari eman zitzaizen. Sariaren helburua izan zen 1996tik jaietan emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egindako lana nabarmentzea eta publikoki aitortzea<sup>18</sup>.

---

15 1998an, BEGIRA sortu zen, gaur egun Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea deitzen dena. Batzorde horretan Emakunde da buru, eta kide hauek ditu: Jaurilaritzako Lehendakartzaren ordezkariak, eta kulturaren, hezkuntzaren eta turismoaren arloetan eskudun diren sailak, Euskal Irrati Telebistako ordezkariak, Euskal Herriko Unibertsitatearenak, emakume elkarteak eta kontsumitzaileen elkarteak, eta berdintasunean, publizitatean eta komunikazioan aditu direnak. Azpimarratzekoa da 2016. urtean 50 komunikabide eta publizitate agentzia baino gehiago atxiki zitzaizkiola Begiraren esparruan sortutako komunikazio eta publizitate ez sexistaren aldeko kode deontologikoari. Informazio gehiago jasotzeko, ikusi dokumentu hau: [Zer da Begira?](#)

16 Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/73/EE Zuzentarauaren 8. artikuluan xedatua betez, 4/2005 Legeak organo independente bat sortu zuen, formalki Emakunderi atxikia, sektore pribatuaren tratu-berdintasuna sustatzeko eta herritarrek sexuan oinarritutako diskriminazioetatik babesteko. Estatuan horrelako organo bat sortu zen lehen aldia izan zen. Organo horrek egiteko hauek zituen: kexak izapidetzea, bi-ktimei arreta ematea, ikerketak abiatzea eta txostenak eta gomendioak egitea. Organoaren sorrerarekin, osatu egin zen Arartekoak sektore publikoari dagokionez ordura arte egindako lana. Instituzio honek egin zuen elkarte gastronomikoek EAEko zenbait kultura-eremutan duten inpaktuari buruzko lehendabiziko txostena 2009. urtean. 2012an, aldatu egin zen Berdintasunerako legea, Defentsa Erakundea organikoki eta funtzionalki Emakunderi atxikitako zerbitzu bihurtzeko.

17 Kexak webgunearen bitartez, telefonoz edo sakelako aplikazioaren bidez bidal daitezke. Herritar guztientzat zabalik dago zerbitzua, eta udaletako berdintasun-arloek ere erabiltzen dute.

18 [2011ko Emakunde Saria](#)

Horrekin guztiarekin, Arartekoaren lana ere nabarmendu behar da; izan ere, EAEko udalen jarduketa edota politika publikoren batek emakumeak herrietako jaietatik baztertzea eragiten edo onartzen badu, horien gaineko kexak jasotzen ditu eta egoera zuzentzeko esku hartzen du. Arartekoak Bidasoko Alardeen inguruan esku hartu du, baina baita beste hainbat kasutan ere: Ugao-Miraballeseko indaba-jana (Bizkaia), Donostiako Danborrada, Laudioko Erroke Deuna Kofradiaren bazkaria (Araba), Sarriako Anton Deuna Kofradiaren afaria (Araba), Sopelako erakusketa historiko bat (Bizkaia) eta Tolosako elkarte gastronomikoak, besteak beste. Ordenamendu juridikoan ezarritakoa betez, aipatutako kasu guztietan ebatzi zuen kexen xede ziren jarduketak ezegokiak zirela, eta, ebazpen bidez, administrazio-arduradunei jarduketa horiek aldatzeko gomendatu zien Arartekoak. Ebazpenok urteko txostenetan argitaratu ziren, baita Arartekoaren webgunean ere.

2010eko abenduaren 21ean, hamar urtez baino gehiagoz «etengabe herrietako jaietan emakumeen parte-hartzearen inguruko kexak jaso ondoren (horiek guztiak Euskadiko herrietan sustraitutako tradizioen adierazpide)», erakunde publikoei gomendio orokor bat egitea erabaki zuen Arartekoak; hala, udalek horrelako kasuetan bete beharreko irizpide orokorrak eta jarduketa-ildoak ezarri zituen, «*Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna jaietan*» izeneko dokumentuan<sup>19</sup>. Laburbilduz, emakumeek jaietan parte hartzeko duten eskubidea babestu du Arartekoak, bere eskumenek ahalbidetu dioten neurrian.

Era berean, autonomia-erkidego mailan, erakundearteko beste sare batzuek ere –hiru aldundien eta EAEko udalen babesaz– eragin nabarmena izan dute herrietako jaietarako. **EUDEL** eredu bikaina dugu jaietan berdintasuna sustatzeko lanetan; izan ere, lana koordinatu eta dinamizatzeari gain, EAEko udaletako teknikariak trebatu ditu berdintasun-arloko udal-politiken inguruan<sup>20</sup>. Hori guztia «sareko lanean» oinarrituta dagoenez, 2005. urtean **Berdinsarea** sortu zen, tokiko gobernuek berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra kudeatutako programa eta zerbitzuak sustatu, sendotu, koordinatu eta ebaluatzeko<sup>21</sup>.

Jaietarako eta berdintasunari dagokienez, 2012. urtean hasi zuen ibilbidea, Bizkaiko *Berdinbidean* zerbitzuarekin lankidetzan. Bi urtez baino gehiagoz hainbat bide-laguntza eta prestakuntza jarduerak antolatu ziren parte hartu nahi izan zuten Bizkaiko udalerrietan. Horren guztiaren zehaztasun handiagoak emango dira atal honetan, Bizkaiko Foru Aldundiaren ibilbidea azaltzen den unean.

Edonola ere, Eudelen agendaren parte izan dira beti berdintasun- eta jai-kontuak eta azken urteotan zenbait alkatetzak eta berdintasun-arloko interesa agertu dute jaietan inguruan, jai-eredu parekideak ahalbidetuko dituzten irizpideak txertatu nahi baitituzte beren udalerrietan. 2019ko abenduan, *Berdintruke*<sup>22</sup> proiektuaren testuinguruan, jaietarako buruzko mintegi monografikoa egin zen, non berdintasun-arloko hamalau eragilek aukera izan baitzuten, genero-ikuspegian oinarrituta, gai honen inguruan eztabaidatzeko eta premiak zein lan-ildoak identifikatzeko. Bederatzi udalek hartu zuten parte: Abadiño, Durango, Getxo, Laudio, Leioa, Ortuella, Portugaleta, Sestao eta Urduña; baita hiru kuadrillak eta mankomunitatek ere: Aiaraldeko kuadrilla, Gorbeialdeko kuadrilla eta Txorierriko Mankomunitatea. Bilera hartan, e-

19 Arartekoaren gomendio orokorrak: [Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna jaietan](#).

20 Euskadiko Udalen Elkarteak 1982an sortu zen, udalerrien autonomia defendatu eta beste erakunde batzuen aurrean tokiko interesak ordezkatzeko helburuz.

21 Euskadiko udalen sarea da, berdintasunaren aldekoa eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako; udalerritik txikiak berdintasun politiken inguruko dinamizazio- eta aholkularitza-zerbitzua eskaintzen zaie, Emakunde, hiru foru-aldundi eta Eudel - Euskadiko Udalen Elkartearen eskutik. Gaur-gaurkoz, berdintasunaren aldeko hirurogeita bederatzi udalek osatzen dute Berdinsarea, EAEko herritarren % 79 baino gehiago ordezkatuta.

22 Berdinsarearen esparruan, sarea osatzen duten berdintasun-teknikariak kezkatzen dituen gaietarako eztabaida-gunea da Berdintruke, baita udaletako jardunbide egokiak partekatzeko gunea ere.

torkizunera begirako zenbait ekintza eta kezka identifikatu ziren jaien inguruan (adibidez, barraketan esku hartzea, kontratazio-klausulen bitartez). Bileran gehienbat jaietako indarkeria matxistaren inguruan jardun zuten parte-hartzaileek, hori baita kezkarik handiena; horregatik jarraitzen du udalen lan-ildo nagusietako bat izaten.

Garrantzitsua da azpimarratzea, erakundearteko lankidetzaren bitartez eta, batez ere, Berdinsarearen bidez, indarkeria matxistan eta hura ezabatzeko beharrean ardazten dela udal gehienek jarduna (puntu morea, kanpainak, Beldur Barik programa...). Hala, gaia ikusarazteko, sentsibilizatzeko, prebenitzeko, biktimei arreta emateko eta jaietan espazio seguruagoak sustatzeko antolatu diren plan eta ekintzen helburu nagusia da adin guztietako emakumeek jaietz gozatzea, jazarpen edo indarkeria sexista egoerarik nozitu behar izan gabe. Kezkarriak dira indarkeria matxistaren inguruan jasotako datuak eta jaietan gertatutako eraso mediatikoak –Nagore Laffageren hilketak edo «La Manada» delakoaren talde bortxaketa Iruñean–. Hori ikusita, erasoen kontrako protokolo espezifikoak ezarriz joan dira jaietan, baita jai-eremuetan berriaz ezartzeko prebentzio- eta babes-neurriak ere. EAEn adostasun handia dago matxismoaren eta haren indarkeria-adierazpen guztien kontra borrokatzeko behararen inguruan, eta, ondorioz, jai- eta aisialdi-eremuetan ere esku hartu behar da, zorritzarrez, horietan gertatzen baitira erraztasun handiagoz. Gaur egun, EAEn ez dago sexu-erasoen kontrako kanpaina publikorik, informazio- eta segurtasun-punturik edo telefono morerik martxan jartzen ez duen herriko jairik. Funtsezkoa da bide horretan urratsak egiten jarraitzea, indarkeria matxista errotik kentzeko eta emakumeek jaietan askatasun osoz parte hartu eta gozatzea bermatzeko.

EAEko zenbait udal eta irabazi-asmorik gabeko elkarte biltzen dituen partzuergoa da **Udalbiltza**, Euskal Herrian lankidetzaren instituzionala sendotzea helburu duena. Hautetsien eta EAEko erakundearen lankidetzaren oinarrituta, oraindik garatzeke dagoen aldaketa sozialean oinarritutako jai-eredu baten aldeko lan-ildoak planteatu dute. Eraldaketa soziala sustatzea da kontua, herritarrak jai-eremu herrikoi, parte-hartzaile, euskaldun eta parekide baten erakuntzan inplikatuz<sup>23</sup>. Bidasoko Alardeetan ere bultzatu du berdintasuna erakunde honek.

## FORU-ALDUNDIEN EREMUAN

# 5.2.

EAEko hiru lurralde historikoetako aldundiek, udalerrietako jaietan esku hartzeko eskumenik ez badute ere, rol garrantzitsua izan dute herrietako jaietan genero-ikuspegia txertatzeko eta aldaketak sustatzeko lanetan. Lurraldeetan zenbait esku-hartze abiatu dira: herrietako jaien inguruko ikerketak; berdintasun-teknikarientzako aholkularitza eta prestakuntza jaien inguruan; materialak sortzea; jardunbide egokien hedapena (argitalpenak eta ikus-entzunezkoak); jaietan berdintasuna sustatzeko udal esku-hartzeen finantzaketa...

**Arabako Foru Aldundiak**, Berdintasun eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren eta LAIA Eskolaren bidez, jaietan berdintasuna sustatzeko sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak antolatu ditu 2012 urteaz geroztik hainbat eskualdeko udalerritan eta kuadrillatan (ikusita I. eranskina).

<sup>23</sup> Udalbiltza [Jai eredu eta eraldaketa soziala](#).



**Bizkaiko Foru Aldundiak**, Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Sailaren bitartez, jaietan berdintasuna sustatzeko hainbat sentsibilizazio-, prestakuntza- eta hedapen-jarduera egin ditu. 2012. urtean hasi zuen ibilbidea, EUDELekin, *Berdinbidean* Bizkaia programaren lankidetzaren esparruan eta berdintasun-gaietan espezialista den S&F Consultants enpresaren bide-laguntzarekin. Bost mila biztanle baino gutxiago dituzten Bizkaiko udaletako teknikari eta politikariei bideratutako prestakuntza-tailerrak egin ziren, baita jai-batzordeei zuzendutako tailerrak ere. Era berean, «Jai parekideetarako gakoak» biltzen zituen dokumentu bat sortu eta udalei bidali zitzaion.

2013an, EUDELeko lankidetzaren esparruan, «Trabajando la igualdad en las fiestas / Jaietan berdintasuna lantzen» ildo estrategikoa diseinatu eta bultzatu zen, zeinak tresna ezberdinak biltzen baitzituen:

1. Jai-batzordeetan iritzi-trukea errazteko autodiagnostikoak.
2. Jai parekideak antolatze bidea bultzatuko duten tresnak sortzeko ideia eta ekintzak biltzen dituen gidaliburua.
3. Jai parekideak antolatzea errazteko tresnak.

2014. urtean, «Jaietan berdintasuna lantzen» programa finkatu zen ildo tematiko gisa, eta ekintza pilotuak antolatu ziren, hala nola partaidetza-prozesuak erraztera bideratutako lan-saioak, udalerrri jakin batzuetan esku-hartze proposamenak diseinatzeko.

2016 eta 2017. urteetan Jai Parekideen Gidaliburua sortu eta hedatu zen, eta harekin lan egin zen Berdinbidea Bizkaia programara bildutako zenbait udaletan. Zortzi udaletako teknikariek parte hartu zuten: Iurreta, Gorniz, Berriz, Munitibar, Aulesti, Gizaburuaga, Amoroto eta Mendexa.

2018an, Bizkaiko Foru Aldundiak *online* prestakuntza bi antolatu zituen, «La incorporación de la perspectiva de género en las fiestas de nuestro municipio» izenburupean. Prestakuntzaren helburuak honako hauek ziren: a) herrietako jaietan gertatzen eta erreproduzitzen diren desberdintasunak ikusaraztea; b) jaietan indarkeria matxistaren adierazpen ezberdinak detektatzea; c) jaiak berdintasunean diseinatu eta programatzeko tresna praktikoak eskuratzea; d) beste udal batzuen jardunbide egokiak ezagutzea. Aurten bertan Berrizen garatutako prozesuari buruzko bideo bat egin eta zabaldu zen, jardunbide egokia zelako. Lan-ildo hori (komunikazioa eta hedapena) funtsezkotzat jotzen du erakunde honek, eta bideo dezente sortu ditu berdintasuna eta jaiak gaiei lotuta.

**Gipuzkoako Foru Aldundia**, Berdintasun Zuzendaritzaren bitartez, aitzindaria izan da jaietan genero-ikuspegian oinarrituta egin beharreko esku-hartzeetan, besteak beste, Irungo eta Hondarribiko Alardeetako gatazkari lotuta<sup>24</sup>. 2009. urtean, diagnostikoa egin zuen eta bertan aztertu zituen Gipuzkoako hainbat udalerritako jaiak, horien antolaketa ezagutu eta ospakizunean emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak eragin zitzaketen faktoreak identifikatze aldera. [Gipuzkoako lurralde historikoko jai buruzko azterketa, generoaren ikuspegitik](#) (2010) izan zen EAEn, lurralde historiko mailan, genero-ikuspegian oinarrituta jai buruz egindako lehendabiziko diagnostikoa.

Hurrengo legegintzaldian, 2011 eta 2015 urteen bitartean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berdintasun Zuzendaritzak –egindako diagnostikoa kontuan hartuta– zenbait ekimen martxan

---

24 2008. urtean Berdintasun Politikei buruzko Batzordea sortu zen, Gipuzkoako Batzar Nagusietako alderdi guztien ordezkari bilguta, eta Alardeen gatazkari heltzeko beharra planteatu zen.

jarri zituen, jaiak oro har parekideagoak izan zitezten egin beharreko eraldaketa erdigunean jarrita. Horietako bi nabarmenduko ditugu:

- a) Jaiak antolatzen dituzten erakundeek berdintasunera bidean egindako eraldaketa. Udal bat aukeratu zen, Tolosa, kasu honetan (ikus aurrerago ekimen honen zehaztasuna), eta elkarte gastronomikoekin lan egiteko prozesua sustatu zen, haiek arduratzen baitira herriko jaietako ekitaldi nagusiak antolatu eta ospatzeaz. Helburua zen emakumeek bazkide gisa gehiago parte har zezaten bultzatzea.
- b) Alardeen gatazka ebazteko aholkularitza eta bide-laguntza Irunen eta Hondarribian. Erakundearteko mahaia sortu zen, eta erakundeko Berdintasun Zuzendaritzaz gainera, bertan bildu ziren Emakunde, Arartekoa eta Jenny Pearce politologoa eta bakearen antropologoa, kanpo-aditu gisa<sup>25</sup>. Pearcek baloratu egin du Aldundiak –alderdi politikoak alde batera– erakundeen inplikazioaz baliatuta abiatutako lana. Haren aburuz, instituzioarteko mahaia entzuteko espazioa da, alderdikeria edo ideologiengainetik beste pentsamolde batzuetara –ikuspegi feminista barne– zabaltzeko gunea. Aldaketa sustatzen duten pertsonen zein tradizioak aldatzearen kontrako sektoreen posturak ulertzeko beharretik sortu zen.

2018an, azkenik, prestakuntza eta hausnarketa jardunaldiak egin ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiak udal politiketan berdintasuna sustatzeko abiatutako programen esparruan. Horien helburua izan zen herrietako jaien funtzio sozialaren inguruan hausnartzea, jaien erai-kuntza soziala aztertzea eta jaiak lanaren sexu-banaketan, genero rol eta estereotipoetan eta emakumeen parte-hartzean zer-nolako eragina duten aztertzea. Jardunaldian parte hartu zuten, batetik, Berdinbidean programan parte hartzen duten udaletako arduradun politiko eta teknikoei, eta, bestetik, berdintasun-arloko teknikariek (Berdintasun-arloa duten udale-takoak) eta kultura/jai-arloetako teknikariek. Parte hartu zuten udalerrri batzuetako jai-batzor-deetako kideek ere parte hartu zuten.

## ESKUALDEEN ETA UDALEN EREMUAN<sup>26</sup>

# 5.3.

EAEko hiru lurraldeetako eskualde eta udalerrietan, hauek izan dira berdintasun-arloan gauzatu diren esku-hartze adierazgarrienak: berdintasun-planetan eta ordenantzetan aldaketa diseinatzeko eta instituzionalizatzeko hitzarmenak eta erreferentziak; jaien inguruko diagnostikoak eta partaidetza-prozesuak; eta erakundeetako teknikariei zein herritar guztiei zuzendutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak. Era berean, agerikoa denez, berdintasun-arloko legeria beteko dela bermatzeko neurriak ere abiatu dira, besteak beste, emakumeak diskriminatzen dituzten erakundeei dirulaguntzak eta ofizialtasuna kentzeko neurriak.

Udalek, beren kabuz edo eskualdearen bitartez, berdintasun-plana eduki behar dute ezinbestean eta, ondorioz, diagnostikoak eta esku-hartze planak ezarriz joan dira kultura- eta

25 Farapi aholkularitza-enpresa arduratzen zen idazkaritza teknikoaz, eta Jenny Pearce laguntzen zuen landa-lanean. Aurrez aurreko lanak ere egiten zituen, hark hasitako prozesuari eusteko. Pearce elkarriketatu genuen 2019ko abenduaren 10ean baliabide telematikoen bidez. Elkarriketa horren zehaztasun gehiago emango ditugu bitartekaritza estrategiei buruzko atalean.

26 Beren kabuz eskaini ezin izango lituzketen zerbitzuak eskaini ahal izateko, EAEko udalerriak eskualdeka elkartzeko Bizkaian eta Gipuzkoan, eta kuadrillaka Araban. Udalaz gairik kudeaketa-formula bat da, zeinak, jaien eta emakumeen parte-hartzearen arloan, bestela ezinezko izango liritekeen prestakuntza-jarduerak eta diagnostikoak egiteko aukera ahalbidetu baitu, eskualde bereko udalerriak koordinatuta.

jai-arloan<sup>27</sup>. Berriz, Laudio eta Tolosako kasuetan ikusiko dugunez, estrategikoa da **Berdintasun Planetan** jaietako dagozkien alderdiak barne hartzea, lehentasunezkoa baita horiek lantzea. Horrela, helburu hori lortzera bidean lan egiteko idatzizko konpromisoa hartu dute dagoeneko, eta gaia jorratzeko udal-gida ere sortu da, zeina, oro har, diagnostiko-edo partaidetza-prozesu bat abiatzeko baliatzen baita, adierazitako alderdietan ondorioak sortze aldera. Hala eta guztiz ere, batzuetan, jaien alderdi gatazkatsu batzuen inguruan adostasunik ez lortzeak zaildu egin dezake neurri espezifikoak udaletako berdintasun-planetan txertatzeko bidea.

Gai horiek udaletako dokumentu ofizialetan txertatzeari dagokionez, badago –aurretik adierazi dugunez– jaietan berdintasuna sustatzeari buruzko agindu juridikoak ezartzeko aukerarik, **emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-arloko Ordenantzen bitartez**. Tolosan onartu zen, 2008. urtean, Estatu osoko mota horretako lehendabiziko ordenantza, eta han egindako lan aitzindariari jarraikiz, *EAEko gizon eta emakumeen arteko Berdintasun esparruko Ordenantza* argitaratu zen 2012an<sup>28</sup>.

Plan eta ordenantzek jaietan esku hartzen laguntzen badute ere, hainbat eskualde eta udalerritan urrats espezifikoagoak eman nahi izan dituzte eta, berdintasun-sail edo -zerbitzuen bitartez, aholkularitza-erakunde espezializatu bati eskatu diote **herriko jaietako buruzko diagnostikoa genero-ikuspegiari oinarrituta egiteko**. Ekimena 2004. urtean hasi zen, orduan abiatu baitzituzten zenbait erakunde publikok ikerketak eta diagnostikoak, jaiak edo/eta jaien antolakuntzan adierazgarriak ziren erakundeak erdigunean jarrita.<sup>29</sup> Era berean, erakunde feminista batzuek ere jarri zituzten jaiak udal-politikaren erdigunean<sup>30</sup>.

Testuinguru horretan, aurretik aipatu denez, Tolosa izan zen jaietan esku hartzen hasi zen lehenengo udala; hala, 2009. urtean jaiak berdintasun-espazio izan zitezkeen lanean hasi zen, aurrerapausoak egiten, ikusita jai asko genero-ikuspegiari gabeko erakundeek antolatzen zituztela eta, sarritan, emakumeak onartu ere ez zituztela egiten. Ondoren, bereziki 2014. urteaz geroztik, beren jaietan diagnostikoa egiteko beharraz ohartu ziren beste hainbat udal ere, emakumeek arlo honetan bizi zituzten desberdintasunak ulertzen laguntzeko. Orain arte, guztira, horrelako esku-hartzeak ezarri dituzten berrogei erakunde identifikatu ditugu EAEn (zazpi eskualde eta hogeita hamahiru udalerriri)<sup>31</sup>. Nabarmentzekoa da erdiak baino gehiago (bi eskualde eta hogeita udalerriri) Gipuzkoakoak direla, hamar Bizkaikoak (bi eskualde eta zortzi udalerriri) eta zortzi Arabakoak (hiru kuadrilla eta bost udalerriri).

Identifikatutako lekuetan, udal-teknikariak berdintasunean adituak diren erakundeekin batera aritu dira, eta arlo honetan aldaketa sustatzeko metodologia eta ikerketa zein parte-hartze teknika ezberdinak garatu dituzte<sup>32</sup>. Kultura- eta jai-arloko diagnostiko espezifikoak egiteko orduan partaidetza-prozesuak abiatu ohi dira eta horien lehendabiziko urratsa, gaiaren sarre-

---

27 Udaletako berdintasun-planak egiteko oinarria dira EAEko 2005eko Berdintasun Legea, Emakunderen berdintasun-planak eta udalerritari dagokion lurraldeko foru-aldundiaren berdintasun-plana. Horietan guztietan, kultura- eta jai-arloko esku-hartzea sustatzen da.

28 Eusko Jaurlaritzarekin, Emakunderekin, Eudelekin eta Berdintasunarekin lankidetzan egindako lana da, edozein udalerririk bere errealitateara egokitu dezakeena. *Diario Vasco* (2015/11/17) [Diecisiete ayuntamientos vascos aprueban una Ordenanza de Igualdad de Mujeres y Hombr](#).

29 2003. urtean, Margaret Bullen eta José Antonio Egidoren *Tristes espectáculos: las mujeres y los Alardes de Irun y Hondarribia* lana argitaratu zen (UPV/EHU-Emakunde); 2009an, *Análisis de las fiestas del territorio histórico de Gipuzkoa desde una perspectiva de género* ikerketa (Farapi-Gipuzkoako Foru Aldundia), zeinak Gipuzkoako hainbat udalerritako jaien ospakizun eta antolamenduari buruzko diagnostikoa aurkeztu baitu; eta 2010. urtean *La Relevancia e Impacto Social de las Sociedades Gastronómicas* aparteko txostena (Farapi, Eusko Jaurlaritza).

30 Euskal Herriko Bilgune feminista, adibidez, zenbait udalerritako jai-batzordeekin elkartzen hasi zen 2003. urtetik aurrera, eta 2014an *Festa dezagun gaurdanik geroa* dokumentala argitaratu zuen. *Naiz* (2017/06/29) [Bilgune Feminista pide «repensar las fiestas» para que «todas disfrutemos»](#).

31 Ikusi I. eranskina: *Erakunde espezializatuen eskutik jaietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko ekimenak abian jarri dituzten udalen zerrenda*.

32 AZ Participación, Elhuyar, Emagin, Farapi, Murgibe, Sortzen eta S&F Consultants erakundeak identifikatu ditugu EAEn jaien inguruan genero-ikuspegiari oinarritutako proiektuak egin dituzten artean.

ra egiteko, **sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak** antolatzea izan ohi da. Jarduerok udaleko teknikariei, herritarrei edota biei bideratu daitezke. Jarduera horien bitartez, jaien inguruko hausnarketa, behaketa eta azterketarako tresnak eskaintzen dira. Metodologia hori eraginkorra da diagnostikoaren emaitzak ulertzeko eta jaietan berdintasuna ebaluatze-ko irizpide jakin batzuk adosteko. **Diagnostikoaren** bitartez –edozein metodologia erabilia ere–, jaiak parekideagoak izateko hobetu beharreko alderdiak identifikatzen dira, eta hori beti izaten da lehen urratsa, aldaketarik egiteko aukera aztertu nahi bada.

Partaidetza-tekniken bitartez –berriz ere– jai parekideak lortzeko bidean aurrera egiteko, **plan edo ekintza sorta** adostea da hurrengo urratsa, baina ez dute udal guztiek betetzen. Urrats hori emateko, jaietako jarduerak eta diagnostikoan identifikatu diren alderdiak eraldatu behar dira, edota genero-ikuspegian oinarrituta jai-egitarau berriak diseinatu.

Azken batean, udal-erakundeek dute eskumena kultura-gaietan eta, ondorioz, herriko jaiak parekideak izateko jarraibide jakin batzuk markatzeko erantzukizuna ere badute. Zentzu horretan, ikusi berri dugunez, udalerri askotan udalek sentsibilizazio, prestakuntza, hausnarketa, ikerketa eta esku-hartzea ahalbidetzeko jarduerak antolatu dituzte, oro har, gatazkak saihestu edo kudeatzeko asmoz, eta, batzuetan, jaiak eraldatzeko lehendabiziko urratsak sustatzeko helburuz. Ekimen horiek autonomia-erkidego, foru-aldundi edo eskualde mailako beste erakunde edo organo batzuekin batera finantzatzen dira, eta, sarritan, berdintasunean eta kultura-arloan adituak diren talde edo aholkularitza-enpreekin batera garatzen dira, zeinak gero eta adierazgarriagoak baitira emakumeen eta gizonen berdintasun-kuota handiagoak lortzeko lanetan.

Datozen ataletan ikusiko dugunez, jaietan berdintasuna bermatzeko ematen diren urratsek bide luzea zabaltzen dute (sustatzailea edozein dela ere: pertsonak, kolektiboak, erakunde publikoak...), eta, leku eta une jakin batzuetan gatazkatsuak izan badaitezke ere, pixkanaka, lan kolektiboaren bidez, aurrera egiteko askotariko bideak lortu dira. Jendarteak aurrera egin du berdintasun-gaietan; horrela, aitortza formaletik aitortza errealerako urratsa sustatzen duten neurriak garatu dira eta, ondorioz, ohituretan eta eguneroko bizitzan eragitea lortu da. Herrietako jaietako dagokienez, oraindik indarrean dauden gatazkek agerian uzten dute aldaketa saihetsezina dela eta, hortaz, ezinbestekoa dela botere publikoek prozesua babestu eta bultzatzea; izan ere, txosten honetan jaso diren kasu eredugarrietan islatu den legez, aldaketa gauzatzeko behar-beharrezkoak dira elkarrizketa, adostasuna eta sormena. Udalek, hautatutako prozesu inspiratzaileetan (hurrengo atalean azalduko dira) zein beste hainbestetan, esperientzia ezberdinak bizi izan dituzte; hala, baliabideak eta metodologiak sortu dira, arlo honetan urratsik eman ez duten beste udal batzuentzat baliagarri izan daitezkeenak.

# 6

## **ALDAKETA-PROZESU INSPIRATZAILEAK ARABAN, BIZKAIAN ETA GIPUZKOAN**



Atal honetan, EAEko zenbait herritan abiatu diren eraldaketa-prozesuak aztertuko dira genero-ikuspegia oinarri hartuta; hau da, emakumeek jaietan berdintasunez parte hartzeko eta gozatzeko aukera izango dutela bermatzeko eraldaketa-prozesuak aztertuko dira (jaietako ekitaldi nagusietan, jai-egitarauan programatutako jardueretan eta jaiak antolatzeaz zein dinamizatzeaz arduratzen diren erakundeetan).

Lurralde bakoitzeko hiru kasu hautatu dira, bat hiriburuan eta bi beste udalerrri batzuetan. Kasu guztiak, eredu positibo eta inspiratzaileak izaki, baliagarri izan daitezke edozein erakunde publiko edo pribaturentzat, teknikarientzat edo jaien eremuan lan egiten duten pertsonentzat, baldin eta EAEko jaietan egiazko berdintasunera bidean aurrera egiten jarraitu nahi bada eta beste udalerrri batzuetan prozesu berriak abia daitezen sustatu nahi bada.

## ARABA

# 6.1.

### GASTEIZKO ANDRE MARIA ZURIAREN JAIK<sup>33</sup>

## 6.1.1.

Blusen eta Nesken Eguna kuadrillek sustatu eta antolatzen dute 1945. urtetik. 1967. urtean finkatu zen ospakizuna uztailaren 25ean, **Andre Maria Zuriaren omenezko jaien** atariko gisa, jaiak egun batzuk beranduago hasten baitira, abuztuaren 4an (Valle eta Sáenz de Ugarte, 1996). Blusak eta Neskak dira protagonistak –jantzi tradizionala soinean duten sei mila pertsona baino gehiago<sup>34</sup>–. Hiriko kuadrilletan biltzen dira, eta meza eta ekitaldia eginez hasten dute eguna, zendutako pertsonen –blusen eta nesken– oroimenez. Ondoren, kaleak girotuz ematen dute eguna, txarangen eta askotariko jardueren bitartez (herri-kirolak, lasterketak eta kalejirak).

33 Kasu honetan erraz ikus daiteke emakumeek kuadrilletan, Gasteizko Andre Maria Zuriaren jaien antolaketa eta ospakizunetan inplikaturako erakundeetan izan duten presentzia eta parte-hartzearen bilakaera. Vitoria-Gasteizko Udalaren Berdintasun Zerbitzuko ikertzaileek eta Vitoria-Gasteizko Blusen eta Nesken Batzordeak egindako elkarrizketen bitartez bildu da informazioa; baita batzordeak berak aurkeztutako liburu eta dokumentuetatik eta bestelako baliabide hauetako artikuluetatik ere: *El Correo de Alava*, *El Diario.es*, *Gasteizhoy*, *NorteExpres* eta *Noticias de Araba* egunkariak, eta *Vitoria-Gasteizko Udalaren* zein *Blusen eta Nesken Batzordearen* webguneak.

34 Duela zenbait hamarkada emakume eta gizonek baserrian lan egiteko erabiltzen zituzten jantziak irudikatzen dira. Nesken jantziak honako hauek ditu: blusa, azpikogona, pololoak, gona, galtzerdiak, abarkak, amantala eta zapiak; eta Blusen jantziak honako hauek: alkandora zuria, blusa, praka, gerrikoa, galtzerdi lodiak, abarkak, zapiak eta txapela. *NorteExpres* (2019/07/25) ¡Salta, blusa, neska!... ¡Cómo fue su origen!.

Andre Maria Zuriaren ospakizunak aspaldikoak dira, 1181. urtean hiria sortu zenekoak; baina 1953. urtean ezarri zuen Udalbatzak gaur egun ezagutzen dugun jai-egutegia<sup>35</sup>. 50eko hamarkadaren aurretik, kuadrillek beren jarduera-agenda propioa zuten, beraiek antolatu eta finantzatu. Urte batzuk beranduago, 1957. urtean, *Los Tímidos* kuadrillako bederatzi blusak Zeledon pertsonaia asmatu zuten. Zeledonek, blusa soinean eta euritakoa eskutan, baserritar bat irudikatzen du, eta jaietako sinbolo bilakatu da hiri osoarentzat; izan ere, berak ireki eta ixten ditu Andre Maria Zuriaren jaiak, hasieran zerutik jaitsi eta amaieran bertara itzultzen baita<sup>36</sup>. Hain inplikazio handia zuten kuadrillek jaiak antolatu eta garatzeko lanetan, non, 1984an, jai-jarduerak diruz laguntzen hasi baitzen Udala. 2017. urtera arte dirulaguntzak Blusen eta Nesken Batzordearekiko hitzarmen bidez izapidetzen ziren, ordura arte hura baitzen kuadrillak biltzen zituen erakunde bakarra.

## Emakumeen presentzia eta parte-hartzea

Hasieran, gizonek soilik osatzen zituzten kuadrillak –1925. urtekoa da lehendabizikoa<sup>37</sup> (Valle eta Sáenz de Ugarte, 1996)–, eta egun indarrean dirauten kuadrilla zaharrenetako gehienak 50eko hamarkadan sortu ziren, tabernetan elkartzen ziren lagun taldeen eskutik (Prieto, 2018)<sup>38</sup>. Horietako askok taberna edo upategi bat zuten egoitza gisa. Emakumeek ez zuten horietan parte hartzen, diktadura frankista indarrean zegoela rol erabat mugatua zutelako aisialdiari zegokionez, eta ez zuten txikiteo edo poteoetan aktiboki parte hartzen. Hala eta guztiz ere, 1942. urtean kuadrilla batean hamalau emakume parte hartu zuten lehendabizikoz<sup>39</sup> eta hainbat kuadrillatan emakumeak tarteka irteten ziren urte haietan, kalejiretan senar, mutil-lagun edo lagunei laguntzen. Antolakuntza-lanetan ere laguntzen zuten, baina, oro har, ez zuten kuadrillen ohiko bazkari, afari edo bestelako jardueretan parte hartzen. Horrela jarraitu zuen 1978ra arte, urte hartan sortu baitziren *Galtzagorri* eta *Flatorrak* (dagoeneko desagertua) kuadrillak, emakumeak bazkide zituztela. Urtebete geroago, 1979an, emakume kuadrilla bat sortu zen –*Lamiak*–, baina ez zuen askorik iraun, urte batzuk beranduago desagertu baitzen<sup>40</sup>. Saiakera haren ondoren, emakumeek soilik sortutako beste bi kuadrilla izan ziren: *Neska Ausartiak* 1990. urtean eta *Piztiak* 1998an. Horiek ere ez zuten luze iraun<sup>41</sup>. Mende aldaketarekin batera, sortuz joan diren kuadrilla guztiak mistoak izan dira hasiera-hasieratik.

35 Vitoria-Gasteizko Udala: [Andre Maria Zuriaren jaiak - Historia, tradizioa eta Zeledonen abestia](#).

36 Andre Maria Zuriaren Plazara iristen da, San Miguel Elizaren dorretik esekitako kable baten bitartez; balkoira heldutakoan, pertsona bilakatzeko da eta plaza berriro zeharkatzen du oinez, jendetzaren artean Elizako balkoira iristeko. Bertan, hitzaldia eskaintzen du eta Andre Maria Zuriaren jaiak inaguratzeko ditu.

37 *El Correo* (2015/08/04) [Las primeras cuadrillas de blusas y sus nombres](#).

38 [Blusas y Neskas de Vitoria-Gasteiz: una mirada antropológica](#).

39 Vitoria-Gasteizko Udalak, Blusen eta Nesken Batzordearen laguntzaz, 1942. urteko Andre Maria Zuriaren jaietako buruz egindako txostenaren arabera, bazen 14 emakumez osatutako kuadrilla bat, *Alegre* izenekoa, hainbat jardueratan parte hartu zuena. Dokumentu berean jasota daude kuadrilla haren aurkezpenari zegokion errimak: «Somos 14 de cuadrilla / 14 con alpargatas / y no le tenemos miedo / a esos tipos de corbata...»

40 Lamiak kuadrilla «Andre Maria Zuriaren jaietako lehendabiziko emakume-kuadrilla izan zen, mistoak alde batera utzita». 40 Neskak parte hartzen zuten eta Kiroak Taberna zuten egoitza, bertan elkartzen ziren eta bazkaltzen zuten (Valle eta Sáenz de Ugarte, 1996). Urte hartan, Lamiak kuadrillak ez zuten pankartarik atera, baina jaiak erdigunetik harago eramaten saiatu zen, Abetxuko edo Zaramagara iritsita. Natxo Gatónek ere, *Gasteiz Hoy* egunkariko kazetariak, *Lamiak* kuadrillari buruzko hainbat datu jaso zituen [Las neskak también animan la fiesta](#) artikuluan (2014/11/18), eta *El Norte Express* egunkarian ere agertu ziren (1979/08/07), argazki bat eta adierazpen hau aldamenean: «Guk bai, ikusi egin ditugu 'sorgin onak', Lamiak emakume kuadrilla. Eta beti ikusi izan ditugu dotore eta fin; hori da egia. Atzo korro polita osatu zuten Loma Jeneralaren plazan. Guztiak miresten zituzten. Pitin bat ere ez dira pasa; beraz, esan dezatela gero zerbait» Neskak jaietan parte hartzeari buruz urte haietan izan ziren eztabaida eta iritzi ezberdinak ere jasotzen dira.

41 *Neska Ausartiak* kuadrillak, zeina 1990 eta 1991. urteetan irten baitzen, Gasteizko emakumeen babes faltaren ondorioz desagertu zen. Asto lasterketan parte hartu zuten lehendabiziko emakumeak izan ziren kuadrilla hartako kideak. *Piztiak* 2001. urteko jaien ondoren desagertu zen (Valle eta Sáenz de Ugarte, 1996).



Jaietan emakumeen parte-hartzea handitzera bidean egindako aurrerapausoak, oro har, la-sai eta gatazkarik gabe egin izan dira, nahiz eta kuadrilla batzuk horiek onartzeko uzkur-izen. Egoera hobeto irudika daiteke Blusen eta Nesken Batzordearen ibilbideari erreparatuta. Blusen Batzordea 1955. urtean sortu zen, Neskei inolako aipurik egin gabe. 1998. urtean bozketa egin zen eta Blusen eta Nesken Batzorde izena hartzea erabaki zen, bi kuadrillaren kontrako botoa eta abstentzioa jasota. 2000. urtean, Batzordeak beste urrats bat egin zuen guztien eta, bereziki, emakumeen parte-hartzea bermatzeko, eta estatutuak aldatzeko artiku-lu berri bat txertatu zuen, sexuan oinarritutako diskriminaziorik ezari erreferentzia egiten ziona<sup>42</sup>. Une hartan ez zen aldaketak eragindako ondorioen jarraipenik egin eta, ondorioz, ezin dugu jakin zenbat elkartek aldatu zituzten beren estatutuak eta zenbatek hartu zituzten neurriak printzipio hori betetzeko. Egia esan, kuadrilla batzuk mistoak ziren ordurako, beste batzuek berehala onartu eta ezarri zituzten neurri horiek, eta beste batzuek kontsultak egin ondoren erabaki zuten aldaketa ezartzea. Edonola ere, beste batzuek urteak behar izan zituzten emakumeak baldintza berdinetan onartzeko. Kide berririk onartzen ari ez zirela ar-gudiatzen zuten azken horiek; beste batzuek parte-hartzea mugatu zuten eta antzinatasun handieneko kideei soilik aitortu zieten boto-eskubidea. Gaur-gaurkoz, 2020. urtean, Batzor-dea osatzen duten hemezortzi kuadrillek aldatu egin dute beren osaera eta ez dago emaku-me edo neskarik ez duenik, nahiz eta proportzioa oso ezberdina den kuadrillaren arabera<sup>43</sup>. Guztiak dira parekideak izatearen aldekoak.

Jaietan emakumeen parte-hartzeari buruzko beste datu adierazgarri bat da honako hau: azken bi hamarkadetan, Batzordeko eta elkarte edo kuadrilletako zuzendaritza batzordee-tan karguak hartu dituzte emakumeek. 2006. urtean, Blusen eta Nesken Batzordeak hiru emakume izendatu zituen lehendabizikoz presidente, presidenteorde eta idazkari. Hurrengo urtean, 2007an, presidenteordea diruzain izatera pasa zen eta hiru emakume horiek jarraitu zuten postuetan beste lau urtez, harik eta 2010. urtean presidentea beste emakume batek ordeztu zuen arte (urtebete soilik eman zuen karguan). Ordutik Batzordean ez da emaku-merik egon 2017. urtera arte, orduan sartu baitzen emakume bat batzordeko kide gisa eta karguari eutsi zion 2019ra arte; gaur egun presidenteordea da. 2020. urtean, gainera, beste emakume bat sartu zen Batzordean kide gisa, eta Batzordean zein elkarte edo kuadrilletako batzarretan karguak betetzen dituzten emakumeen kopurua handituz joan da, horietan guz-tietan emakumeak egotea bermatuz<sup>44</sup>.

## Gatazka eta ebazpena

Kuadrilla batzuek erakunde misto izateko duten errezeloa jaietan ere islatu da, bereziki Andre Maria Zuriaren jaietan, kuadrillek baitute protagonismo handiena. Jarraian azalduko dugu zein urrats egin diren azken urteotan kuadrillak emakumeen parte-hartzera irekitzeko eta, ondorioz, antolatzen diren jardueretan emakumeen parte-hartzea handiagoa izateko (aurkezpenetan, kalejiretan, edo upel-lasterketetan).

---

42 Blusen eta Nesken Batzordearen Estatutuen V. artikulua aldatu egin zen: «Blusen eta Nesken elkartea behin betiko sortu da, eta ezohiko batzar orokorrak hala erabakitzen badu soilik desegingo da (...). Izaera demokratikoa du, parekidea eta diskriminaziorik gabekoa. Zentzu horretan, ez dira onargarriak erlijio, sinesmen, etnia, arraza, sexu edo sexu-orientazioak eragindako jokabide edo diskriminazioak, ezta ezintasunak edo/eta beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialek eragindakoak ere».

43 2019ko azken datuek agerian uzten dute 5.787 bazkide daudela Blusen eta Nesken Batzordea osatzen duten kuadrilletan (1.845 emakume eta 3.942 gizon). Batz bestea, ia % 32 emakumeak dira, baina badira ehuneko horretara iristen ez diren kuadrillak. (Blusen eta Nesken Batzordeari egindako elkarrizketa)

44 Guztira, 178 pertsonak dituzte karguak kuadrilletan: 57 emakumeak dira eta 121 gizonak, hortaz, emakumeak dira batzordekideen % 32. (Blusen eta Nesken Batzordeari egindako elkarrizketa)

2015. urtean, mugimendu feministak eraso matxisten kasuetarako egindako esku-hartze protokoloarekiko atxikipena adierazi zuen Blusen eta Nesken Batzordeak. Baina gatazka sortu zen, kuadrillen arteko adostasun eta batasun eza agerian geratu baitzen aurkezpen-paseoan. Hiriko mugimendu feministak errieta egin zion gizonezkoek soilik osatutako kuadrilla bati (Jatorrak), eta gizonek soilik edo ia erabat osatutako kuadrillei parte hartzeko baimenik ez emateko eskatu zion Udalari. Horrek tentsioak eragin zituen Blusen eta Nesken Batzordean, eta hurrengo eguneko pasiera bertan behera uztea erabaki zuten, eta manifestazioa egin zuten, talde feministak blusen eta nesken kolektiboari eraso egin ziolakoan. Une haietan, kuadrilletako batzordeetako kide ziren hainbat emakume gaztek (neskak), gertatutakoaren aurrean ondo jardun ez zela iritzita, Batzordean parte-hartze aktiboagoa izatea erabaki zuten, bi helburu lortzeko asmoz: batetik, genero-indarkeria egoeren aurrean protokolo propioa edukitzeak duen garrantzia azpimarratu nahi zuten, premiazko erabakiak irizpide finko batean oinarrituta hartu ahal izateko; eta, bestetik berdintasun- eta genero-indarkeria gaietan sentsibilizatu eta trebatu nahi zituzten kuadrillak. Batzordean onartu egin ziren haien proposamenak.

Emakume gazte haiek biak<sup>45</sup> beste proposamen batzuk ere egiten hasiak ziren eta uste izan zuten kuadrillen zein batzordearen irudia nahikoa lausoa zela; izan ere, aurretik ere kuadrilletako hainbat «*babosoren*» jokabide ezegokiak identifikatu ziren eta orain, gainera, mugimendu feministaren kontrako epaiketa bat zuten, inoiz imajinatuko ez zuketena. Horregatik, batzordearen barruan, gai hori jorrazteko talde bat sortzeko prozesua bultzatu zuten. Hasiera batean zazpi pertsonak osatzen zuten taldea, Batzordean ikuspegi feminista defendatzen zuten zenbait gizon gazte tartean. Askok kostatu zitzaion taldeari transmititzea feminismoak ez zituela «jaiak zapuztu nahi, ordura arte ezagutzen zituzten jaiak desitxuratu nahi». Urte hartan ez zuten protokoloa egiterik lortu, baina batzordearen eta kuadrillen errespetua lortu zuten, berdintasun-taldearen iritzia kontuan hartzen hasi baitziren. Logo morea diseinatu zuten, eta kuadrillen pankartetan jartzeko beharra ezarri zuten, jaietan berdintasunaren aldeko jarrera agerian uzteko<sup>46</sup>. Udaleko Berdintasun Zerbitzuarekiko harremana ere abiatu zuten, eta zerbitzuak hainbat prestakuntza-saio antolatu zituen kuadrilletako batzordeekin.

Hurrengo urtean, 2016ko jaietan, eraso sexista bat egon zen. Hori dela eta, ohikoa den aurkezpen-paseoa ez egitea erabaki zuen Blusen eta Nesken Batzordeak. Hala eta guztiz ere, zenbait kuadrilla ez ziren erabaki harekin ados egon, uste baitzuten batzordeko presidentearen aldebakarreko erabakia izan zela, nahiz eta aurrez bozketa egin. Desadostasunaren aurrean, zatiketa egon zen, eta bost kuadrillak Batzordetik irtetea eta paseoa egitea erabaki zuten. Horren aurrean, aurrez bozketa bidez erabakitakoa bete ez zuten kuadrillei isun ekonomikoa jartzea erabaki zuen Batzordeak. Eta presidentek kargua utzi zuen. Batzordeko Biltzarra kuadrilletako ordezkariak osatzen dute, zeinak ordena alfabetikoaren arabera sartzen baitira txandaka; baina urte hartan soluzioen bilaketan inplikaturik zeuden pertsonak proposatu ziren batzorde berriko kide gisa. Batzordetik irten ziren kuadrillek, beren aldetik, Blusen eta Nesken Federazioa izeneko erakundea sortu zuten, eta horrek tentsioak eragin ditu azken urteotan udal-finantzaketaren banaketari dagokionez<sup>47</sup>.

45 Paragrafo honetan zenbait hitz eta esaldi kakotx artean jaso dira, elkarrizketetan hitzez hitz jasotako adierazpenak direla azpimarratzeko.

46 Kuadrilla guztiek jaiak baino lehen diseinatzeko beren pankartak eta aurkezpen-ekitaldian erakusten dituzte jaiak hasi baino egun batzuk lehenago. Pankarta horiek kalejiretan erakusten dira jaietako egun guztietan. Pankarten tradizioa zein urtetan hasi zen galdetuta, Eduardo Valle ikertzaileak azaldu du hainbat argazkitan Blusek pankartak zeramatzatela 1935. urtean jada. Iñaki Pérez de San Vicentek, Blusen eta Nesken Batzordeko presidente ohiak, azpimarratu du pankarta aldarrikatzeko bidea izan zela 1975-1976 urteetatik aurrera. Haren aburuz, ezarritako boterearen aurrean kritika egiteko erabiltzen dira pankartak ordutik; batzuk umorez, beste batzuk satiraz, baina ia guztiek dute eduki kritikoa. (Blusen eta Nesken Batzordeko zenbait kideri egindako elkarrizketa)

47 *Gasteiz Hoy* (2019/07/17) [La Federación de Blusas y Neskak se queda sin subvención por pedirla fuera de plazo.](#)

Hasierako bost kuadrilla horiez gain, beste bi ere irten ziren batzordetik. Gerora, eraso seixisten aurrean ezarri beharreko protokoloa lantzen hasi ziren guztiak Udalaren laguntzaz, Sortzen enpresaren aholkularitza eskaini baitziren hausnarketa eta dokumentuaren idazketa bideratzeko. Protokoloaren lehendabiziko zirriborroa Batzordeko blusa eta neska guztiei helarazi zitzairen, eta inkesta bat egin zen, Sortzen enpresak aztertu zuena. Askok beharrezkotzat jotzen zuten protokoloa, baina beste askok erasotzat hartzen jarraitzen zuten, honako adierazpen hauek eginda, besteak beste: «Jaia jaia da», «ezin izango dugu ligatu», «zergatik egin behar da gizonezkoenganako erasorik barne hartzen ez duen protokolo bat?». Lan eta eztabaida askoren ondoren, azkenean onartu egin zen protokoloa aho batez Batzordearen Biltzarrean, eta 2017ko jaietan jarri zen indarrean.

Jaietan sortutako tentsio-klima hura pizgarria izan da Blusen eta Nesken Batzordearentzat, eta gatazka ebazten saiatzen ari da; horretarako, genero-ikuspegian oinarrituta nola jardun hausnartzen ari da, baita kuadrilletan eta jaietan gizon eta emakumeen parte-hartze partekidea nola sustatu aztertzen ere. Hori dela eta, berdintasun taldea finkatzeko prozesua sustatu zuen Batzordeak 2017. urtean. Gaur egun, hogeita hamar pertsonak baino gehiagok osatzen dute taldea, batzordeko kuadrilla bakoitzeko bina ordezkariarekin. Talde horren barruan, berdintasunaren aldeko lantalde eragilea dago, bederatzi pertsonak osatzen dutena, eta Batzordearekin, Udalarekin, kolektibo feministekin eta abarrekin koordinatuta lan egiten du, elkartearen proiektu eta jardueraz arduratzen delarik.

2018ko jaien ondoren, Blusen eta Nesken Batzordeko presidenteak dimititu egin zuen eta batzordeak berdintasun-taldea sustatu zuen neska bi haietako bat proposatu zuen presidentorderako, aurretik batzordean kide gisa sartu eta berdintasunaren aldeko lantalde eragileko kide izan zena. Berdintasunaren aldeko lanaren aitortza eta harekiko konpromiso keinu gisa ulertu zen erabaki hura.

Hurrengo urtean, 2018an, Udaleko Berdintasun Zerbitzuaren bide-laguntza eta prestakuntza jasotzen jarraitu zuen Batzordeak hausnarketa egiteko. Zerbitzuko langileek eta Sortzen aholkularitza-erakunde espezializatuak lagundu egin zieten, berriro ere, eraso matxisten aurrean erantzuteko barne-protokoloa berraztertzen eta egokitzen. Batzordeak parte-hartze handiko prestakuntza-saioen bidez adostu zuen Protokoloa, eta hari esker, Batzordeko kuadrilletan biltzen diren 5.787 pertsonak inplikatu dira prozesuan. Pertsona askok jaso dute prestakuntza eta horietako askok aktiboki parte hartzen dute protokoloan, izan litezkeen abusu edo erasoen berri emanez. Guztiek dute talde eragilearekiko konfiantza handia eta haren aholkularitza jasotzen dute erabaki garrantzitsuak hartzeko orduan: zer-nolako erantzun publikoa eman, kuadrilletako kide diren erasotzaileak kanporatzea, edo kuadrilletan emakumeen parte-hartzeari buruzko gomendioak nola aplikatu. Taldea handitu denez, berdintasun-gaietan erreferente den kide bat dago kuadrilla bakoitzean, eta komunikazioa oso erraza da kuadrillen eta talde eragilearen artean. Horri esker, lehenago kuadrillen barruan geratzen ziren hainbat gai agerian geratu dira, eta pertsona gehiagok jakinarazten dizkiete desberdintasun- edo indarkeria-egoerak talde eragileko kideei.

Zalantzarik gabe, sareko lan hau lorpen handia da kide guztientzat, eta orain arte egindako lanaren indargunea ere bada. Sarearen talde eragileak etengabeko komunikazioa ezarri du Udalarekin (Berdintasun Zerbitzuaren arlo tekniko eta politikoarekin), jaietan izan litezkeen gertakari sexista guztien inguruan beharrezkoak izan daitezkeen ekintzak eta protokoloak martxan jartzeko. Berdintasun-talde eragilean parte hartzen hasi ziren zenbait emakume bere kuadrillako zuzendaritza-batzordean daude gaur egun. Prozesu horren adierazgarri, erakundearen funtzionamenduan ikuspegi feminista nola txertatu aztertzen ari da Batzordea.

## **Sentsibilizazioa eta etengabeko prestakuntza**

2019. urtean, Batzordeak finantzaketa eskatu zuen barne-prozesu autonomoa egiteko, hausnarketa feministaren inguruan lanean jarraitzeko eta kuadrilletako gazteenak lanean inplikatzeko. Prestakuntza- eta sentsibilizazio-tailerrak egin ziren Lumagorri Elkartearekin (*Heterosexismoaren aurkako taldea*), bertan jarraibideak eskaini ziren gay, lesbiana, transexual, intersexual eta heteroarautik kanpoko desira eta identitateak izendatzeko sor litezkeen gainerako kolektiboen eskubide- eta aukera-berdintasuna ikusarazi eta sustatzeko. Prestakuntza-prozesua bukatzeko, herritarrei irekitako mahai-ingurua antolatu zuen Blusen eta Nesken Batzordeko berdintasun-taldeak, jaietan indarkeriaren prebentzioari buruz eztabaidatzeko. Bertan parte hartu zuten Vitoria-Gasteizko Udalak, Gasteizko Mugimendu Feministak, Sevillako Marimorena kasetako Acción en Red sareko ordezkari batek, Gasteizko LGBTQIko mugimenduak eta Blusen eta Nesken Batzordeak.

Sentsibilizazio- eta prestakuntza-prozesua indarkeria matxistan zentratu zen arren, berdintasunari lotutako beste alderdi batzuk jorrazteko tresnak ere sortu ziren. Esate baterako, Batzordeko estatutuak aldatu egin ziren, eta elkarte bakoitzak aldaketa jakin batzuk txertatu behar izan ditu bere funtzionamenduan. Era berean, sexistatzat jotako zenbait abesti ezabatu dira; blusen eta nesken jantziak emakume zein gizonek bereizi gabe erabiliko dituztela erabaki da; Batzordeko Biltzarrak eraso sexisten aurrean erantzuteko duen erantzukizuna argitu da; erasorik izanez gero –emakumeei ez ezik, bestelako genero-identitateen kontrakoak ere– adierazpen publikoa egingo dela erabaki da; eta adierazpen edota manifestazioak era autonomoan egingo direla erabaki da, Udalarekin bat egin beharrik izan gabe.

Laburbilduz, garrantzitsua da zera adieraztea: 2016an eraso sexistei publikoki erantzuteko behar gisa hasi zena, genero-indarkeria, sexismo, berdintasun eta feminismoari buruzko prebentzio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-lan garrantzitsua da gaur egun, eta 2015ean pentsaezinak ziren lorpenak ahalbidetu ditu.

### *Zerikusia duten eragileak*

- Blusen eta Nesken Batzordea eta 18 kuadrillak (elkarteak).
- Batzordearen Biltzarra.
- Kuadrillen Biltzarrak.
- Batzordeko Berdintasun Taldea (talde eragile ere esaten zaio).
- Udaleko Berdintasun Zerbitzua.
- Genero indarkerian aditua den aholkularitza-erakunde bateko profesionalak.
- LGTBQI elkarte bateko adituak.
- Kolektibo eta plataforma feministak.
- Herritarrak.

### Estrategiak

- Batzordearen eta kuadrillen antolamendu-egituretan emakumeen ikusgaitasuna, presentzia eta parte-hartzea bermatzea.
- Emakumeen eta bestelako identitate ez-bitarren eskubideak errespetatzeari lotutako sentsibilizazioa, hausnarketa, prestakuntza eta ekintza bideratzeko barne-espazioak sortzea.
- Batzordearen eta kuadrillen ezaugarriak, jarduerak eta kanporako irudia birpentsatzea, emakumeenganako lagunkoiagoak izateko.
- Parte-hartze espazioak sortzea (kuadrilletako pertsona guztiei zabalik) eta adituen babesa eskuratzea, indarkeria matxistaren, genero-sistemen edo feminismoaren oinarriko kontzeptuei dagokienez adostasuna lortzeko prozesuak bideratze aldera.
- Emakumeen edo generorik gabeko identitateen kontrako indarkeriaren aurrean elkartasuna adieraztea eta protesta egitea.
- Emakumeen eskubideak aldarrikatzen dituzten mugimendu eta plataformetan parte hartzea.

### Emaitzak

- Batzordearen eta kuadrillen estatutuen artikulak aldatzea.
- Antolamendua aldatzea, zuzendaritza-batzordeetan emakumeen parte-hartze handiagoa bermatzeko.
- Berdintasunerako talde eragile bat sortzea.
- Berdintasunean oinarritutako parte-hartzeari buruzko barne-prestakuntza (batzordeentzat eta kuadrilletako kideentzat).
- Sexu erasoen kontrako protokoloa, metodo parte-hartzailearen bidez sortutakoa.
- Genero-indarkeriaren kontzeptua argitzea eta adostea.
- Jaietan abusu eta eraso sexisten inguruko prebentzio-, sentsibilizazio- eta arreta-sarea.
- Genero-identitate oro onartzea.
- Blusa eta neska jantziak berdinean erabiltzea gizonek, emakumeek eta identitate ez bitarrek.
- Erakunde feminista gisa finkatzea.
- Herritarrak sentsibilizatzeko saioak antolatzea.
- Kuadrillen pankartetan logo morea txertatzea.

### Aldaketa gauzatze gakoak

- **Herritarren kontzientzia feminista.** Adibide horrek argi uzten du testuinguruaren bilakaeraren ondorioz, herritarrek ulertu egin dutela ez dela egokia erabat maskulinizata dagoen erakunderik egotea eta indarkeria matxistarako joerak identifikatzen ikasi dute, baita horiek babesteari utzi ere.
- **Aldarrikapen feminista.** Kuadrillek, jaietako protagonista diren neurrian, Berdintasun Legea bete dezatela eskatzen dute hiriko talde feministek eta kolektibo antolatuek.
- **Kuadrillak berdintasunera bidean inplikatzeari.** Kuadrilla guztiak gai honetan lan egitera eta arreta eskaintzera behartuko dituen berdintasun-talde mistoa sortzea, egin beharreko aurrerapausoak aztertzeke.
- **Emakume jakin batzuen konpromisoa eta jarraitutasuna.** Kasu honetan, inplikatuaren artean badira hainbat emakume gazte, zeinak, eskuzabaltasun eta borondate handiz, kontzientzia feminista bultzatzeko ekintzak sustatu baitituzte, Blusen eta Nesken Batzorde barruan zein kanpoan postura ezberdin eta kontrajarriak dituzten pertsonen erresistentziak, erasoak eta ulermen eza gorabehera.
- **Laguntza eta babes instituzionala.** Berdintasun Zerbitzu bat egoteak babes instituzionala eta ekonomikoa eman die berdintasunaren eta eraldaketaren alde lan egin nahi zuten erakundeei.
- **Erakunde adituaren dinamizazioa.** Babes instituzionalari esker, genero-indarkerian eta LGTBQ gaietan adituek prozesua babestu zuten eta partaidetza- zein prestakuntza-saioak dinamizatu zituzten, besteak beste.
- **Partaidetza-prozesuak.** Talde jendetsua izaki (5.787 pertsona), partaidetza sustatzeko teknika ezberdinak erabili behar izan dira adostasuna lortzeko, eta denak izan dira funtsezkoak (inkestak, lan-saioak, prestakuntza, bilerak...).

## AMURRIOKO SAN JOAN JAIK<sup>48</sup>

### 6.1.2.

Amurrioko auzoetan, San Joan gauetz suak pizteko ohitura zegoen antzina. Denboraren poderioz, elizaren parean dagoen auzoko sua arrakasta bereganatuz joan zen, bertan erromeria ere egiten zelako, eta 1945. urtetik aurrera herri osoko su bakarra bertan piztea erabaki zen. Gainera, garai hartan hasi ziren sorgin bat irudikatzen zuen panpina erretzen. Sorgina Udaleko langileek sortu zuten urte luzez, baina, 2009. urtetik aurrera, udalerriko ikastetxeei luzatu zitzaizen berau egiteko gonbita. Jaiaren arloak txandaka esleitzen ziren eskolei sorgina egiteko enkargua.

Hala eta guztiz ere, herriko zenbait pertsona eta taldek ez zioten egoki irizten sorgin itxurako figura hori erretzeari. 2015. urtean, herriko talde feministetako zenbait kidek figura ez erretzeko eskatu zioten Udaleko Berdintasun-arloari, uste baitzuten «sorginen» inguruko

<sup>48</sup> Atal honetan bildutako informazioa talde ikertzaileak Amurrioko Udaleko bi zerbitzutako teknikariei egindako elkarrizketetatik jaso da (Emakumea eta Hirugarren Adina Arloa eta Kultura, Jaia eta Antzerkia Arloa), baita azaldutako gatazka ebazteko erabiltako barne-dokumentaziotik ere. Gainera, tokiko argitalpen bitan gatazka honen berri eman zuten bi artikulua ere erabili dira: *Aiaraldea Gaur* eta *Hala bedi*.

estereotipo faltsuak erreproduzitzen zituen ekitaldi hura iraingarria zela, beste garai batzuetan beren bizimodu edo jardunak eraginda kondenuatu eta erretako emakumeak baitziren.

2016an, Amurrioko udaleko Berdintasun-arloak ez zuen eskaeraren inguruan esku hartu, eta Jai-arloak eskolei enkargua egiten jarraitu zuen, ordura arte bezala, baina aldaketa txiki batekin. Enkargua egiteko gutunean panpina bat egiteko eskatzen zitzairen; hau da, ez zen sorgina aipatzen, baina beste urte batzuetan sortutako sorginen argazkiak bidaltzen zitzaizkien. Hala, sorgina egiteko lana bere gain hartu zuen ikastetxeak bestelako figura bat egitea erabaki zuen bere kabuz. Udalak ez zuen erabaki harekin zerikusirik izan, baina batzuek halaxe interpretatu zuten. Urte hartan, ikasleek bankari bat irudikatzen zuen panpina egin zuten, eta hura erre zuten sutan.

2017. urtean, Udalaren jarraibideak jaso eta panpina egiteaz arduratu zen ikastetxeak sorginaren figura egin zuen berriro. Herriko kolektibo feministak, *Otsemeak*<sup>49</sup> taldeak, figura lapurtzea erabaki zuen, sutan erre ez zezaten; baina ez zuten sutatik libratzerik lortu. Ekintza hark gatazka<sup>50</sup> eragin zuen, ikastetxeko ikasleek eta beren familiek irain gisa hartu baitzuten. Kolektiboak prentsaurrekoa egin zuen bere ekintzaren zergatia azaltzeko; azaldu zuten aldarrikapenaren xedea ez zela ikasleek egindako lana lapurtzea, Udalaren jokabidea salatzea baizik, ez baitzuen ezer egin 2015ean aurkeztutako eskariari erantzuteko, eta sorginaren figura erretzea sustatzen jarraitzen baitzuen. Taldearen aburuz, ordea, ohitura atzerakoia zen, egungo berdintasun-balioetatik urrun zegoena. Udalak berak eta Berdintasun-arloak esku hartu zuten, elkarren kontra zeuden aldeek jarrera biak uler zitzaizkien, eta, handik aurrera, ikastetxeei eskaera Berdintasun-arloak egitea erabaki zen, beste baldintza batzuetan.

2018. urtean, Berdintasun-arloak, Alkatetzaren babespean, eskutitza bidali zion zegokion ikastetxeari eta bertan jasota zeuden suari lotuta egongo zen bestelako objektu bat sortzeko jarraibideak. Urte hartan, lan eta hausnarketa sakona egin ondoren, eta Udaleko Berdintasun-arloaren laguntzaz, ikasleek proiektu ezberdina egin zuten: gai negatiboak irudikatzen zituzten kuxkak egin zituzten, eta bertan idatzi zituzten, hainbat hizkuntzatan (euskara, gaztelania eta ingelesa), zenbait hitz adierazgarri: gorrotoa, tolerantziarik eza, nagikeria, asperdura, etab. Laburbilduz, zitaltzat zuten guztia sutan erretzea erabaki zuten, beren bizitzetan eduki nahi ez zuten hori guztia erretzea, alegia<sup>51</sup>.

2019an, prozedura bera ezarri zen, baina ikastetxeak parte ez hartzea erabaki zuen eta Udalari jakinarazi zion. Argudio nagusia izan zen figura edo objektu bat erretzea ez zettorrela bat bere filosofiarekin eta ikastetxeko bizikidetzaren planekin. Gaia jorrazteko koordinazio-mahaia sor zedin eskatu zuten. Mahaia, «Hezkuntza» izenekoak, 2019ko urrian elkartu zen lehendabiziko aldiz eta lanean dihardu oraindik, Berdintasun-arloarekin lankidetzan, 2020ko San Joan sua birpentsatzeko.

### Zerikusia duten eragileak

- Talde feministak
- Ordezkeri politikoak
- Berdintasun-teknikariak

49 *Halabedi* (2017/06/27) *Otsemeak*, talde-feministak, lapurtu zuen San Juan gaueko sorgina herriko errealitate atzerakoari aurre egiteko.

50 *Aiaraldea* (2017/06/26) *Sorgina lapurtu zuten ostiralean Amurrión eta egileek agerraldia egingo dute gaur.*

51 *Aiaraldea* (2018/06/22) *Amurrioko udalak ez du sorgin panpinarik erreko aurtan.*

- Jai-arloko teknikariak
- Udalerriko ikastetxeak eta familiak
- Herritarrak

### Estrategiak

- Emakumeak ikuspegi ez diskriminatzaile batetik ikusarazi eta irudikatuko dituen figura bat aldarrikatzea.
- Erabiltzen diren objektu edo figuren ezaugarriak birpentsatzea, gaur egungo balioak islatu ditzaten.
- Partaidetza-espazioa sortzea, udalak eta bertako teknikariek zein udalerriko ikastetxeek hausnartzeko balioko duena, eta hezkuntza-arloan sustatzen diren balioetan oinarrituta jaiak eraldatzeko prozesua bultzatzea.

### Emaitzak

- Erreko den sinboloa sortzeko jarraibide eta argudio berriak.
- Sorgina erretzeko ekitaldia desagerraraztea.
- Koordinazio-lanetarako Erakundearteko Mahaia sortzea.

### Aldaketa gauzatzeko gakoak

- **Aldarrikapen feminista.** Herriko talde feministek hausnarketa egin zuten eta «sorginak» sutan zigortzen ziren garaia oroitzeko ekitaldi bati antolatu zuten.
- **Udaleko berdintasun-sailaren erreakzioa eta laguntza.** Udaleko Berdintasun-arloak esku hartu zuen salatutako ekitaldia errepika ez zedin.
- **Kontzientzia feminista hezkuntza-arloan.** Eskolek aldaketa bultzatzeko erantzukizuna hartu zuten bere gain eta ordura arte bezala parte hartzeari uko egin zioten, heziketa-proiektuarekiko koherenteagoak diren balioak sustatze aldera.
- **Hausnarketa eta adostasun gunea sortzea.** Gatazkaren ondorioz, Instituzioarteko Koordinazio Mahaia sortu zen –udalerriko ikastetxeekin eta Berdintasun Arloarekin–, jaiak eraldatzeko bidearen inguruan modu kolektiboan hausnartu eta eztabaidatzeko.



## 6.1.3.

Lezeagako Sorgina Laudioko Inauterietako figura da, Lezeagako kobazuloan bizi zen emakumearen kondaira oroitzen duena. Herriak antzina zuen landa-izaeratik gorde den ezaugarri apurretako bat da haren figura, gaur egun herriko Inauteria hiritarra baita. Konpartsek, 80ko hamarkadatik, sorgina irudikatzen zuen panpina ateratzen zuten kaleetan zehar eta sutan erretzera kondentzen zuten Inauterietako azken ekitaldian. Mozorro desfilea egiten zuten, mozorrorik originalena sarituta, eta erromeria ere antolatzen zen.

Jai hau ospatzeko ekitaldien aldaketa-prozesua 2017. urtean hasi zen, aurreko atalean azaldu dugunez, Amurrioko San Joan jaietan sorginarekin gertatutakoaren harira. Berdintasun-arloaren koordinazio-bilera batean, eskualdeko teknikariek Amurrioren gertatutakoaz eztabaiatu zuten eta Laudioko teknikaria bere udalerrian egiten zen sorgin-erretzearen inguruan hausnartzen hasi zen arlo politikoko langileekin. Orduan, Laudioko Berdintasun Arloak ekitaldia aldatzeko aukera planteatu zuen, Lezeagako Sorgina –inauteriaren protagonista– sutara bidal ez zedin. Hezkuntza, Berdintasun eta Gazteria Arloaren zein Kultura, Kirolak eta Jaiak Arloaren bultzada eta babes politikoarekin (biak pertsona berak zuzenduta<sup>53</sup>), proposamena zenbait pertsonari eta erakunderi planteatu zitzaion, bai udalbatzaren barruan bai handik kanpo. Izan ere, indarrean zegoen Laudioko Berdintasun Planak jasotzen zuenez<sup>54</sup>, jai-eredu parekidea sustatu eta sinbolo sexisten erabilera saihestu nahi bazen, onartezina zen sorgin bat erretzea. Hasiera-hasieratik, aldaketa partaidetzan eta adostasunean oinarrituta bideratzea erabaki zen eta hartarako beharrezkoak ziren urratsak egiten hasi ziren.

2018. urtean, zenbait bilera egin ziren Udaleko bi arlo horietako teknikari arduradunekin. Prozesuaren berri eman zitzaion Laudioko mugimendu feministari, eta udalak martxan duen herritarren foroan ere islatu zen gaia. Bertan eztabaida abiatu zen eta Laudioko zenbait pertsona eta erakundek eman beharreko urratsen inguruan zituzten iritziak jaso ziren. Azkenik, adostasuna lortu zen: sistemari aurre egiten zioten emakume ausartak irudikatzen dituzte sorginek, eta, erre beharrean, Lezeagako sorgina omendu egingo zela erabaki zen. *Itxarkundia Dantza Taldearekin* harremanetan jarri ziren, erritualaren parte izan eta omenaldia bere gain har zezan.

2019an, Lezeagako sorgina erre beharrean, *Itxarkundia Dantza Taldearen* dantzaren bidez omenaldia egin zitzaion, Xabi Solanoren *Erre zenituzten* abesti ezaguna baliatuta.

2020. urtean, garrantzi are handiagoa eman zaio sorginari eta, tartean nahasitako eragileen adostasunez, sorgina egiazko pertsona batek irudikatzea erabaki da, inauterietan protagonismo handiagoa emanda<sup>55</sup>. Hala, sorginak bitan desfilatuko du: lehenengoz, larunbateko kalejira herriko plazara iristen denean (aurten beste talde batek egin zuen dantza, *Akelarre Dantza Taldeak*, eta su-ikuskitzauna ere egin zen); eta bigarrenez, asteartean agertoki berean, inauterien amaiera-ekitaldi nagusian, «*Sorginak erreko du txarkeria*» izenburupean. Udaleko Berdintasun Arloak, aldaketaren sustatzaileak, oso balorazio positiboa egin du, uste baitute

52 Atal honetan bildutako datuak talde ikertzaileak jaso ditu Laudioko Udaleko Berdintasun Zerbitzuko arlo tekniko eta politikoko kideei egindako elkarrizketetatik. Gainera, azalduko kasuaren berri eman zuten hiru erreportaje ere erabili dira: *Naiz* aldizkarian (2019/02/20) [Laudiok cambia la tradición y no quemará a la bruja de Lezeaga en Carnavales](#); Audio irratian (2019/02/21) [Laudiok vivirá un Carnaval intenso](#); eta *Eitb.eus* webgunean (2019/02/19) [Tradizioak aldatu nahi ditu Laudiok eta ez du inauterietan sorginik erreko audio](#).

53 2011 eta 2019 urteen artean Berdintasuneko zinegotzia, 2015-2019 urte bitartean Jai-arloko zinegotzi ere izan zena.

54 [Laudioko III. Berdintasun Planean](#) (2016-2019) jasota dago balioen aldaketa sustatzeko helburua, baita sexuan oinarritutako rol sozialak eta estereotipoak ezabatzea ere (E.2) Haurrentzako programazioan (ipuin-kontalariak, jolasak edo jarduerak) genero-ikuspegia txertatzeko eskatu zitzaion aipatu bi arloei, baita elementu sexisten erabilera saihesteko ere (E2.1).

55 *Deia* (2020/02/21) [Laudiok homenajeara la bruja de Lezeaga en sus carnavales](#).

bertan ikusi eta sentitu daitekeela aldaketa honen onarpen orokorra. Aldaketaren bitartez, Lezeagako Sorginaren figura indartu nahi izan da, sinbolo positibo bilakatuta.

Hala eta guztiz ere, jakin badakite aldaketak ez dituztela herritar guztiek aho batez onartu<sup>56</sup>, baina, iritzia iritzi, horrelako eraldaketen parte izaten jarraitu nahi dute: «Jai-eredu parekideak lortzera bidean aurrera egiten jarraitu behar dugu, jendarte bidezkoagoa lortzeko. Etorkizun feminista baten aldeko urrats txikiak ematen jarraitu behar dugu. Eta, hain zuzen ere, transmisio bide egokiak dira jaiak; jai-eredu berriek, beraz, aurrera egiten laguntzen dute. Eta erabaki honek, zalantzarik gabe, guztion errespetuan eta askatasunean oinarritutako jai-eredu berrietarako bidea dakar berekin»<sup>57</sup>.

### Zerikusia duten eragileak

- Hezkuntza, Berdintasuna eta Gazteria Arloa.
- Kultura, Kirolak eta Jaiak Arloa.
- Berdintasun-teknikaria.
- Kultura-arloko teknikaria.
- Jaien antolakuntzaz arduratzen diren eragileak.
- Dantza-taldeak: *Itxarkundia Dantza Taldea* eta *Akelarre Dantza Taldea*.
- Herritarrak, oro har.

### Estrategiak

- Udalak berak herriko jaietan berdintasuna sustatzeko zituen legezko baliabideak erabiltzea (legeak eta Udalaren Berdintasun Plana).
- Udaleko arlo tekniko eta politikoko kideekin eta jaietan eskumenak dituztenekin barne-lana sustatzea, hasiera batean aldaketa bideratzeko eta hurrengo urtean hari eusteko beharrezkoak diren urratsak egite aldera.
- Udalerriko eragile guztiei entzutea eta Inauteri jaien zein Lezeagako Sorginaren inguruko ekitaldien inguruan hausnartzea.
- Erabilitako figuraren, Lezeagako Sorginaren, zein erritualaren beraren ezaugarriak aztertzea eta berritzea, bestelako balioak –egungoak– islatzeko.

### Emaitzak

- Lezeagako sorgina erre beharrean, berau dantzaz omentzeko erritual berria diseinatzea.
- Lezeagako Sorginari protagonismo handiagoa emateko ekitaldiak sortzea.

---

<sup>56</sup> Ekitaldiak eragin zituen erreakzioen jarraipena egin zen herriko prentsan, *Aiaraldea Gaur* egunkarian. Jakina, izan zen ekimena kritikatu zuenik: (2019/02/25) [Sutara](#); baina baita zoriondu zuenik ere: (2019/02/27) [Albiste on bat](#).

<sup>57</sup> Talde ikertzailearekin idatziz partekatutako planteamenduak.

### Aldaketa gauzatzeko gakoak

- **Teknikariak eta udalerrian berdintasuna sustatzeko tresna espezifikoak.** Udalak onartu egin du aldatzeko beharra, eta eskura dauzka bai berdintasunean espezializatu-tako langileak bai ekiteko beharra ezartzen duen Berdintasun Plana.
- **Udaleko teknikarien eta politikarien prebentzio-jarduketa.** Udalerriaren berezko balioak islatzeagatik gatazkatsua izan zitekeen ekitaldi eta figura bat identifikatu zuen berdintasun-teknikariak, eta esku hartzeko eta beharrezkoak ziren aldaketak egiteko konpromisoa hartu zuen arlo politikoak.
- **Arlo bien arteko koordinazioa.** Funtsezkoa izan zen pertsona berbera izatea –feminista, gainera– arlo bietako zinegotzia (Berdintasun eta Jaiak).
- **Herritarren kontzientzia feminista.** Mugimendu sozial eta feministak, herritarrekin batera, nabarmen babestu dute aldaketa eta erritual berrian parte hartu dute.
- **Jai-ekitaldia sormenez berreraikitzea.** Funtsezkoa eta aberasgarria izan da ekitaldiaren alternatiba positiboa sortzea, horrela soilik eutsi ahal izan baitzaio sorginaren figura tradizionalari, erre gabe eta dantza bidez omenduz.

## BIZKAIA

# 6.2.

### BILBOKO ASTE NAGUSIA<sup>58</sup>

## 6.2.1.

Diktadura frankistan, abuztuan antolatzen zen Aste Nagusia Bilbon eta ordaindu beharreko ikuskizunak soilik eskaintzen ziren: opera, zezenketak, antzerkia, etab., inolako identitate propiorik eta herritarren (batez ere, baliabide ekonomikorik ez zuten horien) parte-hartzerik gabe. 1973. urtetik aurrera, jai parte-hartzaile eta herrikoiagoak egiteko zenbait saiakera egon ziren, baina ideiak ez zuen onarpen handirik izan, harik eta 1978ko apirilean, Udalak berak, udal kudeatzailea eta jarduneko alkatea medio, jaiak sortzeko ideia-lehiaketa onartu eta proposatu zuen arte. Jarraian ikusiko dugunez, emakumeak hasiera-hasieratik egon ziren sortze prozesuan murgilduta eta, hala, jaien parte izan zitezen erraztu zuen horrek.

Hiriko erakunde komertzial batek babestu zuen «Egin ditzagun Bilboko Jai herrikoiak» («*Hagamos populares las Fiestas de Bilbao*») izeneko ideia-lehiaketa, eta kritika ugari jaso zituen, saltoki handi horrek interes komertziala zuelakoan. Hala eta guztiz ere, ekimenak aurrera egin zuen eta hogeita hamazazpi proiektu aurkeztu ziren, zeinak epaimahai misto

---

58 Atal honetan jasotako informazioa talde ikertzaileak jaso du Bilboko Udaleko bi sailtako (Berdintasuna eta Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaiak) zuzendaritza eta teknikariei egindako elkarrizketetan; baita *Mamiki* konpartsako kide diren emakumeei eta Leire Díez Tubet UPV/EHUko ikertzaileari egindako elkarrizketetan ere. Gainera, ikertzaile horren masterreko tesia kontsultatu da, baita *Mamiki* konpartsaren historiari buruzko testuak –kideek beraiek sortutakoak– eta Bilboko Udalaren [Aste Nagusiari](#) buruzko webgunea zein [Bilboko Konpartsen webgunea](#) ere.

batek ebaluatu baitzituen (instituzionala eta zibila)<sup>59</sup>. Epaimahaiak bi proposamen hautatu zituen, eta sariaren % 75 eta % 25 eman zien sarituei. Garrantzitsua da azpimarratzea epaimahaiakide gisa parte hartu zuten auzo elkarten ordezkari guztiak emakumeak zirela, eta, hortaz, epaimahaia ia parekidea izan zen<sup>60</sup>.

Kontsulta-lehiaketa izan zen (ez-loteslea, beraz), baina, herritar eta auzotarren presioaren ondorioz, Udalak aurrera eraman zuen ekimena, errezeloak gorabehera. Urte historikoa izan zen 1978; Estatuan aldaketa politikoa gertatu zen, eta mugimendu asoziatiboa gorako bidean zegoen. Ekainaren 28an lehendabiziko Jai-batzorde irekia deitu zen, biltzar bidezkoa eta herrikoa, eta behin betiko Jai-batzordea sortu zen, bertan elkartu zirelarik eragile kultural, kirol-eragile, alderdi politiko eta sindikatu guztiak. Uztailaren 2an eratu zen formalki, hamazazpi kide zituela (hamalau gizon eta hiru emakume).

Orduan, lehendabiziko konpartsak sortzeko deia egin zien Batzordeak herritarrei, talde herrikoien esku geratuko baitzen Bilbon eta auzoetan jai antolatu eta bizitzeko ardura<sup>61</sup>. Bilboko lehenengo Aste Nagusian hogeita lau konpartsa egon ziren, eta, guztira, mila seiehun pertsona baino gehiagok parte hartu zuten<sup>62</sup>. Jai-eredu parte-hartzailea jaioratu zen orduan, eta halaxe eraiki, antolatu eta mantendu da hiriko Aste Nagusia gaur arte. Zalantzarik gabe, emakumeek berdintasun handiagoz parte hartzeko beharrezko ziren oinarriak ezarri zituen horrek guztiak; halaxe erakusten du Marijaia jaietako sinboloaren sorrerak, txupineraren figurak edo (urtebete geroago) emakumeek soilik osatzen duten Mamiki Konpartsaren sorrerak.

## Emakumeen presentzia sinbolikoa

Lehendabiziko jai haiek hasi baino bost egun lehenago, Anbotoko dama oinarri hartuta jaien identitate-marka izango zen panpina bat sortzeko enkargua egin zion Batzordeak Mari Puri Herrero artistari. Hala, abuztuaren 19an, *Marijaia* jaioratu zen; fikziozko pertsonaia bat, Bilboko Aste Nagusiaren ikono eta sinbolo izango zena. Lau metro garai da *Marijaia*, jai eta dantza keinua eginez jasota ditu besoak, eta jantzi deigarria eta betiereko irribarrea ditu bereizgarri. Ustekabean agertu zen jaietako lehenengo ekitaldian. Herreroren diseinuari jarraikiz, *Marijaiaren* ale erraldoi berria sortzen da urtero, antzinako erraldoi eta buruhandien gisan. Nabarmentzekoa da pertsonaia hau emakumeek zein gizonek mugiarazten dutela.

Gaur egun, abuztuaren 15aren osteko lehen larunbatean hasten dira jaiak, Arriaga antzokiko balkoian, bertan irakurtzen baitu pregoia pregoilariak, eta txupina (suziria) jaurtitzen txupinerak. Ondoren, *Marijaia* handia agertzen da balkoian, hortik aurrera Bilboko Aste Nagusian nagusi izateko. Jaietako azken egunean Arriaga Antzokiko plazan erretzen zen, bederatzi eguneko jaien amaiera markatzeko. Hala eta guztiz ere, 2009. urtetik aurrera, *Marijaiaren*

59 Lehiaketara jai-proposamenak aurkezteko oinarrien hitzaurreak zera zioen: «Bilboko Jaiak. Urte luzez esan izan da herritarren parte-hartzerik gabeko jaiak ez direla autentikoak; hau da, Bilboko Jaiak ez direla herrikoiak. Ez dira Bilboko publiko handiarengana iristen, herriak ez duelako jaietan parte hartzen. Behin baino gehiagotan jorratu da gai hau komunikabideetan, eta adierazi izan da jaiak, beren herrikoitasunean, herriaren nolakotasuna eta izaera irudikatu behar dituztela. Hori dela eta, El Corte Inglés saltokiak, Hiribilduko Udalarekin lankidetzan eta komunikabideen parte-hartzeaz, Ideia Lehiaketa hau proposatzen du 'Egin ditzagun Bilboko Jai herrikoiak' lelopean. Guk geuk, Bilbotarrok, proposatu eta iradoki behar ditugu jai herrikoietan egiteko moduko ideiak, baldin eta gure auzoetako pertsonak, Bilboko biztanleen komunitate osoa pozik egotea nahi badugu eta, guztion artean, 'Bilbo hobea' lortu nahi badugu. Zerbait positiboa egiteko aukera dugu orain, benetan herriarenak izango diren jaien hastapenak eraikitzeko aukera; herriak pentsatutako jaiak eta, bilbotar guztion parte-hartzeaz, herriak herriarentzat egindakoak. Hau da gure aukera!» (Bilboko Konpartsen webgunea)

60 Gizon batek (presidentea) eta zortzi kidek (lau emakume eta lau gizon) osatzen zuten epaimahaia, guztiak alde sozialaren ordezkari gisa (Bilboko Konpartsen webgunea).

61 Elkarte edo taldeek beren fanfarre propioa, gutxienez 50 pertsona eta jantzi ofiziala izan behar zituzten. Gainera, beren txosna eraiki behar zuten jai-eremuan. Txosna bakoitzak espazio irekia izan behar zuen, musika eta kalera irekitako barra barne, edariak eta janariak eskaintzeko eta jarduerak antolatuzko.

62 Konpartsen Koordinakundea sortu zen orduan, emakumeen parte-hartzea zuten auzo elkarte ugari bilduta.

erretzea ez da Arriaga Plazan egiten, itsasadarrean zehar baizik, agur-pasiera egiten duen bitartean. 1997. urtetik, *Marijaiak* bere abestia du, *Badator Marijaia* izenekoa, Kepa Junkerak eta Edorta Jiménezek sortutakoa.

1978ko lehendabiziko Jai-batzordeak ere uste izan zuen ezinbestekoa zela sortu berri zen Aste Nagusirako txupinera berreskuratzea eta, hala, txupina jaurtiz astearen zein jaietako egun bakoitzaren hasiera iragartzeko funtzioa esleitu zitzaion. Bilbon antzina zegoen udal-lanpostua zen txupinerarena; emakumeei soilik esleitzen zitzaion eta amengandik alabengana transmititzen omen zen. Hiribilduko biztanleei herriko ospakizun handien beri ematea zen haren egitekoa, eta zenbait txupin jaurtitzen zituen jakinarazpen gisa. Udaleko langile izateari utzita ere, txupinera emakumea izan da orain arte. Txupinera zein konpartsakoa izango den erabakitzeke, ordura arte txupinerarik izan ez duten konpartsen arteko zozketa egiten da, eta konpartsakideen esku geratzen da rol horretan jardungo duen emakumea aukeratzea.

## **Mamikiren hastapenak; emakumeen konpartsa emakumeentzat**

Testuinguru parte-hartzaile, herrikoi eta anitz hark baldintza berdinetan parte hartzeko aukera eman zien emakumeei, eta Bizkaiko Emakume Asanbladak pentsatu zuen aurrerapauso bat eman beharra zegoela feminismoaren alde eta jaietako borroken alde. Jaien ibilbideak eta historiak agerian utzi dute transformazio-prozesu garrantzitsu bat, zeinaren bidez aurrerapauso adierazgarriak eman baitira Bilboko Aste Nagusian jai-eremu parekideagoa izateko bidean<sup>63</sup>.

1979. urtean, Bizkaiko Emakume Asanblada konpartsa gisa finkatu zen, izen bera hartuta. Hurrengo urtean, *Mamiki Emakumeon Konpartsa* izena hartu zuen<sup>64</sup>. «Aisialdian oinarritutako jai-eredu parte-hartzaile, inklusibo, anitz eta parekidearen aldeko apustua» egin zuten, eta halaxe egiten jarraitzen dute, «kalea, gaua eta eguna zorientasun-modu berrien sinonimo gisa aldarrikatuta, eta emakumeentzako edo arau patriarkala betetzen ez dutenentzako arrisku-faktoreak arbuatuta». Urte hartan sortu eta aktibo jarraitzen duen konpartsa bakarra da, gainerakoak desagertu egin baitira. Garai hartan hiru helburu nagusi zituzten:

1. Aldarrikapen feministak adierazteko eta abortu-eskubidearen inguruan justizia eskatzeko espazio bat edukitzea. Urte hartan pil-pilean zegoen gaia, abortatu zuten hamaika emakumeren kontra abiatutako «Basauri epaiketa» ezagunaren ondorioz. Garai zaila zen feministentzat, eta abortu-eskubidearen aldeko plataforma bilakatu zen *Mamiki* hiri handiaren erdigunean; haren bitartez, milaka pertsonak ezagutu ahal izan zuten epaiketa historikoaren eta bere protagonisten berri.
2. Aste Nagusian jai alkoholari lotuta agertuko ez zen espazio bat eraikitzea, eta produktu landuagoak eta kalitate handiagokoak kontsumitzeko aukera eskaintzea. Janari osasungarria eta alkoholaren kontrako jarrera ziren beren bereizgarriak, txikiteroaren kulturaren kontra egiteko modu bat; izan ere, etxeko arazoekin eta emakume askok jasaten zituzten tratu txarrekin lotzen baitzuten ohitura hori. Hamar urtez baino gehiagoz eutsi zitzaion gaitzespen hari eta txosnan giro ezberdina egotea eragin zuen (tetegia giroa zegoen), askotariko jaki eta asmakizunak eskainita<sup>65</sup>.

63 Hemen jasota dago Bilboko Aste Nagusiaren bilakaera eta Mamiki konpartsako zenbait emakumeren hausnarketak, «Mamiki, gu, geu» izeneko dokumentu argitaratu gabea (2016an idatzia).

64 Izen-aldaketaren bitartez, espazio ludikoa eman nahi zaio aldarrikapenari.

65 Alkoholaren gaiak eztabaida handia eragin izan du eta harekiko jarrera aldatuz joan da. Alkohola saltzen hasteko arrazoietako bat ekonomikoki eusteko beharra izan zen. 1990. urtetik aurrera garagardoa, kalimotxoa eta txupitoak eskaintzen hasi ziren pixkanaka, hainbesteko es-

3. Abortuaren kontrako kanpaina eta gerora sortu ziren bestelako aldarrikapen feministak bideratzeko finantzaketa-iturri bat edukitzea. Garai hartan abokatuen gastuak eta abarrak Aste Nagusiko diru-sarrerei esker ordaintzen ziren. Halaber, Bilboko Pilota kalean lokal propioa erosteko ere balio izan zuen diru horrek. Lokala hiriko emakumeentzako zabalik dago oraindik, neurri batean, jaietan biltzen den diruari esker.

Autogestioaren lehen etapa hartan haiek egiten zuten guztia, jai-formatu malgu eta xume batean. Antolaketa eta muntatze-lan guztiak berdinen artean egiten ziren, horrela, «ahalduntze kolektibo feministaren iturri gisa espazio seguru, aske eta autonomoa» sortuz. Txosnaren muntatze-lanen eta hura jaietarako prestatzeko lanen ondorioz, *Mamikiko* kideek beste harreman mota bat ezarri zuten tradizioz maskulinoak ziren egitekoekin, eta elektrizitate, arotzeria eta iturgintza ezagutzak eskuratu zituzten, baita indarrezko lanak egiteko gai zirela erakusteko ere. Horrek ere bilakaera propioa izan du, eta orain langileak kontratatzen dira zeregin espezializatu jakin batzuetarako. Hala eta guztiz ere, konpartsan guztiak jarraitzen du emakumeek egina izaten, tradizioz maskulinoak diren eta emakumeen presentzia txikia duten espezialitateetan trebatu direnei lehentasuna ematen zaie, beren ezagutzak praktikan jar ditzaten.

1980. urtean, Udalak herri-kolektiboak alde batera utzi eta Aste Nagusiaren antolaketa eta kontrola bere gain hartu nahi izan zuenean, urte hartako Koordinakundearen protesta babes-tu zuen *Mamikik* –nahiz eta harekiko harremana «ezin txarragoa» izan–, eta ez zuen jaietan parte hartu. Urte hartan, *Bilboko Jaiak* ospatu ziren, *Marijaia*, zapi, txupinera, konpartsa eta herritarren parte-hartzerik gabe; Aste Nagusia definitzen duten sinbolo bat bera ere barne hartu gabe. Gatazka haren ondorioz, bi Jai-batzorde zeuden aldi berean: Udalaren Jai-batzordea, zinegotziek eta legegintzaldi hartako alderdiek soilik osatua, eta Jai-batzorde Herrikoa, Konpartsen Koordinakundeak eta jaien alde lan egiteko gogotsu zeuden zenbait herri-kolektibok osatua.

Egia esan, konpartsak Aste Nagusiaren antolaketa-lanetatik kanpo uzteko Udalak egindako saiakerak eredu herrikoa indartu besterik ez zuen egin. Hala, 1981. urtean, Jai-batzorde Mistoa sortu zen, bertan bildu zirela Udalean ordezkariak zuten alderdi politiko guztietako zinegotziak eta Konpartsen Koordinakundeko ordezkariak; baina inolako herri-kolektiborik gabe eta presidentearen –Udalaren ordezkariaren– boto erabakitzailarekin. Sistema horrexek jarraitzen du indarrean gaur egun, eta bertan parte hartzen dute, aipatutakoez gainera, Zazpikaleetako Merkatarien Elkarteko ordezkariak eta Urritasuna duten Pertsonen Elkarteko ordezkari batek, egun hutsik dagoen beste plaza bat barne. Hamarkada hartan jai-eredu parte-hartzailea finkatzea mugarrria izan zen *Mamiki* konpartsarentzat; izan ere, Alazne Olabarrieta konpartsakidea izan zen txupinera 1983. urtean.

## **Mamikiren aurrerapausoak eta oztopoak laurogeita hamarreko hamarkadan**

1997. urtean, elkarte gisa finkatu zen *Mamiki*, handitu egin baitziren bai parte-hartzaile kopurua bai beste konpartsekiko koordinazioa. Hala eta guztiz ere, kideek uste zuten antolaketa-lanetan etsaitasun-giroa zela nagusi; espazio matxista zela zeritzoten, jai ulertzeko zuten modua beti jartzen baitzen zalantzan eta beren gaitasunen gaineko mesfidantza age-

---

fortzuaren ondoren egun haietan etekinen bat lortu ahal izateko. Lan gogorra egiten zuten, eta batzuetan ez zituzten Asanbladaren jarduerari eusteko eta lokal autogestionatua mantentzeko behar beste baliabide lortzen.

rikoa baitzen<sup>66</sup>. Azken batean, haien ustetan, bilera haietan ez zitzairen emakumeen ahotsei erreparatzen eta gehien oihukatzen zuenak irabazten zuen. Horregatik, ohiko bilakatu zen bileretan parte ez hartzeko eta eskatutako gutxienekoak soilik egiteko estrategia, eta horrek konpartsen haserrea eragin zuen sarritan koordinakundean, baita elkarrekiko konfiantza galtzea ere<sup>67</sup>. Bestalde, Koordinakundean parte hartzen zuen ordezkariak ez zuen Bizkaiko Emakume Asanbladaren –konpartsen erakunde eragilea– babesik sentitzen; izan ere, jaietan eta koordinakundean parte hartzeari ez zitzaion beste gai batzuei besteko garrantzia ematen, beste kontu batzuk lehentasun handiagokoak –eta feministagoak– zirelakoan.

Oztopoak oztopo, sormen handiko garaia izan zen. 1997. urtean emakumez osatutako Euskal Herriko lehendabiziko fanfarrea sortu zuten (*Mamikiz blai*), baita logo propioa eta kamiseta ere. Txosnaren dekorazioan eta karteletan emakumeen kultura eta sormena ikusarazteko erabakia hartu zuten, musikaren eta hedapenaren bitartez, eta halaxe jarraitu du gaur arte. Txosna apaintzeko lehiaketa irekia antolatu zuten, Arte Ederren fakultatean ikasten zuten emakumeei, artista eta artisau hasiberriei edo finkatzen ari zirenei espazioa eskainita (Dora Salazar, Matxalen Krugg, Maite Martinez de Arenaza...). Euren arte-jarduna eta -ikuspegia plazaratzeko aukera eman zitzairen emakume horiei guztiei, aldarrikapen feministari uko egin gabe; halaxe egin zen bai Bizkaiko Emakume Asanbladaren garaian garaiko kanpainetan, bai partaide aktibo izan den plataformetan (batzuk nazioartekoak): erasoen kontrakoak, gerraren kontrakoak, jai-eredu parekidearen aldekoak, elikadura burujabetzaren aldekoak, Emakumeen Mundu Martxa...

## **XXI. mendean, batasuna eta elkarlana are beharrezkoagoak**

Konpartsen batasuna eta urte osoko aisialdi-dinamizazioa baziren aurretik ere (Inauteriak, San Tomas, San Joan gaua...), baina, jai-eredua finkatuz zihoan neurrian, osasun eta segurtasun berme gehiago eskatzen hasi ziren<sup>68</sup>; *Bilboko Konpartsak* Federazioa formalki eratu behar izan zen 2001eko azaroan eta, harekin batera, konpartsa guztiek blokean lan egin behar izan zuten Aste Nagusia hasierako arima berarekin defendatzeko. Webgunean jasota dagoenez, Federazioak urte osoan zehar lan egiten du eta jaietan (bereziki Aste Nagusian) bizikidetzatza bermatzearen aldeko apustua egiten du, desberdintasunak eta iritzi-aniztasuna oinarri hartuta eta oso gogoan izanda instituzioenak soilik diren jai-ereduak gogoko ez dituzten pertsonak osatzen dituztela konpartsak.

Geroago, 2003 eta 2009 urte bitartean garai zailak iritsi ziren, krisialdia eta etsipen soziala nagusi, eta aldarrikapen feministek indar handiagoa hartu zuten. Genero Indarkeriaren aurkako Babes-neurri Integralei buruzko Lege Organikoa (1/2004) eta EAeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea (4/2005) onartu ziren, eta ekonomialari feministek sistema kapitalistaren inguruan egindako hausnarketak hedatu ziren (jasanezina, bidegabea eta

66 "Mamiki, gu, geu" argitaratu gabeko testuan (2016), hauxe izan zen jaietako antolaketan izandako parte-hartze eta lankidetzako lehen hamarkadei buruzko balorazioa: «Testuinguru heteropatriarkal batean feminista izatea ausardia-ariketa neketsua bada, MAMIKI konpartsak BKn igeri egiteak eta horrek gu dardara batean uzteak ez gintuzkeen harritu beharko». Gainera, gogor borrokatu behar izan zuten, adibidez, haurrentzako suzko zezena ateratzeko edo Marijaia gainerako konpartsen baldintza berberetan garraiatzeko; beharbada «erori eta apurtu egingo zitzaizela» entzun behar izaten zuten. Hala eta guztiz ere, haiek izan ziren Marijaia garraiatzen lehendabiziko emakumeak.

67 Aurrerago ere, hainbat mesfidantza eta desadostasun izan ziren, hala nola: 2001ean, San Tomas eguneko txandan huts egiteagatik zehapan ekonomikoa jaso zuen konpartsa bakarra izan zen, aho batez; 2006an, Irungo Alarde Mistoan txupin aurretiko konpartsen kalejiran buru joan zedin proposatu ziren Mamikiz Bilboko Konpartsei, eta erantzuna ezezkoa izan zen, ez zirela jaia eta politika nahasi behar. Hala ere, *Mamiki* konpartsen segizioa zabaltzeko desfilatu zuten.

68 *Mamiki* konpartsen zenbait idazkitan jasotzen denez, 1980. urtetik aurrera, jai-eredu honek hainbat kritika jaso ditu: Udalaren aldetik, ostalarien aldetik («lehia desleiala» delakoan), merkatarien aldetik («kaleko salmenta» salatzeko), jende garbiaren aldetik («oin-zikinen presentziak» gogaituta)...

patriarkala)<sup>69</sup>. Konpartsen Federazioak, aurretik ere aipatu denez, espiritu inkonformista eta kritikoa izan du beti eta, hortaz, aho batez onartu zuen eraso sexisten kontrako jardute-protokoloa sortzeko proposamena. 2008ko uztailan, Bilboko mugimendu feministako talde batek sortu zuen. Gai honen inguruan, gainera, lantalde bat osatu zen eta maiatzetik aurrera elkartzen hasi ziren urtero, protokoloa nola aplikatu pentsatzeko. 2012. urtean, bilerak egiten hasi ziren mugimendu sozialekin, feministekin, arrazismoaren kontrako mugimenduekin eta LGTB mugimenduekin, erasoaren kontrako protokoloa zabaltzeko eta LGTBIfobia eta arrazismoa barne hartzeko<sup>70</sup>. Hala, 2013an *Gora Iruñea* kolektiboaren materialak eskuratu ziren, eta jaietako erasoaren kontrako lehendabiziko gida sortu<sup>71</sup>.

*Mamiki* konpartsak lan-dinamika ezberdin bati ekiteko atarikoak izan zen hura, eta Jai-batzordean sartu zen 2014. urtean. Sartzearekin batera, urte osoan zehar sentsibilizazio feministan zentratutako lan konstanteagoa garatzen hasi zen talde dinamizatzailea, jaietarako puntualki biltzen zena. Hala, hobetu egin ziren protokoloaren edukiak, baita Aste Nagusian erasoaren kontra erantzuteko tresna eta metodologiak ere. Ondoren, 2015. urtean, lantalde hura Federazioaren seigarren batzorde iraunkor bilakatu zen, eta urte berean zenbait koordinazio- eta hedapen-ekintza egin ziren erasoaren kontrako mezua zabaltzeko: pankartak jai-eremuan, serigrafia konpartsen edalontzietan, autodefentsa feminista tailerra, autodefentsari buruzko tailerrak, mezua jaietako liburuxkan eta jaien aurretiko *auzolana*.

2016an, aurreko urteko jarduera eta ekintzak sustatzen jarraitu zuen batzorde iraunkorrak, eta, gainera, barne-prestakuntza, kanpo-komunikazioa eta materialen sorkuntza sustatzeko jarduerak ere martxan jarri zituen, jai-eremuan eta txosnetan sexismoa ezabatzerako bideratuta: indarkeria sexistari buruzko monografiko teoriko-praktikoa, gizon konpartsakideei zuzendutako des-ahalduntze tailerra, protokoloari buruzko monografikoa konpartsakideentzat, erasoaren kontrako prentsaurrekoa jaien aurretik, musika antipatriarkalaren zerrenda eta txosnak apaintzeko irizpideak. Urte hartan, gainera, Konpartsen Federazioak adostu zuen Aste Nagusian eraso sexisten kontrako protokoloa hirugarrenez aktibatzen bazen, jarduerak ordubetez etengo zirela gauean.

«*Nik gozatu, zuk errespetatu, hura zaindu. Erasorik gabeko jaigunea*» kanpaina abiatu zen 2018. urtean<sup>72</sup>. 2015etik erabiltzen ziren material, banderatxo eta kartel gehienak eguneratu ziren eta, gainera, sentsibilizazio-bideo bat sortu zen.

Laburbilduz, hasieratik gaur arte, *Mamiki* konpartsak tinko eutsi die aldarrikapen feministei eta arrakastaz lortu du, Federazioaren seigarren batzordean egindako lanaren bidez, aldarrikapen horietako asko konpartsa eta txosna guztietan txertatzea. Borroka feministaren eta bestelako mugimendu ugariaren –besteak beste, «Ongi etorri errefuxiatuak» mugimenduen– erakusleho izaten jarraitzen du *Mamiki* konpartsaaren txosnak, eta gainerako hogeita zazpi konpartsak osatzen dituzten emakume feministentzako erreferentzia eta babes-gune bilakatu da, *Mamikik* emandako ikusgaitasunari esker, zenbait gai eta eztabaida feminista txertatu ahal izan baitituzte beren konpartsetan<sup>73</sup>. Sentsibilizazio eta aldarrikapen feministak

69 Cristina Carrasco ekonomialariaren artikuluko batek, [La economía feminista: una apuesta por otra economía](#) (2006), agerian uzten du ekonomia feministak 1997. urtetik izan duen ibilbide historikoa, eta feminismoak erabilitako beste kontzeptu batzuekin dituen loturak azaltzen ditu. Artikulu haren ondoren, Amaia Pérez Orozcoren eta beste ekonomialari batzuen artikuluek argitaratu ziren, sistema kapitalista eta patriarkatua elkar lotzen zituztenak.

70 Bestalde, 2012. urtean, Emakumeen Mundu Martxaren proposamenari erantzunez, *Mamiki* konpartsak, EHNE sindikatuarekin batera, elikadura burujabetzaren inguruan hausnartu zuen eta politika hari zein haren aldarrikapenei lotutako produktuak erabiltzen hasi zen.

71 Urte hartatik aurrera, erasoaren kontrako jarduketara pertsonal eta kolektiboa ezartzen duen gida edo eskuliburua argitaratzen da Aste Nagusian. Txosnetan banatzen dira eta barretan jartzen dira, herritar guztien eskura. Bestalde, barne-jarduketara zehatza dute konpartsek, guztiek ezagutu beharrekoa (konpartsa kide berriei azaltzen zaiena, hortaz).

72 Gaztelaniaz: "Yo gozo, tú respetas, él cuida: un espacio festivo sin agresiones".

73 Garrantzitsua da konpartsen batasuna azpimarratzea, aniztasun handia baitago horien artean. Ekologia-ingurumenaren aldekoak daude, aisialdi-arlokoak, euskararen normalizazioa bultzatzen dutenak eta euskal kulturaren berreskuratzearen aldekoak, elkartzuna eta internazio-



Bilbon «*jai herrikoi, parte-hartzaile eta anitzak eraikitzeko ardatz*» izateko oinarriak ezarri ditu konpartsa honek 1979. urtetik<sup>74</sup>.

### Zerikusia duten eragileak

- Auzo elkarteak.
- Bilboko Jai-batzorde Mistoa.
- Bilboko Udala.
- Konpartsen Koordinakundea, Bilboko Konpartsen Federazioa gero.
- Bizkaiko Emakume Asanblada.
- *Mamiki* konpartsa.
- Federazioko gainerako konpartsak (27).
- Beste konpartsa batzuetako emakume feministak.
- Bilboko kolektibo feministak.
- Nazioarteko mugimendu sozial eta feministak (Emakumeen Mundu Martxa, Elikadura Burujabetzaren aldeko mugimenduak, errefuxiatuen babeserako defentsa...)
- Emakume artista eta artisauak.
- Lanbide maskulinizatueta espezializatutako emakume profesionalak.
- Bilboko Konpartsen Federazioko Seigarren Batzorde Iraunkorra.

### Estrategiak

- Parte-hartze ireki eta horizontala jaien ardatz egituratzaile eta antolatzaile gisa finkatzea.
- Emakumeen ikusgaitasuna, presentzia eta parte-hartzea bermatzea jaietako jardueretan eta jaiak antolatzeaz arduratzen diren egituretan.
- Emakumeek hirian egiten duten ekarpena aitortzea eta ospatzea.
- Jaien garapenerako beharrezkoak diren mota orotako zereginetan emakumeen jardunari lehentasuna ematea.
- Eraldaketa bideratzeko sentsibilizazio-, hausnarketa-, prestakuntza- eta ekintza-gu-neak sortzea, Giza Eskubideen errespetuan eta arrazakeriaren zein LGBTIfobiaren kontrako jarreran oinarrituta.
- Konpartsakide guztientzat zabalik dauden parte-hartze espazioak sortzea.

---

nalismoa aldarrikatzen dutenak, baita Bilboko auzoak ordezkatzeko dituztenak ere.

74 Halaxe adierazi dute elkarrizketatuek *Mamiki* konpartsaaren ibilbidea baloratzeko orduan.

- Oinarrizko eskubideak aldarrikatzen dituzten mugimendu eta plataformetan parte hartzea, horien erronkak jai-eremuan ere ikusarazi eta komunikatzeko.
- Emakumeen edo generoaz gaindiko identitate ororen kontrako indarkeriaren aurrean elkartasuna adieraztea, protestatzea eta borrokatzea.

### Emaitzak

- *MariJaia* figura sortzea.
- Txupinera berreskuratzea.
- Txosna feminista sortzea.
- Txosnagunea espazio feminista eta seguru bilakatzea.
- Emakumeen fanfarrea eta batukada sortzea.
- Erasoen kontrako protokoloak onartzea.
- Jaietarako aldarrikapen-materialak sortzea.
- Espazio, kanpaina eta jarduera feministak finantzatzea.
- Ikuspegi feminista Konpartsen Federazioan txertatzea eta onartzea.

### Aldaketa gauzatzeko gakoak

- **Herritarren kontzientzia parte-hartzailea.** Adibide honek agerian uzten du testu-guruak eboluzionatu ahala herritarrek ulertu egin dutela jaiak eurenak izango direla, baldin eta parte-hartzera zabalik badaude eta instituzio publikoen esku geratzen ez badira.
- **Lankidetzan oinarritutako espazio ireki eta parte-hartzaileak sortzea.** Herritarrek proposatutako jai-eredua onartu zenetik, hainbat espazio sortu dira. Horiek guztiek aukera eman dute instituzioekiko elkarrizketa bultzatzeko, konpartsen arteko zein beste elkarrekin koordinazioa sendotzeko, eragile guztien arteko elkarrizketa bideratzeko eta erabaki bateratuak hartzeko. Gatazkak gorabehera, eta zenbait gaitan jarrera ezberdinak izan arren, elkarrekin ulermenari eta elkarlanari ateak ireki dizkio Asanbladak. Beste mugimendu eta erakunde batzuen proposamenak beti dira ongi etorriak.
- **Laguntza eta babes instituzionala.** Alkatetzak lehendabizi, eta Jai-arloko sailak ondoren, onartu egin zituzten herritarren proposamenak eta planak gauzatzeko beharrezkoak ziren finantzaketa- eta antolamendu-baliabideak jarri zituzten.
- **Konpromiso eta aldarrikapen feminista.** Bizkaiko Emakume Asanbladak estrategikotzat jo zuen jaietan egotea eta uneko agenda feminista aldarrikatzeko balioko zuten jai-, sormen- eta aisialdi-eremuak sortzea.
- **Herritarren kontzientzia feminista.** Mamiki konpartsen ikuspegi feminista gainerako konpartsek eta herritarrek beren gain hartu zutenean eta kanpainak eta erasoen kontrako protokoloa onartu zituztenean hasi zen jaiak eraldatzeko egiazko prozesua.

- **Gizonen kontzientzia feminista.** Gizon batzuek berehala onartu eta babestu zuten emakumeek jaietan berdintasunez parte hartzeko prozesua, eta horrek aldaketak erraztu zituen antolamenduan, baita Batzordean zein konpartsetan karguak hartzeko orduan ere. Garrantzitsua izan zen, halaber, gizon gazteak berdintasun taldean eta, ondoren, talde eragilean inplikatu izana (gerora seigarren batzorde bilakatu zen). Pres-takuntza-prozesuetan parte-hartu zuten; «des-ahalduntze» tailerretan, besteak beste.
- **Konpartsen inplikazioa berdintasunera bidean.** Indarkeriaren kontrako lantaldea eta, ondoren, batzorde iraunkorra sortzeak berdintasunaren alde lan egitera behartu zuten Konpartsen Federazioa.

## BERRIZKO DANTZARI-DANTZA<sup>75</sup>

### 6.2.2.

*Dantzari-dantza* izenaz ezaguna den dantza multzoa zortzi pertsonak interpretatzen dute txistuaz lagunduta, eta Durangaldeko hainbat herritan antzeratsu dantzatzen da: lurreta, Durango, Abadiño, Izurtza, Garai, Zaldibar, Mañaria, Mallabia, Berriz, etab. Hasiera batean, gizonek soilik dantzatzen zuten herri guztietan, baina Garai eta Durangoko dantza-taldeek aurrerapausoak egin zituzten emakumeek ere dantza zezaten sorta hau. 2004 eta 2005. urteetan, mutil eta neskek osatutako talde batek *Dantzari-dantza* egin zuen Garaiko San Joan jaietan, une hartan ez zegoelako dantzatzeko mutil nahikorik<sup>76</sup>. 2013. urtean, ordea, Durangoko Kriskitin dantza-taldea emakumeen parte-hartzea sustatzen hasi zen *Dantzari-dantzan*, zenbait jardueraren bitartez<sup>77</sup>. Ekimen horiek berdintasunerako bidea zabaltu zuten eta dantza hauetan emakumeen parte-hartzea bultzatu zuten Durangalde osoan.

Berrizen, duela mende bat ingurutik hona, bost saio egiten dira: entsegu orokorra San Pedro egunaren bezperan, bi saio San Pedro egunean (ekainak 29), eta beste bi Santa Isabel egunean (uztailak 2), goizez eta arratsalde. Antzina, herriko mutil ezkongabeek soilik parte hartzen zuten dantza honetan eta, idatziz ezarrita ez bazegoen ere, urterik urte errepikatzen zen ohitura, eraldaketa sozialen gainetik.

75 Kasu hau aztertzeko, talde ikertzaileak Berrizko Udaleko Berdintasun Zerbitzuko teknikariei egindako elkarrizketak eta prozesuan erabilitako materialak –Zerbitzuak emandakoak– baliatu dira. Oier Araolazari ere egin zaio kontsulta eta [Dantzan Elkartea](#) webgunea aztertu da. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasun Sailak egindako «Dantzetan ere berdintasunaren alde!» bideoa hartu da erreferentzia gisa.

76 Garain *Dantzari-dantza* eskaini zuen talde mistoko neska batek esan duenez, mutilak prest egon zirenean, haiek kanpoan geratu ziren, nahiz eta beste dantza batzuetan parte hartzen hasi ziren. Herrian ez zuten nahikoa babes jaso, ezta inguruko herrietan ere; baina gaur egun Dantzari-dantzan parte hartzeko gogoz jarraitzen dute herrian: [Alazne Sarrigoitia](#): “Ni dantzaria naiz, dantzari-dantza dakit eta zergatik ez dut ba dantzatuko?”.

77 Oier Araolaza adituaren arabera, Durangoko Kriskitin dantza-taldea izan zen berdintasun-ikuspegitik dantzari-dantzan emakumeen parte-hartzea sustatzen aitzindaria. 2013. urtean, dantza eta generoari buruzko hitzaldia antolatu zuten Durangoko Kultur Gunean, eta bertara gonbidatu zituzten eskualdeko dantza-talde guztiak. Deialdiak, baina, ez zuten arrakasta handirik izan. 2015eko otsailean berriro egin zen Plateruena Kafe Antzokian, eta orduan bai, dantza-talde batzuetako ordezkariak bertaratu ziren. Hurrengo urtean, 2016ko uztailean, hitzaldia errepikatu egin zen Durangoko Plateruena eta inguruko herrietako dantza-taldeen parte hartzea handia izan zen. Denbora-tarte horretan, zailtasunak zailtasun, Kriskitinek urrats garrantzitsuak egin zituen emakumeak Dantzari-dantzan barne-hartzeko prozesuan. 2015ean, Merindadeko ezpata-dantzari egunean, Durangaldeko ezpata-dantzari guztiak parte hartzen duten egunean, Kriskitin taldekoek mutil eta neskek osatutako talde gisa parte hartzeko asmoa adierazi zuten. Antolakuntzakoek ezezkoa eman zieten eta eztabaida handia sortu zen; eskualdeko gainerako taldeek, gainera, bizkar eman zieten. Urte hartan bertan, neskek osatutako dantza-talde bat irten zen Durangon dantzara ([Dantzan](#): 2015/05/05 [Hau ez da fandango, biba Durango!](#)) eta San Fausto jaietako ekitaldian lehendabizikoz parte hartu zuten emakumeek, egoera oso konplexu batean ([Dantzan](#): 2015/10/14 [Lau emakume eta lau gizonetako San Faustotako dantzari-dantzan Durangon, lehen eta azken aldiz](#)). Azkenik, 2016ko irailaren 11n, Durangaldeko Ezpata-dantzari Egunean emakumeak barne hartuta parte hartzea lortu zuten Kriskitin dantza-taldekoek ([Dantzan](#): 2016/09/20 [Emakumeak Aizarnako eta Elgoibarko aurrekuetan eta Durangaldeko ezpata-dantzari egunean](#)). Herri guztiak zortzi gizonek osatutako taldeekin parte hartu zuten, Durangoko Kriskitin taldeak izan ezik, zeinetan hiru emakume eta bost gizon dantzatu baitziren. Une berezi eta hunkigarria izan zen Kriskitin taldeko kideentzat, nahiz eta gainerako herrietako dantzarien aldetik babes handirik jaso ez. Zenbait herritako dantzariak kritikatu egin zuten beren jokabidea, baina hurrengo urteetan herri guztiak hasi izan dira norabide berean urratsak egiten: 2017an Zaldibar eta Mañarian, 2018an lurretan, 2019an Abadiñon eta Berrizen.

Horrela izan zen, harik eta 2014. urtean herriko lagun talde batek –feministak, jai-batzorde, elkarte eta alderdi politikoetako ekintzaileak– Udalari ohitura aldatzeko beharra planteatu zion arte, uste baitzuten ez zela egokia dantza horietan, jaien ekitaldi nagusia izaki, gizonen soilik parte hartzea. Ez zen kezka azaleratzen zen lehendabiziko aldia, udalerriko ahots ezberdinek plazaratua baitzuten aurretik ere. Berez, 2011n, Udalaren Berdintasun Plana sortzeko antolatutako partaidetza-prozesuan, gai hau landu beharrekoen artean zegoen jada, baina ez zen hiru urte beranduagora arte kontuan hartu.

Berdintasun Planean, Udalak konpromisoa hartu zuen «emakume dantzarien ekitaldiak jaietako egitarauan txertatzearen inguruan hausnartzeko»<sup>78</sup> eta emakumeen parte-hartzea ukatzen zuen edota emakume izate hutsagatik hauek bazterten zituen jarduera orori uko egiteko (Euskadiko Berdintasun Legeak hala xedatzen baitu). Hala, 2014an herri-eskaerari erantzunez, Udalak onartu egin zuen erronka eta planaren ekintzak martxan jarri zituen, jaietan inplikaturako zinegotzi eta teknikariek partaidetza-prozesua koordinatzen hasita. Geroago, dantza-talde bi eta jai-batzordea gonbidatu zituen eztabaidan parte hartzera, haiek baitira, Udalarekin batera, dantzak antolatzeko lanetan gehien inplikatzen direnak. Garrantzitsua da azpimarratzea, Dantzari-dantzan parte hartzen duten gehienak udalerriko dantza-talde bietakoak diren arren, ez dela beharrezkoa horietako kide izatea. San Pedro jaietan herriko dantzariak hartzen dute parte, eta Udala arduratzen da urtero horiek aukeratzeaz. Hala eta guztiz ere, udalbatzak ezinbestekotzat jo zuen dantza-taldeak eta jai-batzordeak ere prozesuan parte hartzea.

2016. urtean, partaidetza-prozesu haren esparruan, Berrizko jaietako dantza tradizionaletan emakumeek duten rola aztertu zen eta iritzi guztiak entzun ziren. Zailtasunak zituzten oraindik aldaketa nola egin erabakitzeko eta zer urrats eman erabakitzeko; hala, emakumeek parte hartu behar zutelako erabakita, [Dantzan elkarte](#) gonbidatu zuten prozesuan parte hartzera, urratsak nola bideratu erabakitzen laguntzeko. 2016ko urtarrilaren 26an, Oier Araolaza antropologo eta dantzan adituak hitzaldia eman zuen Berrizen eta bertara hurbildu ziren herriko laurogei pertsona, udalerriko dantza-talde bietako (San Lorenzo eta Iremiñe) partaideak gehienak. Adituaren arabera, aldaketaren aldeko urratsak egiteko orduan, une kritikoak bizi izaten dira beti eta beharrezkoa izaten da informazio espezifiko eskuratzea: parte-hartzea arautzen duten sistemei buruzko zehaztasunak, prestakuntza- eta kudeaketa-prozesuak, jantziak eta koreografiak egokitzeko moduak, etab. Funtsezkoa da beste kasu batzuetan eraldaketa nola bideratu den ezagutzea, sarritan aldaketa-prozesuak detailerik txikienetan enkistatzen baitira. Dantza barrenetik bizi eta kudeatzen duten pertsonen komunikazio- eta elkarrizketa-lan ona egitea erabakigarria da urrats irmoak egiteko. Berrizen kasuan, beste eredu batzuen zehaztasun guztiak argitu eta barneratu ondoren, ezerezean geratu ziren batzuek aldaketen inguruan zituzten errezeloak eta dudak. Egia esan, emakumeen parte-hartzearen aldeko ahobatezko jarrera hartzen lagundu zien esku-hartze horrek.

Partaidetza-proiektuak iraun bitartean, behin baino gehiagotan zabaldu ziren saioak herritarrentzat, prozesua zertan zen jakinarazteko eta interesdunek beren iritziak emateko aukera izan zezaten.

2017. urtean, adostasunera iritsita, adostasun-agiria sortzea erabaki zuten eta bertan jaso zituzten aldaketaren aldeko zenbait konpromiso, guztiek sinatuta: Udalak, jai-batzordeak eta udalerriko dantza-taldeak. Dantzari eutsi egingo zitzaizkion erabaki zen, baita gizon zein

---

78 Udalaren IV. Berdintasun Planak (2012-2015) dantza honen egoera aldatzeko beharra jasotzen du hainbat helburu eta ekintzatan. Emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua sustatzeko ekintzen artean (2012-2014), G.5.2 Ekintza dago jasota, «Udalak sustatutako partaidetza-prozesuetan emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua bultzatzea». Genero-estereotipoetan oinarritutako rol sozialak gainditu eta balioen aldaketa sustatze aldera, 2013-2015 urte bitartean E.2.11 ekintza proposatu zen, «Jaietako egitarauetan emakume dantzarien ekitaldiak barne hartzearen inguruan hausnartzea».

emakumeek dantzatuko zutela ere, inolako bereizketarik gabe. Helburua lortzeko, egin beharreko ekintzen agenda sortu zen. Ekintza horietako bat izan zen dantzak mutilei zein neskei irakastea, eta hartarako konpromisoa hartu zuten taldeek, dantza bera tradizioz gizonezkoena edo emakumezkoena zen kontuan hartu gabe. Urte hartan bertan hasi ziren lanean.

2018. urtean, oraindik ez zegoen emakumerik dantzatzeko prest, baina lanean jarraitzen zuten. Bestalde, Bizkaiko *Berdinbidean* zerbitzuak Berrizko esperientzia hautatu zuen emakumeak jaietan barne hartzeko jardunbide egoki gisa, eta sentsibilizazio-bideo bat sortu zuen lurraldeko beste udalerrri batzuei erakusteko<sup>79</sup>. 2019an parte hartu zuen, lehendabizikoz, emakume batek Dantzari-dantzan, zazpi gizonekin batera<sup>80</sup>.

### Zerikusia duten eragileak

- Herritarrak.
- Alderdi eta ordezkari politikoak.
- Berdintasun-teknikaria.
- Kultura-arloko teknikaria.
- Jai-batzordea.
- Dantza-taldeak.
- Dantzan Elkartea, dantzan eta antropologian aditua.

### Estrategiak

- Jaietan eta jaietako ekitaldi nagusietan emakumeen ikusgaitasuna, presentzia eta parte-hartzea bermatzea.
- Udalak berak herriko jaietan berdintasuna sustatzeko zituen legezko baliabideak erabiltzea (legeak eta Udalaren Berdintasun Plana).
- Udalak berak sustatzen dituen ekitaldietan eraldaketa bideratzeko sentsibilizazio-, hausnarketa-, prestakuntza- eta ekintza-guneak sortzea.
- Adituen laguntza eskuratzea, partaidetza-prozesua bultzatzeko.

### Emaitzak

- Aldatzeko beharra aldarrikatzea eta onartzea.
- Partaidetza-prozesuak abiatzea eragile politiko, tekniko eta sozialekin.

---

<sup>79</sup> *Berdinbidean Bizkaia* emakume eta gizonen berdintasun eremuko dinamizazio eta aholkularitza zerbitzua da, eta emakume eta gizonen arteko berdintasun eremuan ekintza estrategikoak garatzeko aholkularitza tekniko eskaintzen du, Bizkaiko Lurralde Historikoan 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriei zuzendua.

<sup>80</sup> *Dantzan.eus* (2019/06/30) [Emakume bat lehen aldiz dantzari-dantzan San Pedro egunean Berrizen.](#)

- Adostasun-agiria sinatzea.
- Egin beharreko ekintzen agenda sortzea.
- Emakumeek dantzak ikastea.
- Prozesuari buruzko sentsibilizazio-bideoa sortzea: *Dantzetan ere berdintasunaren alde!*
- Emakumeek Dantzari-dantzan lehendabizikoz parte hartzea.

### Aldaketa gauzatzeko gakoak

- **Genero-desberdintasunez ohartzea.** Jaietan inplikaturako eragile guztien adostasunez gertatu da aldaketa, guztiek adierazi baitute dantza horietan gizonen soilik parte hartzea sexuan oinarritutako diskriminazio modu bat zela.
- **Teknikariak eta udalerrian berdintasuna sustatzeko tresna espezifikoak.** Udalak onartu egin du aldatzeko beharra, eta eskura dauzka bai berdintasunean espezializatutako langileak bai eskariaren unean aldaketa-prozesua sustatzeko beharra ezartzen duen Berdintasun Plana.
- **Partaidetza-prozesua sustatzea eta hari eustea.** Onartu egin da prozesuan inplikaturako eragile eta herritar guztien artean gauzatu behar dela aldaketa. Alde guztien artean proposamenak egin dira eta aldaketa gauzatzeko espazio eta baliabideak ezarri dira (adituen laguntzaz).
- **Adituen laguntza.** Dantza eta antropologian aditua den Dantzan elkarteak kontratatu da, aldaketa-prozesuan bide-lagun izateko.

## GERNIKAKO MARIJESIAK<sup>81</sup>

### 6.2.3.

Marijesiak Gabon aurretiko bederatziruak dira; lagun talde bat Gernikako kaleetan (Bizkaia) zehar ibiltzen da bederlatzi egunez, abenduaren 16tik 24ra bitartean, goizaldeko 4:00etatik aurrera. Bakarlari batek zuzenduta, koplak abesten dituzte *Marijesiek* udalerriko kaleetan zehar; aurrez ezarritako ibilbidea egiten dute goizaldean, guztira, sei bat kilometro ordu eta erdian (bi orduan batzuetan)<sup>82</sup>. Hiru melodia interpretatzen dira: «*Bakarlariak ad libitum intonatzen ditu bi melodia; hau da, bere estilora, inolako konpas-erritmotara lotu gabe. Koruak, orduan, tempo berera erantzuten du, erritmoa zainduz. Hirugarren melodia oso erritmikoa da, jai-girokoa. Gernikan a capella abesten dira guztiak, hau da, inolako musika-akonpainamendurik eta perkusiorik gabe*» (Lopez de Larruzea, 2019). Azken egunean beste bi erronda egiten dira: goizeko zazpitan bata, eta goizeko hamarrak inguruan azkena. Horretan egiten da diru-bilketa, eta Marijesien batzarrak urteko bileran erabakitako on-

81 Atal honetan erabiltako informazioa, dokumentazioa eta izenak *Gernikako Marijesiak* Elkartek eman ditu; elkarrizketan parte hartu duten hiru emakumeek, hain zuzen ere. Haiexek berrikusi dute testua eta idatzi dituzte kontakizun honen zenbait paragrafo.

82 Bakarlaria taldearen aurretik doa ibilbide osoan zehar, eta hark gidatzen du taldea eta markatzen ditu kantatzen diren koplak.

gintzazko helburura bideratzen da. Tradizio erlijiosoa da, baina izaera hori galduz joan da neurri handi batean; izan ere, bertan parte hartzen duten pertsona askoren helburua ohiturari eustea da, zentzu erlijiosoa mantentzetik harago.

Gaur egun laurogei eta ehun pertsona bitarte elkartzen dira, adin guztietako gizon eta emakumeak. 1918. urteko *Euzkadi* egunkarian, gizonek soilik osatutako taldea aipatzen da. Bost abeslari besterik ez ziren garai hartan, baina azken berrogeita hamar urteetan kantari kopurua handituz joan da eta emakumeak barne hartu dituzte. Jarraian azalduko da nola gertatu den aldaketa hori.

Jai honetan emakumeen parte-hartzeari buruzko lehendabiziko erreferentzia Parrokiako agiri batean dago, Brisas Guerniquesas aldizkarian jasota (1957, 7. zk, 1. or). Servus (=parrokoa, Fernando Arsuaga): «*Askoren atsekabea eta pena, duela urte batzuk gizonen ahots baxuen artean emakumezko ahotsak entzun zirelako, orain arte ezagun genuen behe-doinua urratuta. Lastima litzateke bide berriak txertatzeak Gernikako ohiturarik klasikoenetako bat hondatzea*». Ezin izan dugu marijesi zaharrenean artean albiste hori berretsi, baina idatzizko erreferentzia oso argia da.

60ko hamarkadaren azkenetan, bi emakumek txokolatea eta tortilla prestatzen zituzten bederatziruaren azken egunean. Marijes batek gonbidatuta, horietako bat haiekin kantatzen hasi zen halako batean, eta urte luzez jarraitu zuen, marijes konstante eta ezagunena bilakatu zen arte. Ondoren, 70eko hamarkada baino lehen, hiru emakume gaztek bederatziruaren osoa egingo zutela erabaki zuten irmoki, gizonen entzun baitzieten emakumeek ezin zutela Marijesietan abestu. Eta halaxe egin zuten.

70eko hamarkada hasieran, emakume lagun talde bat ere hasi zen abesten. Jose Antonio Arana Martijaren apunteetan jasota dago 1972. urtean taldean bazirela 40 mutil eta lau neska. Urte haietan, neska gazte gehiago animatu ziren kuadrillan parte hartzera, azken eguneko bigarren errondatik aurrera eta, batez ere, diru-bilketaren azken errondan, baina bederatziruaren osoa egin gabe. 1978ko abenduan, eta urte hartan soilik, emakume bik egin zuten bederatziruaren osoa, pixka bat kikilduta (haien hitzetan), inork zerbait esango zien beldur. Hirurogeiko hamarkadan hasitako emakume hura kenduta, urte haietan parte hartu zuten gainerako emakumeek aldizka hartu zuten parte, baina, zalantzarik gabe, ordura arteko ohitura urratu zuten.

1980tik aurrera, ospakizun horren argazkiek agerian uzten dute emakume gazte gutxi zegoela oraindik taldean, baina argi dago parte hartzen zutela eta, pixkanaka, beren lekua lortu zutela Marijesietan. 1987. urtetik aurrera, orduantxe kantatzen hasi zen emakumezko marijes baten arabera, baziren lau edo bost emakume bederatziruarenean usu parte hartzen zutenak beste hogeitaz gizonekin; baina, oro har, atzean egoten ziren, nabarmendu gabe, lehenengo lerrotik urrun. Emakume gazte izateagatik, ez zieten erabateko ongi etorririk egiten; inork parte-hartzerik ukatu ez bazien ere, bazekiten bere presentziak esamesak eta intsinuazioak eragiten zituela. Jendeak bazioen, besteak beste, ligatzeko apuntatu zirela, eta taldean zuten egiazko funtzioaren inguruko txantxak egiten zituzten: tortillak eta txokolatea prestatzeaz arduratzen zirela. Senideak, bereziki amak, kezkatu egiten ziren hain emakume gutxi –eta hain gazteak– zirelako eta goizaldeko ordu txikitik ibiltzen zirelako hainbeste gizonen artean. Oro har, ez ziren erabat onartuta sentitu; izan ere, batzuetan haiek kontuan izan gabe antolatzen zituzten jarduerak gizonen, ez zituzten ekitaldi jakin batzuetara gonbidatzen.

Zailtasunak zailtasun, gero eta neska gazte gehiago animatu ziren Marijesietan parte hartzera. Hala, 1993. urtean, emakume dezente aritzen ziren kantatzen. 1999ko *Eutsi* aldizkarian, *Marijesietan* emakumeek lortutako ezohiko protagonismoa aipatu zen. 2002. urtean, *Aldaba* aldizkarian argitaratu zen emakume talde handi baten lehendabiziko argazkia, 2001ekoa, eta

«ahotsa eta kantua» zuten emakumeen gorakada nabarmenari erreferentzia egin zitzaion. Denboraren poderioz, abestera irteten zen taldea handituz zihoan neurrian, emakumeen kopurua ere handitu egin zen eta horien presentzia normalizatu. Hala, gaur-gaurkoz, gizon baino emakume gehiagok parte hartzen dute egun batzuetan.

Kasu honetan, emakumeak barne hartzeak planteatzen zuen «arazoetako» bat zen musika eraldatu egin behar zela; izan ere, ordura arte gizonezko ahotsek soilik abesten zituzten koplak, ahots baxuek, eta esaten zuten emakumezkoen ahotsek hutsaldu egingo zutela kantua, soinu altuegia zutelako. Kezka horrek bazuen beste kontu bat atzean, emakumeen parte-hartzea osoa izan zedin gainditu beharreko beste erronka bat: bakarlarria emakumezkoa izateko aukera. Bakarlari gisa jarduteak taldearen erantzukizuna zekarren berekin, hura aritzen baita taldearen gidari ibilbide osoan zehar. Gainera, ahots ona eta erresistentzia fisikoa izan behar ditu bakarlariak, eguraldiaren gorabeherari aurre egiteko. 1999. urte inguruan, emakume bat boluntario aurkeztu zen bakarlari izateko, baina ez zuen behar besteko babesas jaso. Bakarlari izateko, ezinbestekoa da beste bakarlari batek gutxienez hautagai berria trebatu eta laguntzeko konpromisoa hartzea. Garrantzitsua da taldeak rol hori betetzen duen pertsona babestea, azken batean, taldeak hartara animatzen duelako hartzen baitu bakarlariak rol hori. Geroago, 2013an, beste emakume batek egin zituen bakarlari izateko hasierako entseguak; talde osoarekin ere aritu zen, baina ez zen kalean abestera iritsi.

Emakumeek Marijesietan kantatzen berrogeita hamar urte baino gehiago eman ondoren, eta bakarlari izateko lehenengo emakume boluntarioa aurkeztu zenetik ia hogeit hamar igarota, 2018ko abenduaren 23an emakume bat izan zen bakarlari lehendabizikoa: Ane Miren Arejita Abaitua. Gaur gaurkoz bost bakarlari daude: lau gizon eta emakume hori.

«Marijesiak 4:00 Bederatzi gau hotzetan» dokumentalean jaso dira ohitura honen historia eta bizi izan dituen aldaketak –besteak beste, emakumeak barne hartzeko egin dena–. Bertan parte hartu dute historia, musika, antropologia eta ikus-entzunezko gaietan adituek eta bederatziurrena antolatzen duen elkarteak<sup>83</sup>, erakunde publiko zein pribatuen babesarekin<sup>84</sup>. Dokumentalean zein harekin batera doan argitalpenean jasota dago Dani Rementeria antropologoaren hausnarketa, zeinak baieztatzen baituen *Marijesiak* mantentzeko arrazoi nagusia izan dela parte-hartzaileak gai izan direla ohitura eraldatzeko eta garai ezberdinetara egokitzeko; eta, nahiz eta paradoxa dirudien, hori da tradizioak bizirik eta indartsu mantentzeko gakoa (Lopez de Larruzea, 2019).

### Zerikusia duten eragileak

- Marijesiak.
- Herriko emakumeak.
- Gernikako Marijesiak Elkartea.
- Taldeko bakarlariak.
- Historia, musika, literatura eta antropologian adituak.
- «Marijesiak 4:00 bederatzi gau hotzetan» dokumentaleko taldea.

83 Gernikako Marijesiak elkarteak Eusko Jaurlaritzan erregistratuta dago 2002. urtetik.

84 Amagoia Lopez de Larruzeari egindako elkarrizketa honetan: *Bizkaie* (2019/12/16) 'Gernikar bati Marijesiak aitatu ezker, begiak biztuten jakoz', zehaztasun ugari ematen dira, eta aipatzen da dokumentala finantzatzeko hainbat erakunderen babesas jaso zutela (BBK, Bizkaiko Foru Aldundia, Gernikako Kultur Etxea, Metrobilbao, besteak beste), proiektua gauzatzeko urratsak zeintzuk izan ziren ere azaltzen da.



- Herritarrak.
- Bizkaiko Foru Aldundia.

### Estrategiak

- Bederatziurrenean eta haren inguruan sortzen diren jarduera nagusietan emakumeen ikusgaitasuna, presentzia eta parte-hartzea bermatzea.
- Taldea eraldatzeko eta emakumeek gizonekiko berdintasunez rol guztietan parte hartu ahal izateko barneko hausnarketa-jarduerak sustatzea.
- Prozesua partekatzea eta haren berri zabaltzea, horrelako aldaketak beste kultura-jarduera eta jai batzuetan ere ezarri ahal izateko.

### Emaitzak

- Emakumeek Marijesietan parte hartzea.
- Emakumezkoen ahotsak onartzea.
- Emakumeak bakarlari gisa aritzeko trebatzea.
- Lehenengo emakumeak bakarlari gisa parte hartzea.
- «MARIJESIAK 4:00 Bederatzi gau hotzetan» dokumentala, eta bederatziurrenaren historia zein aldaketei buruzko argitalpenak.
- [Webgunea](#) , proiektua bideratzeko sortutako material guztiekin.
- «MARIJESIAK 4:00 Bederatzi gau hotzetan» dokumentalaren aurkezpen publikoa Gernikan eta beste leku batzuetan.

### Aldaketa gauzatzeko gakoak

- **Herritarren kontzientzia feminista.** Gatazka eta eztabaida handirik gabe gauzatu da aldaketa, emakumeen inguruan pentsamolde berritua hedatu delako eta jendeak babesa agertu duelako. Horrela, abesbatza mistoa erabat normalizat dute egun.
- **Emakumeen beraien desira eta iraunkortasuna.** Tradizio honekiko interesaren ondorioz, ospakizunetan parte hartzen hasi ziren Gernikako emakumeak, nahiz eta hartarako gonbidapenik jaso ez.
- **Bederatziurrenaren «sekularizazioa».** Bederatziurrena elizari lotutako erritual izatetik elizatik kanpoko lagun talde batek antolatutako tradizio izatera pasa zen; hori dela eta, gero eta pertsona gehiago animatu izan dira parte hartzera eta, zabaltze harekin batera, emakumeek parte hartzeko bidea erraztu zen. Gaur egun *Marijesietan* elkartzen diren askok ez dute sentimendu erlijiosoak bultzatuta parte hartzen, tradizioarekiko errespetuak eta maitasunak bultzatuta baizik.

- **Tradizioa mantentzea eta transmititzea.** Elkarteak berak eta bederatziurrenaren jarraitzaileek boluntario gisa lan egin dute, tradizioa ikertzeko eta berau zabaldu zein egungo errealitatera egokitzeko bideak bilatzeko, betiere, tradizioari eustea azken helburua delarik.
- **Emakume bakarlaria trebatzeko konpromisoa.** Gizon bakarlariek eta taldeak berak konpromisoa agertu dute kantua emakume batekin lantzeko, hark bakarlari gisa parte hartu ahal izan dezan. Talde osoaren babesa ezinbestekoa izan da prozesuan.

## GIPUZKOA

# 6.3.

### DONOSTIAKO DANBORRADA<sup>85</sup>

## 6.3.1.

Donostiako Danborrada San Sebastian egunez ospatzen da, urtarrilaren 19ko gauerditik 20ko gauerdira bitarte. Donostia Kulturaren datuen arabera, 2020ko edizioan 151 danborradak parte hartu zuten, guztira, 18.995 parte-hartzailek: 8.169 emakume eta 10.826 gizon. Danborradan emakumeak barne hartzeari dagokionez, helduen danborradetan, zenbait ekitaldi ofizialetan (hiriko banderaren igoera eta jaitsiera ekitaldian, edota Urrezko Danborraren afari ofizialean) eta haurren danborradan izan diren aldaketa nagusiak azpimarratuko ditugu, bereziki pertsonaia protagonistei erreparatuta.

Danborraden balizko jatorriari buruzko zehaztasunetan sartu gabe<sup>86</sup>, hasiera-hasieran gizonak osatzen zituzten batez ere, eta emakumeek kantinera gisa parte har zezaketen soilik. Horrela izan zen, salbuespenak salbuespen, harik eta 1980. urtean *Kresala* kultura-elkarteko emakumeek danborradan parte hartzea erabaki zuten arte. Elkarte mistoa zen *Kresala* jarduera guztietan, jai honen ospakizunean izan ezik, eta bertako emakumeek elkartekideekin parte hartzea erabaki zuten, kontrako ahotsik egon bazegoen arren Horretarako, Javier Sadaren, hiriko historia eta folklore adituaren, aholkularitza eskatu zuten, eta emakumezko figura bat sortu: urketaria. Figura berri hura bat zetorren jaiaren zentzu eta esanahiarekin, eta berehala onartu zuten herritarrek (Moral et al., 2014). Hasiera batean zenbait ahots kritiko eta aldaketarako beldur izan baziren ere, urte gutxian urketariaren figura bere egin zuten beste danborrada askok eta, horrela, era baketsuan hasi ziren emakume ugari ospakizunean parte hartzen<sup>87</sup>.

Ondoren, pixkanaka, emakumeak sukaldari jantzita ere hasi ziren desfilatzen, upelak jotzen –baita danborrak ere–. Hala eta guztiz ere, errezeloak sortu ziren eta danborrada batzuek jarraitzen zuten emakumeen parte-hartzeari uko egiten. Udalaren presioen eta kolektibo

85 Emakumeak Donostiako Danborradan barne hartzeko prozesuari dagokionez, hainbat ikerlan egin dira (Farapi, 2009; Moral et al., 2014) eta horiek hartu ditugu atal honetarako erreferentzia gisa. Atal honetako informazioa osatu eta eguneratzeko, [Danborradaren webgunean](#) jasotako datuak erabili dira, baita prentsako albisteak eta Donostiako Udaleko berdintasun- zein jai-arloetako teknikariek egindako elkarriketak ere.

86 Batzuek 1830. urtean kokatzen dute jatorria, inauterien parte gisa (Moral et al., 2014).

87 *Eitb.eus* (2020/01/20) [Duela 40 urte desfilan emakumeak sartu zituen lehen konpainia Kresala izan zen.](#)

feministen eskarien ondorioz, jaietan berdintasuna sustatzeko presio-neurriak ezarri ziren 2009. urtean. Udalak dirulaguntza publikoak kendu zizkien gizonetzkoek soilik osatutako danborradei, emakumeen parte-hartzea ez zezaten mugatu eta danborrada misto bilaka zitezen; hori bai, elkarte antolatzaileak ez zeuden derrigortuta emakumeak bazkide gisa onartzera. Neurri horren bitartez, aldatu egin zen danborrada askoren eraketa eta, gaur-gaurkoz, aniztasun eta parte-hartze handia dago. Hala eta guztiz ere, oraindik badira bederatzi danborrada emakumeak onartzen ez dituztenak, eta beste batzuk emakumeen presentzia urketari rolera mugatzen jarraitzen dutenak<sup>88</sup>. Gainera, hainbat danborradetan emakumeen parte-hartzea orekatua izatetik urrun dago oraindik<sup>89</sup>, bazkideen gonbita jaso behar baitute parte hartzeko.

## **Banderaren igoera eta jaitsiera ekitaldi ofizialak**

Donostiako Danborradan emakumeen parte-hartze publiko eta agerikoari dagokionez, garrantzitsua da azpimarratzea hiriko Udalak izan duen rola, emakumeen presentzia sustatu baitzuen Konstituzio Plazako balkoian, Banderaren igoera ekitaldi ofizialean: 1998. urtean Donostiako Orfeoiko bi emakume izan ziren, eta 2013. urtean *Kresala* elkarteko urketariak. Edonola ere, presentzia murrizta da oraindik ere.

Bestalde, 1999. urtean, *Banderaren Igoera* eta *Jaitsiera* ekitaldietan protagonista bakarrak gizonetzkoak zirela ikusita –ekitaldia egiten zuten danborradak gizonetzko elkarte gastronomiko bitakoak zirelako (*Gaztelubide* eta *Unión Artesana*)<sup>90</sup>–, Udalak erabaki zuen danborrada guztietako ordezkariari zabaltzea ekitaldi bietan parte hartzeko aukera, eta, hala, hirurogeita sei pertsona gehiago bildu ziren ekitaldira, emakumeak eta gizonak.

2006an, Udalak beste urrats bat eman zuen, eta elkarte gastronomiko horiei biei presioa egin zien ekitaldi ofizialetan emakumeen presentzia berma zezaten agertokian –gutxienez hamabi–. Ez zen polemika, eztabaida sutsu eta deliberamendurik falta izan, baina neurria betetzeko erabakia hartu zuten eta, orduetik, urketari kopuruak gora egin du pixkanaka. 2012. urtean, urketari nagusiaren figura sortu zen, urketariak zuzentzeko, eta gaur egun 40 baino gehiago igotzen dira agertokira, nahiz eta *Gaztelubide* elkarteko bazkideek jarraitzen duten horiek aukeratzeko<sup>91</sup>. Gainera, gaur egun elkartean gizonekin batera afaltzeko aukera dute, lehen debekatuta zegoena.

## **Urrezko Danborra sariaren afari ofiziala**

1967. urtetik ematen zaio Urrezko Danborra hiriarekin lotura hertsia duen pertsona ospetsu edo elkarteren bati. Lehendabiziko 20 urteetan hiru emakumek soilik jaso zuten saria: 1972an, 1979an eta 1987an. Tradizioaren arabera, Urrezko Danborra jasotzen zutenek tokiko agintariekin batera afaltzen zuten urtarrilaren 19an *Gaztelubide* elkarte gastronomikoan, eta, garai hartan, elkartearen araudian debekatuta zegoen emakumeak egun hartan elkartean sartzea. 1987. urtean, saridunak, Pilar Mirók, *Arzak* jatetxean afaldu zuen alkateordearekin (alkatearen emaztea), Donostiako Zinemaldiko zuzendariarekin eta zinegotzi batekin; ordezkari instituzionalek eta beste saridunak (gizona bera) *Gaztelubide* elkartean afaldu zu-

88 Hauek dira danborradan emakumerik onartzen ez duten elkarte gastronomikoak –ezta bazkide gisa ere–: Amigos del Europa, Club Cantábrico, Catedral Centenario, Gizartea, Ondar Gain, Antonio taberna, Aizepe, Ollagorra eta Zubi Gain. *Irutxuloko hitza* (2020/01/17) [Bederatzi danborrada dira emakumeak baztertzen dituztenak](#).

89 2020. urtean, *Gaztelubide* danborrada 36 emakumek eta 129 gizonen osatu zuten, eta *Unión Artesana* 68 emakumek eta 134 gizonen.

90 *Unión Artesana* elkarte 2019. urtean hasi zen emakumeak bazkide gisa onartzen.

91 *El País* (2012/01/19) [Una tamborrada entre mujeres](#).

ten bitartean. Prentsak gertatutakoaren berri eman zuen eta kritika gogorak eragin zituen; hala eta guztiz ere, hurrengo urtean afaria *Gaztelubide* elkartearen egin zen berriro ere, Iñaki Gabilondo saridunarekin. Edonola ere, egun batzuk lehenago, *Diario Vasco* egunkarian argitaratutako ohar batean, salatu egin zuten agintarien babesa zuen egoera hura onartezina eta iraingarria zela, ekitaldi ofizial hartatik kanpo utziko baitzituzten lau emakume zinegotzi. Gutuna arlo eta alderdi ezberdinetako kargu politikodun 66 emakumek sinatu zuten, baita kultura- eta kazetaritza-arloetako hainbat emakumek ere. Udalbatzara iritsi zen gaia, baina alkateak entzungor egin zion afarian parte ez hartzeko egin zitzaion eskariari eta *Gaztelubide* elkartera bertaratu zen.

Aldaketa hurrengo urtean iritsi zen, 1989an, Gabriel Celaya poeta saridunaren eskutik, bere emazterik gabe ez zela *Gaztelubideko* afarira joango adierazi baitzuen hark. Keinu hari esker, emakumeak jaiaren ekitaldi nagusienetako batetik bazter uzten zituen beste tradizio bat urratzea lortu zen, eta afaria Maria Cristina hotelera lekualdatu zuten.

Polemika hartatik aurrera, ordezkari politikoak kontu handiz ibili izan dira emakumeen parte-hartzea onartzen ez duten elkarteetan ikusiak ez izateko, instituzioek zein legeak zainduta gaia baita. 2004an, zenbait talde politikok salatu zuten orduan Gipuzkoako ahaldun nagusi zenak *Gaztelubide* elkartearen afarian parte hartu zuela, eta onartezintzat jo zuten erakunde publiko bateko arduradun nagusiak ekitaldi diskriminatzaile batean parte hartzea. Batzar Nagusietan onartu egin zen talde horien proposamena, eta ordezkari instituzionalek beren presentziaz ekitaldi diskriminatzaileak ez babestea erabaki zen<sup>92</sup>. Hainbat urtez ospatu gabe egon ondoren, 2015ean *Gaztelubide* elkarteak ohiko afaria berreskuratu nahi izan zuen eta berriz ere gonbidatu zituen sarituak zein agintari publikoak, afarian emakumeen parte-hartzea baimenduta<sup>93</sup>.

Sariei dagokienez, Danborradaren webgunean jasota dago gizonari eman izan zaizkiela batez ere. 1987an Pilar Miróri saria eman ondoren, 1996. urtera arte itxaron behar izan zen berriz ere saritua emakume bat izateko (eta urte hartan 3 sari eman ziren, salbuespenez: bi gizon eta emakume bat). 1999. urtetik sari bakarra ematen da, eta emakumeek jaso dute 1999, 2008, 2016 eta 2019. urteetan. 2010ean La Oreja de Van Gogh taldeak eskuratu zuen (abeslaria emakumea da), eta 2020. urtean Real Sociadadeko emakumezkoen futbol eta hockey taldeek.

## Emakumeen Etxeko Danborrada<sup>94</sup>

2015. urtean, Donostiako Emakumeen Etxeari lotutako danborrada sortzeko ideiarik bueltaka hasi zen emakume talde bat. Ez zuten beren auzoetako danborradetik loturarik sentitzen eta, erakunde batzuek oraindik emakumeek parte hartzeko oztopoak jartzen zituztenez, danborrada feminista eta aldarrikatzailea sortzea erabaki zuten, Emakumeen Etxea Elkarteari lotuta, hura baitzen ondoen ordezkatzeko zituen erakundea. Halaxe aurkeztu zuten beren burua 2016. urtean: Donostiako lehendabiziko Danborrada feminista gisa.

Emakumeek soilik osatutako danborrada bat sortzea beste emakume batzuek hasitako bidea eskertzeko modu bat zen haientzat, eta aukera ematen zien Danborradan emakumeen

92 Ikusi dugunez, EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea onartu zen 2005ean, zeinetan berariaz debekatzeko administrazio publikoko ordezkariak sexuan oinarrituta diskriminatzaileak diren jardueretan parte hartzea.

93 *Diario Vasco* (2015/01/18) [Gaztelubide volverá a tener al Tambor de Oro en su cena y en su danborrada](#).

94 Emakumeen Etxeko Danborradaren sorrerari buruzko kontakizuna talde ikertzaileak Danborradaren fundatzaile eta parte-hartzaile bati egindako elkarrizketatik jaso da, baita Donostiako Emakumeen Etxeko koordinatzaileari egindako elkarrizketatik ere.

parte-hartzea aldarrikatzen aitzindari izan ziren emakume haiek omentzeko, baita bide horretan aurrera jarraitzeko ere. Beren danborrada propioa izateak, gainera, erabakiak eurek hartzeko aukera ematen zien. Bestalde, berdintasun formalaren kontzeptutik harago joan beharra zegoela uste zuten, emakumeen parte-hartze erreal eta integrala lortu ahal izateko; izan ere, haien aburuz, garai hartan ez zegoen –eta oraindik ere ez dago– parte-hartze erreal eta integrala bermatuta. Emakumeen presentzia oso txikia eta ezohikoa da oraindik danborrada batzuetan.

Aurretik ere aipatu dugunez, 2015. urtean, ekimena antolatzeko talde bat sortu ondoren, proiektu politiko eta feminista bilakatu zuten Emakumeen Etxeko Danborrada sortzeko prozesu hura; horretarako, partaidetza eta kontzientziazio prozesu bat abian jarri zuten, Danborradan parte hartu nahi zuten beste emakume batzuekin batera. Prozesu horretan, eztabaida ugari sortu ziren, besteak beste, zer uniforme aukeratu edo zer eraman erabakitzeko orduan; baina adostasuna lortu zuten. Emakume batzuek urketari gisa irten nahi bazuten ere, azkenean, sukaldari jantzia soilik erabiliko zutela erabaki zuten guztien artean, urketari eta kantinerak alde batera utzita. Hala, rol ezberdinak badaude ere, ez da jantzietan ezberdintasunik antzematen. Gerora, zenbait eragilerekin elkartu ziren beren jarrerak alderatzeko, eta «Emeki-emeki berdintasunezko Danborradarantz» liburua argitaratu zuen talde ikertzaileari gonbita luzatu zioten, hainbat gairen inguruan eztabaidatzeko<sup>95</sup>.

Prozesu haren ondoren, laurogei emakume irten ziren lehendabizikoz 2016ko urtarrilaren 20an, eta ordutik kide kopurua handituz joan da. Lehen urteko talde eragile hura lan batzorde iraunkor bilakatu zen Emakumeen Etxea Elkartearen. Gaur egun zortzi-hamar emakumek osatzen dute batzordea eta urte osoan lan egiten dute, bereziki urritik aurrera, orduan hasien baitira izena ematen eta entseguak egiten<sup>96</sup>.

Hasiera-hasieratik gainditu behar izan dute arazo bera: ez dute emakumeek soilik osatutako txarangarik topatu; gehienak mistoak dira eta emakumeak gutxiengoa osatzen dute. Hori dela eta, hainbat urtetatik hona, txaranga berezia osatzen dute egun horretarako, era puntualean, jatorri ezberdinetako emakumeak elkartuta.

2018. urtetik omenaldia egiten diote hirian ibilbide feminista egin izan duten emakume bati edo gehiagori<sup>97</sup>. 2020. urtean ehun eta berrogeita hamar bat emakume elkartu ziren. Egokitzen zaien ordutegia txar samarra bada ere (bazkalorduan, 14:30etik aurrera), beti izaten dituzte jarraitzaileak. Danborradan parte hartzeko, Emakumeen Etxeko bazkide izatea da baldintza bakarra, eta horrek ez dakar inolako kuotarik ordaintzeko beharrik.

Etorkizunera begira, ez dute danborrada misto bilakatzeko asmorik, uste baitute horrek aldatu egingo lukeela beren funtzionatzeko modua, elkartearen izaera horizontal eta asanblearioa; izan ere, haien arabera, zuzendu nahi izateko joera izaten dute gizonen, danborradaren ordezkari izaten saiatzeko joera. Beste figura batzuk planteatu dituzte, 2020an bide-lagun izan duten buruhandiarren ildo beretik; kontuan hartu behar baita –Danborradari buruzko ikerlanean azpimarratu denez (Moral et al., 2014)– Inauteriari lotutako ospakizuna dela eta ez hainbeste martxa militarra.

---

95 *Diario Vasco* (2015/10/25) «Seremos 80 mujeres de blanco en pro de una tamborrada igualitaria».

96 Egungo Danborradaren Batzordeak honela aurkezten du bere burua [Emakumeen Etxearen webgunean](#): *Donostiako jaietan eta bereziki Donostia Egunean berdintasuna borrokatzeko beharraz sortu dugu Emakumeen Etxeko Danborrada Feminista. Emakumeek antolatutako danborrada bat gara, non emakumeak protagonistak garen eta emakumeen parte-hartzea sustatzen dugun. Eta honela [Danborradaren webgunean](#): Beste danborrada batzuetan lekurik ez zuten emakumeek Donostiako festan parte hartzeko aukera izateko eratu zen: mota guztietako emakumeak, desgaitasun fisikoak, entzumen-arazoak, bularreko minbizia, disfuntzionaltasun fisikoa, etab., dituztenak.*

97 Hauek dira orain arte saria jaso duten emakumeak: Pilar Romea 2018an, Arantza Gurmendi 2019an eta Nekane Benavente, Juana Arangueren eta Ana Txurruka 2020an. Asanbladak hartzen ditu danborrada feministaren erabakiak.

## Haurren Danborrada

Haurren Danborradak 1927. urtean desfilatu zuen lehendabizikoz, baina gerrak etenarazi zuen ospakizuna eta ez zen 1961. urtera arte berrabiarazi. Mutikoen soilik parte hartzen zuten garai hartan; neskato bat soilik egoten zen, Easo Ederraren pertsonaia, eta hirian barrena karroza batean igota paseatzen zen.

Moral et al. (2014) egileak kontatzen duenez, 70eko eta 80ko hamarkadetan egin ziren lehendabiziko aldaketak haurren desfilean. Eskola batzuek, zehapen-mehatxuei entzungor, neskatoei desfiletzeko aukera eman zieten, beren generoa disimulatu eta mutikoen artean kamuflatuta. Ondoren, demokrazia garaian, eskoletan haurrak sexuen arabera bereizteari utzi zitzaionean (araua zen diktadura garaian), neskatoek desfilean parte har zezaten onartu zen. Hala eta guztiz ere, jantzi maskulinoak jantzi behar zituzten (maistra batzuei esker, ile luzea disimulatu edota belarritakoak kendu gabe), harik eta, azkenean, urketari trajea jantzita parte hartu ahal izan zuten arte. Gaur egun ez dago murrizketa estetikorik, neskatoek nahi duten jantzia aukeratu dezakete eta pertsonaia protagonista gisa ere parte har dezakete, danbor nagusi<sup>98</sup>, jeneral<sup>99</sup> edo palafrezain<sup>100</sup> postuetan, nahiz eta neskatoen presentziak mutikoena baino txikiagoa izaten jarraitzen duen –festan gehiago izan arren–.

Haurren karrozari dagokionez ere, aldaketa adierazgarriak egin dira azken urteotan. Historikoki, 1961. urtetik 2011. urtera, Karrozako figura nagusia Easo Ederra zen, neskato batek irudikatzen zuena. Emakumezko figura estereotipatu haren inguruan sortutako kritiken aurrean, 2012. urtetik aurrera beste pertsonaia batzuk sortzen hasi ziren Easo Ederra laguntzeko eta hari zentraltasuna kentzeko. Hasieran figura femeninoak izan ziren guztiak: bi batele-  
ra, bi dama, bi inude, bi irule eta bi urketari. 2014. urtean, hiritar bi ere gehitu ziren, mutikoen ordezkaturakoak, eta 2017an figurak dibertsifikatu egin ziren berriro: herritar neskato bat agertu zen, mutikoa beharrean; eta arrantzale, artzain, merkatari eta mandazain bana gehitu ziren. 2018an Alkatesa eta notario figurak sortu ziren, eta 2020an emakumezko notario eta mandazain bana egon dira.

2019. urtean, Easo Ederraren figura zalantzan jarri zen eta, ondorioz, Aitor ikastolan mutil bat proposatu zuten rol horretan aritzeko. Ekimen haren aurrean, Udalak Easo Ederra ezabatzeko aukera iradoki zuen, egungo heziketa-ereduekin bat egiten ez duen feminitate-idea gorapatzen duelakoan. Ildo horri jarraiki, 2020an ez zen Easo Ederrik egon haurren karrozan; hala eta guztiz ere, baliteke oraindik Easo Ederra ordezkatzeko txandarik izan ez duen eskolaren batek baieztatu erabakia hartzea (txandaka aukeratzen dira, eta 4 edo 5 eskola daude parte hartzeke oraindik)<sup>101</sup>.

### Zerikusia duten eragileak

- Kresala elkarte gastronomikoko emakumeak.
- Hiriko folklore aditua.

98 1975. urtean agertu zen figura hau lehendabizikoz, eta 1995ean neskato batek irudikatu zuen lehendabizikoz; halaxe jasota dago [Danborradaren webgunean](#) (datu guztien iturria).

99 1961ean sortu zen figura hau. 2012. urtean Laguntzaile figura sortu zen, neska batek antzeztzen duena. Hurrengo urtean, neskek bete zituzten bai jeneral bai laguntzaile postuak. Figura horiek nork antzeztuko dituen aukeratzeko ardua eskola bakoitzari dagokio, baina oraindik neska gutxi izan dira jeneral.

100 2012an sortu zen figura hau.

101 *Irutxuloko hitza* (2020/01/10) Aitor ikastolak eman du pausoa, (2020/01/10) *Haur danborrada: 80ko hamarkadan hasi zen idazten parekidetasunaren historia*. *El País* (2020/01/19) *El lento redoble de la igualdad entre tambores*.

- Donostiako Udala.
- Elkarrekin gastronomikoak.
- Pertsona publiko eta ospetsuak.
- Agintari publikoak.
- Udalerriko eskolak.
- Herritarrak, oro har.
- Mugimendu feminista.
- Emakumeen Etxea.

### Estrategiak

- Emakumeen parte-hartzea bultzatzen duten ekimen sortzaileak sustatzea, figura edo jarduera berriak, besteak beste: urketaria, generorik gabeko pertsonaiak haurren karrozan, danborrada feminista...
- Adituen laguntza eskuratzea, eman beharreko urratsak kontsultatu eta erabakitzeko (Kresala elkarteko zein Emakumeen Etxea elkarteko emakumeak).
- Festan eta haren inguruan sortzen diren jarduera nagusietan emakumeen ikusgaitasuna, presentzia eta parte-hartzea bermatzea (ez soilik danborradetan, baita ekitaldi ofizialetan ere: balkoia, banderaren igoera eta jaitsiera, Urrezko Danborraren afaria).
- Festa sexista sustatzen duten sinbolo edo ekitaldiak ezabatzea, hala nola genero-estereotipoei lotutako figurak –Easo Ederra–, ekitaldi diskriminatzaileak –Urrezko Danborraren afaria– edo gizonezkoenak soilik diren elkarten presentzia ekitaldi nagusi ofizialetan.
- Danborradak eta Udalak antolatzen dituen bestelako ekitaldiak eraldatzeko hausnarke-ta, ikerketa eta ekintza sustatzea, esate baterako, jaiari buruzko azterlana genero-ikuspegiari oinarrituta sustatuz edo komunikabidetan adierazpen publikoak eginez.
- Udalak berak hiriko jaietan berdintasuna sustatzeko dituen legezko baliabideak (le-geak eta Berdintasun Plana) errespetatzea eta agintari publikoek gizonezkoenak soilik diren ekitaldietan izan dezaketen presentzia publikoki salatzea.
- Danborradak eta ekitaldi mistoak martxan jartzen dituzten taldeak bultzatzea eta fi-nantzatzea, gizonezkoak soilik diren danborradei dirulaguntzak kentzea eta jaietan ofi-zialtasuna edo zentraltasuna izan dezaten saihestea.

### Emaitzak

- Urketariaren figura sortzea.
- Danborrada mistoak egotea eta soldaduz jantzitako emakumeak danborra jotzen irtetea.
- Banderaren igoera eta jaitsiera ekitaldi ofizialetan emakumeak ikusaraztea, hala ager-tokian nola balkoian.

- Dirulaguntzak danborrada mistoei soilik ematea.
- Urrezko Danborra sariaren afari ofiziala emakumeak baztertu gabe egitea.
- Danborrada feminista sortzea, Emakumeen Etxeari lotuta.
- Haurren danborrada mistoa egitea, neskatuek pertsonaia protagonista gisa parte hartuz.
- Easo Ederraren figura ezabatzea.
- «Emeki-emeki berdintasunezko Danborradarantz» ikerlana sortzea eta zabaltzea.

### Aldaketa gauzatzeko gakoak

- **Emakumeen ekimena eta jaietan parte hartzeko borondatea.** Beste behin ere, emakumeek jaietan parte hartzeko erabakitasuna izan da eraldaketa-prozesua abiatu eta bultzatu duena.
- **Emakumezko figura bat sortzea.** Kasu honetan, *Kresala* elkarteak –aditu baten laguntzaz– urketari figura sortu izana oso baliagarria izan zen emakumeen parte-hartzeari ateak irekitzeko, pertsonaia hori beste danborrada askok ere kopiatu zuten eta.
- **Komunikabideen bitartez berdintasunaren aldeko presio soziala egitea.** Garrantzitsua izan zen arlo eta alderdi ezberdinetako kargu politikodun 66 emakumek –eta kultura- zein kazetaritza-arloetako beste batzuek– sinatutako eskutitza publikoki ezagutaraztea. Eztabaida kaleetara zabaldu zen, eta horrek erakunde publikoak erantzutera behartu zituen.
- **Berdintasunerako gobernantza eta kudeaketa Udalean.** Donostiako Udalak jaietan berdintasunaren alde agertutako jarrera ere ezinbestekoa izan zen, baita aldaketa lortzeko emandako urratsak ere: agertokian zein banderaren igoera eta jaitsiera ekitaldietan emakumeak ikusaraztea, gizonezkoenak soilik diren danborradei dirulaguntzak kentzea, emakumeak baztertzen dituzten ekitaldietan agintarien presentzia zalantzan jartzea (Berdintasun Legean jasota dago), haurren karrozako figurak aldatzea...
- **Hiriko hezkuntza-arloak berdintasunaren alde agertutako kontzientzia eta konpromisoa.** Eskolek bultzatu dituzte aldaketa-proposamenak haurren danborradetan, estereotipo bitar edo sexistarik sustatu ez zedin eta, horrela, haurrek nahi zuten pertsonaia askatasunez ordezkari zezaten sustatzeko. Eskolak kontziente dira jaietan aldatu egin behar direla bai jai-eredua bera bai genero-estereotipoak erreproduzitzen dituzten figurak.
- **Herritarren kontzientzia feminista.** Hiriko mugimendu feministak oso aktibo jardun du beti, erakunde publikoak etengabe premiatuz; lehendabizi, legeak sortu zitzaizkion eta, ondoren, emakumeek baldintza berdinetan parte hartu ahal izango dutela bermatzeko ordenantza eta legeak bete zitezkeen.
- **Elkarte gastronomikoen bilakaera.** Elkarte gastronomikoak, jaietako protagonista nagusiak, emakumeak bazkide gisa onartuz joan dira pixkanaka eta, hala, handitu egin da emakumeen parte-hartzea jaietan. *Kresala* hasiera-hasieratik elkarte gastronomiko mistoa izateak eragin zuen emakume bazkideek beren danborrada propioan parte hartu nahi izatea, gizonezko bazkideekin batera.



2006ko udaberrian, Antzuolako Udalak laguntza eskatu zion Eusko Ikaskuntza elkarteari Mairuaren Alardea –uztaileko hirugarren larunbatean ospatzen dena– biziberritzen lagunduko zuen proiektu bat garatzeko<sup>103</sup>. Kultura Batzordeak<sup>104</sup> (Antzuolako Mairuaren Alardea Elkartearekin batera herriko jaiak antolatzeaz arduratzen da)<sup>105</sup> Alardeari bultzada bat emateko asmoa agertu zuen, ekitaldiak parte-hartzea eta ospea galdu baitzituen azken urteetan<sup>106</sup>. Ohitura bizirik mantentzeko gogoia adierazteaz gain, Alardea eguneratzeko eta egungo tesuinguru sozialera egokitzeko bultzada ere egin zen hainbat sektoretatik. Alardearen sustrai historikoak hobeto ezagutarazi nahi ziren, baina, aldi berean, herriko gazteen parte-hartze txikiak kezkatzen zituen (neurri batean, desfilearen izaera militarrek eraginda), eta ospakizunean Mairua irudikatzeko moduaren inguruan sortutako kritikei erantzuna eman behar zitzaien.

Mairuaren Alardearen antzezpenean, errege mairu bat –Abderraman III.a–, 920. urtean Valdejunqueran (Muetz, Nafarroa) armada kristauaren menpe geratu ondoren, Antzuolara ekartzen dute preso eta, kateatuta, belauniko jartzera behartzen dute, milizia garailearen aurrean sumisioa agertzeko. Jaia eraldatu baino lehen, honela jarduten zuten parte-hartzaileek: soldadu ilarak, Alardeko jeneralari segika eta txistularien atzetik, plazan sartzen ziren; jeneralak, zaldi gainean, errege mairua errenditzea eskatzen zuen. Errege mairua, ordea, asto baten gainean zekarten, txilaba xume bat jantzita eta aurpegia kortxo erreaz eta betunez belztuta. Hasiera batean, ezezkoa egiten zuen Mairuak, baina berehala agertzen zen otzan, eta plazatik ateratzen zuten lepotik kateatuta. Jeneralak, orduan, eskopetak eta kanoiak desarratzeko agindua ematen zuen. Abesbatzak Iparragirreraren bertso batzuk kantatzen zituen eta, antzezpenari amaiera emateko, dantza-taldeak ikuskizuna eskaintzen zuen<sup>107</sup>. Emakumeen parte-hartzea abesbatzara, dantzara eta bandara mugatzen zen.

Mairuaren Alardearen eszenaratzean inplikaturako eragileek antzeman zuten ekitaldia berrikusi eta birplanteatu beharra zegoela, eta, hala, ia bi urteko hausnarketa-prozesua jarri zen martxan. Azterketa abiatu zen, elkarrizketak egin ziren zenbait herritarrekin eta festa berriro diseinatzeko talde-lana abiatu zen. Udalaren eta Mairuaren Alardearen Elkartearen eskaerari erantzunez, bi ardatzetan oinarritutako azterlana egin zuen *Eusko Ikaskuntzak*, ardatz historikoa eta ardatz antropologikoa barne hartuko zituena. Atal historikoan historiaren interpretazio ezberdinak aztertu ziren, hiru alderdi ardatz hartuta: Antzuola herri gisa finkatu zeneko unea; Alardea bera (derrigorrezko ekitaldi gisa hasieran eta herriko jaiari zein identitateari lotutako ekitaldi gisa ondoren); eta, azkenik, Mairuaren irudikapena eta haren esanahiak. Azterketa antropologikoa bideratzeko, zenbait elkarrizketa egin ziren Antzuolako bizitza soziokulturean adierazgarriak ziren pertsonekin, jakin nahi baitzuten

102 Kasu hau deskribatzeko, aipatu bibliografiaz gain, Margaret Bullen-en, prozesu honetan ikertzaile aritu denaren, esperientzia baliatu dugu.

103 Ikusi Ramirez Telleria (1990).

104 Kultura, Euskara, Kirol, Gazteria eta Hezkuntza Batzordea.

105 Izen ofiziala honako hau da: «Antzuolako Mairuaren Alardearen Elkarte». Euskaraz, «mairu» terminoak ez ditu egun gaztelaniaz «moro» hitzak dituen konnotazio negatibo berak.

106 Gaur egun Euskal Herriko hainbat herritan ospatzen diren alardeak desfile militar, zibiko edo/eta erlijiosoak dira, baina jai-giroan ospatzen dira, tokian tokiko jai-egitarauen barnean. Oro har, XV. mendearen erdialdetik aurrera lurralde historikoko udalerrri guztietan egiten ziren Arma Ikuskatzeetan dute jatorria, baina urteen poderioz beste bataila edo balentria batzuetako oroitzak ere gehitu izan zaizkio (Bullen eta Egido, 2000:135). Antzuolako Alardea, ordea, mairu eta kristauen arteko batailari erreferentzia egiten dion bakarra da, eta ez du inolako erreferentzia erlijiosorik. Beste hainbatek bai, ordea: Elorrioko Alardea (Errosario Santua), Hondarribiko Alardea (Guadalupeko Ama Birjina) edo Irungo Alardea (San Martzial).

107 *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. Bernardo Estornés Lasa Funtsa. [Antzuolako Mairuaren Alardea](#).

jendeak zer pertzepzio zuen, oro har, herriko dinamika kulturalaren inguruan eta, bereziki, Alardearen inguruan.

Lehen urrats gisa, bilera egin zuten orduan kultura zinegotzia zenarekin, arloari zegokion teknikariarekin eta Antzuolako Mairuaren Alardearen Elkarteko presidentearekin. Bilera hartan, agerian geratu zen Alardearen gainbehera eta zahartzeak eragindako kezka, baita parte-hartze txikia eta belaunaldi-erreleborik eza ere. Nabaria zen tradizioarekiko lotura, baita berau galtzeko beldurra ere. Alardeen topaketa handi bat antolatzeko ideia planteatu zen, eta parte hartzeko gonbita luzatuko zitzairen Euskal Herrian oraindik horrelako desfileak egiten zituzten herri guztiei. Horrela, bakoitzak bere interpretazio propioaren berri emango zuen eta –elkarrekiko ezagutzaren bidez– ekitaldiaren beraren balioa handituko zen. Eragile kulturalen eta Antzuolako Alardearen sustatzaileen arabera, Alardea biziberritzeko gakoa haren gaineko ezagutza historikoa handitzea zen: desfilearen sustraiak hobeto ezagututa, jendeak gehiago estimatuko zuen. Lehendabiziko bilera hartan, hortaz, Alardea babestea, sustatzea eta zabaltzea erabaki zen.

Elkarrizketen lehenengo fasea amaitutakoan, eztabaida-taldeetan zentratutako bigarren fase bat proposatu zen; horrela, parte-hartzaileen sarea handitu egingo zen, baita balizko aldaketen proposamenetan aurrera egin ere. Ikerketaren sustatzaile ziren eragileen hasierako asmoa barne hartzeko, Euskal Herriko Alardeen konbentzioa mintegi formatuan antolatzea proposatu zen. Horrela, ikerketaren lehenengo faseko emaitzak plazaratzeko plataforma gisa balioko zuen, eta emaitza horiek eztabaida-taldeetan garatzeko aprobetxatuko zuten. Jendea prozesuan inplikaturik sentitzea espero zuten, eta mintegian parte hartzea. Prozesuaren filosofiak uztartu egiten zituen, alde batetik, «herri-galdeketa» baten ikuspegi politikoa –iritzi publikoaren azterketa eta erabakietan parte hartzea sistema demokratiko gisa–, eta, bestetik, herritarren iritzietan eta bizipenetan oinarrituta lan egiteak berekin dakarren ikuspegi antropologikoa.

Antzuolan agerikoa zen arduradunen kezka; izan ere, gardentasun osoz jardun zuten proiektua aurrera eramateko, eta herritarrei fase guztien gaineko informazio zehatza ematen saiatu ziren une oro: proiektuaren zein emaitzen aurkezpen publikoetan arreta zaindu zen; proiektuaren helburuak, kronologia eta prozesua informazio-liburuxka batean banatu ziren herrian zehar; prentsaurrekoak eman ziren aldizka, bertako komunikabideak inplikaturik (telebista, irratia eta prentsa idatzia)...

Emaitzen inguruan lehendabiziko aurkezpen eta hausnarketa erronda bukatuta, Mintegia eginda eta Alardeak antolatuta, berriro jarri ziren lanean, azterlanaren ondorioak jaso eta txosten batean islatzeko asmoz (Bullen eta Kerexeta, 2007). Txostenetik eratorritako gomendioetan, Mairuaren irudikapena duintzeko beharra jasotzen zen batez ere, baita emakumeen eta gazteen parte-hartzea handitzeko beharra ere, baina Alardearen formatua erabat aldatu gabe. Gomendioek harrera positiboa izan zuten, nahiz eta errezelo zantzuak ere antzeman zitezkeen sektore tradizionalistenean, uste baitzuten Alardean egiazko interesik ez zuten pertsonen sustatuko zituztela aldaketak eta, jaia berriro ondoren, betikoek jarraituko zutela jaia antolatzen. Beste batzuek uste zuten aldaketa behar-beharrezkoa zela, Alardearen etorkizunaren eta Antzuolaren identitatearen aldeko apustua zela. Beharbada, batzorde bat sortzeko erabakia izan zen pozgarriena; batzordea arduratuko zen azterlanetik eratorritako gomendioak nola martxan jarri aztertzeaz eta emaitzak nola aplikatu erabakitzeaz. Deigarria izan zen zeinen mailakatua izan zen aldaketak ezartzeko hautatutako bidea, sentikor eta arduratsua. Helburu horrekin, 2007. eta 2009. Urteen artean, *Alardea biziberritzeko taldea* sortu zuten udal ordezkariak, Elkarteko zenbait kidek eta hainbat antzuolarrek.

«Azterketak agerian utzi zuen arazoa ez zela historikoa, ezta folklorikoa ere; are gehiago, errituaren beraren alderdi positiboak baloratu ziren eta ekitaldi berrituan ere horiek egitea proposatu zen. Landa-lan antropologikoan jaso ziren errituaren inguruko pertzepzio ezberdinak, guztiak alderatu egin ziren eta, Alardean oinarrituta, komunitate osoaren diagnostikoa eskaini zen. Nabarmendu behar da, halaber, funtsezkoa dela aldaketa-proposamenak herritarrekin adostea»<sup>108</sup>.

2008ko uztailan, Mairuaren Alardea azken hamarkadetan bezala ospatu zen azkenekoz<sup>109</sup>, eta omenaldia egin zitzaion urte horietan guztietan errege mairua interpretatu zuen pertsonari. 2008. eta 2009. Urteen artean, Valen Moñux koreografoarekin elkarlanean, berri egin ziren Alardearen antzezpena, dantzak eta musika, eta horrela lortu zuten ekitaldia inklusi-boagoa eta kultura- zein genero-aniztasunarekiko sentikorragoa izatea<sup>110</sup>. Mairuaren figura mantentzea erabaki zuten, baina duinduta. Horretarako, kalifa estatusa eman zitzaion, jeneralaren maila berean jarrita: zaldi gainean ibiliko zen (astoa baztertuta), dotore jantzita, eta segizio zein musikari talde batek lagunduta agertuko zen. Rol horietan emakumeak ere barne hartu ziren antzezlanen. Generoari dagokionez, jeneralaren diskurtsoa ere egokitu zen, inklusiboagoa eta beligerantzia txikiagokoa izan zedin, hizkuntza- eta kultura-aniztasunari erreferentziak eginez, eta hizkuntza genero-ikuspegitik egokituta. Aurretik ere desfilean presentzia bazuten ere, 2009. urtetik aurrera tradizioz gizonak betetzen zituzten rolak hartzen hasi ziren emakumeak (fusilariak, kanoilariak, edo jeneralaren eskolta); eta Antzuolako *Oinarin* dantza-taldeak koreografia berria sortu zuen, neskenzako zortziko bat, *trokeo-dantzak* mutilek bakarrik dantzatzen dituztela konpentsatzeko<sup>111</sup>. 2011. urtean, emakumeek parte hartu zuten Mairuaren guardia gisa eta 2012an kanoiak eramaten. 2019an, fusilari tropako ofiziala emakume bat izan zen.

«2009ko uztailaren 19an Alarde formal eta kontzeptualki berria taularatu zen. Aldaketarik adierazgarrienak protagonistak izan zituen: errege mairua jantzi dotorez ageri da, planta onekoa da, eskoltarekin dator, eta jeneralaren tratu bera du; ez da errendizioa antzeztzen, bakea eta elkarbizitza baizik. Oro har, koreografia osoa ikusgarriagoa da. Jende gehiagok parte hartu zuen, bereziki gazteek, eta emakumeak ere aritu ziren. Ikusle gehiago ere erakarri zituen ekitaldiak, eta nobedadeak txalotu zituzten.

Berrikuntzak ekitaldia indartu du, ikuskizun gisa ez ezik, islatzen duen gizarte kohesioari dagokionez ere bai: lehen oso jarrera kritikoa zutenek birsortze-prozesuan parte hartu dute, baita Alardean bertan ere, aurretik ere parte hartzen zutenekin, eta horrela biziberritze-lana orokorra izan da»<sup>112</sup>.

Ondorioz, baieztatu daiteke lan honi esker Antzuolak Mairuaren Alardea eguneratzea baino gehiago lortu duela: «Gai garrantzitsuetan ados jartzen badakigula erakutsi dugu; agerian geratu da, komunean ditugun balioetan oinarrituta, herri gisa dugun identitatea sendotzeko

108 *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. Bernardo Estornés Lasa Funtza. [Antzuolako Mairuaren Alardea](#).

109 1980. urtean Alardearen formatua berri egin zen, Juan Antonio Urbeltz koreografoaren laguntzaz. Eta 2008. urtean egin zen azken aldiz koreografia hura.

110 *Diario Vasco* (2018/07/14) [El Arde del Moro, una tradición adaptada a los nuevos tiempos](#).

111 2009. urtea baino lehen, *Oinarin* dantza-taldeko mutilak arduratzen ziren trokeo-dantzez eta, neskek beste dantza batzuetan parte hartzen bazuten ere, ez zeukaten berriaz haien artean dantzarik. [Antzuolako Alardea](#). [Trokeo-dantzak](#).

112 *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. Bernardo Estornés Lasa Funtza. [Antzuolako Mairuaren Alardea](#).

gai garela, eta gure kultura-ondarea transmititu dezakegula, berau kontserbatu eta biziberituta. Hitz batez, geure etorkizunaren protagonista eta erantzule garela erakutsi dugu»<sup>113</sup>.

Antzuolako Alardea berritzeko prozesua erreferentea da, eta tradizioaren eraldatzeari buruzko eskola-materiala sortzeko erabili zen<sup>114</sup>. Webgunea ([Antzuolako alardea](#)) mantentzen da eta aldizka albiste, historiako pasarte edo berrikuntzei buruzko informazioa bidaltzen da. 2019. urtean, Mairuaren Alardearen aldaketaren hamargarren urteurrena ospatu zen, eta prozesua berrikusteko eta etorkizunera begirako hausnarketa egiteko aprobetxatu zen. 2019an ere, Antzuolako ordezkariak Irungo Alarde Mistoari eta Hondarribiko Jaizkibel konpainiari babesa erakustera hurbildu ziren beren desfileetara, eta Bidasoko alarde parekideetako kideen ordezkari bat ere Antzuolako Alardean izan zen urte berean.

### Zerikusia duten eragileak

- Antzuolako Udaleko Kultura, Euskara, Kirola, Gazteria eta Hezkuntza Batzordeak.
- Antzuolako Alardearen Elkarteak.
- *Eusko Ikaskuntza* eta Historian zein Gizarte Antropologian adituak.
- *Alardea biziberritzeko taldea*, udal ordezkariak, Elkarteko kideak eta antzularrek osatutakoa.
- Koreografian aditua.
- Antzuolako kultura-elkarteetako zein kirol-taldeetako kideak eta eremu soziopolitikoko ordezkariak.
- Herritarrak, oro har.

### Estrategiak

- Alardea berrasmatzeko partaidetza-prozesu herrikoia bultzatzea, Udalaren laguntza eta inplikazioaz.
- Eraldaketarako beharrezkoak diren baliabideak eskuratzea eta adituen bide-laguntza lortzea. Problematikaren inguruko azterketa eta diagnostikoa egitea, eta Alardearen ekitaldi nagusiak moldatzea koreografo aditu baten laguntzaz.
- Gazteak inplikatzeko eta jaiaren transmisioaren inguruan hausnartzea.
- Erritualaren zein ekitaldiaren alderdi ezberdinetan emakumeen ikusgaitasuna, presentzia eta parte-hartzea bermatzea.
- Festa eraldatzeko barneko sentsibilizazio-, hausnarketa- eta ekintza-espazioak sortzea, kulturartekotasuna, berdintasuna eta gatazken ebazpen adostua bultzatuta.

---

113 <http://www.antzuolakoalardea.com/alardea/eraldaketak/>

114 Aranzadi Zientzia Elkarteak Antzuolako kasua hautatu zuen eredu pedagogiko gisa Donostian, «*Traces of the Past as Resources for Living Together in the Present. Teaching Intercultural Citizenship through Historical Heritage and Memory*» izeneko topaketetan, 2013ko azaroaren 11tik 16ra. Margaret Bullen-ek egin zuen aurkezpena: «*Acting out the past, arguing over the present. Controversies in the ritual and festive performance of (Basque) traditions*».

- Eraldaketa-prozesua komunikabide eta foroetan zabaltzea.
- Antzeko problematikak dituzten herriekin sareak eraikitzea, babesa eman eta jasotzea.

### Emaitzak

- Inklusio eta emakumeen parte-hartze handiagoa: emakumeek Alardean parte hartzen dute, dantzari eta musikari ez ezik, protagonismo handiagoko postuetan ere bai (fusilariak edo kanoilariak).
- Errege mairuaren figura duintzea, eta haren segizioa, guardia, musikariak, etab., sortzea.
- Antzuolako jeneralaren diskurtsoa berrikustea: hizkuntzaren erabilera sexista eta belizista saihestea, kulturartekotasunaren eta herrien arteko elkartasunaren aldeko diskurtsoa.
- Eszenografia birplanteatzea, koreografia zainduz eta berau aberasteko elementuak txertatuz, hala dantzari nola musikari dagokienez.
- *Alardea biziberritzeko Taldea* sortzea.
- Webgune bat sortzea: [Antzuolako Alardea](#).

### Aldaketa gauzatzeko gakoak

- **Partaidetza-prozesuak.** Demokrazia parte-hartzaile batean oinarritutako aldaketa-prozesua abiatu da, herriko ideia eta ideologiaren aniztasuna islatzeko asmoz, pentsamolde ezberdinen arteko adostasuna lortze aldera.
- **Aldaketa sozialaren aldeko konpromisoa eta lana.** Sozialki korapilatsuak izan daitezkeen gaien gaineko kontzientziazio handiagoa erakutsi da, besteak beste, beste leku batzuetatik etorritako pertsonen presentziari eta inklusioa irudikatzeko moduei dagokienez. Horrek guztiak beste talde (emakumeak edo gazteak) edo elementu batzuk (euskara) baztertzearen inguruan hausnartzeko balio izan zuen.
- **Transmisioaren pedagogia diseinatzea.** Komunitatearen barruan zein komunitatetik kanpo, Alardearen balio berriak transmititu dira komunikazio- eta hedapen-tresna ezberdinen bitartez.
- **Udalaren babesa.** Antzuolako Udalak, alkateak zein kultura- eta euskara-arloko zinegotzi eta teknikariek emandako babesa funtsezkoa izan da aldaketa-prozesua bultzatzeko eta figura parekide eta inklusiboagoak sortzeko.
- **Udal mailan jarduteko kanpoko laguntza bilatzeko prestasuna.** Ingurura begiratzeaz ari garenean, beste kasu batzuetatik ikasteaz eta arrakastak nor bere aldaketa-prozesuan aplikatzeaz ari garenean, erabaki eredugarriak dira honako hauek: hausnarketa-prozesua abiatzeko kanpo-erakunde baten laguntza eskatzea, beste talde batzuei beren Alardea azaltzeko gonbita luzatzea, edo koreografia berritzeko enkargua aditu bati egitea.

Tolosan, jaien aldaketa-prozesu ezberdinak egon dira. Inauteria eta Danberrada, eta San Joan egunez egiten diren Alardea eta *pardondantza* aztertuko ditugu jarraian. Herriko jaiak antolatzeko garaian elkarte gastronomikoez duten rola zenbait zailtasun planteatu ditu emakumeak barne hartzeko orduan eta, horregatik, herritarrek abian jarri dituzten ekimenak ere azalduko dira, baita Udalak eta Udaleko Berdintasun Zerbitzuak herriko elkarte gastronomikoez abiatu dituen lan- eta bitartekaritza-prozesuak ere. Azkenik, ezin da aipatu gabe geratu Tolosako Jaiak Behatokia sortzeko proiektu aitzindari eta esperimentalak (haren ibilbidea laburbilduta dago aurrerago).

### Inauterietako Danberrada

Tolosako Danberrada XIX. mende amaieran hasi zen ospatzen, inauterietako larunbatean, eta gizonezkoek osatutako elkarte gastronomiko eta kulturalak antolatzen zuten gehienbat. Emakumeek, hortaz, ez zuten danborra jotzen, baina Jaietako Erregina izan zitezkeen, ohorezko damekin batera karroza batean desfilatzeko. Danberrada antolatzen zuten elkarte gastronomikoetako kideen alaba edo senideen artean aukeratu ohi ziren erregina eta damak, eta estatus sozial jasoak izan ohi zuten (Farapi, 2009). Farapi 2009an elkarrizketatutako pertsonen arabera, postu horietarako aukeratzeak maila jakin bat islatzen zuen eta zaila zen klase xeheko neskatok postu horretara iristea. Kantineraren figura ere bazegoen; danberrada bakoitzaren aurretik joaten zen, baina ez zen hain prestigiotsua.

80ko hamarkada hasieran, *Aurrera* elkarte gastronomikoarekin lotura zuen emakume talde batek danberradan danborra jotzen irteteko baimena eskatu zuen, baina gizonen ezezkoa eman zieten. Elkarte gizonen zela argudiatu zuten, eta horregatik emakumeek ezin zutela danberradan parte hartu. Hala eta guztiz ere, emakumezkoen danberrada sortzeko erronka bota zieten gizonen; lortuz gero, beren jantzi eta tresnak utziko zizkieten ostiralen desfilatzeko. Horrela, emakumezkoen danberrada sortzea erabaki zuten; 1982. urtean desfilatu zuen lehendabizikoz, gizonen laguntzari esker, jantziak eta tresnak uzteaz gainera, karrozak eraikitzen ere lagundu baitzieten.

Urrats garrantzitsu eta ausarta izan zen *Aurrera* elkarteari lotutako emakumeek eman zutena, eta, aldeko testuingurua aprobetxatuta, jai nabarmen aldatu zuten; izan ere, mugimendu feminista oso aktibo zegoen urte haietan eta jai lotutako beste aldaketa-prozesu batzuk martxan zeuden dagoeneko. Txosten honen hitzaurrean azalduenez, Tolosan danberraden parte-hartzearen inguruko demokratizazio-prozesu bat ere bizi izan zen urte haietan; ekitaldi klasista eta eksklusiboa izatetik (elkarte gastronomikoetako bazkideena baino ez), ospakizun herrikoij, ireki eta parte-hartzaileagoa izatera pasa zen. Zentzu horretan, kexa eta eragozpen pertsonal batzuk gorabehera, edo horrek guztiak tradizioa urratzea zekarrela deitoratzen zuen prentsa-artikuluren bat gorabehera, gatazka handirik gabe bizi izan zen aldaketa. Pertsona batzuk kexu ziren, demokratizazio-prozesuak eta emakumeek festan barne hartzeko prozesuak tradizioa ahulduko zuela argudiatuta, grazia eta balio estetikoak kentzen ziolakoan; baina, pixkanaka, emakumeen parte-hartzea normalizatu egin zen eta familiek rol garrantzitsua

115 Atal honetan jasotako informazioa, Danberradari eta Alardeari dagokiena, Farapiren txostenetik (2009) eta aipatutako gainerako bibliografiatik eta prentsako albisteetatik hartu da, baita talde ikertzaileak prozesu-urteetan Tolosan lan egin izan duten berdintasun-teknikariei eta Farapi Kooperatibako bi adituri egindako elkarrizketetatik ere.

hartu zuten Inauterietan. Hala eta guztiz ere, larunbateko Danborradak gizonentzat soilik izaten jarraitzen zuen.

Jaiak eraldatzeko prozesu horrekin batera, emakumezko figurak (Erregina, ohorezko dama eta kantinerak) prestigioa galduz joan ziren eta gero eta zailagoa zen horiek interpretatu nahi zituzten emakumeak aurkitzea. Kantineraren figura zen laidoztatuena; izan ere, Tolosako eztabaida-taldean parte hartu zuten emakumeen arabera, kantinera irteten zenak gerora ohorezko dama edo erregina izateko baldintzapean egiten zuen. Jendartea aldatu egin zen eta, aurreko hamarkadetan neska gazteak postu horietan irteteko irrikan baziren, aita, osaba edo gizonezko senidea ordezkatzeko borrokatzen baziren, urteek aurrera egin ahal figura horiekiko errespetua galduz joan zen, eta larunbateko Danborradan emakumeei eskaintzen zitzaizen postu bakar horren gaineko ikuspegia aldatzen hasi zen. Figura horiek, sozialki onartu eta ongi ikusita egonagatik (emakumeen parte-hartzea ahalbidetzen zuten bakarrak), interesa galdu zuten neska gazteen artean, festan beste era batean parte hartzen hasiak baitziren. Hala, elkarteak arazoak izaten hasi ziren rol horietan parte hartu nahi zuten neskek aurkitzeko; eta, ondorioz, hautagaiak gero eta gazteagoak eta ezezagunagoak ziren.

80ko hamarkadatik aurrera, *Tolosako Emakume Asanblada* hasia zen figura horiek desgertzeko beharra aldarrikatzen, anakronikoak, lotsagarriak eta matxistak zirela argudiatuta<sup>116</sup>. Horrek tentsioak eragin zituen herrian, batez ere ospakizun garaian; baina ez zen liskar larririk gertatu<sup>117</sup>. Danborradaren gainbehera-unean gertatu ziren liskarrok eta, gainera, 1999. urtean hasitako udal-gobernuak Danborradan emakumeen parte-hartze ez sexistaren aldeko jarrera argia erakutsi zuen. Hain zuzen ere, Udala bera izan zen Erreginari eta damen desfilea ezabatzeko erabakia hartu zuena. Hartara, desfilea diruz laguntzeari utzi zion, baita pertsonaia horiek nork beteko zituen erabakitzeko egiten ziren bilera eta afarietan parte hartzeari utzi ere<sup>118</sup>. Azken hautaketa 2000. urtean izan zen, eta, nahiz eta erabaki haren inguruan jarrera kontrajarriak egon, ez da atzerapausorik egin aldaketa haren inguruan (Telleria, 2012; Garmendia, 2009). 2001. urtean, Erreginari karroza ezabatzeak utzitako hutsunea ordeztzeko, *Galtzaundiren* karroza ateratzen hasi ziren herrian, udalerriko Kultur Etxeko irakasleek sortutako pertsonaia. Ondoren, figura hura Kultur Etxeko balkoian jarriko zela erabaki zen eta orain jaien buru ageri da urterik urte. Urte haietan, gainera, pertsonaia eta elementu berriak txertatu ziren, eta horiek guztiek festa biziberritu zuten, Udaberri dantza-taldearen, Amarotz auzoaren eta Kultur Etxearen laguntzaz.

Une hartan polemika eta desadostasuna sortu ziren Danborradaren gainbehera eragin zuten arrazoiengatik, baita Udalaren rola inguruan ere; baina une aropean etorri ziren aldaketok, jaietan emakumeen parte-hartze parekideagoa bideratzeko. Farapik egingandako elkarrizketen arabera (2009), polemikak astindu berria eman zion jaiari, nahiz eta gero gainbeheran erori zen berriro.

Handik gutxira, larunbateko Danborradako Danbor Nagusiaren eta Tolosako arlo kultureko beste gizon ezagun batzuen jarrerari esker, larunbateko Danborrada emakumeei ere zabaltzea lortu zuen Berdintasun Zerbitzuak. Garai hartan jai-arloko zinegotzi zenaren arabera, aldaketa ilusioz hartu zuten, alabek bultzatuta neurri batean, emakumeak bazter uzteagatik Danborradaren inguruan zuten iritzi okerra transmititu baitzieten<sup>119</sup>. Horrela, gatazka handirik gabe, larunbateko Danborradara gero eta emakume gehiago bildu ziren pixkanaka,

116 *Tolosaldeko Ataria* (2020/02/11) 20 urte, feminismoak Zaldunita bezpera aldatu zuenetik.

117 *Tolosaldeko Ataria* (2020/02/18) "Plastiko beltzekin gertatzen dena zen, baina maila txikiagoan".

118 *Eitb* (2020/02/20) Silvana Ostiza: "Aliatu egokiak topatu genituen, Erreginak eta Damak kentzeko".

119 *Tolosaldeko Ataria* (2020/02/11) 20 urte, feminismoak Zaldunita bezpera aldatu zuenetik, (2020/02/18) "Plastiko beltzekin gertatzen dena zen, baina maila txikiagoan", *Eitb* (2020/02/20) Silvana Ostiza: "Aliatu egokiak topatu genituen, Erreginak eta Damak kentzeko".

gaur egun mistoa izatera heldu delarik: «Helduen Danborrada». Ostiralean desfilatzen zuten emakumeetako batzuek larunbatean irtetea erabaki zuten orduan, eta ostiraleko emakumezkoen danborradak bere horretan jarraitu zuten.

Laburbilduz, hainbat faktore elkartu ziren une berean eta, guztiek batera, inauteri-jaien eraldaketa eta emakumezkoen parte-hartzea areagotzea eragin zuten:

- Danborradaren prestigioaren ustezko gainbehera.
- Danborradaren demokratizazioa, parte-hartze handiagoa eta auzoetara zabaltzea.
- Berdintasunaren aldeko gobernua, 2000. urtean Udalean Berdintasun Sail eta Zerbitzua lehendabizikoz sortu zuena.
- Emakumezko pertsonaien gaineko pertzepzioaren aldaketa eta horiek ezabatzeko aldarrikapena.
- Talde eta eragile kulturalen babesa.

2007. urtean, *Aurrera* elkarteko emakumeek emakumezkoen lehendabiziko Danborradaren 25. urteurrena ospatu zuten eta ostiralean desfilatu zuten beren presentzia beste behin ikusarazteko. Ordurako mistoa zen dagoeneko Danborrada, baina gizonezkoen parte-hartzea anekdotikoa izan zen, eta hala izaten jarraitzen du egun, gizon gehienek oraindik ez baitute ostiralean desfilatu nahi izaten, emakumezkoen danborrada delakoan.

2009an, *Aurrera* elkarteak Erreginaren eta damen karroza berreskuratu zuen, umore ukitu batez, rol horietan gizonak jarrita, eta halaxe errepikatu zen 2010. urtean<sup>120</sup>. Rolak aldatzeko eta kolokan jartzeko jai aproposak dira inauteriak, eta horrek nabarmen lagundu du ohitura hau eraldatzeko prozesuan. Gaur egun, hala ere, karroza hori ez da Danborradako desfilean irteten.

## Tolosako San Joan jaietako Alardea

Tolosako San Joan jaia da udalerriko garrantzitsuena, eta, ohiko suaz eta *pordondantzaz* gain, Arma Alardeak ere protagonismoa bereganatu du (Nafarroaren eta Gipuzkoaren arteko Beotibarreko Batailaren irudikapena) (1321). Idoia Estornésesek (1997) dokumentatu egin zuen ospakizunaren bilakaera eta, azaltzen duenez, gerra eta gerraoste garaiko gainbeheraren ondoren, J.M. Gorrotxategik jaia berregituratu zuen 1968. urtean. Jaiaren atal nagusia meza nagusiarekin hasten da, ondoren prozesioa egiten dute Udalbatzako kideek, kofradiek, dantza-taldeak eta erraldoien konpartsak, atzean eskopetariak dituztela. Ibilbidean zehar eskopetariak ordenantza-salbak egiten dituzte zenbait puntutan eta, arratsaldez, segizioaren pasiera egiten dute berriro Udalbatzako kideek, musika bandak, txistulariek, *pordondantzariak* eta eskopetariak.

80ko hamarkadatik aurrera, hainbat konpainia hasi ziren emakumeak onartzen, eta misto bilakatu ziren gehienak. Hala, 1984. urtean, emakumezko eskopetariak soilik osatutako konpainia bat ere sortu zen; ez zen inolako polemikarik sortu eta, are gehiago, gizonezko eskopetariak neskatoak trebatu zituzten desfilatzeko (Estornés, 1997). Hori horrela, 25 urte baino gehiago dira emakumeek konpainietan parte hartzen dutela, edozein postutan. Edonola ere, oraindik ezberdintasunak daude rol-banaketan, eta zaila da kapitain postuan

---

120 *Diario Vasco* (2009/02/07) [Los cambios de las tamborradas](#), (2010/02/11) [Jueves Gordo, llegó el día](#).



emakumeak ikustea<sup>121</sup>. Gaur egun, konpainia guztiak mistoak dira, bi izan ezik. Bi horiek gizonezkoek soilik osatutakoak dira, eta beste bat emakumeek soilik osatutakoa. Konpainia mistoetan adierazgarria da emakumezkoen presentzia; izan ere, konpainia batzuetan kideen % 50era iristen da emakumeen parte-hartzea, baita gehiagora ere. Farapiren txostenean (2009) jasotzen denez, emakumeak eskopetari gisa aritzeko urratsa inolako gatazkarik gabe egin zen, seguru asko, guztiek uste zutelako jaia ondare komuna dela, parte hartzeko eskubidea guztiena zela eta inork ez zuela kanpo geratu behar. Antolatzaileen debeku edo baimenetatik harago, parte hartzeko gogoia pizten delako sortzen dira aldaketak. Alardea elkarte gastronomikoek antolatzen badute ere, eta horietan gizonezkoak nagusi badira ere, parte-hartzea jende gehiagori zabaldu zaio. Eta, erabat parekidea ez den arren, gero eta emakume gehiagok parte hartzen dute, rol protagonistak ere hartzen ari direla.

Danborradan gertatu antzera, Alardean emakumeak eskopetari gisa hasteak zerikusia izan zuen San Joan jaia gainbeheran egotearekin, eta, beraz, emakumeen parte-hartzeak jaia sendotu egin zuen. Konpainietan emakumeek parte-hartzea salbazioa izan zen; hau da, gainbehera-zantzu argiak zituen jai hura indartzeko bide gisa ulertu zuten herritarrek. Emakumeak onartzeko errezelarik handiena zuten konpainiek ere onartu zuten aldaketa, beren konpainian partaide kopuruak behera egiten zuela ikusita. Emakumerik onartzen ez zuten horiek, ordea, ikusi zuten 12 urteko neskatok beste konpainia batzuetara alde egiten zutela kartutxera soilik izan zitezkeela esaten zitzaizkenez, eta, haiekin batera, mutilek ere alde egiten zuten. Horrela, gazte gehienek ihes egiten zuten. Huraxe izan zen aldatzeko motibo nagusietako bat.

Edonola ere, San Joan festan *pordondantzariak* (guztiak mutilak) zuten protagonismoaren ondorioz, jai honen inguruko irudiak nahikoa maskulinizatua izaten jarraitzen zuen oraindik (Farapi, 2009). Dantza gizonek soilik egiten zuten, eta jaietako kartel, argazki eta egitarauetan erabateko protagonismoa ematen zitzaizkien gizonei. Emakumeen parte-hartzea ia ikusezina zen eta, horregatik, Udaleko Berdintasun Zerbitzuaren laguntzaz, gaiaren inguruko hausnarketa abiatu zuten. Emakumeen presentzia aztertu zuten eta jaietan genero-ikuspegia txertatzeko behararen inguruan herritarrek kontzientziazatzen saiatu ziren, emakumeek jaietan eta, oro har, bizitza sozialean parte-hartzeak duen garrantzia ikusarazi eta normalizatzeko.

2013. urtean, zenbait neskek lehendabizikoz parte hartu zuten *pordondantzarien* zeremonia-prozesioan, praka beharrez gona jantzita. *Udaberri* dantza-taldeak eman zuen urratsa normaltasun osoz eta inolako polemikarik eragin gabe<sup>122</sup>. Dantza-taldearen barne-lanaren fruitua izan zen hura (Udalaren bide-laguntzaz, jaien inguruko hausnarketa-prozesu zabalagoa abiatu baitzuen, jarraian azalduko denez). Gaur egun, hamazazpi neskek dantzatzen dute dagoeneko, eta elkarrizketatuek azpimarratu dute eragile ezberdinen arteko sinergiegi esker egin ahal izan dela aldaketa gatazkarik gabe.

### *Aldatzeko beharra elkarte gastronomikoetan*

Tolosako jaietan bizi izandako aldaketa-prozesuak nahiko era baketsuan eta ia «organikoan» eman ziren, udalerriko emakumeek beraiek sustatu baitzituzten, beste eragile sozialen babesaz, eta zalaparta handirik gabe onartu baitziren. Itzali samar zeuden jaiak berpizteko be-

---

121 2019. urtean, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Tolosako Berdintasun Sailaren lankidetzara eskatu zuen jaietako berdintasunari buruzko eztabaida-talde bat sortzeko, *Festak: gure espazioa birpentsatzen* proiektuaren esparruan. Tolosako jaietako nabarmenak ziren alderdien artean, Alardean gizonezko eskopetari gehiago zegoela aipatu zuten, bereziki zuzendaritzan. Emakume gehienak kartutxera gisa ateratzen dira haurrekin; eta gazteen artean, aldea txikiagoa bada ere, mutil gutxi ikusten dira txirula jotzen.

122 *Dantzan.eus* (2013/06/25) [Emakumeak Tolosako pordondantzarien artean lehen aldiz](#).

harrak eta udalaren babesak lagundu zuten aldaketari bultzada positiboa ematen. Hala eta guztiz ere, jaietan emakumeen parte-hartzearen arazoak, Euskal Herriko beste herri batzuetan bezala, elkarre gastronomikoen antolakuntzan zuten rol protagonistari lotuta jarraitzen zuten Tolosan. Gizonezkoak izaki, eta emakumeak onartzeko ezezkoan tematuta, praktikan emakumeek ezin izango zuten jaietan erabat integratu. Zentzu horretan, Tolosako Danborradarekin eta San Juan jaiaren inguruan komentatutako prozesuekin paraleloan, elkarre gastronomikoen jaien antolakuntzan zuten rola mahai gainera atera zen eta emakumeak onartzeari uko egiteko ohitura zalantzan jartzen hasi ziren.

2000. urtean Tolosako Udaleko Berdintasun Saila sortuta, udaleko berdintasun diagnostikoa lantzen hasi zen, eta, hala, arlo honetan ekintzak sustatzeko oinarriko dokumentuak idatzi eta onartu ziren: udal-ordenantza eta lehenengo berdintasun-plana. Urte haietako berdintasun-teknikariak ordenantza eta lehenengo berdintasun-plana sortzeko lanetan jardun zuten buru belarri, eta 2005. urtean argitaratu zen azken hori, gehiago osoz onartuta. Berdintasun eragilearen laguntzaz, [Tolosako Udalaren Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Udal Ordenantza](#) aitzindaria onartu zen 2008. urtean, eta erreferente bilakatu zen EAEn, baita Espainiar Estatu osoan ere. Hura sortzeko, «*Berdintasunaren kultura Tolosan*» izeneko diagnostikoa egin zen eta, azkenean ordenantzan elkarre gastronomikoen problematika esplizituki jaso ez bazen ere, aipatu egin ziren jai eta kultura-arloko neurriak<sup>123</sup>, honela: «*Elkarteei, erakundeei eta taldeei dirulaguntzak ematerako orduan kontuan izango da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde zer konpromiso maila duten haiek, bai zuzendaritzari begira, bai egiteko asmoa duten jarduerari begira*». (XIII. kapituluak, «Dirulaguntzak ematea», 41. artikulua). Horrek zuzenean eragiten zuen elkarre gastronomikoen finantzaketan.

Elkarre gastronomikoen gaiak polemika handia eragiten zuen udalerrian. Gaia jorrazteko, 2009an, genero- eta jai-aietan espezializatutako aholkularitza-enpresa bat kontratatzeko erabakia hartu zuen Berdintasun Sailak, elkarre gastronomikoen inguruko problematikari lotutako partaidetza-prozesua dinamizatu zezan, «Elkarreetan emakumeen presentzia eta parte-hartzea ahalbidetzeraz bideratutako aldaketak sustatzera bideratutako hausnarketa- eta lankidetzaren prozesu bat martxan jartzeko Tolosako Elkarreekin»<sup>124</sup>. Hauxe izan zen prozedura: 1.- Tailerrak nola gauzatu ziren diseinatzea; 2.- Diziplinarteko talde bat sortzea, elkarre bakoitzean prozesuan parte hartuko zuen eragilerik egokiena identifikatzeko<sup>125</sup>; 3.- Elkarre guztiei prozesuan parte hartzeraz gonbidatzeko eskutitzak bidaltzea, eta identifikatutako pertsonari eskura ematea; 4.- Prozesua sustatzeaz arduratuko den talde eragilea sortzea, elkarre sailkapena egiteaz arduratu zedin (elkarre parekideak, berdintasunetik hurbil daudenak eta parte-hartzeko probabilitate txikikoak) eta egingo ziren hiru tailerren garapenean parte har zezan<sup>126</sup>. Ondoren, talde eragileak, jaien antolakuntzan inplikaturaz ez egoteagatik haien garapenean eragin ezin bazuen ere, testu bat sortu zuen, zeina 2013ko San Joan jaietako egitarauaren hitzaurre gisa argitaratu baitzen, herriko jaietan berdintasunari buruzko eztabaida publikoa lehendabizikoz plazaratuta. Bestalde, tailerretan oinarrituta, aholkulari

123 Ordenantzaren IX. kapituluak, hizkuntza sexistarik eta estereotiporik ez erabiltzeari buruzkoak, zera xedatzen du 28.2. artikuluan: Sexu baten nagusitasun edo gutxiagotasunean, edota emakumeen eta gizonezkoen rol estereotipatuaren oinarrituriko aurrejuzku, jarduera, esaera eta irudiak saihestuko ditu [Tolosako Udalak]. *Horretarako, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko borrokan bi sexuen estereotipoak kaltegarriak direla adierazteko eta jendea kontzientziatzeko jarduerak eta kanpainak egingo ditu. Eginkizun horretan helburu nagusietako bat herriko jai eta ospakizunei begirakoa izango da.*

124 Honako hauek ziren helburu operatiboak: gaiaren inguruko eztabaida abiatzea, argudio guztiak azaltzeko espazio bat sortzea, eta aldaketa bultzatzeko zirikituak identifikatzea; eta esku-hartze estrategiaren inguruan adostasun handiagora lortzea, elkarre gastronomikoetan emakumeen presentzia eta parte-hartzea bermatzeko.

125 Honako hauek bildu ziren: Udaleko berdintasun-teknikaria, zeina proiektuaren arduradun tekniko ere baitzen; Jai-arloko teknikaria, elkarre gastronomikoen testuinguru eta errealtateari buruzko aholku gakoak eman zituena; Saileko IKTen arduraduna, zeina prozesuan parte hartzen ari zen elkarre bateko kide baitzen; TLSbat saileko koordinatzaile nagusia; eta Antropologia eta Genero-ikeruntzaren arloetako aditu bi.

126 Talde hartan parte hartu zuten udal-arloko langileek, pisu sozial eta sinboliko handiko pertsonak, eta berdintasunean inplikaturaz zenbait gizonek.

ritza-erakundeak dokumentu bat sortu zuen: «*Tolosako elkarte gastronomikoen garrantzia eta eragina gizarlean, eta emakumeen parte-hartze aktiboa bilatzeko dekalogo*» (Farapik, 2010). Bertan jasotzen ziren prozesu osoaren nondik norakoak eta Tolosako elkarteetan emakumeen parte-hartzea pixkanaka ahalbidetzeko eman beharreko urratsen zehaztasunak. Prozesuan parte hartzen zuten elkarteek konpromiso maila askotarikoa zenez, asmo handi edo txikiagoko hainbat aukera jaso ziren dekalogoan<sup>127</sup>.

Pixkanaka, prozesuak emaitza positiboak izan zituen. Farapik, EAE osoko elkarte gastronomikoei buruz, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearentzat egindako ezohiko txosten teknikoan (2010), «*Elkarte Gastronomikoen garrantzia eta eragina gizarlean*», adierazi zuenez, Tolosako elkarte mistoak sei izatetik hamalau izatera pasa ziren, baina oraindik ere baziren gizezkoenak soilik ziren beste hamasei.

Testuinguru horretan, *Gure kaiola* elkarteko kide batek, talde eragileko kide zenak, elkarteari eskatu zion ohitura aldatzeko eta emakumeek Inauterietako «ostegun gizeneko» afarian parte hartzea onartzeko. Urteak zeramatzan aldarrikapen hori egiten, eta alkatetzako aldeko testuingurua, ordenantzaren onarpena, partaidetza-prozesua eta berdintasun-teknikariaren konplizitate aprobetxatuta, eskaeran aurrera egitea erabaki zuen. Eskariaren aurrean, *Gure Kaiola* elkarteak (herrian antzinatasun eta tradizio handieneko elkarte bat) afarian izena emateko erabiltzen zuen prozedura aldatzea erabaki zuen. Ordura arte, zerrenda batean idatzi behar zen bazkidearen izena (gizona soilik) eta haren gonbidatu kopurua (bi gehienez). Ezarri berri zen formularen arabera, ordea, gonbidatuen izen-abizenak idatzi behar ziren, emakumeen presentzia identifikatu ahal izateko. Ondoren, hiru eguneko epe osagarria zabaltzen zen, zerrendan jasotako izenak ikusita baten batek bere izena ezabatu nahi bazuen ere.

Hurrengo urtean, aipatu bazkideak bi emakume gonbidatu zituen «ostegun gizeneko» afarira: emaztea, eta Udaleko berdintasun-teknikaria<sup>128</sup>. Horretarako, emakume bien izen-abizenak idatzi zituen zerrendan, epe barruan baina azken momentuan. Hurrengo egunean, ezabatuta agertu ziren gainerako bazkide guztien izenak eta «ostegun gizeneko» bazkide hark bakarrik afaldu zuen elkarteetan, bere bi gonbidatuekin, gainerako bazkideek *Casino* elkarte gastronomikoan afaltzen zuten bitartean (herriko zaharrena, emakumeak onartzen ez zituen)<sup>129</sup>.

Berdintasun-teknikariak kontatu duenez, Alkatea zein Udaleko zinegotzi bat elkartetik pasa ziren egoera egiaztatzeko eta, ohiz kanpoko gertakari haren aurrean izututa, aurrekaririk gabeko krisi-kabinetea sortu zen. Telebistari deitu zioten adierazpen publikoak egiteko, eta tentsioa nabaria zen herrian. Berdintasun-teknikariak kontatu duenez, ekintza sinboliko haren bitartez, aldaketa-korronte bat bultzatu nahi izan zuen, arazoa ikusarazteko (*Gure Kaiola* elkartetik harago, arazo orokorra zelakoan) eta elkartzeko espazio bat ahalbidetzeko, eral-

---

127 Dokumentua sinatu ez zuten elkarteek konpromisoa hartu zuten urtero elkartearen barnean saio bat egiteko, bazkideekin gaia aztertu eta dekalogo berrir aurkezte aldera. Bozketa egiteko konpromisoa ere hartu zuten, dekalogoan jasotako urrats gehiago egiteko prest zeuden ala ez aztertzeko, eta saioaren akta idatziko zuten, bertan emaitzak jaso eta Berdintasun Sailari bidaltzeko (hark jarraipena egin zezan). Konpromiso-maila ertaina adierazita sinatu zuten elkarteek konpromisoa hartu zuten emakumeen presentzia bermatzeko, bai antolakuntza lanetan, bai elkarteak antolatzen zituen ekitaldi guztietan. Ondorioz, jarduerak antolatzeke egiten ziren bileretara gonbidatuko zituzten emakumeak, bilerak egiteko orduan kontziliazioa kontuan hartuta, eta erabakiak hartzeko orduan emakumeen parte-hartzea bermatuko zuten. Era berean, jardueren publikizitatea egiteko erabilitako kartel, gutun, prentsa-ohar eta abarretan irudi, hizkuntza eta eduki ez-sexistak erabiltzeko konpromisoa ere hartu zuten, emakumeen presentzia berma zedin saiatuz. Antolatutako jardueretan sari-banaketa bazegoen, gizonen eta emakumeen sariak berdinak izango zirela ziurtatzeko konpromisoa hartu zuten. Konpromiso irmoa adierazita sinatu zuten elkarteetan kasuan, emakumeak elkarteetako bazkide izateko ekintza positiboak egiteko konpromisoa hartu zuten: emakumeak bazkide izateko kanpaina espezifikokoak egitea; bazkide berriak egiteko orduan, emakumeen parte-hartzeari lehentasuna ematea; bazkide bakarraren figuraz gaindiko beste aukera batzuk –«bazkide senidea»– zalantzan jartzea eta espazio maskulinizatuak birplantatzea («ostegun gizeneko» afaria, kasu).

128 Garrantzitsua da hau azpimarratzea: epe luzera herritar guztientzako onura eragin duten ekimen asko aurrera eraman ahal izateko, funtsezkoa izan da pertsona jakin batzuek sakrifizioak egitea eta kostu indibidual jakin batzuk beren gain hartzea. Kasu honetan, *Gure Kaiola* elkarteko bazkideak eta bere emazteak herritar askori aurre egin behar izan zieten, bidezkoztat zuten helburu hura lortzeko, eta kritika eta mespretxuak jasan zituzten horregatik.

129 Geroxeago, *Casino* elkarteak onartu egin zuen bazkide historiko baten alarguna, emakumeen parte-hartzeari bidea irekita. Une jakin batean pentsaezina eta aberrazioa dena, erraz onar daiteke denbora gutxira testuingurua aldatuz gero.

daketa adosteko batzar bat sortze aldera. Polemika gorabehera –egun ere herriaren memorian jarraitzen du, batzuetan, trauma gisa–, berdintasun-teknikariak uste du ekintza hari esker egin zirela hainbat aurrerapen eta benetan positiboa izan zela, elkarte gastronomikoak erakunde kontserbadore eta erreakzionario gisa agertu zirelako, XXI. mendean indarrean zirauten jarrera intolerante eta matxistak agerian utzita. Azken batean, Erreginak eta daketa behin baino gehiagotan gonbidatu zituzten afari hartara, baina ez zuten «bestelako emakumerik» gonbidatu nahi. Gertatutakoaren ondoren, pintada feministak agertu ziren *Gure Kaiola* elkartearen kalean, beren jarduketa arbuizatu, eta hurrengo urteko inauterian konpartsa batek afari hartan bizi izandako egoera gogora ekarri zuen, orduko hartan umorez.

Aurretik esan dugunez, bazkide ekintzaile hark urteak zeramatzan aldaketa eskatzen, udalerriko beste eragile batzuen antzera; hortaz, Udalaren babes bilatu eta egoera salatzea erabaki zuen. Alkateak informazio-espeditentea ireki zuen eta aldeei entzunaldia egin zien. Udalak bazuen aurretik ere berdintasunari buruzko udal ordenantza bat, eta hura egoera diskriminatzailea zen ala ez ebatzi behar zuen. Salaketa-egileak uste zuen, Berdintasun Legea eta Udal Ordenantza betez, Udalak ez ziela dirulaguntzarik eman behar emakumeen parte-hartzea onartzen ez zuten elkartei, eta, udalaren esku-hartzerik ikusi ez zuenean, Arartekora bideratu zuen salaketa. Arartekoak ikerketak abiatu zituen eta 2007 eta 2011 urteen artean Tolosako Udalak *Gure Kaiola* elkarteari dirulaguntza eman ziola jakin zuen, baita herriko elkarte gastronomikoetan berdintasuna sustatzeko partaidetza-prozesu bat abiatzea erabaki zuela ere.

Gobernu-aldaketarekin batera, Udalak eta Aldundiak elkarrekin erabaki zuten abiatutako prozesuari jarraitutasuna, babes handiagoa eta finantzaketa ematea, epe luzera garatu zedin. 2012. urtean abiatu zen ekimen aitzindari hura eta 2013an argitaratu. Elkarte gastronomikoetan eta, oro har, jaietan berdintasuna lortzeko erreferente bat sortzea zen helburu nagusia, hau da, Tolosan egindako lana gida edo eredu izatea beste udalerritar batzuentzat<sup>130</sup>. Proiektuak bi prozesu paralelo barne hartu zituen: bata elkarte gastronomikoetan zentratua, eta partaidetza-prozesua bestea, eragile sozialekin.

Elkarte gastronomikoekin berdintasun-arloko sentsibilizazio- eta prestakuntza-prozesu bat egin zen, bertan parte hartzea onartu zuten elkarte gastronomikoetako batzordekideekin. Hasieran, hogeita hamar elkartetatik sei baino ez ziren bildu, horietako lau gizonezkoenak soilik (beste batzuek prozesua beren kabuz egingo zutela esan zuten)<sup>131</sup>. Prozesuaren emaitza gisa, beste dokumentu bat sortu zen: «Tolosako elkarte gastronomikoak parekideagoak izateko hitzarmena», elkarte bakoitzaren konpromiso mailaren arabera –aurreko dekalogoan oinarrituta–. Elkarte gastronomikoek dokumentua onartuz gero, «Berdintasun Sailaren Adiskide Zigilua» eskuratuko zuten<sup>132</sup>.

130 *Diario Vasco* (2013/02/23) [Tolosa iniciará un proceso para lograr la igualdad en las sociedades](#), (2014/04/10) [Tolosa quiere ser pionera en lograr la igualdad en sociedades gastronómicas](#). Berdintasun-arloko Zuzendaritzak 30.000 euro inbertitu zituen proiektu honetan.

131 Gaur egun ezin daiteke zehatz jakin Tolosan zenbat elkarte gastronomikok ez duten emakumerik onartzen, baina, Farapiren arabera, baliteke % 50 baino gutxiago izatea. Oro har, emakumeen parte-hartzea oztopatzeko modua batzarraren bozketa izaten da; izan ere, bazkide berriak onartzeko, botoen % 75ek onartu behar dute. *Gure Kaiola* elkarteak 2018. urtetik onartzen ditu emakumeak.

132 Elkarteek konpromiso hauek hartu zituzten, hiru konpromiso-mailatan antolatuta: 1. Azaroaren 25 - Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna ospatzea, eta elkartearen leihoan indarkeriaren kontrako puntu morea itsastea; Berdintasun Sailak martxoaren 8a ospatzeko antolatzen dituen jardueri atxikimendua adieraztea eta bazkideei haien berri ematea; jai parekideen aldeko lantaldeak martxan jarritako jardueri atxikimendua adierazteko aukera eztabaidatzea eta baloratzea; elkarteak antolatzen dituen jardueren propagandan hizkuntza eta irudi sexistak saihestea; Berdintasun Sailak elkarteari proposamen zehatzen bat eginez gero, hura martxan jarri ala ez baloratzea; hurrengo urterako, hitzarmenean jasotako konpromiso-mailetan koska bat igotzeko aukera aztertzea. 2. Aurreko konpromisoez gain, honako hauek ere bai: emakumeak bazkide izateko bideak zabaltzea; hurrengo urterako, hitzarmenean jasotako konpromiso-mailetan koska bat igotzeko aukera aztertzea. 3. Aurreko konpromisoez gain, honako hauek ere bai: emakumeak elkartera eta haren barne-antolakuntzara hurbiltzeko ekimenak sustatzea; emakumeek elkarteaz egutzeko Udalak antola ditzakeen kanpainari atxikimendua adieraztea, eta «ate irekien» eguna antolatzea; Udalaren kanpainarekin bat egitea, eta emakumeek bazkide gisa izena emateko kanpaina berezia egitea; jarduera diskriminatzailek ez antolatzea; eta emakume batek elkarte bazkide izan nahi badu, sexuagatik ez diskriminatzea.

2014. urtean, aholkularitza-erakundeak dokumentu-memoria batean jaso zuen prozesu osoa, baina ez zen publiko egin: *Elkarte gastronomikoetan genero-ikuspegia txertatzeko gida. Tolosako elkarte gastronomikoen eragina herri-dinamiketan: Hausnarketa eta aldaketa bideratzeko partaidetza-prozesuaren sistematizazioa*. Udaleko Berdintasun Zerbitzuak eta urte haietan alkatetzan izan ziren talde politikoek nahiago izan zuten prozesuari jarraipen diskretuagoa eman, hedapen handirik gabe, beldur baitziren horrek zer-nolako ondorioak izan zitzakeen udalerriko elkarbizitzan eta giroan.

Beste partaidetza-prozesuak, jai-eredua genero-ikuspegian oinarrituta diseinatzeari zego-kionak, eragile sozial gehiago bildu zituen: elkarteak, kolektibo feministak eta herritarrak, oro har. Prozesuaren helburua zen herritarren, Udaleko arlo tekniko zein politikoaren eta mugimendu sozial zein asoziatiboaren arteko elkarrizketa-espazio bat sortzea, San Joan jaiei begira, batez ere. Talde harekin batera, aholkularitza-entresak sei lan-saio dinamizatu zituen 2012. eta 2013. Urteen artean, eta herritarrentzako lau tailer ireki 2014an. Saio horietan guztietan autoetnografia baliatu zen. Metodologia haren bitartez, parte-hartzaile guztiak –teknikari zein herritar– beren jai propioaren analista bilakatzen dira. Horrela, jaien inguruan duten esperientzia pertsonala lotu egiten dute teoria antropologikoaren eta genero-teoriaren kontzeptu sozial, politiko eta kulturelekin. Talde ikertzaileak, jaietako esperientzia oso subjektiboa dela jakitun, datu-iturri adierazgarritzat du metodo hori. Gainera, autoetnografian eta behaketan oinarritutako ariketa bera sentsibilizazio- eta ekintza-prozesu bilakatzen da ber-aur egiten duten pertsonentzat. Metodologia hori eraginkorra da diagnostikoaren emaitzak ulertzeko eta jaietan berdintasuna ebaluatzeko irizpide jakin batzuk adosteko.

Kasu honetan, prozesuaren emaitza gisa, [Jaiak Berdinzaleago bihurtzeko Gida](#) (2016) argitaratu zen, eta bertan jaso ziren jaietan berdintasunari dagokionez hobetu daitezkeen alderdiak eta aldaketak egiteko zenbait estrategia. *Berdinsarea* zerbitzuaren bidez zabalduko tresna hau erabilgarria da, beraz, udalerririk ororentzat.

2015. urtean, Arartekoak adierazpenak egin zituen *Gure Kaiola* elkarteko bazkide hark egindako kearen inguruan, eta Tolosako Udalaririk eskatu zion elkarte horri dirulaguntza edo laguntza publikoak kentzeko eta gehiagorik ez emateko, eta gauza bera egiteko onarpen-prozesuan, funtzionamenduan edo jardueren antolakuntzan sexuan oinarrituta diskriminatzen duen beste ezein elkarterekin ere. Gainera, genero-estereotipoak ezabatzeko neurriak eta ekintza positiboak sustatzeko agindu zion, Tolosan jai-eremuan eta elkarte gastronomikoetan emakumeek jasaten dituzten desberdintasunak zuzentze aldera<sup>133</sup>. Adierazpenak adierazpen, gobernu-taldeak nahiago izan zuen gomendioa ez aplikatu, uste baitzuten tentsioak eta gatazka handiagoak sor zitezkeela, eta hobe zela barneko hausnarketa-prozesua lantzen jarraitzea.

## **Tolosako Jaiak Behatokia diseinatzea eta sortzea**

Hurrengo urrats gisa, Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak jaien inguruko proiektu esperimental bat sortu zuen, jaietan emakumeen parte-hartzea modu holistikoa eta integralagoan – eta iraunkorrean – jorratzeko eta hausnarketa bideratzeko espazio zabalago bat. Elkarrizketatuen arabera, oraindik errezelo eta beldur ugari antzematen ziren prozesuak eragin zitzaizkeen ondorioen inguruan, bereziki eragile politikoaren artean; baina aurretik egindako lanari esker (urte askotako prozesuaren oinarria), Berdintasun Sailaren determinazioari eta Farapiren lan-

---

<sup>133</sup> Arartekoa (2016/02/03) Tolosako Udalaririk gomendatu diogu ez diezaiela laguntza publikorik eman sexua dela eta diskriminatzen duten elkar-teei, Arartekoaren Gomendioak; *eldiario.es* (2016/02/04) El machismo se aferra a algunos 'txokos' gastronómicos; *El Mundo* (2016/02/05) Sin ayudas a las sociedades gastronómicas que discriminen; *SEJ* (2016/02/04) ¿Discriminación en las sociedades gastronómicas?.

kidetzari esker, aurrera egin zen pixkanaka proiektu esperimental hau diseinatzeko bidean. 2016. urtean, *Tolosako Jaiak Behatokia* izango zena definitzen hasi ziren. Hasiera batean, Udalak sentsibilizazioa eta «autoanalisia» sustatzeko erabiliko zuen tresna izatea zen asmoa; izan ere, izaera iraunkorra eman nahi zitzaion jaietan berdintasunaren alde egindako lanari, eta beste espazio eta eragile batzuegan eragin nahi zuen pixkanaka. Espazio honen bidez, gainera, proiektuari udal finantzaketa eman nahi zitzaion aurrekontu-esleipen bidez; horrela, ez zen teknikarien eta Berdintasun Sailaren borondate edo konpromisoaren menpe egongo, nolabait instituzionalizatuta egongo litzatekeelako.

*Behatokia* 2017. urtean jarri zen martxan, eta hiru urte hauetan udaleko beste sail batzuk barne hartu ditu pixkanaka. Berez, gaur egun Berdintasun Sailak eta Kultura eta Jaiak Sailak zuzentzen dute Behatokia. Izan ere, aspalditik agerikoa zen horrelako espazio bat sortzeko beharra, eta *Behatokia* finkatu eta egiazko aurrerapenak egiten hasi ziren. Gainera, Kirol, Komunikazio, Gazteria, Ogasun Sailek eta Alkatetzak ere parte hartzen dute. Aurrez ezarritako ildoek gain

(Komunikazioa, Indarkeria sexista, Programazioa eta Antolakuntza), Behatokiak jaietako egitarauetara buruzko beste zenbait alderdi zehatz ere jorratu izan ditu berriaz, besteak beste, kirola jaietan edo musika. Horretarako, funtsezkoa izan da Kirol Sailarekin eta Udal Musika Eskolarekin elkarlanean aritzea (Tolosako III. Berdintasun Plana), azken kasu horretan, etorkizunean txaranga edo taldeetan neska musikari gehiago egon daitezen sustatzeko.

Aurrerapenak, astiro izan arren, positiboak izan dira, eta Behatokiaren urteko txostenetan kontsulta daitezke, Tolosako Udalaren webgunean eskuragarri<sup>134</sup>. Besteak beste, azpimarratzekoak dira honako hauek: Inauterietako mozorro lehiaketan Berdintasun Saria ematea<sup>135</sup>, jaietan –San Joan jaietan bereziki– antolatzen diren jardueretan ikuspegi parekidea txertatzeko kontzientzia piztea teknikarien artean; komunikazio ofiziala erabat parekidea izatea; Udalak jaiak iragartzeko egiten dituen adierazpen publiko guztietan indarkeria matxistaren kontrako keinuak egitea; Kirol Sailari dagozkion gaietan genero-ikuspegia txertatzea, finantzaketa eskuratu ahal izateko; musika taldeak kontratatzeke eta txupina nork botako duen erabakitzeke orduan genero-ikuspegian oinarritutako irizpideak txertatzea<sup>136</sup>; edo jaietako egitaraua hizkuntza inklusiboa erabiliz eta irudi sexistarik gabe osatzea.

Zentzu horretan, aurrerapausoak egin dira genero-diagnostikoan, sentsibilizazioan eta herri-tarren kontzientziazioan, eta jaietan emakumeen parte-hartze handiagoa bultzatzen duten aldaketa eta esku-hartze txiki ugari egin dira. Horri guztiari esker, pixkanaka sendotuz eta aurrerapausoak eginez doa *Behatokia* proiektua. Hala eta guztiz ere, prozesu esperimental eta eraldaketa sozial guztietan bezala, beti dago hobetzeko eta ekimen berriak proposatzeko aukera; izan ere, batzuetan, ez da eragina talde jakin batzuetatik harago iristea lortzen, edo gaitasun eraldatzailea sentsibilizazio-lanetara mugatzen da, beharbada. Edonola ere, diagnostikoetan antzemandako gaietan oinarrituta, jaietan benetan eragingo duten ekintzak zehazteko beharra dagoenez (bestela, baliteke urteko txostenetan jasotako proposamenak ez betetzea), gaur egun Plan bat diseinatzeko lanetan murgilduta dago Behatokia; helburu zehatzak eta epe ertainerako ikuspegia izango ditu, eta udalerriko komunikabideetan eman- go da horren berri. Lan horren bitartez, eta *Behatokiaren* eragin-esparrua handitzeko boron-

134 [Tolosako Jaiak Behatokia](#).

135 [Inauterietako Berdintasun Saria](#).

136 *Kabi Alai* elkarteak, duela gutxi arte soilik gizonekoena zena, arduratzen da Inauterietako txupina antolatzeaz, eta Inauterietako lotura historikoa duten pertsona edo taldeek bota ohi dute. Ondorioz, balkoian gizonekoak egoten dira batez ere. 2018ko San Joan jaietan, ordea, jaien antolakuntzan parte hartzen zuten gazte kuadrillen ekimenez, Tolosaldeko Asanblada Feministak bota zuen txupina, (2018/6/14) [Asanblada Feministak jaurtiko du 2018ko sanjoanei hasiera emango dien suziria](#). 2019. urtean, Jaiak Behatokiaren urteko txostenean, txupin jaurtiketan emakumeen parte-hartzeari jarraipena emateko zenbait irizpide proposatu ziren.

dateari esker (jai-eremu eta eragile sozial gehiago batuta), aurrerapauso gehiago egingo dira Tolosako jaietan berdintasunaren sustapena instituzionalizatzeko bidean.

### Zerikusia duten eragileak

- *Aurrera* elkarteko emakumeak.
- Tolosako Emakume Asanblada.
- Larunbateko helduen Danborradako Danbor Nagusia eta Tolosako kultura-arloko beste gizon ezagun batzuk.
- *Udaberi* dantza-taldea.
- Herritarrak, oro har, eta pertsona jakin batzuk.
- Tolosako udala: alkatea, Berdintasun-arloko eta Kultura, Gazteria eta Jaiak arloko teknikariak, eta beste zerbitzu batzuetako teknikariak (komunikazioa, kirolak, ogasuna, gobernantza...).
- Jai-batzordea eta jaietan nahasitako beste eragile sozial batzuk.
- Arartekoa.
- Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Elkarre gastronomikoak.
- Gizarte antropologia aplikatua eta generoan espezializatutako aholkularia.

### Estrategiak

- Emakumeek jai-ekitaldietan zituzten rolen eta emakumeen presentziarik ezaren inguruan hausnartzea; helduen Danborradan eta jaietako protagonista diren dantzetan.
- Emakumeak protagonista bakar izango diren jarduera eta ekitaldiak sortzea: emakumezkoen danborrada.
- Erregina, dama eta kantinera figuren sexismoa salatzea.
- Jaietan eta haren inguruan sortzen diren jarduera nagusietan emakumeen ikusgaitasuna, presentzia eta parte-hartzea bermatzea: Danborrada, Alardea, dantzak.
- Elkarre gastronomikoetan hausnarketa- eta sentsibilizazio-prozesuak sustatzea, bereziki jaietan emakumerik ez onartzeak jendartean duen eragina uler dezaten.
- Udalerrian partaidetza-prozesua bultzatzea, jaietan berdintasunaren egoera behatu eta aldaketak sustatzeko.
- Jaietan berdintasunaren aldeko konpromisoak finkatzen lagunduko duen idatzizko dokumentazioa sortzea: programa, dekalogoak, hitzarmenak, etab.
- Jai- eta berdintasun-gaietan espezializatutako aholkularitza teknikoaren finantzatzea.

- Jaietan eraldaketa bideratzeko hausnarketa eta ekintza bultzatuko dituzten espazio eta egiturak sortzea.
- Berdintasun Zerbitzuaren eta Kultura eta Jai Zerbitzuaren arteko lankidetzaren sustatzea.
- Jaietarako hedapen-materialak zaintzea (argazkiak, kartelak, aldizkariak eta egitarauak), irudikapen sexistak saihesteko eta emakumeen ikusgaitasuna bermatzeko.

### Emaitzak

- Emakumeen Danborrada sortzea.
- Erreginaren eta damen Karroza ezabatzea.
- Emakumeak Helduen Danborradan barne hartzea.
- Emakumeak San Joaneko Alardean barne hartzea, edozein roletan.
- Emakumeek *pordondantzan* parte hartzea.
- Elkarrekin gastronomikoekin eta hautatutako eragile sozial, politiko zein kulturekin hausnarketa-prozesua abiatzea.
- Jai-egitarauaren berdintasunaren aldeko testu bat argitaratzea.
- Hitzarmen-agiriak eta ekintzei buruzko dokumentuak sortzea.
- «*Jaiak berdinezaleago bihurtzeko gida*» sortzea.
- *Tolosako Jaiak Behatoki* iraunkorra sortzea, espazio eta jai-arloko eragile gehiagorengan eragiteko.
- San Joan jaiak parekideagoak izatea (emakume gehiago musikan; hizkuntza ez sexistaren erabilera; batukada feministaren eta, oro har, emakumeen presentzia handiagoa; txupina Tolosako Asanblada Feministak jaurtitzea; herritarrak sentsibilizatzea...).
- Inauterietako mozorro lehiaketan Berdintasun Saria ematea.

### Aldaketa gauzatzeko gakoak

- **Aldaketa sozialerako prozesuak.** Jendartean sortzen diren aldaketen ondorioz, aldatu egiten da herritarren pentsamoldea eta, hala, aldatu egiten da, baita, jaietako rol feminino jakin batzuen inguruan duten begirada, baita kultura-jardueretan emakumeen parte-hartzeari buruz duten ikuspegia ere. Horrela, aldaketa baketsu eta aberasgarriak gertatzen dira, aparteko gatazkarik sortu gabe, berdintasun-printzipioa aintzat hartzen delako.
- **Aldarrikapen feminista.** Emakumeek jaietan parte-hartzeko adierazitako desira eta eskaerak funtsezkoak dira aldaketa gauzatzeko, baita gizonen eta kontzientzia feminista partekatzen duten kolektibo zein erakundeen babesa jasotzea ere. Kasu honetan, Tolosako Emakume Asanbladaren babesa bereziki garrantzitsua izan da.
- **Berdintasunaren aldeko konpromisoa pertsona eta eragile sozial jakin batzuen aldetik.** Jaietan duten posizioa, izaera edo aintzatespen sozialagatik edo kargu publi-



koa izateagatik iritzi publikoan eragin dezaketen pertsonak inplikatzeko funtsezkoa da, baita berdintasunaren alde baliabideak mugiarazi ditzaketen pertsonak inplikatzeko ere. Kasu honetan, Danborradako Danbor Nagusia edo *Udaberrri* dantza-taldea aritu ziren eragile kultural gisa, eta *Gure Kaiola* elkarteko bazkidea eta bere emaztea eragin handiko pertsona gisa, aldaketaren aldeko jarrera tinkoa agertu baitzuten.

- **Alkatearen eta Berdintasun Zerbitzuaren babesa.** Tolosako Udalaren konpromisoa, eta, bereziki, berdintasun-arloko teknikariena, funtsezkoa izan da jai parekideago batzuen aldeko aldaketa-prozesuak sendotzeko. Esate baterako, Danborradako Karrozan zihoazen figura sexistak ezabatzeko erabakia hartu zuten, edo emakumeek *pordondantzan* parte hartzeko bidea bultzatzeko. Berdintasun Zerbitzuaren lana ere funtsezkoa izan da Jaien Behatokia sortzeko orduan eta gai honen inguruko hausnarketa eta lana bideratzeko espazio iraunkorra finkatzeko orduan.
- **Finantzaketa ekonomiko eta babes instituzionala.** Hausnarketa eta lan kolektiboa bideratzeko partaidetza-prozesuak gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa izan da Udalaren zein Aldundiaren finantzaketa jasotzea; izan ere, prozesuak dinamizatzeko aholkularitza-enpresa espezializatu bat kontratatu behar izan da, zeinen laguntzarik gabe zail izango baitzatekeen aurrerapausorik ematea. Jaien Behatokiari aurrekontu-partida espezifiko bat esleitzeak aukera eman du proiektua finkatzeko.
- **Aholkularitza-enpresa aditu baten dinamizazioa.** Udaleko teknikariek lan-karga handia dutela eta prestakuntza espezifikorik ez dutela kontuan hartuta, ezinbestekoa izan da aholkularitza-enpresa bat kontratatzea, partaidetza-saioak diseinatu eta dinamizatu zitzaizkien, eskuratutako emaitzak sintetizatu eta idatziz jaso zitzaizkien, prestakuntza-saioak antolatu zitzaizkien, etab.
- **Kultura, Gazteria, Jaiak Zerbitzuaren eta bestelakoen inplikazioa.** Berdintasun Zerbitzuaren zein bestelako udal-zerbitzuen inplikazioa eta, bereziki, Jai-arloko zerbitzuarena, funtsezkoak izan dira Behatokiaren irismena eta oihartzuna handitzeko. Azken urteotan lortu den lidergokidetzak epe luzerako lan-ildo sendoa ezarri du.



# 7

## **HERRIETAKO JAIETAN EMAKUMEEN PARTE- HARTZEA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK**



Hautatutako kasu eta prozesu ezberdin hauen guztien bidez, agerian geratu da askotarikoak direla herritarrek zein administrazio publikoek –udalek bereziki– jaiak parekideagoak izateko martxan jar ditzaketen estrategia eta ekimenak. Zentzu horretan, hiru prozesu mota sailka ditzakegu, horiek abiarazten dituzten elementu edo eragileen arabera:

- Batetik, prozesu «organikoak» daude. Horrelakoetan, herritarrak beraiek eboluzionarazten dituzte jaiak, testuinguru sozialaren errealtateari egokituta: jaien demokratizazioa, belaunaldi arteko aldaketak, jaien goraldiak eta gainbeherak, genero-rolen pertzepzioan aldaketak...
- Bestetik, emakumeek, kolektibo feministek, jai-batzordeek edo, oro har, herritarrek gizonen eta emakumeen berdintasunaren alde sustatutako prozesuak aipa ditzakegu: prozesu atsegin eta adostuak izan daitezke, edo aldarrikapen eta polemikaz josiak, bidean sortzen diren oztopoen arabera.
- Azkenik, erakunde publikoek sustatutako aldaketa-prozesuak daude: udaletako arlo tekniko edo politikoko kideak, lege-neurriak, Arartekoaren edo/eta Emakunderen adierazpenak. Oro har, testuinguruarekin eta jendartearen eskariekin lotuta daude azken horiek ere.

Ikusi dugunez, kasu askotan hiru elementu edo eragile tipologia horiek elkarren artean koordinatuta edo elkarlotuta jarduten dute; hortaz, aurretik aurkeztu dugun sailkapena analitiko baina ez da, ez baitu prozesu bakoitzaren aberastasuna kontuan hartzen. Normalean, eragileen arteko elkarrizketa-espazioak eta adostasun-bilaketa dira aldaketa-prozesu baten gakoak. Hortaz, sailkapena eragile ezberdinak ikusarazteko modu bat baina ez da, praktikan elkarreaginean eta elkarren arteko harremanetan jarduten baitute beti.

Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea aurretik azaldu ditugun prozesuek eta jaietan esku hartzeko abiatutako estrategiek sustatu egiten dutela jaietan (arlotan edo alderdi ezberdinetan) emakumeen parte-hartzea. Hala, baliagarriak dira, baita, jaien inguruan genero-ikuspegia zabaltzeko eta haren gainean sentsibilizatzeko. Zentzu horretan, honako esku-hartze eremu hauek identifikatu ditugu:

- Jaietako alde protagonista, ikusgarri eta adierazgarriena: dantzak, prozesioak, desfileak...
- Jai-egitarauetan jasotako jarduerak: kirolak, musika-ekitaldiak, lehiaketak, txupinak, afari eta bazkariak, erromeriak...
- Jaia antolatzen duten elkarte eta erakundeak, jaien gaineko erabaki-ahalmena dutenak: konpartsak, kuadrillak, elkarteak, dantza-taldeak...
- Jaietako irudi, figura eta irudikapen grafiko zein testuzkoak: pertsonaia ospetsu edo sinbolikoak, jaietako egitaraua, kartelak, bideoak, abestien letrak...
- Herrietako jaietan gertatzen diren eraso eta indarkeria matxista kasuak.

Jaietan inplikaturik dauden eragile ezberdinen eta esku-hartze eremuen artean, zenbait estrategia aipagarri identifikatu ditugu, beste behin ere, horien elkarrekiko erlazioa eta malgutasuna azpimarratuta. Aztertu ditugun kasuetan<sup>137</sup>, ez dugu estrategia bakar eta estankorik aurkitu; elementu ugari eta askotarikoak aurkitu ditugu, eta hemen sailkatzen saiatuko gara, estatu-mailan egindako ikerketa eta txostenetan aztertu diren beste kasu batzuekin batera.

---

137 Txosten hau sortzeko aztertutako kasuek eta aipatu diren azterlanen gain, Espainiar Estatuko beste adibide batzuk ere aipatu ditugu, Gabeiras Fundazioaren «*Patrimonio inmaterial cultural y las desigualdades de género*» ikerketan (2020) jasotakoak.

Sailkapen-proposamen honetan ez da prozesu berezien aberastasuna mugatu nahi, ezta balizko estrategia berriak asmatzeko aukera mugatu nahi ere.

## ADOSTASUN-ESTRATEGIAK

# 7.1.

Hasieran azaldu dugunez eta dagoeneko Gernika, Tolosa, Antzuola edo Berrizeko kasuetan ikusi dugunez, jaietako ekitaldi adierazgarrietan emakumeak barne-hartzea prozesu motel eta mailakatua izan daiteke, gatazkarik gabea; herri mailan eta, batez ere, ospakizunetan inplikaturako pertsonen artean egindako lanaren fruitua. EAEko Herriko zein Espainiako beste kasu batzuk ere aipa genitzake «adostasun estrategien» barnean, bat-bateko samarrak izan direnak, hala nola Iurretako dantzak (eta Bizkaiko Durangaldeko beste leku batzuetakoak), Lesaka eta Goizuetakoak (Nafarroa) edo Algemesiakoak (Valentzia); Mairu eta Kristauen desfileak Alacanteko hainbat udalerritan (kasu batzuk salbu), edo Aste Santuko prozesioak Estatuko hainbat udalerritan. Izan ere, mota honetako prozesuak sarri publikitate askorik gabe gauzatu dira, horien berririk izan gabe, eta interesgarria litzateke horiek ere adibide inspiratzaile gisa jaso ahal izatea.

Oro har, emakumeek kultura-ekitaldi publikoetan parte hartzeko **eskari formal edo informala** egiten dutenean (jai-batzordeari, talde antolatzaileari edo udalari) abiatzen da hausnarketa-prozesu bat. Luzeagoa edo laburragoa izan daiteke, baina **emakumeak ekitaldian nola barne hartu aztertzea** da beti helburua. Kasu askotan, prozesuaren hasieran **emakumeak, neskak edo haurrak trebatzen dira**, parte hartzen has daitezten; esate baterako, desfileetan entseguak egiten, abestiak ikasten, musika tresna jakin bat jotzen edo jantzi edo objektu jakin bat erabiltzen. Beste batzuetan, ekitaldian **parte hartzeko itxaron-zerrenda** bat egoten da eta bertan **izena emateko** aukera ematen zaie emakumeei. Horrek, sarritan, **erakunde jakin baten bazkide izatea** dakar berekin eta, hortaz, erakundeak berak emakumeak gizonen eskubide bertsuetan onartu behar ditu horretarako<sup>138</sup>. Zentzu horretan, prozesu luzea izan daiteke, eta luze jo dezake emakumeek onartuak izatea edo benetan parte hartzea lortzen duten arte (urteak igaro daitezke). Edonola ere, jai baten gainbeherak edo parte-hartze eskasiak azkartu egin dezake prozesu hori (ikusi dugunez, halaxe gertatu zen Tolosan eta beste hainbat lekutan 80ko hamarkadan), eta baliteke emakumeak berehala onartzea, jai-ekitaldia biziberritzeko. Beharrian ekonomikoak ere funtsezko rola izan dezake jai-arloko erakundeetan emakumeak onartzeko prozesuan.

Adostasun-estrategia hauek prozesu «organiko» baten parte dira (halaxe sailkatzen ditu Jenny Pearcek honelako prozesuak): harmena badago soilik funtzionatzen dute, hau da, eskaera onartu eta gaia aztertzea erabakitzen denean, nahiz eta aldaketak luze jo dezakeen edo errezeloak eragin ditzakeen. Garrantzitsua da **udalek honelako prozesuetan laguntzea** eta zilegitasuna ematea, elkarriketarako-baliabideak emanez (horrelakoak berez sortzen ez badira, behintzat). Zentzu horretan, eskaria legitimatuko duen **aditu baten laguntza** ere oso baliagarria izan daiteke, hark azalduko baitu aldaketa posible eta komenigarria dela eta,

<sup>138</sup> Hemen dugu elkarte gastronomikoen kasua, baina baita Mairu eta Kristauen konpartsak, Aste Santuko prozesioak antolatzen dituzten fedunen kofradiak edo Udaletatik at jaiak independenteki antolatzen dituzten elkarteak ere. Erakunde horietako kide izateko baliteke kuota bat ordaindu behar izatea eta eskubide jakin batzuen jabe izatea. Baliteke, baita, *Numerus clausus* erako elkarteak izatea, hau da, gehieneko bazkide kopuru bat edukitzea, eta, ondorioz, itxaron-zerrenda bat sortu behar izatea. Tradizioz gizonak soilik onartu badira, emakumeak denbora luzea behar izango du, seguru asko, itxaron-zerrendako lehendabiziko postuetara iristeko.

gainera, horrek ez duela esan nahi tradizioaren kontra egingo denik (horrelako zerbait ikusi dugu Berriz edo Antzuolako kasuetan). Prozesu hauetan, jaietan emakumeak baztertu egiten direla ohartzea eta hori ikusarazi nahi izatea lehen urratsa da **aldaketa onartuko duen** erreakzio kolektiboa eragiteko. Batzuetan prozesuak luze jotzen badu ere, eta pazientzia behar izaten bada ere, aldaketa gertatu egiten da azkenean.

Aldaketa-prozesuei buruzko azterketaren arabera, **oso garrantzitsua da jaietan parte hartzen duten gizonen alaba eta emazteen jarrera**, sarritan haiek eragiten dutelako aita, osaba edo senarren pentsamoldea aldatzea. Batzuetan, gizon horientzat askoz ere errazagoa izaten da beren alaba edo emazteek jaietan parte hartu nahi dutela ulertzea eta onartzea, emakumeei bidea zabaltzeko ideia generikoa onartzea baino; are gehiago emakume horiek beren ingurukoak edo jai-egituraren barnekoak ez badira. Senide, auzokide edo lagunak eraginez, berdintasunaren aldeko pentsamolde aldaketa gerta daiteke, baina, jakina, zenbait gizon eta emakumek jarrera aldatu egiten dute ulertzen dutenean **parte-hartzea eskubide bat dela, eta berdintasuna beharrezkoa dela jendarte bidezkoagoa eraikitzeko**. Laburbilduz, **feminismoaren izaera emantzipatzailea ulertzen eta bere egiten dutenean onartuko dute aldaketa**.

Txosten honetan jaso diren adibide positiboek ere (Berrizko dantzak eta Gernikako Marijesiak) antzeko estrategia bat azaleratzen dute, komunikazioarekin lotua; hau da, aldaketa-prozesu positiboak zabaldu eta ezagutarazi egin dira. Herri horietan bietan **bideo dokumentalak egin dituzte bizi izan duten prozesua azaltzeko, eta horiek hedatzen dihardute. Zabalkundea eta sentsibilizazioa sustatzeko bideo edo dokumentalak sortzea** ere estrategia aproposa da prozesuak finkatzeko, ikusarazteko eta beste udalerrri batzuentzat eredu garri izateko.

## ALDARRIKAPEN-ESTRATEGIAK

## 7.2.

Batzuetan, emakumeek jaietan parte hartzeko abiatu dituzten negoziazio- edo eskakizun-estrategiei entzungor egiten zaie edo ez zaie harrera onik egiten (bereziki 80ko hamarkadan hasi zirenean), eta emakumeek **diskriminazio-egoera salatzea** eta jaietan beren presentzia **aldarrikatzeko kanpainak** abiatzea erabakitzen dute. Nolabait, negoziazio prozesu bat abiatzen da jaietan inplikaturako eragilean, udalen eta emakumeen beraien artean. Estrategia aldarrikatzaile edo politikoago hauen barnean, aukera ugari dago: **jaietan emakumeen defentsarako elkarteak edo kolektiboak sortzea, problematika ikusarazteko eta salatzeako kanpainak antolatzea (pegatinak, kartelak, pankartak, liburuxkak, txapak...), inkestak egitea, prentsaurrekoak deitzea, komunikabideetan idazkiak argitaratzea edo agerraldiak egitea, manifestazioak edo/eta espazio publikoan askotariko ekintzak antolatzea (kontzentrazioak, performance-ak...)**. Horrelako prozesuetan, **sormen handiko estrategien bidez egiten da parte hartzeko aldarrikapena**.

Kasu hauetan, ohikoa da, baita, emakumeek **ospakizuna etetea**, dela aldean adostasunez, dela aldarrikapen gisa, dela jai giroan, dela era intrusiboan. Emakumeak ospakizunean bat-batean sartuta nabarmen ikusarazi egiten dute beren presentzia; espazio publikoa okupatzeagatik edo rol jakin batzuk bere egiteagatik ezer gertatzen ez dela transmititzen dute eta **jaietan imajinario berriak** sortzen dituzte. Nahiz eta bat-batean sartzeak gaitzespenak –baita indarkeria eta liskarrak ere– eragin dituen batzuetan, beste askotan urrats erabakig-

ria izan da urte gutxian emakumeen parte-hartzea onartu dadin lortzeko. Zentzu horretan, estrategia aldarrikatzaile eta politikoen gatazka sozialerako arrisku handiagoa eragin dezake udalerrietan, baina horien guztien helburua da eztabaidaren gaitzespen horri erantzuna ematea. Ondorioz, aldaketa bultzatzeko edo motelegiak diren prozesuak azkartzeko estrategia eraginkorrak izaten dira maiz.

Aldarrikapen-estrategiek, gainera, **emakumeen, kolektibo sozialen eta, oro har, herritarren arteko babes- eta elkartasun-sareak** sortzeko bidea zabaltzen dute, eta, gainera, **mugimendu feministarekiko zein antzeko egoeran dauden kolektiboekiko aliantzak** sustatzen laguntzen dute. Horrekin lotuta, azpimarratzekoa da Antzuolako Alardeko kideak Hondarribin egon zirela 2019an, Jaizkibel konpainiari babesa erakusten; Donostiako Alde Zaharreko Kaldereroen Konpartsa Tradizionalak beren jardueragatik aitortza egin ziela; edo 2020an Jaizkibel konpainiaren erreplika bat agertu zela Tolosako Inauterietan desfilatzen, berdintasuna aldarrikatzeko<sup>139</sup>. Ezin aipatu gabe utzi, halaber, Estatuko zenbait hiritan antolatuta direla **jaietan emakumeen rolari buruz eztabaidatu eta hausnartzeko jardunaldiak**, lurralde ezberdinetako borroka-esperientziak partekatzea helburu (ikus III. eranskina).

Txosten honetan aztertutako kasuez gain (Bilboko Mamiki konpartsa edo Tolosako Danborrada), atal honetan jasotzeko modukoak dira honako hauek ere: Alcoiko Mairu eta Kristauen ospakizuna, **Fonèvol** kolektiboaren etengabeko salaketa eta lan nekaezina barne; Igualdako Patgessak, herriko Errege Kabalgatan infiltratzea erabaki zutenak;<sup>140</sup> Donostiako Alde Zaharreko Kaldereroen jaia, pegatina bidez aldarrikapen-kanpaina egin eta plazan bat-batean sartu baitziren, kanpaldia eta pregoia etenda; Errioxako zenbait dantza; Baztango *mutil-dantza*, emakumeak dantza erdira sartu baitziren, erreakzio eta emaitza ezberdinak eragina; Bidasoko Alardeak, Irungo eta Hondarribiko kolektiboek Alardeetan onartuak izateko aldarria eta ukoaren salaketa askotariko ekintzen bidez adierazita.

Mota honetako estrategietan garrantzitsua izaten da **presio soziala** –nahiz eta batzuetan gatazkatsua izan–, **dela jaien beraien aurkakoa, dela gizonezkoenak soilik diren taldeen aurkakoa, dela emakumei bigarren mailako rolak esleitzen dizkieten taldeen aurkakoa**. Gaitzespenak eta jaiarekiko lotura duten emakumeen beraien presioak aldatetaren alde egin dezake, baina, aldi berean, emakume taldeek jaietako berdintasun-eskeen kontra egiteak indarkeria handieneko egoerak eragin ditzakete; hala gertatu da Bidasoko Alardeetan, Alcoiko Mairu eta Kristauen ospakizunean, edo Zamora eta Sevillako Aste Santuetan, adibidez.

## ELKARRIZKETA- ETA BITARTEKARITZA- ESTRATEGIAK

# 7.3.

Emakumeak jaietatik baztertzeak dakarren arazoa salatzen denean elkarrizketa-espaziorik sortzen ez bada, eta aldarrikapen-estrategien bidez ere ez bada negoziazioan aurrerapenik lortzen jaiak antolatzen dituzten erakundeetan, **aurez aurre dauden alde bien arteko bi-**

139 *Diario Vasco* (2019/09/10) Una representación local acudió a animar a la compañía Jaizkibel en Hondarribia; *Cadena Ser* (2019/01/25) Los Caldereros reivindicarán el trabajo de la compañía Jaizkibel por la igualdad; *Diario Vasco* (2020/02/20) Tolosa prende la mecha de su Carnaval menos ruidoso.

140 Gertakari hauei buruzko informazio gehiago eskuratzeko ikusi Gisbert, 2010 eta Lafita, 2013.



**tartekaritza-prozesuak eskatu edo/eta bultzatu** ohi dira (prozesu juridiko edo judizialen aurretik zein ondoren –aurrerago azalduko dira–).

Batzorde antolatzaileen (EAEko erakunde gastronomikoak, sarri) eta udal zein eragile sozialen arteko bitartekaritza-prozesuok aurrera eramateko, baliteke beharrezkoa izatea **folklore, dantza, historia edo antropologian adituak diren pertsonen laguntza**, hainbat kasutan ikusi dugunez: Antzuola, Berriz, Donostia, Bidasoko Alardeak edo Euskal Herri osoko dantzetan. Kasurik zalapartatsuenetan, **bitartekaritza eta gatazka-ebazpenean adituak diren pertsonak** hautatu daitezke bide-laguntzaile izateko (Alardeetan eta Alcoiko Mairu eta Kristauen ospakizunean kasu), edota **berdintasun-gaietan adituak diren aholkularitza-enpresen laguntza** bilatu daitezke (I. eranskinean jasota dauden prozesu guztietan bezala). Kasu batzuetan bitartekaritza-espazioak udal -mailakoak badira ere (Amurrioko «Hezkuntza» mahaia kasu, Udala, eskolak eta familia elkarteak elkartzen dituen), Bidasoko Alardeen kasuan (hainbat bitartekaritza-prozesuren ondoren) beharrezkoa izan zen Gipuzkoako Aldundiak, Arartekoak eta Emakundek osatutako Erakundearteko Mahaia sortzea. Aurretik ere aipatu denez, pertsona eta erakunde aditu ugari inplikatu dira bitartekaritza-prozesu ezberdinak aurrera eramatean<sup>141</sup>, alde guztientzako pozgarria den soluziorik oraingoz lortu ez bada ere.

Bitartekaritza-prozesu hauetan erabilitako estrategia eta metodologiak ulertzeko eskaerari dagokionez, adierazgarria iruditzen zaigu azaltzea Jenny Pearcek nola ikusten duen Bidasoko Alardeetan esku hartzeko bidea. Gatazka-bitartekari gisa deskribatzen dute maiz Pearce, baina berak nahiago du elkarrizketa ahalik eta modurik «organikoenean» bideratzeaz arduratzen dela esan. Hortaz, uste du bere lana ez dela gatazka ebaztea eta, berez, ez du «soluzio» hitza inoiz erabiltzen. Pentsamolde ezberdinetako pertsonak elkar ulertzea eta alde inplikatuaren mundua ikustea da bere helburua, ezinbestekoa iruditzen baitzaio eraldaketa bideratu ahal izateko. Planteamendua hori izanik, ez da kanpo-neurririk ezartzen, tokian tokiko mailan bultzatzen baitira aldaketa sozialak. Onartzen du prozesu «organiko» hori zailagoa eta motelagoa dela, denbora behar duelako, eta denbora etsai nagusia izaten delako sarri. Hala, hazkuntza edo laborantza organikoaren metafora aplikatzen du prozesu kulturalen: «Kulturak badu harremana laboratzearekin, haztearekin, egokitzearekin; izan ere, aldaketaren bidez soilik eboluzionatu eta biziraun daiteke». Haren argudioan oinarrituta, beraz, aldatu nahi den hari gogor heltzea da tradizioa (edo lotura kulturala), eta aldaketa eragozte. Pearceren planteamenduak, hortaz, aukera ematen du kulturarekiko lotura ezagutzeko eta aitortzeko, baina baita tradizioa zalantzan jartzeko ere.

Enfasia prozesuan bertan jarri behar dela dio Pearcek, eta pertsonak iritzia eta ikuspegia aldatzera nola iristen diren ulertzen saiatu behar dela, baina, horretarako ez du inolako erreze-ta teknikorik, ez baitu uste pertsonak aldaketa onartzera behartu daitezkeenik. Hori dela eta, ez du aurrez kontzeptualizatutako metodologiarik erabiltzen, eta ez da ikerketatik abiatzen. Ez zaio ikaskuntza-prozesuaren sistematizazioa interesatzen, prozesua bera baita bere helburua: behaketa, entzutea eta enpatia dira ulermenaren oinarriak eta, ondorioz, baita partaidetza-prozesuaren oinarriak ere. «Galduta gaudelako egiten dugu aurrera»<sup>142</sup> esan zuen Alfredo Molano historialari kolonbiarrak bere planteamendua argitzeko.

Azkenik, Pearceren proposamena indarkeriarik gabeko politikan oinarritzen da; horrek ez du esan nahi gatazkek eragiten duten sufrimendua alde batera utziko denik, baizik eta adostu

141 Jenny Pearce (2011-2015; 2018-gaur egun); Eusko Jaurjaritzako Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritza (2014); Gernika Gogoratzuz Bakearen Aldeko Aztertegia (2019ko urtarriletik apirilera).

142 Pearce, Jenny (2008) «*We Make Progress Because We are Lost: Critical Reflections on Co Producing Knowledge as a Methodology for Researching Non governmental Public Action*». NCRM Research Methods Festival, 30 June - 3 July, St Catherine's College, Oxford. (Azken kontsulta 2020/04/06)

gingo dela pertsona guztiek daukatela baztertuak ez izateko eskubidea eta inor ez dela aldaketa-prozesu batetik kaltetuta irten behar. Mina eta ezinikusia dauden lekuan, bada adiskidetzeko aukerarik, eta, hortaz, oso kontuan izan behar da alderdi emozionala. Hala, inor kaltetuko ez duen adiskidetzea bilatu behar da, kulturaren (etengabeko aldaketaren), tradizioen edo ohituren eta eskubideen arteko lotura zainduta.

Orain arte ikusi ahal izan dugunez, bai prozesu organikoetan bai denbora luzeagoa eta, batzuetan –gatazkatsuak izaki–, bitartekaritza profesionala behar duten prozesuetan, erabakigarria izan daiteke ikerketa historiko edo antropologikoak egitea eta argitaratzea. Esate baterako, EAEko «[Elkarte Gastronomikoen garrantzia eta eragina gizartean](#)» ezohiko txostenak, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak argitaratutakoak, etorkizunera begira aztertu zituen **elkarte gastronomikoekin bitartekaritza-lana** egiteko aukerak (Tolosan). Batzuetan, **ikerketa akademikoak, diagnostikoak edo txosten analitikoak sentsibilizazio-elementu izan daitezke eta aldaketa- edo bitartekaritza-prozesuak erraztu ditzakete.**

## ESTRATEGIA JURIDIKOAK/JUDIZIALAK 7.4.

Parte hartu nahi duten emakumeen edo jaietan berdintasuna defendatzen dutenen eskariei entzungor egiten bazaie edo, zuzenean, uko egiten bazaie, estrategia juridiko edo judiziala abiatzen da batzuetan. Mota honetako estrategien helburua izaten da **udalen babesa lortzea** (udalbatzak gaiaren inguruko adierazpenak egitea), **herriaren defendatzailearen aurrean salatzea** (Arartekoa, Defensor/a del Pueblo, Síndic de Greuges...), edo **epaitegietan salaketa aurkeztea** (epaitegi zibilean edo, oro har, administrazioarekiko auzien epaitegian). Udalen babesa eta udalbatzaren posizionamendua bilatzea erabakigarria izan daiteke negoziazio-prozesua alde agertzeko. Udalek arazoari entzungor egiten badiote edo emakumeen eskariari uko egiten badiote, ordea, gatazka gogortu egiten da normalean, eta gaia beste instantzia batzuetara eramaten.

**Herriaren defendatzaileak esku hartuz gero**, jaietako berdintasun-aldarrien alde egin ohi du, eta **udalei gomendioak egin ohi dizkie jaietan berdintasunaren alde lan egin dezaten eta emakumeak bazter uzten dituzten erakundeei babesa eta finantzaketa ken diezaieten** (halaxe gertatu da Tolosan, Alcoin eta Hondarribiko Alardean). Beste behin, gomendio horiek bete edo ez betetzea erabakigarria izan daiteke prozesuan, eta gatazka gehiago sor daitezke (gomendioei entzungor egiten bazaie, edo ezartzea erabakitzen bada eta **erakunde diskriminatzaileak zehatzen** badira) edo egoera baretu daiteke, dela horien bitartez elkarriketa-prozesuak sustatzen direlako (Tolosan bezala), dela horien ondoren **Berdintasun Legearen aplikazioari** buruzko adostasuna handitzen delako. Izan ere, ezin ahaztu dezakegu, legeak xedatzen duenez, debekatuta dagoela horrelako erakundeei dirulaguntzak ematea, edo emakumeak diskriminatzen diren ekitaldietan agintaritza publikoek parte hartzea. **Emakundek** ere esku hartu du EAEn horrelako prozesuetan; **jaietan emakumeen parte-hartzearen alde agertu da publikoki; babesa emateko bertaratu da**, adibidez, Hondarribira (Jaizkibel konpainiaren alde) eta Irunera (alarde mistoaren alde); eta **Emakunderen Berdintasun Saria eman die** 2011. urtean.

**Prozesu judizialak** elementu gatazkatsua izan ohi dira jaietan emakumeen parte-hartzea jorratzeko orduan; izan ere, jarrerak erradikalizatzea eragiten dute eta tentsio-maila handia-

gotzen (balizko kondenak, zehapen ekonomikoak, prozesuaren gastuak, behin-behinekotasun luzea...). Gainera, Alardeen kasuak agerian utzi du epai judizialekin ez direla gatazkak amaitzen, eta gatazka gogortu ere egin daitekeela. Hala eta guztiz ere, **jaia publikoa edo udal mailakoa bada, auzitegiek emakumeei eman izan diete beti arrazoia, eta aldeko epaia jasotzea pisuzko elementua izan daiteke negoziatioetan** (hala gertatu da Alcoin, Villenan eta Alarde publikoetan). Edonola ere, auzitegiara jo aurretik, hobe izaten da beti gaia jorrazteko beste estrategia batzuen bidez probatzea, nahiz eta indarkeria eta erasoen ondorioz zigor-bidetik jo behar izan den behin baino gehiagotan.

Zentzu horretan, testuinguru historikoari lotuta ikusi dugunez, **legeria garatzea** ere funtsezkoa da prozesu hauek jorrazteko; izan ere, Berdintasun Legeak eta kultura-arloko zein ondare immaterialaren babesari buruzko legeriak aurrekariak ezar ditzakete gatazkak baretzeko, prozesuak azkartzeko eta adostasun handiagoa lortzeko. Horrekin lotuta, oraindik egin gabe dago **herrietako jaiei buruzko araudia**. Garrantzitsua da horrelako araudi bat sortzea, **erakunde edo elkarte pribatuak jaiez jabetu daitezten saihesteko** eta emakumeak espazio publikoan –pribatutzat hartuta– egiten diren ekitaldietatik bazter utz ditzaten saihesteko<sup>143</sup>.

## GENERO-ROLEN INGURUKO ESTRATEGIA SORTZAILEAK **7.5.**

Jaietan berdintasuna aldarrikatzeko egiten diren eskarien aurrean –gehiengo sozialak onartu edo desiratuak izan zein ez–, jai-eredua birpentsatzeko eta birplanteatzeko beharra jartzen da mahai gainean, jendarte parekideago batera bidean genero-rolen eta rol sexualen erakuntzan eta irudikapenean aldaketa-eskariei aurre egiteko. Zentzu horretan, rolen banaketa eta genero-binarismoa birpentsatu eta eraldatzeko aukera ugari sortzen dira, jai-ondareari uko egin gabe eta tradizioari inolako kalterik eragin gabe. Zenbait udalerritan erabilitako estrategiak aztertuko ditugu.

### FIGURA BERRIAK EDO MAKUMEZKOENTZAKO JANTZIAK SORTZEA **7.5.1.**

**Jaietan emakumeak barne hartzeko emakumezko figurak sortzea** estrategia ohikoena da penintsula osoan, nahiz eta kasuan-kasuan berezitasunak badiren. XIX. mendean gerotik sortu izan dira, adibidez, kantine eta banderaria emakumeei jaietan rol bat emateko. Horrela sortu ziren, baita, jaietako Erreginak eta damak, *majorette*-ak edo bide-laguntzaile alegorikoak, baita beste prozesio batzuetan dantza-taldeak eta Aste Santuko mantelina-damak ere. Hala eta guztiz ere, figura horietako batzuetan –batez ere diktadura frankistan

143 Alderdi judizialei buruzko informazio gehiago eskuratzeko ikusi Montesinosen «*Análisis y propuestas desde una perspectiva antropológica y jurídica*» txostena, Gabeiras Fundazioaren «*Patrimonio inmaterial cultural y las desigualdades de género*» azterlanean (2020).

zehir sustatuta zirenetan– feminitate-rola oso lotuta egoten zen edertasunarekin, gaztetasunarekin eta gizonezkoen desirarekin (edota ama eta elizkoi bihozbera izatearekin). 70eko eta 80ko hamarkadetan, ordea, gainbehera etorri zitzairen eta figura horiek zalantzan jartzen hasi ziren. Beste espazio batzuk ere betetzeko aukera aldarrikatzen zuten emakumeek; halaxe gertatu zen Tolosan emakumeen Danborradaren sorrerarekin, baita jaietako Erreginaren zein damen karroza ezabatu zenean ere, emakumezkoek jaietan zuten ordezkari-tza eraldatzen hasi baitzen.

Donostiako Danborradan urketariaren figura sortzeak ere logika horixe betetzen du, **emakumeentzako rol espezifikoak egokitzeko bidea**, alegia. Estrategia aproposa izan zen 80ko hamarkadako danborradetan sartzeko, hari esker sartu ahal izan baitziren emakumeak jaiaren estetika eta zentzuan, era atsegin eta errazean gainera (eta berehala hedatu zen danborradetan). Emakumezko figura hark ez zuen emakumeen rola urketari izatera mugatu (nahiz eta gaur egun horixe den gehien betetzen duten rola; banderaren igoera eta jaitiera ekitaldi ofizialetan, hori bakarrik); izan ere, handik gutxira nahiko erraz hasi ziren emakumeak sukaldari roletan, baita soldadu roletan danborra jotzen ere (gutxiengoak ziren arren). Horrekin esan nahi dugu **emakumezko figurak, emakumeentzat espezifikoak direnak**, sortzea estrategia aproposa izan daitekeela emakumeak jaietan txertatzeko, **baldin eta figura berri horrek ez baditu rol horretara soilik mugatzen eta, batez ere, figura horrek jai-ekitaldi guztietan parte hartu ahal badu erabat**, ez bigarren mailako rol gisa edo ekitaldi edo jarduera batzuetan bakarrik. Irungo Antortxeren ekitaldiak, adibidez, emakume eta neska-toentzako rol berria sortu zuen, baina bigarren mailako jarduera da jai-egitarauan. Emakumezko pertsonaiak sortzearen beste adibide batzuk izan daitezke Oiartzungo Inauterietako sorginak, Gasteizko Neskak, Gabonetan Olentzerorekin batera agertzen den Mari Domingi, Igaladako *Patgessa* Nazira (Katalunia) (Lafita, 2013), edo Manacorrek emakumezko deabruak (Mallorca) (Alemany, 2016; 2019). Aurretik ere esan dugunez, hortaz, sormen-estrategia honek askotariko formak eta askotariko ondorioak izan ditzake, eta, horregatik, komeni da pertsonaia berrien sorkuntzaren inguruan sakon hausnartzea eta aurrekariak kontuan hartzea.

Figura berriak sortzeko estrategiarekin batera, udalerrri batzuetan **emakumeentzako jantzi ezberdinak** sortzeko hautua egin da. Horixe izan da Alcoiko eta beste herri batzuetako Mairu eta Kristauen kasua, baina horren zenbait eragozpen ere sortu ditu. Emakumezkoen jantziek emakumeak jaietan txertatzen lagun badezakete ere, ezberdin gisa agertzen dira beti eta desberdintasun horiek estereotipo jakin batzuetan oinarritzen dira (jantzi femeni-noagoak dira, gasa eta tuldunak –ezerosoagoak, oro har–; Kaldereroen artean gertatzen den antzera) eta, gainera, jantzi desberdinak jantzeak jarduera jakin batzuetatik kanpo uzten ditu. Alcoiren kasuan, ez dira talde mistoak sortu jantzien desberdintasunak argudiatuta, eta horrek, praktikan, murriztu egiten du emakumeek parte hartzeko aukera, gutxiago direlako (Gisbert, 2010). Danborradan urketariaren figura/jantziarekin ere antzera gertatzen da, talde askorentzat bateraezina baita danborra jotzearekin. **Emakume zein gizonentzat jantzi bakarra** aldarrikatzen dute Alcoi, horrelako desberdintasunak ezabatzeko, eta eztabaida-arrazoi argia da, adibidez, dantza jakin batzuei dagokienez: gizon eta emakumeek berdin jantzi behar dute, ala ezberdin? EAEko dantzen kasuan, Dantzan erakunde espezializatuaren arabera, euskal dantza gehienetan erabiltzen diren jantziek ez dute zertan genero-kategoria-rik izan. Izan ere, dantza-erritual gehienetan jantzi jakin bat jantzea ez dago generoari lotuta, dantzari berari baizik. Esate baterako, Berrizko ezpata-dantza egiten dutenen jantzia ez da, ikuspegi horren arabera, «gizonezkoen jantzia», «ezpata-dantzari» baten jantzia baizik, eta, hortaz, ez da garrantzitsua dantzatzen duen pertsonak gizon, emakume edo bestela identifikatzen duen bere burua.

Zentzu horretan, emakumezko figurak sortzea aurrerapen interesgarria izaten da, nahiz eta anibalentzia puntu bat ere baduen: alde batetik, emakumeak barne hartzen dira, baina, bestetik, bereizi egiten dira eta rol edo ekintza jakin batzuetara baztertzen dira, ekitaldi nagusietan betoa jarrita eta espazio mistoak baztertuta egon arren. Hau da, gizonezkoen rolen nagusitasun eta zentraltasunari eusteko modu bat izan daiteke. Emakumezko figurak sortzea bereziki interesgarria da estereotipo **jakin batzuk urratzeko** balio badu (Bilboko Marijaiak egiten duenez, adibidez, edo Manacorreko emakume deabruak), edo gizonezkoena soilik den jai bat emakumeen parte-hartzera zabaltzeko balio badu. Lehen urratsa emanda, oro har, jai-eremua gehiago zabaltzen da eta **emakumeak beste edozein roletan integratzeko aukera** ahalbidetzen da, baita, **gizonek emakumezkoen figurak irudikatzen aukera** ere, nahiz eta hori ezohikoagoa izan. Etorkizuneko erronken artean jaso legez, Gasteizko Nesken eta Blusen kuadrillek, kaldereroen tribuek zein Oiartzungo inauterietako intxixu eta sorginek adierazi dute beharrezkoa dela **genero-binarismoa haustea**, eta **pertsona bakoitzak aukeratzea zer rol hartu, kontuan hartu gabe gizona, emakumea edo genero-identitate zehatzik gabeko pertsona den**.

Illo honetan beste estrategia bat ere azpimarratu behar da: **genero-estereotipo oso markatuak irudikatzen dituzten pertsonaiak ezabatzea**, Donostian Easo Ederrarekin edo Tolosako Danborradan jaietako Erregina eta damekin gertatu denez. **Balio jakin batzuen edo aurrekontu demokratikoen kontrako figura edo jai-ekitaldiak ezabatzea** (Laudion eta Amurrion sorginaren erretzea, kasu) ohikoa izan da animaliekiko tratu txarrei, nagusitasun erlijiosoari eta arrazakeriari lotutako gaietan ere. Antzuolako kasuan ikusi dugu hori, baina Mairu eta Kristauen ospakizun askotan ere gertatu da gauza bera, eta gaur egun horixe salatzen da Errege Kabalgatetako Baltasarren eta bere morroien belztasunari dagokionez.

## OSPAKIZUNEAN JARDUERA BERRIAK SORTZEA EDOTA JAI ALTERNATIBO EDO PARALELOA EGITEA

### 7.5.2.

Aurretik dauden jai-ekitaldietan emakumezko figura berriak sor daitezke emakumeak integratzeko, baina baita jaietako egitarauaren barnean jarduera berriak sortzeko ere (Irungo Antortxeren edo Manacorreko emakume deabruen kasuak, adibidez). Jarduera horiek emakumeak bigarren mailako ekitaldietara mugatzen dituztela uste badaiteke ere, **jarduerok jai ofizialaren alternatiba proposatzen duten ekitaldi aldarrikatzaileak ere izan daitezke, genero-rolen inguruko bestelako balio eta irudikapenak azaleratzeko**. Kasurik argiena Manacorreko emakume deabruen kasua da (Alemany, 2016; 2019), baina multzo horretan aipa ditzakegu, baita, Alcoiko *Fonèvol* elkartearen *entraete*-ak (Mairu eta Kristauen jaiak hasi aurretiko desfileak, kaleko jantziz), Tolosako emakumeen danborrada edo Donostiako Emakumeen Etxeko danborrada. Kasu horietan, **jaia aldarrikapen feminista bilakatzen da, emakumeen presentzia ikusarazteko eta bestelako imajinarioak sortzeko bidea ematen duelako**.

Sortze-lanari lotutako beste adibide adierazgarri bat da Donostiako Piratena. Donostiako Piratena Aste Nagusiko **egitarau ofizialekin kanpoko jarduera-programa** proposatzen dute, gazteriari, euskarari, emakumei eta giro alternatiboari presentzia handiagoa emanda. Bilboko Aste Nagusiaren harira azaldu dugun prozesuaren antzekoa da.

**Jarduera edo jai-eredu berriak sortzea** (emakumeen presentzia handiagoz, normalean) estrategia aproposa da emakumeen parte-hartzea bideratzeko eta errepertorio kulturala handitzeko, nahiz eta batzuetan gaitzespena eta gatazka edo banaketa soziala eragin ditzakeen. Donostiako Alde Zaharreko Kaldereroen kasuak (paraleloan desfilatzen duten bi konpartsa) edo Irungo Alardearen kasuak agerian uzten dute horrelako ekimenen alde mingotsa, horiek gaitzesten dituzten bertsuek sustatzen baitute **jaia bi bandotan (aurrez aurre) banatzeko bidea**. Elkar oztopatuko ez duten ibilbide paraleloak ezartzea lan gogorra da udalentsat, eta, gainera, ez du kohesio soziala sustatzen. Hala eta guztiz ere, horrelako kasuetan, gatazka sozialak katalizatzekeo espazio gisa jarduten dute jaiak eta agerian uzten dituzte aniztasuna eta konfrontazio politikoa.

Edonola ere, bada jai zatikatu hauen bilakaera baketsu eta integratzailearen zantzu positiborik: Donostiako Alde Zaharreko Kalderero tribu biek onartzen dituzte dagoeneko emakumeak, nahiz eta horietako batek haien jarduna mugatzen duen oraindik, bestearekin fusionatzea errefusatzekaz gainera; Algemesiako Muixerangaren kasuan, emakumeak onartzen zituen Muixeranga Berria sortzeko **banaketa eragin zuen hasieran, baina denboraren poderioz alde biek onartu zuten emakumeen parte-hartzea** (Calgide et. Al, 2018).

### «ESPASIO MISTOAK» SORTZEA ETA BINARISMOA HAUSTEA

## 7.5.3.

Aurretik ere ikusi dugunez, emakumezko figurak edo jantzi bereziak sortzea estrategia aproposa izan daiteke jaietan emakumeak barne hartzeko eta jaia bera gizonetzkoena soilik izatetik misto izatera pasatzeko. Hala eta guztiz ere, Moral et al. (2014) egileak Donostiako Danborradaren inguruan nabarmendu zuenez, lehendabiziko urrats horrek ez du gizonen eta emakumeen berdintasuna bermatzen, emakumeen presentziak –rol bereziak izaki– bigarren mailakoa izaten jarrai dezakeelako, edo zailtasun handiak izaten jarrai dezaketelako kargu garrantzitsuak bere gain hartzeko, ahotsa edukitzeko eta erabaki-ahalmena lortzeko orduan. Hala, Moral et al (2014) egileak azpimarratzen zuenez, Donostiako Danborrada mistoa da baina ez da parekidea; izan ere, emakumeek ekitaldi ofizial guztietan parte hartzen badute ere, horien ordezkariak sinbolikoa eta mugatua izaten da maiz, gizonen eskubide guztiak bermatzen ez zaizkienez. Bestalde, danborradei dirulaguntza jaso ahal izateko misto izan behar dutela eskatzen zaienean, gutxienez 12 urketari barne hartu behar dituztela esaten zaie. Horrek ez du bermatzen nahi duten emakume guztiek parte hartzeko aukera izango dutenik, ezta konpartsan beste postu batzuk bete ahal izango dituztenik edo erakundeko bazkide izango direnik ere.

Edonola ere, jai-eremu jakin batzuk misto izan daitezkeen lortzea lehen helmuga interesgarria izan daiteke, eta aldarrikapen-motibo izaten jarraitzen du Alcoiko Mairu eta Kristauen desfileetan edo Estatuko hainbat herritako Aste Santuko prozesioetan. Izan ere, ospakizun horietako askotan emakume eta gizonen bereizketak indarrean jarraitzen du oraindik ere, eta emakumeek ezin izaten dute ekitaldi jakin batzuetan parte hartu (talde propioa sortzeko emakume nahikorik ez dagoelako) edo ezin izaten dute irudi edo pauso jakin bat eraman (gizonen eraman ohi dutelako) (Montesinos, 2020). Horrelako kasuetan, **espazio mistoen aldeko aldarria**ren xedea da, hain zuzen ere, espazio horietara iristeko aukera parekidea izatea, **emakume eta gizonen arteko bereizketarik ez egitea**, eta argudio kontserbadoreak bazter uztea (kontaktu fisiko «lizuna», desberdintasun estetikoak, indarra eta gaitasunak...).

Zentzu horretan, jai askotan gizon eta emakumeak bereizten dituzten genero-rol markatuak dituzten figurak protagonista nagusi badira ere (Inudeak eta Artzainak, adibidez), edo gizon eta emakumeei espazio bereziak esleitzen bazaizkie ere, kasu askotan banaketa hori gainditzea lortu da eta emakumeak «berez» gizonezkoak diren espazio eta figuretan barne hartzea lortu da, genero-ezberdintasunik egin gabe (eskopetariak, soldaduek, gerlariak, danborrariak...), edo **zuzenean norberak rol eta jantzia askatasunez aukeratzea** ahalbidetu da, pertsonaren sexu edo generoa zein den kontuan hartu gabe. Azken hori Oiartzuneko eta beste herri batzuetako inauterietan, edo konpartsa eta talde jakin batzuetan lortu bada ere (bereziki LGTBQ+ kolektiboetan), etorkizuneko erronka garrantzitsu gisa markatu dute oraindik elkarrizketatutako pertsona askok. Zentzu horretan, binarismoa apurtzeko are errezelo handiagoa dago gizonak badira rol «femeninoak» irudikatzen edo ordezkaten dituztenak, betiere «trabestismo» hori jaiaren parte ez bada (Kaldereroak, umoreari lotuta; Misteri d'Elx historiari lotuta). Errezelo horiek, gainera, aurreiritzi homofobo eta transfoboekin lotzen dira sarri, ez baitira maila berean jartzen jaiaren seriotasuna, formaltasuna eta izaera sakratua eta inauteri-giroa, zeinak rola hausteko aukera ematen baituen.

Edonola ere, **espazio misto eta ez-bitarren** kontuak zenbait erronka konplexu planteatzen ditu oraindik ere, ez soilik jai asko bereizketa horretan oinarrituta eraikitzen direlako, baita kirol-lehiaketek emakumeen eta gizonen arteko bereizketa hori erreproduzitzen dutelako ere. Eta horrek, jakina, genero-desberdintasunak ezabatzeko mugak jartzen ditu. 2019an Donostiako Estropaden inguruan sortutako polemikak argi erakusten ditu eztabaida honen zenbait puntu: Komeni al da emakume batek gizonezkoen traineru bat zuzentzea? Onar dezakegu, orduan, gizon batek emakumezko talde bat zuzentzea? Zergatik ez onartu, orduan, talde mistoak? Hala izanez gero, talde parekideak izan beharko lirateke, ala soilik emakumeek eta gizonek berdintasunez parte hartzeko aukera izango dutela bermatu? Binarismoa ezabatu ahal izateko, zalantzarik gabe, ezinbestekoa da hezkuntza- eta komunikazio-eredua eta eredu sinbolikoa errotik eraldatzea. Prozesu hori martxan da, bai, baina zailtasun handiak planteatzen ditu oraindik.

## «PAREKIDETASUNAREN», «EKITATEAREN» ETA «BERDINTASUNAREN» ALDEKO ESTRATEGIAK

# 7.6.

Emakumezkoen figurek edo parekideak ez diren espazio mistoek eragin ditzaketen mugen aurrean, bestelako estrategiak ere ezar daitezke, **jaietako jarduera guztietan eta erakunde antolatzaileetan parekidetasuna sustatzeko**, betiere, emakumeen presentzia testigantza sinboliko hutsa edota politikoki zuzena soilik izango ez dela bermatuta. Hartara, egiazko parekidetasuna lortuko bada, ezinbestekoa da berdintasun-printzipioan eta ekitatean oinarritzea. Estrategia horietako asko jasota daude Tolosako [Jaiak Berdinzaleago bihurtzeko Gidan](#).

## JAIK ANTOLATZEN DITUZTEN ERAKUNDEETAN PAREKIDETASUNA SUSTATZEA **7.6.1.**

Egiazko berdintasunaren aldeko bide honetan, funtsezkoa da **emakumeak jaiak antolatze-ko erabakitze-guneetan sartzea**. Zentzu horretan, **udaletako jai-batzordeek –sarritan udalbatzek beraiek sustatu eta babestutakoek– funtsezko rola betetzen dute, horietan bermatu beharko bailitzateke gizonen eta emakumeen presentzia parekidea**, baita bien interesak ordezkatzen dituzten erakundeen presentzia ere. Nabarmentzekoa da 2003. urtetik Bilgune Feministak egin duen apustu estrategikoa, kolektiboak Euskal Herriko herrietako jai-batzordeetan parte har dezala sustatzeko<sup>144</sup>. Udalerrri batzuetan zuzenean parte hartzen ez badu ere, harremanetan izan da parte hartzen zuten eta hala egiten jarraitzen duten emakumeekin.

Parekidetasunaren sustapen hori Bilboko eta Gasteizko kasuetan ere ikusi dugu. Konpartsen Federazioan Mamiki konpartsa egoteak, edo zenbait gazte feministak Blusen eta Nesken Batzordean parte hartzeak aurrerapena dakar jai- eta berdintasun-gaietan; izan ere, **erakundeak genero-ikuspegia txertatzen laguntzen dute, emakumeentzako espazio gehiago eskatzen dituzte** eta aurrekari garrantzitsuak ezartzen dute emakumeen parte-hartzeari dagokionez. Gizonek soilik osatutako erakunde antolatzaileek traba eta zailtasun gehiago jartzen dizkiete emakumeei edozein jardueratan parte hartze-ko, eta baliteke emakumeak jaitik eta erakundetik kanpo uztea, hain zuzen ere, espazio autonomo horien erabakitze-ahalmena aitzakiatzat hartuta (bozketa). Elkarte gastronomiko askok –baita Mairu eta Kristauen konpartsek edo fededunen kofradiek ere– jaietatik kanpo mantendu dituzte emakumeak, berdintasun-printzipioaren kontra, demokratikoki hartutako barne-erabakiak izan direla argudiatuta; tranpa juridikoa izaki, auzitegiek arbuia egin dituzte horrelako estrategiak, adibidez, Alcoin. Udalerrri oso bateko jaiak antolatzeaz horrelako erakundeak arduratzen direnean eta, ondorioz, jaietan parte hartu ahal izateko erakunde horietako kide izatea beharrezkoa denean, ezin da emakumeen bazterketa barne-erabakia argudiatuta zuritu, legearen eta berdintasun-eskubidearen kontra egiten baita horrela. Nolanahi ere, Tolosako kasuan ikusi dugunez, zaila eta gatazkatsua izaten da luze iraun duen egoera hori aldatzea.

Jaietan berdintasuna bultzatzeko urrats garrantzitsuak dira **jaiak antolatzen dituzten erakundeetan emakumeen presentzia bermatzea, genero-ikuspegia zabaltzea eta erakunde jakin batzuek jaien antolakuntzan duten rola zalantzan jartzea, baita ekitaldietan nork parte hartu dezakeen eta nork ez erabakitzeko erakunde horiek duten ahalmena kolokan jartzea ere**. Donostiako Alde Zaharreko Kaldereroen ospakizunari dagokionez, tribuen antolatzaile formalak «nagusien» esku uzten zuen edozein erabaki (Farapi, 2009), eta gauza bera gertatzen da jaietako egun handian elkarte gastronomikoetan egiten diren bazkari eta afariekin, edo Gipuzkoako hiriburuan ematen den Urrezko Danborra sariarekin. Laburbilduz, **erakunde antolatzaileetan emakumeen parte-hartzea baldintza-berdintasunean sustatzeko**, ezinbestekoa da jaiak ere zabaltzea eta eraldaketa sakonak egitea.

<sup>144</sup> Bilgune Feministak lau hiriburuetan parte hartu izan du: Iruñean, Bilbon, Gasteizen eta Donostian, baina baita Algortan, Azpeitian, Zarautzen, Tolosan, Hernanin, Durangon, Ugaon, Elorrión, Pasaian, Usurbilen, Lizarran, Leitzan...



## MOTA GUZTIETAKO JARDUERETAN ETA JAIEN GARAPENEAN PAREKIDETASUNA SUSTATZEA **7.6.2.**

Jaietako jarduerari dagokienez, ekitaldi nagusietatik harago, garrantzitsua da jarduera guztietan **emakumeen presentzia bermatzea** eta parekidetasuna bilatzea, **bereziki ekitaldi garrantzitsuenetan eta ikusgaitasun handiena duten horietan** (txupinak kasu), **emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuz**. Gauza bera inauterietako edo bestelako lehiaketetako epaimahaiak osatzeko orduan, zeinetan **berdintasun-sari bereziak** eman baitaitezke, Tolosan egin den bezala.

Beste bide apropos bat izan daiteke, baita, **emakumeek osatutako antzerki-, dantza- eta musika-ekitaldien (musika-taldeak eta txarangak) kontratazioa sustatzea**<sup>145</sup> edo kirol-jarduera mistoak edo emakumeentzako kirol-jarduerak antolatzea<sup>146</sup>. Ildo horretan, aurretik azaldu da Mamiki konpartsak **tradizioz gizonezkoenak izan diren gremioetako emakume profesionalen kontratazioa** sustatzen zuela, eta garrantzitsua da **emakumeek egin ohi dituzten etxeko lanak, zaintza-lanak eta jaien euste-lanak ikusaraztea eta horien balioa azpimarratzea**, gutxitan aitortzen eta aintzat hartzen baitira.

Atal honetan aurkeztu ditugun arlo guztietan **berdintasun-hezkuntza** estrategia baliagarria bada ere, bereziki adierazgarria da parekidetasuna jaietako jarduera guztietan bilatzen bada, **kulturan eta jai-arloan esku hartzeko ezinbestekoa baita ikuspegi estruktural eta orokorra baliatzea**. Zentzu horretan, **funtsezkoa da udaletako arlo tekniko eta politikoko kideak trebatzea, besteak beste, berdintasun-sailen eta jai- eta kultura-sailen elkarlana errazteko**. Era berean, **jai-batzordeetan parte hartzen duten kolektiboiei sentsibilizazioa eta prestakuntza** ematea ere ezinbestekoa da jai-eredu parekideak lortzera bidean aurrera egiteko.

## FAMILIAREN ETA LANAREN KONTZILIAZIOA: ETXEKO LANAK IKUSARAZTEA **7.6.3.**

Txosten honetan eta aztertutako kasuetan zuzenean jorratu ez badugu ere, argi dago emakumeek jaietan parte hartzeko aukera izatea oso lotuta dagoela hartarako duten denbora librearekin, hala aisialdiari nola mugimendu asoziatiboetan parte hartzeko aukerari dagokienez. Gipuzkoako jaiei buruzko diagnostikoan (Farapi, 2009:154-163) jasota dago familia eta lanaren kontziliazio falta dela jaietako antolakuntza-egituretan parte-hartzea oztopatzen duten alderdietako bat Estatu mailan aztertu diren beste kasu batzuetan, Aste Santuan edo fededunen kofradien jardueretan kasu, lanaren eta, bereziki, zaintza-lanen kontziliazioa funtsezko elementua da, zeinak sarri mugatzen baitu jaietan eta elkartee-

<sup>145</sup> Prozesu horretan laguntzeko eta udaleko jai-batzordeetan parte hartzen dute emakumeei babesa emateko, duela urte batzuk [Emakumeok Plazara](#) webgunea sortu zen Bilgune Feministaren ekimenez, eta bertan jasota daude emakumez osatuta dauden dantza-, antzerki- eta musika-taldeak (Guilló, 2016).

<sup>146</sup> Horrelako ekimenak aurrera eramateko, ezinbestekoa da hezkuntza-erlotik ere birpentsatzea eta lantzea genero-estereotipoen aldaketa; adibidez, *Tolosako Jaien Behatokiari* buruzko atalean ikusi dugunez, emakumeak musikari gisa trebatzeko lan egiten da, banda edo txarangetan parte har dezaten. Jai-testuinguruetako kirolari dagokionez ere asko dago egiteko; gizonezkoak soilik ez diren jarduerak sustatu behar dira, edota talde mistoak sustatu.

tan emakumeek parte hartzeko aukera (Gabeiras Fundazioa, 2020). Jaietan emakumeen parte-hartze eta berdintasun handiagoa sustatzeko eta lortzeko, behar-beharrezkoa da **emakumeen lan- eta familia-arloko kontziliazioa jorratzea**, haiek arduratu ohi baitira etxeko lanez eta menpeko pertsonen zaintzaz. **Hezkidetza eta legeria ekonomia feministen planteamenduetara egokitzea** funtsezkoa da arlo honetan aurrera egiteko, eta, beraz, emakumeek jaietan parte hartu ahal izateko bide posibleak dira **jai-egitarauan familientzako jarduerak sortzea, etxeko lanetan rolen inbertsioa sustatzea, zaintza-sare alternatiboak sortzea, edo hezkuntza- edota hartzaindegi-zerbitzuak sustatzea**.

Illo horri jarraikiz, aurretik ere adierazi dugunez, garrantzitsua da **jaiak posible egiten dituzten etxeko lanak ikusaraztea, hau da, emakumeek egin ohi dituzten antolakuntza-lan «informal» horiek guztiak ezagutaraztea (hala nola bazkariak, jantziak sortu eta zaintzea, familia zaintzea, garbiketa...)**. Hala, ezinbestekoa da ikusezinak diren zeregin horien aitortza egitea eta balioa azpimarratzea, horrela soilik emango baitzaie lan feminizatuerei merezi duten protagonismoa eta balioa; zeregin horietan gizonen inplikazioa sustatuta eta rolak zein funtzioak trukatuta.

## JAIETAKO KOMUNIKAZIOAN, DISKURTSOETAN ETA IRUDIETAN ESKU HARTZEKO ESTRATEGIAK **7.7.**

Aipatu berri dugunarekin lotuta, eta atal honetako beste pasarte batzuetan ere agertzen denez, hemen bildu ditzakegu jai parekideagoak sustatzeko eta emakumeen parte-hartzea bultzatzeko abian jar daitezkeen estrategia kulturalak (hezkuntza eta memoria), sinbolikoak eta komunikatiboak.

Lehenik eta behin, azpimarratu nahi dugu zeinen garrantzitsua den **jaiei buruz genero-ikusegian oinarritutako ikerketak eta azterketak sustatzea eta finantzatzea, eta horietan jasotzea ondare kulturalaren egoeraren azterketa zein bizi izandako esperientziak** (positiboak zein negatiboak), barne-hartze prozesuak, gatazken memoria eta alde bakoitzaren argudioak, etab., betiere, arazoaren zergatiak ikusarazita eta azalduta. Txosten honetan agerian geratu da horrelako ikerketa eta argitalpenek zer-nolako eragina duten azterketa- eta aldaketa-prozesuak bultzatzeko orduan. Zentzu horretan, eragingarria izan ohi da **jaiei edo horien eraldatze-prozesuei buruzko analisis egiten duten nobelak, komikiak, dokumentalak edo bideoak argitaratzea** (ikus II. eranskina). Aurretik ere aipatu dugu zeinen garrantzitsua den **emakumeek jaietan eta kulturean duten rolari buruzko hausnarketa bideratzeko jardunaldiak, kongresuak, topaketak eta espazioak sustatzea**, horietan ezagutu ahal izango baitira jaietan emakumeen parte-hartzea aldarrikatzen duten beste kasu batzuk (ikus II. eranskina).

Emakumeen eta kolektibo gutxituen ikusgaitasunari dagokionez, aipatu dugu garrantzitsua dela **unerik adierazgarrietan parekidetasuna bermatzea, hala nola jaien hasiera-ekitaldian (udaletzeko balkoian), txupin jaurtiketan edo banderaren igoera-ekitaldian**. Horrekin batera, ezinbestekoa da **emakumeek jai-fenomenoaren inguruan egiten duten lan informal eta ikusezina aitortzea eta ikusaraztea**, eta horren balioa azpimarratzea.

Bestalde, ildo horretan, txosten honetan aztertutako kasu batean baino gehiagotan errepikatatu da estrategia bera: **emakumeei jaietako irudietan, sustapenean eta publizitatean presentzia handiagoa ematea (karteletan, egitarauetan, argazkietan, erakusketetan edo irudi adierazgarrietan)**. Alcoin, Fonèvol elkarteak argazki-lehiaketa bat antolatzen du urtero emakumeak eta jaiak gaiaren inguruan, arlo horretan emakumeen presentzia eta horretarako egin behar izan den lana goraipatzeko.

Helburu berarekin, emakumeen presentzia eta lana zein berdintasunaren aldeko borroka ikusarazteko eta goraipatzeko, **jaietan berdintasunaren aldeko lana aitortzeko sariak ere sortu dira** hainbat lekutan: Cartagenako emakume kofradeen elkarteak PASOS saria ematen die emakumeen eta gizonen berdintasunera bidean urratsak egiten dituzten kofradiei; Donostiako Emakumeen Etxeko Danborradak urtero ematen du saria; jai-eremuetan aitortzak egiten dira, baita lan hau ikusarazten edo zabaltzen laguntzen duten moztzorro, konpartsa edo jardueri sari bereziak ematen ere<sup>147</sup>. **Berdintasunaren alde egindako ekarpenak saritzea** bezain garrantzitsua da **lehiaketa eta sarietan parekidetasuna bermatzea**, emakumeen eta gizonen berdintasuna oinarri (ikusi Urrezko Danborraren kasua), baita **gizonei eta emakumeei ematen zaizkien sariak bidezkoak izatea eta rol sexistarik ez erreproduzitzea ere**<sup>148</sup>.

Atal honetan jaso ditzakegu, halaber, **genero-indarkeriaren kontrako kanpainak** edo **martxoaren 8ko ospakizunetan** zentratzen direnak, berdintasunaren gaineko kontzientziazioa eta aldarrikapena bultzatzeko tresna gisa. Esparru honetan nabarmentzen dira zenbait erakundek garatzen dituzten proiektu eta lehiaketak, ikus-entzunezko lanak, grafitiak, kontakizunak, antzezlanak, kartelak eta abarrak. Hain zuzen ere, komunikazioaren garrantzia azpimarratu nahi izan dute elkarrizketetan parte hartu duten askok eta, zentzu horretan, gaineratu dutenez, irudiak edo jaietako kartelak eta egitarauak sortzeko orduan, beharrezkoa da **iragazte-lana egitea, irudi edo adierazpen sexistak antzemateko eta emakumeen zein tokiko aniztasunaren ikusgaitasuna bermatzeko**. Horrekin lotuta, Emakundek bi zerbitzu eskaintzen ditu horrelako baliabideen erabilera okerra salatzen. **Begirak**, «Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholkularitza Batzordeak», **gai honen inguruko aholkularitza eta azterketa eskaintzen ditu**, eta publizitate eta komunikazioa erabiltzeko kode etikoak sortzen ditu genero-ikuspegiari oinarrituta. «Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak» kexak eta salaketak jasotzen ditu, besteak beste, kartel sexisten ingurukoak, emakume gorputzaren *kosifikazioaren* ingurukoak, edo jaietako jarrera edo jarduera matxisten ingurukoak.

Ildo beretik, jaietako kontratazioetan jarri da arreta azken urteetan, eta **berdintasuna sustatzen duten eta kultura matxista zabaltzen ez duten barraka eta ikuskizunak** kontratatzearen aldeko jarrera agertu da. Gaiaren konplexutasunak eraginda, eztabaida puri-purian badago ere, zenbait hausnarketa interesgarri eskaini dira dagoeneko. Zentzu horretan, adibidez, Bilbon 2019ko Aste Nagusian programatutako kontzertu bat bertan behera geratu zen, zenbait kolektibo feministak haren abestien, letren eta bideoen izaera sexista salatu ondoren<sup>149</sup>. Horrekin lotuta, **eduki sexista duten edo genero-rol markatuak erreproduzitzen**

147 Tolosako Inauterietako berdintasun-sariaren helburua da «emakumeen eta gizonen artean harreman parekideak sendotzea eta emakumeen parte-hartzea eta protagonismoa azpimarratzea. Era berean, jaien inguruan berdintasunaren aldeko mezu sinboliko eta kulturalak ere sortu nahi dira».

148 Batzuetan, sari bereziak ematen dira, genero-estereotipoak islatzen dituztenak; halaxe salatu zuten Muskizen (Bilbo) Arartekoaren aurrean. Beste kasu batzuetan, Kontxako Banderako sarietan, kasu (2018ra arte), emakumezkoen sariari dagokion zenbatekoa gizonetzkoen dagokiena baino txikiagoa izaten da. Kasu honetan hain zuzen ere, emakumezkoen saria (2008. urtean sortua) handituz joan zen, harik eta 2011. urtean gizonetzkoen sariarekin berdindu zen arte.

149 Eztabaidak zenbait kontu plazaratzen ditu (hala nola, adierazpen-askatasuna, zentsura, indarkeria, biktimizazioa edo puritanismoa...) eta, zalantzarik gabe, horrek guztiak emango du zer esanik. *El Salto* (2019/08/09) [Te puedes acostumbrar a la guerra, pero Tangana, siempre hay](#); *Catalunya Plural* (2019/08/12) [No me irriten el pussy.](#); *eldiario.es* (2019/08/12) [La cancelación de C. Tangana aviva el debate: ¿Es el veto a artistas con letras machistas la mejor estrategia feminista?](#).

**dituzten kopia edo abesti tradizionalen letrak zalantzan jarri edo aldatu dira beste hainbatetan** (Kaldereroek mutiletan edo neskatan egiteko hainbat abesti, adibidez). **Egun-go balioekin alderatuta zaharkituztat jotzen diren abestiak errepertorioetik ezabatzeke hautua** ere egin daiteke.

Laburbilduz, komunikazioak eta irudi-sorkuntzak aukera ematen dute askotariko esku-hartzeak egiteko, betiere, **genero-rolen irudikapen parekidea eraikitzeke eta hari lotutako estereotipoak apurtzeke**. Ildo horretako estrategien funtsa da **jaietan parte hartzen ari diren emakumeen argazki eta irudiak erabiltzea**, horiek ikusarazteko; baina baita **figura sexualizatuak edo emakumearen gutxiagotasuna edo diskriminazioa irudikatzen dituzten irudiak saihestea** ere. Zentzu horretan, Amurrio eta Laudion aztertu bezala, sorginaren erretzea haren omenezko dantza batez edo beste figura batez ordezteak agerian uzten du bide ugari dagoela arlo honetan esku hartzeke. **Emakumezko figura berritzaileak sortzea** ere adibide argia da (Marijaia kasu); izan ere, genero-estereotipoak urratzen dituzte eta emakumeei protagonismoa ematen diete jaietan.

## ESTRATEGIA INSTITUZIONALAK

# 7.8.

Jaien eraldatze-prozesu gehienetan atzean emakume eta kolektibo jakin batzuen ekimena badago ere, udalak eta administrazio publikoak ere protagonista izan dira aztertutako kasu askotan. Era berean, udalek problematika hau jorrazteko orduan utzikieriaz jokatzeko gatazka handiago baten pizgarri izan daiteke; izan ere, **udalek** emakumeak jaietan barne hartzearen alde **erabakitazunez esku hartzea** funtsezkoa da eraldaketak gauzatzeko. Donostiaren kasua adierazgarria da zentzu horretan, baita, aurretik ikusi dugunez, Antzuolan edota Tolosan emandako urratsak ere. Udalek, **berdintasun-teknikarien ekimenez** normalean, baina baita **jai-arloko teknikarien eskutik**, zenbait erabaki hartu dituzte antolatzen, finantzatzen edo babesten dituzten jaien inguruan. Esate baterako, **emakumeei ikusgaitasuna emateak duen garrantzia azpimarratu** dute sarri, edo **horien presentzia sustatu ekitaldi publiko ofizialetan, erakunde antolatzaileetan edo komunikabideetan**. **Emakumezkoen parte-hartzea sustatu** ere egin dute, Donostiako Estropadetan, adibidez, emakumezkoen Kontxako bandera sortuta. Beste aukera batzuk dira **emakumeen parte-hartzea bultzatzeko sentsibilizatzea edo presioa egitea, eta, horretarako, jaiak antolatzen dituzten kolektiboek eskakizunak egitea edo emakumeen parte-hartzea errazteko neurriak ezartzea: gizonzkoenak soilik diren erakundeei ofizialtasuna kentzea, emakumeak kanpo uzten dituzten erakundeei dirulaguntza publikoak kentzea, genero-estereotipoak erreproduzitzen dituzten pertsonaiak ezabatzea, emakumezkoen jarduerak bultzatzea, ekitaldi diskriminatzaileak publikoki gaitzestea, emakumeen elkarte eta aldarrikapenei babes esplizitua ematea**, etab. Neurri horietako asko aplikatu beharra sendotu egin zen 2005eko Berdintasun Legea indarrean jarri zenean (horrelako neurriak jasotzen ditu), baita Arartekoaren hainbat adierazpen plazaratu zirenean ere. Izan ere, Arartekoak, adibidez, azken horien bitartez, legea betetzeko eta emakumeak bazter uzten dituzten erakundeei dirulaguntzak emateari uzteko eskatu die udalei.

Bestalde, 5. atalean ikusi dugunez, udal mailan ere lan egin daiteke eta **jaietako berdintasuna txertatu daiteke udalen berdintasun-planetan eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal-ordenantzetan**. Jaiei eta berdintasunari lotutako zenbait gai udalbatzetan onartzen dira eta, hortaz, izaera ofiziala hartzen dute, kontuan har daitezten eta

ahantzuran gal ez daitezzen. Administrazio publikoek egindako ekarpenei buruzko atalean azaldu dira dagoeneko udal, eskualde, foru-aldundi edo autonomia-erkidego mailako beste hainbat ekimen, eta horien artean azpimarratzekoak dira honako hauek: **jaietan berdintasuna sustatzeko sentsibilizazioa eta prestakuntza; berdintasun-arloko legegintza; jai eta berdintasun-arloko erakundeak eta proiektuak finantzatzea; berdintasunaren aldeko adierazpen eta jarrera publikoak; arlo askotan, bereziki jaietan, indarkeria matxistaren kontrako lana.**

## IKERKUNTZA ETA BERRIKUNTZARAKO EKIMENAK

### 7.8.1.

Aparteko aipamena merezi du udaletako berdintasun-zerbitzu/arloek abiatutako ekimen instituzional batek; hau da, ezin aipatu gabe utzi **aholkularitza-enpresa edo erakunde espezializatu bati jaien inguruko genero-diagnostikoa eskatzeko aukera**, partaidetza-prozesu baten bidez egiten dena. I. eranskinean jasota dago jaietako berdintasuna aztertzekeo analisi-estrategia hau aukeratu duten udalerrien zerrenda; izan ere, frogatuta dago oso balia-garria dela **herritar guztiak berdintasun beharraren gainean sentsibilizatzen lagunduko duten hausnarketa- eta elkarriketa-espazioak** sortzeko. Aholkularitza-erakundeek **parte-hartzean oinarritutako metodologiak** erabiltzen dituzte jaietan emakumeen parte-hartze handiagoa lortzera bidean hobetu daitezkeen alderdiak aztertzekeo. Tolosako «[Jaiak berdinzaleago bihurtzeko gida](#)» eredu argia da, eta agerian uzten du zer lor daitezkeen diagnostiko-prozesu hauen bitartez. Aztertutako kasu gehienetan **Emakundek berdintasun gaietarako eskaintzen dituen laguntza publikoei esker** egiten dira diagnostikoak.

Diagnostikoak abiapuntu aproposa dira jaietan berdintasunak planteatzen duen arazoaren gainean sentsibilizatzekeo eta kontzientziatzekeo, baina baliteke jaietan bertan egiazko aldaketa askorik ez eragitea. Elkarriketatuek nabarmendu dutenez, beharrezkoa da **ekintza-plan bat martxan jartzea eta diagnostikoan jasotako egoera hobetzen lagunduko duten neurriak aplikatzea zein jarraipena egitea**; izan ere, nahiz eta garrantzitsua den jaien arlo jakin batzuetan alderdi diskriminatzaileak edo berdintasun faltak antzematea, hori egite hutsak ez du eraldaketarik eragiten, gerta litekeelako jaiak antolatzen edo erresistentziak agertzen dituzten pertsonengana ez iristea. Zentzu horretan, Tolosan **jaien inguruko Behatokia sortzeak**, adibidez, prozesu horiei jarraitutasuna emateko bidea planteatzen du.

Jaietan egiazko intzidentziarik ez izateak zerikusia du **prozesu hauetan pertsona gehiago inplikatzeko beharrarekin, parte-hartzaileagoak bilakatzeko beharrarekin eta, bereziki, jaiak antolatzen dituzten erakunde eta pertsonak integratzeko beharrarekin (kultura-arloko teknikariak barne)**. Tolosako kasuarekin argi geratu denez, **eragile guztiak inplikatzeko** litzateke biderik egokiena, baina baita **prestakuntza eta bide-laguntza espezializatua** eskaintzea ere, epe luzerako hausnarketa- eta ekintza-prozesuari jarraitutasuna emango zaiola bermatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da **udalen –langile teknikoek nahiz eragile politikoek– ahobatezko konpromisoa**, lortzea eta, gainera, **finantzaketa-espazio egonkorak sortzea**, gobernuak edo teknikariek ahalbidetutako aldaketak eza-gutzerara emateko.

**Udaleko langile guztiei berdintasun gaietan zeharkako prestakuntza eskaintzea** ezinbesteko baldintza da estrategia honi sendotasuna emateko. Parte-hartzaileek nabarmendu

dute prestakuntza handiagoa behar dela eta, batez ere, **udal mailan egindako prozesuak eta eskuratutako ezagutzak legegintzaldi batetik bestera transmititu behar direla. Jardunaldi, azterlan, dokumental edota webguneen bitartez** ere nabarmentzen denez, komenigarria da **prozesu hauetan sortutako material guztiak eta lortutako aurrerapenak herritar guztien eskura jartzea eta zabalkunde handiagoa ematea**. Zentzu horretan, EAEn abiatu diren prozesuen inbentarioa edo mapa egiteak lagun dezake horretan<sup>150</sup>. Estatu mailako txostenetan jaso denez (Cagide et al., 2018; Gabeiras Fundazioa, 2020), eta UNESCOk berak ere adierazi duenez (2015), garrantzitsua da **emakumeek jaietan zein kultura-ondare immaterial osoan duten rolaen inguruko memoria** egitea, baita **generoan oinarrituta abiatu diren kulturaren aldaketa-prozesuen memoria** egitea ere.

## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA ERROTIK DESAGERRARAZTEKO ESTRATEGIAK

# 7.9.

Azterlan honetan jaso ez bada ere, aldaketaren aldeko aldarrikapen estrategien eta prozesu organikoen inguruan aipatu behar da, jai parekideak lortzera bidean, besteak bezain eraginkorrak direla **jarrera sexistak errotik ezabatzeko martxan jartzen diren estrategiak (hezkontza-arloko ekimenak, jazarpenaren kontrako kanpainak, informazio-puntuak...)** eta **emakumeenganako indarkeria errotik ezabatzeko martxan jartzen diren estrategiak (puntu eta telefono moreak, protokoloak, prebentzio- eta gaitzespen-kanpainak, biktimentzako arreta-zerbitzuak...)**. Neurri horiek guztiek, kolektibo feministek sustatuta egon nahiz administrazio publikoek sustatuta egon, helburu bakarra dute: **jai-eremua emakumeentzako seguruagoa eta bizigarriagoa izatea**, eta, horrela, –oraindik egiteke asko dagoen arren– **emakumeen gozamen, plazer eta aisialdia sustatzea**<sup>151</sup>.

Kanpaina eta neurri zehatzak martxan jartzeaz gain (Emakunderen rola nabarmentzen da, [Beldur barik programa](#)), Gasteizko edo Iruñeko San Fermin jaietako kasuek agerian uzten dute **indarkeria matxistaren kontrako borrokak lagundu egiten duela antolakuntza, koordinazio eta sentsibilizazioa errazten (bai herritarrei, bai jaietan parte hartzen duten erakundeei, bai administrazio publikoei dagokienez)**. Gainera, indarkeria matxistari lotutako genero-ikuspegia oinarri hartuta, errazagoa da aldarrikapen feministen bestelako eremu eta alderdi batzuk ulertzea eta onartzea.

150 Dagoeneko planteatu eta zirriboratu zen 2016an «[Herri zahar, andre berri](#)» proiektua, Donostiaren Europako Kultur Hiriburutzaren esparruan sustatutakoa.

151 Berdintasun-arloko eragile batzuek elkarrizketetan nabarmendu dutenez, zaila da jaietan emakumeen askatasuna eta plazererako eskubidea defendatzea eta, aldi berean, indarkeria-egoerak saihesteko segurtasun- eta kontrol-neurriak sustatzea. Elkarrizketetan parte hartu duten pertsonen azpimarratu dute oso garrantzitsua dela estrategia bien arteko balantza ondo orekatzea.

# 8

**AMAIERAKO  
HAUSNARKETAK:  
NOLA ALDATZEN  
DIRA JAIK?**





Txosten honetan azaldu dugunez, duela zenbait hamarkadatik hona aldaketa ugari gertatu dira EAeko herrietako jaietan, eta askotariko prozesu eta ekimenak abiatu dira lurraldearen luze zabalean. Agerian geratu da jaietako jardueren inguruan askotariko tentsio eta gatazkak sortzea ohikoa dela, baina, egiaztatu ahal izan dugu, baita, konpromiso indibidualaren, lan kolektiboaren eta jaietan inplikaturako eragile guztien elkarlanaren bitartez eraldaketa-bide bakar eta komuna adostu daitekeela.

Ikusi ahal izan dugu batzuetan lan hori era diskretuan egiten dela, pixkanaka eta barrutik, elkarrizketa-prozesuaren bitartez jendea konbentzitzen. Hala eta guztiz ere, beste batzuetan, aldarrikapen-prozesuen bidez iristen dira aldaketak, tentsio handiz edo txikiagoz, edo ageriko gatazkak eragiten dituztela (eta, hortaz, berdintasunarekiko konpromiso handiagoko lan zehatzagoa behar dela). Beste prozesu batzuetan, higadura-egoerak gerta daitezke, maila indibidualean zein prozesuan inplikaturako elkarrekin eta erakunde publiko zein pribatuetan. Egoera horiek larriak izateraino irits daitezke.

Azaldu berri dugun aniztasuna gorabehera, aurretik ikusitako prozesu ezberdinen gako edo ezaugarri orokor batzuk aztertzen saiatuko gara: nola gauzatu diren, nor bideratu dituen eta horien artean zer harreman dagoen ulertzeko. Aurrerago azalduko dugunez, prozesu hauetan hainbat elementu elkartzen dira eta funtzio erabakigarria dute guztiek. Horien artean aipa ditzakegu honako hauek: eragile ezberdinek (udalek bereziki) berdintasunaren alde erakusten duten lidergoa, jaiak antolatuz eta horietan esku hartuz; inplikaturak dauden eragileen balizko kontzientzia eta ezagutza feminista; hausnartzeko, elkar entzuteko, parte hartzeko, sortzeko eta ebazteko espaziorik egotea ala ez...

## **TESTUINGURU SOZIALA ALDATZEN DELAKO ERALDATZEN DIRA JAIK**

Testuinguruari buruzko atalean azaldu dugunez, jaietan emakumeen parte-hartze handiagoa lortzeko, eraldatze-prozesuen inguruan oso kontuan hartu behar da **lotura zuzena dutela beste eremu sozial batzuetan ematen diren aldaketa-prozesuekin, herritarren parte-hartze handiagoarekin edo/eta genero-berdintasunarekin, lege zein lurralde maila ezberdinetan** (herria, eskualdea, autonomia-erkidegoa edo estatua). Beharrezkoa da maila eta prozesu ezberdinen arteko interakzio hori azpimarratzea; izan ere, eragile ezberdinek udalerrian egiten duten lan edo jardunak nabarmen eragingo dio maila horietako guztietako berdintasunarekin lotura duten gizarte- eta lege-helburuen betetze-mailari (bereziki EAEn). Hau da, tokian tokiko esku-hartzeek politika jakin batzuen garapenean eragiten dute, baita foru-aldundietako zein autonomia-erkidegoko gobernuen legegintza-lanetan ere, eta alderantziz; foru-aldundi, autonomia-erkidego eta estatu mailako eraldaketa sozialek nabarmen eragingo dute tokian tokiko praktketan.

Emakumeek jaietan duten parte-hartzean izan diren aldaketak aztertzeko, kontuan izan behar dugu mugimendu sozial eta politiko feministaren ibilbidea. Mugimendu feminista erabakigarria izan da emakumeen eskubide politiko, zibil eta sozialen aitortzan (bereziki 1978. urtetik), eta halaxe egiaztatu ahal izan dugu txosten honetan. Zalantzarik gabe, erabakigarria izan da, alde batetik, emakumeei ikusgaitasuna eta espazioa eman zaielako, jaien antolakuntza eta ospakizunean subjektu protagonista gisa.

Eraldaketa-prozesuen inguruan eman diguten kontakizunean agerian geratu denez, emakumeen eta indarreko genero-sistemaren eredu hegemoniko edo bitarretatik at dauden pertsonen menderakuntza mantentzeko espazio izan dira jai asko; hau da, kultura matxista (instituzionalizatuta dagoena) elikatzen jarraitzeko espazio izan dira. Feminismoa, ikuspegi

politiko gisa, kultura-arloko erakunde publikoetan txertatuz joan da hiru bidetatik. Alde bate-tik, jai-batzordeek beren herrietako aldarrikapen feministen berri eman dute, eta erakunde feministak, emakumeen asanbladak eta Bilgune Feminista gisako kolektiboak haiekin la-nean hasi ziren, eraldaketaren aldeko konpromisoa agertuz. Bestetik, udal gehienek berdintasun-arloko politika publikoa dute, eta arlo honetan esku hartzen dute berdintasun-plan ba-ten bidez zein berdintasun- edo/eta feminismo-gaietan espezializatutako langile eta adituen bidez. Azkenik, aldarrikapen feministak babesten eta bere egiten dituzte EAEko udalerrri askotan gobernatzen duten zenbait alderdi politikok eta hautetsik<sup>152</sup>.

Ikuspegi feminista honen hedapen eta zabalkundeari esker, genero-arazoak agerian geratu dira kultura- edo/eta ondare-eremuan. Egungo zein iraganeko errealitatea –jaietan sarri tradi-zio hitzaren atzean ezkutatzen dena– kolokan jartzea sustatzen dute feminismoek, eta, hala, soluzioak proposatzen dituzte emakumeek –eta aitortzarik gabeko beste pertsona batzuek– beren herrietan eskubide osoz parte har dezaten lortzeko. Pertsonen izateko modua eral-datzeko apustua egiten du feminismoak, eta, horrela, genero-rol berriei bidea irekitzen die, gaur egun herrietako jaietan hainbeste pertsona baztertzen duen kultura sexista, bitar eta androzentrikoa hautsita.

Zentzu horretan, jaiak klima eta espazio publiko aproposa eskaintzen dute parte-hartzean, elkar ulertzean, dibertimenduan eta plazerean oinarritutako genero-eraikuntza berria ahalbi-detzeko. Tradizioz emakumeei esleitu izan zaizkien egitekoen eta ezaugarrien ezagutzan oinarrituta egiten du lan hori, egiteko eta ezaugarri horiek funtsezkoak baitira pertsonen ga-rapena eta mantentzea bermatzeko, baita emakumeak eta beste genero batzuetako pertso-nak gizonen menpe jartzen dituzten hierarkiak desagerrarazteko ere. Laburbilduz, mugi-mendu feministari esker, ikusarazi ahal izan da jaietan sarritan, argudio misoginoak tarteko, emakumeak bazter utzi izan direla eta horien parte-hartze erabatekoa oztopatu izan dela. Txosten honetan egiazta daitekeenez, EAEn batez ere, emakumeek, oro har, eta pertsona feministek bereziki politika feminista egin izan dute aspalditik herrietako jaietan, eta egiteko horretan jai-eremuak eraldatzea lortu dute.

## JAIEN ERALDAKETA-PROZESUA ETENGABEA ETA ASKOTARIKOA DA

Aztertutako kasuei dagokienez, egiaztatu ahal izan dugu prozesuak **dinamikoak direla, denboran luzatu daitezkeela, aktiboak direla beti, etengabe daudela mugimenduan eta gorabeherak dituztela; hortaz, ezin daitezke inoiz bukatutzat jo**. Dinamismo horren arrazoi-tako bat herrietako jaien konplexutasuna da; izan ere, espazio horretan bizi-bizirik ageri dira «jendartearen zirrikituak, tentsioak eta irudikapenak» (Chartier, 1987) eta logika kultural kontraesanezkoak aurrez aurre jartzen dira: herrikoia/ofiziala, landakoa/hiritarra, er-lijioso/laikoa, parte-hartzea/ikuskitzuna, etab. Zentzu horretan, hitzaurrean ikusi dugunez, herrietako jaien berezko ezaugarria da gatazka<sup>153</sup> eta argi dago EAEko herri askotako jaietan kultura matxista kontraesanean eta gatazkan dagoela kulturaren eta jaietako dibertimendua-ren ikuspegi feministarekin.

Jai-testuinguru horretan, emakumeen parte-hartze erabatekoa lortzeko eraldaketa sozialak askotariko estrategia eta ekintzak ditu bere barnean. Prozesu batzuk lasai asko hasten dira,

152 Azken urteotan, martxoaren 8ko manifestazioak lan zein politika-arloko aldarrikapenerako espazio jendetsu bilakatu dira eta alderdi politiko ia guztien babesa dute. *La Vanguardia* (2020/03/07) **8M Euskadi vivirá una nueva jornada de "lucha feminista" y manifestaciones apoyadas por los principales partidos**, *El Correo* (2020/03/10) **Partidos y grupos feministas se felicitan por el "éxito" de una movilización "histórica"**.

153 Beste egile askoren artean, Roger Chartierrek «*Lectures et lecteurs dans la France d'Ancien Régime*» liburuko «Discipline et invention: la fête» atalean (1987) aztergai du Frantziako jaien historia, eta jaien konplexutasunaren lekuko diren zenbait irizpide proposatzen ditu. Horrela, agerian geratzen da jendarte osatzen duten egiturak sarri eztabaidan murgilduta eta barne-erresistentziaz beteta daudela.

eta berrogei urte baino gehiago behar izaten dira finkatzen diren arte. Halaxe gertatu da Gernikako Marijesietan, adibidez, non emakumeak hirurogeita hamarrek hamarkadan hasi baitziren kantatzen, baina ez baitzuten emakume bakarlaririk izan 2018ra arte. Beste prozesu batzuk herritarren eskariei erantzuteko abiatzen dira, eta, aldeko baldintzak biltzen badira, azkar eta adostasunez ebatzi, Tolosako Alardean, kasu. Beste hainbeste prozesu krisi edo gatazketatik sortzen dira, aldizkakoak dira eta behin betiko soluziorik lortzen ez dutela irudi dezakeen arren, bidean aldaketak txertatuz doaz. Hori ikus dezakegu, adibidez, Gasteizko Blusen eta Nesken Batzordearen azken urteetako ibilbidean.

Arlo guztietan –baita honetan ere– berdintasunaren alde egiten diren aldarrikapenak onartuz joan dira azken hamarkadetan, baina horrek ez du esan nahi emakumeak jaietan eztabaida edo gatazkarik gabe barne hartu direnik (genero-ereduen irudikapena zalantzan jartzea eta kritikatzeko eragin baitu). Argi ikus dezakegu hori aztertu ditugun kasuetan. Hala eta guztiz ere, gatazka beraiek izan dira, askotan, aldaketen eragileak; izan ere, batzuetan, gatazka ikusitakoan hartu dira neurriak: gertatutakoa edo ebatzi beharreko arazoa aztertzea, ebatzetekeko estrategiak diseinatzea (sarritan elkarrizketarako espazioak topatzea, aldean arteko soluzio adostua topatzeko), eta alde guztiek aldaketak aplikatzeko beharrezkoak diren baliabideak ezartzea. Mota honetako prozesuak errazago gertatzen dira baldin eta alde eta eragile guztiak kontzientziatuta badaude, hau da, guztiek uste badute eraldaketa soziala beharrezkoa dela berdintasuna sustatzeko.

Zentzu horretan, esan genezake ez dagoela metodologia definiturik edo prozesu uniforme-rik, ez dagoela formula edo errezeta magikorik; baizik eta prozesu bereziak direla, bakarrak eta askotarikoak, jai mota bakoitzaren eta udalerrri bakoitzeko ezaugarrien zein eraketa sozialaren arabera. Hala eta guztiz ere, idatzizko dokumentazioari, ikus-entzunezko ekoizpenei eta bildutako testigantzei esker, txosten honetan zehaztasunez aztertu ahal izan dira prozesu horietako batzuk; horrela, une eta ibilbide ezberdinak aztertu dira, horietako bakoitzaren dinamika ulertzeko eta herrietan aldaketa gauzatzeko beharrezkoak diren elementuak identifikatzeko.

## **PERTSONEK ERALDATZEN DITUZTE JAIK, ETA ALDERANTZIZ**

Jaiak eraldatzeko prozesuen hirugarren ezaugarri gisa, aipa dezakegu **tokiko eragile guztien balioa azpimarratzen dutela** (udal-gobernua, teknikariak, jai-batzordea, mugimendu feminista, eragile sozialak eta herritarrak, oro har), eta horiek **guztiak parte hartzen dutela jaien garapenean, interakzio eraldatzailea sustatu eta bultzatuz**. Hau da, jaiak ekintza kolektiboa dira, produktu soziala; udalerrri edo hiriko balio eta sinesmenak lehian eta negoziazioan sartzen dituen. Esate baterako, Andre Maria Zuriaren jaietan ikusi dugu jaien antolakuntzan inplikaturako eragile sozial guztiek erabiltzen dutela jai-eremua beren balio eta sinesmenak erakusteko, azken batean, emakumeen berdintasunaren eta genero-inkonfidentziaren inguruan duten jarrera agertzeko. Era sinbolikoan egiten dute; irudien, pankarten, objektuen, irudikapen mentalen, jantzien eta abarren bitartez. Eragile ezberdinek abiatzen duten elkarrizketan, guztiek eboluzionatzen dute eta hasierako jarrera aldatzen dute, bilakaera indibidual zein kolektiboa ahalbidetuta.

Aztertutako kasu horretan, besteak beste, agerian geratu da zeinen garrantzitsua den jarrera indibidual zein kolektibo ezberdinak uztartzea eta lankidetzan estuan aritzea. Prozesu batzuk emakume edo emakumeen kolektibo bakar baten aldarrikapenaren ondorioz sortu dira, erritual edo jarduera jakin batean parte hartu nahi zutelako. Hala eta guztiz ere, elkarte edo plataforma feministekin sarri gertatu denez, eskaera indibidual edo kolektibo horrek eragile-engranaje oso bat martxan jartzen du eta, ondorioz, erantzun sorta zabala eragin

dezake. Berehalako eta gatazkarik gabeko erantzuna izan daiteke, edo inplikaturako aldean arteko erantzun adostua, baita ebazpena lortzeko judizialki kudeatu beharreko gatazka ere. Erantzuna edozein izanda ere, egoera guztietan eraldatzen dira nola edo hala prozesuan inplikaturako eragileak. Egia da interakzioak gatazkek eragin ditzakeela, bai; baina gatazkek hausnarketa eragingo dute eta eragile guztien jarrerak aldatuko dira, arazoa ebaztera bidean. Eraldaketa-prozesuan parte hartzen duten eragile guztiak eraldatzen dira, elkarrekin hausnartzen duten heinean eta inplikaturako pertsona edo/eta erakundeei beren uste eta ideiak azaltzen dizkieten heinean.

Hala, erritual jakin batzuetan emakumeak diskriminatu edo baztertuak zirela ohartuta ekitea erabaki duten eta aldaketarekiko konpromisoa hartu duten pertsonak aukera izan dute bizi izandako emozioei buruz hitz egiteko. Zentzu horretan, baieza dezakegu herrietako jaietan emozioak borborrean direla, ondare immaterialaren ezaugarri bereizezina baitira (Santacana eta Martínez, 2018)<sup>154</sup>. Emozio horiek motibazioa direla adierazi dute zenbaitek; hala, adierazi dutenez, emakumeen parte-hartzea ahalbidetzeko ezinbestekoak diren aldaketen kontrako jarrerak agertzen direnean, emozioetatik hartzen da indarra kolektibo bati, erakundeei edo herriko gehiengo sozialari aurre egiteko. Emakumeak baztertzen zituen erritualaren edo kolektiboaren parte ziren hainbatek (gizonek, kasu honetan) aurrerapausoa eman dute maila indibidualean eta atea ireki diote emakumeen parte-hartzeari (gonbidapena edo proposamena luzatuta), urrats horrek izan ditzakeen ondorio negatiboak kontuan hartu gabe. Zentzu horretan, kasu batzuetan pertsona horiei esker bihurtu dira misto gizonezkoenak soilik ziren hainbat erakunde (ospakizunak antolatzeaz edo udalerrria ordezkatzaz arduratzen zirenak); hori funtsezkoa izan da jai askotan emakumeen parte-hartzerara onartzen hasteko.

Bestalde, zenbait udal-eragilek adierazi dute garrantzitsua dela kanpo-eragileek ere parte hartzea, berdintasunaren aldeko eraldaketa- eta berrikuntza-prozesu hauetan nabarmen eragin baitute. Kanpo-eragile horiek gai askotan adituak izan daitezke: berdintasuna eta feminismoa, genero-sistemak, gizarte-antropologia, partaidetza-prozesuak, folklorea, historia, zuzenbidea, dantza, komunikazioa edo ikus-entzunezko baliabideak. Baliteke esku-hartze hori prebentziozkoa izatea eta, horretarako, udalerriko diagnostikoa eta berdintasun-plana egitea (jaiei buruzko atal bat barne hartuta, edota fokua jaietan bereziki zentratuta). Prozesua parte-hartzean oinarrituta gauzatzen bada, aldaketak bultzatzen dituzten pertsonak eta taldeak azaleratuko dira. Beste herri batzuetan, jaien inguruan aldaketa eskatu edo gatazka sortu denean, udalek adituengana jo dute prozesuaren une jakin batzuk jorrazteko laguntza eskatuz (aholkularitza-erakundeak, erakunde pribatuak edo irabazi asmorik gabeko erakundeak). Hala, bide-laguntza profesionalaren bitartez, adostasuna eta elkarlana lortzen saiatzen dira erabakiak hartu baino lehen, martxan jartzen diren jarduerak edo aldaketak eraginkorrak izan daitezten. Azaldu ditugun kasu batzuetan gertatu denez, adituen ikuspegiari esker identifikatu ahal izan dira inplikaturako eragileek hasiera batean adierazi gabeko soluzioak.

## JAIK ELKARRERAGINEAN ERALDATZEN DIRA

Lehendabiziko ezaugarriarekin lotuta, aipa daiteke **EAEko herri eta hirietako jaien aldaketa-prozesu asko elkarri lotuta eta elkarreraginean** daudela, eta, ondorioz, guztiek osatzen dutela helburu komuna duen eraldaketa handiago bat: emakumeek jaietan eta EAEko jendartean berdintasunez parte hartzea. Txosten honetan jasota dauden kasuetan,

---

154 «El patrimonio cultural y el sistema emocional: un estado de la cuestión desde la didáctica» (Santacana y Martínez, 2018): «Ondare immateriala, emozio sortzaile den neurrian, gai da sentipenak, pozak, beldurrak, plazerak edo minak berpizteko, beste edozein ondare baino indar handiagoz».

agerian geratu da parte-hartzaileen energia eraldatzailea izan dela arrakastaren kausa, bai eragile sozialena (auzo elkarteak, tokiko kolektiboak edo kolektibo feministak), bai instituzio publikoena (udal-gobernuak, kultura eta berdintasun-arloko teknikariak, kontseiluak, batzordeak...) bai herritarrena; helburu zilegi eta bidezko baten alde lan egin baitute, beren ekintzek izan litzaketen ondorioak kontuan hartu gabe. Ekimen horiek tokian tokiko esparrutik harago doaz eta beste herri batzuetan zabaltzen eta ezagutzen dira. Hala, esan dezakegu aldaketaren aldeko kutsadura positiboa gertatzen dela sarri, alboko udalerrian prozesu interesgarri bat gertatzen ari dela antzematen delako. Esate baterako, emakumeak Berrizko dantzetan barne hartzeko orduan, erabakigarriak izan ziren aurretik Durangaldean gertatutako antzeko prozesu batzuk, eta, halaber, hura ere funtsezkoa izan zen inguruko beste herri batzuetan ere urrats bera emateko.

Beste kasu batzuetan, alboko herrian arazoa edo gatazka ikusi ondoren abiatu da aldaketa. Hori da Laudioko kasua; izan ere, Amurrión sorginaren erretzea ekitaldi gatazkatsua zela ikusita, partaidetza-prozesu bat abiatzea erabaki zuten, beren udalerriko jaietan sorginaren erretzearekin zer egin erabakitzeke. Horrekin lotuta, Hondarribiko eta Irungo Alardeetan emakume batzuek jaiaren parte aktibo izateko egindako aldarrikapenaren ondorioz sortutako gatazka da, herri askoren arabera, errepikatu behar ez den prozesu baten adibide garbia. Hori dela eta, herri askotan, udalek oso jarrera argia agertzen dute emakumeen parte-hartzearen alde, eta partaidetza-prozesuak abian jartzen dituzte jaietan emakumeak bazter uzten dituzten erritualak eta jarduerak eraldatzeko eta egiazko aldaketa lortzeko beharrezkoa den adostasuna lortzeko.

Laburbilduz, emakumeek jaietan berdintasunez parte hartzea lortzeko prozesuak oso lotuta daude sare eta harreman sozialak sortzearekin. Zentzu horretan, ezinbestekoa da aldaketa-prozesu hauek bideratu nahi dituzten alderdien lana parte-hartzean oinarrituta egotea (alderdiak askotarikoak izan daitezke: berdintasun-eragileak, agintaritza publikoak, kolektiboak, elkarteak edota erakunde pribatuak). Gainera, ezinbestekoa da pertsona eta kolektibo desberdinen arteko harremana ahalbidetzea; eremu familiar eta pribatutik hasita, espazio publikoetara bitarte (auzokideak, komunitatea, auzoa, hiria), betiere, instituzioak eta erakunde publiko zein pribatuak ere kontuan hartuta (eskolak, enpresak, bestelako organismoak, etab.).

Horregatik guztiagatik, txosten honetan eman diren azalpen guztien helburua da aipatutako herrietan jaiak eraldatzeko erabili dituzten baliabideak ezagutaraztea; izan ere, horrela, EAEko beste udalerrri batzuek aukera izango dute prozedura horiek guztiak aprobetxatzeko eta lankidetzaz zein koordinazio-sareak antolatzeke. Esandako guztia kontuan hartuta, jaietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko prozesua baliagarria izango da EAEko hiri eta herrien arteko lotura eta harremanak berreraikitzeke eta prozesu partekatuak bultzatzeko. Horrela, aukera egongo da, besteak beste, emakumeak jaietatik kanpo uztea eragiten duten faktoreak zeintzuk diren identifikatzeko, betiere, eztabaida publikoaren bitartez (gaiak guztioi eragiten digulako).

Eragileek jai parekideagoak lortzeko abian jartzen dituzten estrategia eta ekintzak aztertu ondoren, prozesu horiek bultzatu, lagundu eta babesteko funtsezkoak diren zenbait elementu nabarmenduko ditugu. Funtsezko elementu horiek gomendio gisa jasota daude hemen, jaien fenomenoaren osatzen duten eremu guztietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko.

- Udal mailako esku-hartze eremu guztietan eta, batez ere, jaien arloan berdintasunaren aldeko konpromiso irmoa hartzea, jai-eredu parte-hartzaile eta parekideago baten alde lan egiteko eta, ondorioz, pertsona guztiek askatasunez eta beldurrik gabe gozatu ahal izango dutela bermatzeko. Botere publiko guztiek hartu behar dute konpromiso hori, adostasunez, enfrentamendu politikorik edo jarrera elektoralistikarik gerta ez dadin.
- Jaien inguruan herritarrengandik sortzen diren aldaketa-erakundeak entzutea eta guztiei arreta ematea.
- Herritarren artean sortzen diren aldaketa bideratzeko estrategia eta metodologiak babestea, urrats mailakatuak emateko eta adostasuna lortzeko.
- Jaien antolakuntzan zein ospakizunetan emakumeen presentzia bermatzea edo/eta beren bazterketa saihestea, antolakuntza- eta erabakitze-egiturak ahalik eta horizontal eta parte-hartzaileenak izan daitezen, eta udalerriko herritarren aniztasuna islatu dadin.
- Genero-ikuspegian oinarrituta jai-ereduaren inguruan aztertze, hausnartzeko eta esku hartzeko espazioak sortzea. Herrietako jai guztiek diagnostiko propioak egin behar harko lituzkete, berdintasunean nola hobetu eta eraldaketak nola lortu aztertze.
- Jai- eta berdintasun-gaietan espezializatutako pertsona, erakunde edo aholkulariei prestakuntza, aholkularitza edo/eta bide-laguntza eskatzea. Jaietan hobetu daitezkeen alderdiak identifikatzen eta diagnostikatzen lagun dezakete, baita aldaketa-prozesuak bultzatzen ere.
- Udaleko teknikariak berdintasunean, partaidetzan eta prozesuen bitartekaritzan trebatzea; prestakuntza horren berri ematea eta, gobernu- edo teknikari-aldaketa dagonean, lekukoa hartzen duten pertsonen transmititzea. Garrantzitsua da administrazio publikoek jai- eta genero-arloan gutxieneko prestakuntza izatea, aldaketa-prozesuetan bide-lagun jardun ahal izateko.
- Berdintasun-arloko legeria aplikatzea, esate baterako, emakumeak diskriminatzen dituzten erakunde edo jarduerak finantzatzeari uko eginda.

## **8.1.2**

- Udalerri, eskualde, foru-aldundietako berdintasun-teknikarien eta bestelako erakunde espezializatuen arteko lankidetzeta-sareak sortzea eta mantentzea. Horrela, ideia eta prozesuak partekatu ahal izango dira, eta elkarrekin eta zeharka eztabaidatu eta hausnartu ahal izango da jai-ereduaren inguruan eta jaietan esku-hartzeko bideen inguruan.
- Berdintasuneko eta kulturako zein jaien arloko teknikariek prozesu hauek koordinatzea eta jardun horretan lidergoa partekatzea; elkarlanean aritzea eta jai-batzordeetan hausnarketa-dinamikak eta orientazio edo aholkularitza sustatzea. Jaietako jarduerak eta erakunde antolatzaileak udal-aurrekontuetan barne hartzeko konpromisoa hartu behar dute udalek.
- Udalerrien, foru-aldundien eta erakunde autonomikoen artean (Eudel, Berdintasuna, Eusko Jaurlaritzaren, Emakunde eta Arartekoa) arlo honetako koordinazioa sustatzea, hala jaietan emakumeen parte-hartzeari buruzko diagnostikoak eta jarraipen-prozesuak finantzatzeko, nola jaietan zehar larrialdi-egoerak ebazteko, adibidez, eraso sexistaren kasuan.
- Prozesuan inplikaturik dauden eragileen arteko koordinazioarako baliabideak eskaintzea: udaletako teknikariak, arlo ezberdinetako teknikariak (berdintasuna eta jaiak, batez ere, baina baita komunikazioa, kirolak, ogasuna, etab., arloetakoak ere), jai-batzordeak, emakumeak, gizonak eta kolektibo feministak.

## **8.1.3**

- Herritarrei jaietako sinboloen eta tradizioen gaineko trebakuntza eskaintzea, horien logikak uler ditzaten eta sortzeko zein parte hartzeko bide parekideagoak bila ditzaten.
- Parte-hartzean eta jaien sinbolo zein jardueren sorkuntzan oinarritutako metodologiak aplikatzeko guneak eskaintzea, aniztasun soziala errespetatzen duten eta herrietako pertsona guztien aitortza eta ospakizun-bideak sustatzen dituzten egungo balioak praktikan jartzeko.
- Herri bakoitzean jaiei buruzko laborategi edo behatokiak sortzea: parte-hartze eta hausnarketa kolektiborako espazioak, jaietan genero-ikuspegitik esku hartzeko ekintzak sustatze aldera.
- EAEko herrietan abiatzen diren prozesu eta ekimenen berri zabaltzea eta gauzatu diren estrategien gaineko informazioa ematea, beste udalerri batzuetan horrelako prozesuak sustatzeko eta ahalbidetzeko.

Elkarrizketetan parte hartu duten pertsona askok uste dute ezinbestekoa dela jaietan berdintasuna ahalbidetzen duten bideen berri jasotzea eta horiek jakinaraztea, besteekin partekatzea, jai parekideak lortzeko estrategia berriak pentsatzen jarraitzeko, betiere, jendartea hobetzera bidean. Jai-eremuak garrantzitsuak dira kohesio komunitarioa ahalbidetzeko eta jendartean imajinario sinbolikoak sortzeko; hala, hausnarketa kolektiboaren eta ebaluazio kritikoaren bidez soilik aztertu ahal izango da komenigarria ote den jaietan jarduera jakin bat antolatzen jarraitzea (ordenamendu juridikoari eta jendartearen balio moralei dagokienez), edota komenigarria ote den jaia nola eta zer norabidetan eraldatu ahal edo behar den azterzea (hala gertatzen ari da, adibidez, animalien tratu txarrak berekin dakartzaten ospakizunetan edo arrazista edo diskriminatzailatzat jotzen diren horietan). Zentzu horretan, herritarren sormen-gaitasuna sustatu behar dute botere publikoek, herritarrak beraiek gai baitira beren herrietako jaiak eraberritzeko eta eguneratzeko. Izan ere, garrantzitsua da jaien antolakuntza ez izatea soilik hausnarketarik gabeko inertzia baten ondorioa eta, hortaz, ez konformatzea erakunde berberak urterik urte jarduera berberak antolatzearekin. Hau da, garrantzitsua da hausnarketa kolektiborako eta elkarlanerako espazioak edukitzea. Jaien inguruko balio, tradizio eta ohituren transmisioa ez da aitzakia izan behar jarduera diskriminatzailerei eusteko; aitzitik, aukera bat izan behar du gizarte-eredua kolektiboki birpentsatzeko eta eraikitzeko.

- Herrietako jaiak mantentzeko lan handia egin behar da eta, hortaz, garrantzitsua da belaunaldien arteko erreleboa bermatzea. Jaiak ikuskizun huts bilaka ez daitezzen edo biztanleriaren zati bat bazter utzi ez dezaten, **behar-beharrezkoa da herritarren inplikazioa, auzolana eta aniztasunarekiko errespetua sustatzea**. Tradizioa transmisioa da, eta, hortaz, **garrantzitsua da guztien artean adostea zer transmititu nahi dugun**.
- **Jaietan berdintasuna lortzera bidean erronka ugari dago, baina, guztien gainetik, ezinbestekoa da gizonei eta emakumeei loturiko genero-rolak eraldatzea eta berrasmatzea**. Berdintasunean oinarritutako hezkidetzak eta gizon/emakume binarismoa haustea da egiazko berdintasuna lortzeko bide bakarra, horrela lortzeko baita emakumeek eta gizonek espazio guztiak partekatzea, inolako mugarik gabe eta baldintza berdinetan (emakume musikari gehiago, kirol mistoak, parekidetasuna...).
- Herrietako jaiak espazio barne-hartzaileak izan daitezke, baita herria kohesionatuko duen balioak transmititzeko gune aproposak ere. Zentzu horretan, genero-ikuspegiak gain, **jaien inguruko zeharkako begirada eskaintzea da erronkarik nagusiena**: adierazpen edo praktika arrazistak edo LGTBQI (lesbiana, gay, bisexual, transgenero, *queer* edo intersex) kolektiboen kontrakoak antzemanda, funtzio-desberdintasuna duten pertsonak eta migratzaileak barne hartuta, animalien eskubideak errespetatuta, errealitate linguistikoa kontuan hartuta...
- Jai-eredua eraldatzeko, beharrezkoa da **udalerrri askotan abiatu diren eta martxan dauden prozesu positiboak ikusaraztea eta horien berri ematea**. Era berean, garrantzitsua da **berdintasunera bidean emandako urratsak eta udalen barnean baliatutako estrategiak ere transmititzea**.



- Berebiziko garrantzia dauka, halaber, **dinamismoa eta malgutasuna nabarmentzen dituen kulturaren, jaiaren eta ondare immaterialen gaineko ideia zabaltzea.**
- **Udalerri bakoitzak jaien eta berdintasunaren inguruan hausnartzeko eta lan egiteko espazio bat sortu eta mantendu beharko luke**, jaiari buruzko «laborategi» antzeko bat, alegia. «Laborategi» horiek sortu ondoren, beharrezkoa eta aberasgarria izango da **udalerri bakoitzean jaien inguruan sortutako «behatoki» edo «laborategi» ezberdinak elkartzeko eta koordinatzeko sare edo espazio bat sortzea, eskualde, foru-aldundi edo autonomia-erkidego mailan**, eta bertan inplikatzea bai berdintasun eta jai-arloko teknikariak bai EAEko politikariak. Horrela soilik lortuko baita ikaskuntza kolektiboko espazioak sortzea.



# 9

## **AIPATURIKO BIBLIOGRAFIA**



- Aleman, F. (2016). «Darrere la carota del dimoni gros. Una aproximació a les representacions i a les pràctiques al voltant del dimoni en les festes de Sant Antoni a la vila de Manacor». MAL argitaragabea, Antropologia eta Etnografia Masterra, Bartzelonako Unibertsitatea, 2015-2016 ikasturtea.
- (2019). «Com el «feminisme cultural» esdevé lluita política contundent contra el patriarcat», *Aguait*. «Comunicació autogestionada des de Mallorca» (2019/03/06).
- Arana Martija, J.A. (1957) «*Vida y Música*». Brisas Guerniquesas, 7. zk. Gernika-Lumo.
- Bullen, M. & Egido, A. (2003) «Tristes espectáculos: las mujeres y los Alardes de Hondarribia y Irun». Bilbo: UPV-EHUko Argitalpen-zerbitzua.
- Bullen, M.; Kerexeta, X. (2009) «*Alarde del Moro de Antzuola*». Auñamendi Entziklopedia [online, <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/antzuolako-mairuaren-alardea/ar-53530/>].
- (2007). «Antzuolako Alardearen lehena, oraina eta geroa». Antzuola: Eusko Ikaskuntza. (txosten argitaragabea).
- Bullen, M. eta Pérez Galán, B. (2020) «*Desde la reivindicación de la participación a la incorporación del género en el patrimonio cultural festivo en el estado español*». Fundación Gabeiras para el Derecho y la Cultura Fundazioa, «*Patrimonio inmaterial y desigualdades de género*». Madril: La Cultivada argitaletxea, 10-57.
- Cagide, C.; Querol, M. A.; González, S. (2019). «Análisis de la participación de las mujeres en el patrimonio cultural inmaterial: situación actual, experiencias y perspectivas de futuro». Madril: Kultura eta Kirol Ministerioa, Espainiako Kultur Ondarearen Institutua.
- Chartier, R. (1987). «Lectures et lecteurs dans la France d’Ancien Régimen». Paris: Le Seuil.
- Estornés Zubizarreta, I. (1997). «Los Alardes de Irun y Hondarribia (Fuenterrabía)». (Administrazioarekiko auzibidean Irungo Udalaren kontrako prozeduran frogagiri gisa aurkeztutako txostena –oinarrizko eskubideen babes juridikzionalako prozedura–).
- Farapi Koop (2009). «Análisis de las fiestas del territorio histórico de Gipuzkoa desde una perspectiva de género». Gipuzkoako Foru Aldundia/Diputación foral de Gipuzkoa.
- Fundación Gabeiras para el Derecho y la Cultura Fundazioa, «*Patrimonio inmaterial y desigualdades de género*». Madril: La Cultivada argitaletxea.
- Garmendia Larrañaga, J. (2009) «*Tolosa zahar-berriak / Sobre el ayer de Tolosa*». Eusko Ikaskuntza.
- Gisbert, V. (2010). «*Ni moras ni cristianas: género y poder en las fiestas de Moros y Cristianos de Alcoi*». Masterreko tesia, GEMMA Master’s Degree in Women’s and Gender Studies, Granadako Unibertsitatea/Utrecht-eko Unibertsitatea [online [http://masteres.ugr.es/gemma/pages/future-projects/ufms/\\_doc/utrecht](http://masteres.ugr.es/gemma/pages/future-projects/ufms/_doc/utrecht)].
- Guilló, M. (koord.) 2016.- «Festak, genero-harremanak eta feminismoa». Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Lafita, S. (2013). «*Las patgesses en la fiesta de Reyes de Igualada. Puesta en escena de un conflicto sobre los modelos de género*». MAL argitaragabea, Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra, EHU/UPV, 2011-2012 ikasturtea.

- López de Larruzea Zarate, A. (2019a) «*Marijesiak 4:00 Bederatzi gau hotzetan. Gernikako Marijesiak Elkarte*». Bilbo.
- López de Larruzea Zarate (2019b) «Orain 100 urte: Marijesien kronistak EUZKADI egunkarian». ALDABA XVII, 210. zk. Gernika-Lumo.
- Mamiki (2016). «*Mamiki, gu, geu*». (Dokumentu argitaragabea).
- Montesinos, L. (2020). «Patrimonio inmaterial y desigualdades de género». «Análisis y propuestas desde una perspectiva antropológica y jurídica». Fundación Gabeiras para el Derecho y la Cultura Fundazioa. «[Patrimonio inmaterial y desigualdades de género](#)». Madril: La Cultivada argitaletxea, 58-330.
- Moral, B. (koord.) et al. (2014). «Paso a paso hacia una tamborrada en igualdad». Donostiako Udala, Berdintasun Saila.
- Prieto Mendaza, J. (2018). «[Blusas y Neskas de Vitoria-Gasteiz: una mirada antropológica](#)». La Hornacina, Andre Maria Zuriaren kofradiaren urtekaria, 9. zk. Vitoria-Gasteiz.
- Ramirez Telleria, I. (1990). «Antzuolako Alardea: Mairuaren Jaialdia». Antzuolako Udala.
- Sáenz de Ugarte, J. L.; Valle, E. (1996). «Blusas». Vitoria-Gasteizko Udala.
- Santacana Mestre, J. eta Martínez Gil, T. (2018). «[El patrimonio cultural y el sistema emocional: un estado de la cuestión desde la didáctica](#)». Arbor, 194 liburukia, 788 zk. Madril: CSIC.
- Telleria Tapia, M. G. (2012). «[El Carnaval de Tolosa](#)». Eusko Ikaskuntza.
- Tranche, M. (2006). «*Algunas claves sobre la historia del Alarde. Guía para comprender el conflicto*» eta «*La participación de la mujer en el Alarde: historia de un desencuentro*». Moreno Márquez, G.; Kerexeta Erro, X. (koord.) (2006) «*Los Alardes del Bidasoa: Pueblo versus Ciudadanía*». Irun: Ereta bilduma.

10

**ERANSKINAK**





## I. TALDE EDO ERAKUNDE ESPEZIALIZATUEN ESKUTIK JAIETAN EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO EKIMENAK ABIAN JARRI DITUZTEN UDALEN ZERRENTA.

UDALERRIA	LURRALDEA	URTEA	ESKU-HARTZE MOTA	TALDE ARDURADUNA
<b>ABADIÑO</b>	BIZKAIA	2018	Jaiei eta berdintasunari buruzko sentsibilizazio- eta hausnarketa-saioak.	FARAPI KOOP
<b>ANDOAIN</b>	GIPUZKOA	2019	Jai parekideen aldeko partaidetza-prozesua: indarkeria jaietan.	FARAPI KOOP
<b>ANOETA</b>	GIPUZKOA	2016	Jai parekideen aldeko partaidetza-prozesua: jaietako indarkeriaren kontrako protokoloa.	FARAPI KOOP
<b>ANOETA</b>	GIPUZKOA	2017	Jai parekideen aldeko partaidetza-prozesua.	FARAPI KOOP
<b>ANTZUOLA</b>	GIPUZKOA	2006-2009	Mairuaren jaia eraldatzeko partaidetza-prozesua.	EUSKO IKASKUNTZA
<b>BARAKALDO</b>	BIZKAIA	2014	Jai parekideen aldeko diagnostikoa eta gida.	S&F CONSULTANTS
<b>BARRIKA</b>	BIZKAIA	2013	Jai parekideen aldeko partaidetza-diagnostikoa.	FARAPI KOOP
<b>BARRUNDIA</b>	ARABA	2013-2014	Jai-batzordeentzako partaidetza-prozesua.	AZ PARTICIPACIÓN
<b>AIARAKO KUADRILLA</b>	ARABA	2015	Jai parekideen aldeko partaidetza-prozesua.	FARAPI KOOP
<b>ERRIOXAKO KUADRILLA</b>	ARABA	2018	Berdintasun Plana sortzeko eta jai parekideen aldeko partaidetza-prozesua.	AZ PARTICIPACIÓN
<b>DONOSTIA</b>	GIPUZKOA	2014	San Sebastian eguneko Danborraden diagnostikoa.	B. Moral eta taldea
<b>BURGELU</b>	ARABA	2018	Jai parekideen aldeko sentsibilizazio-saioak.	AZ PARTICIPACIÓN
<b>ELGOIBAR</b>	GIPUZKOA	2017-2018	Diagnostikoa eta jai parekideen aldeko ekintza-plana.	MURGIBE
<b>ERRETERIA</b>	GIPUZKOA	2017	Jai parekideen aldeko diagnostiko parte-hartzailea.	ELHUYAR
<b>ETXEBARRI</b>	BIZKAIA	2019	Jaiei eta berdintasunari buruzko sentsibilizazio-saioa.	FARAPI KOOP
<b>EZKIO</b>	GIPUZKOA	2019	Jai parekideen aldeko diagnostiko parte-hartzailea.	FARAPI KOOP
<b>GALDAKAO</b>	BIZKAIA:	2015	Jai parekideen aldeko diagnostikoa.	MURGIBE
<b>GORLIZ</b>	BIZKAIA	2019	Jai parekideen aldeko diagnostiko parte-hartzailea.	FARAPI KOOP
<b>HERNANI</b>	GIPUZKOA	2019	Indarkeria matxistaren kontrako protokoloa Santa Barbara elkarte gastronomikoan.	FARAPI KOOP
<b>IRURA</b>	GIPUZKOA	2020	Jai parekideen aldeko partaidetza-prozesua: jaietako indarkeriaren kontrako protokoloa.	FARAPI KOOP
<b>BASTIDA</b>	ARABA	2018	Jaiei eta berdintasunari buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-saioak.	FARAPI KOOP
<b>LEGAZPI</b>	GIPUZKOA	2019	Jai parekideen aldeko diagnostiko parte-hartzailea.	FARAPI KOOP

UDALERRIA	LURRALDEA	URTEA	ESKU-HARTZE MOTA	TALDE ARDURADUNA
<b>LEGORRETA</b>	GIPUZKOA	2019	Jai parekideen aldeko partaidetza-diagnostikoa.	EMAGIN
<b>LEZO</b>	GIPUZKOA	2017	Jai parekideen aldeko partaidetza-diagnostikoa.	ELHUYAR
<b>MARKINA</b>	GIPUZKOA	2015	Jaiak parekide bihurtzeko prozesua: hausnarketa eta esku-hartzea.	FARAPI KOOP
<b>OIARTZUN</b>	GIPUZKOA	2017	Jai parekideen aldeko diagnostiko parte-hartzailea.	ELHUYAR
<b>OÑATI</b>	GIPUZKOA	2016	Jai parekideen aldeko diagnostiko parte-hartzailea.	FARAPI KOOP
<b>ORDIZIA</b>	GIPUZKOA	2015-2017	Jai parekideen aldeko diagnostiko parte-hartzailea.	FARAPI KOOP
<b>OION</b>	ARABA	2018	Jaiei eta berdintasunari buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-saioak.	FARAPI KOOP
<b>PASAIA</b>	GIPUZKOA	2017	Jai parekideen aldeko diagnostiko parte-hartzailea.	ELHUYAR
<b>PLENTZIA</b>	BIZKAIA	2018/2019	Jaiei eta indarkeriari buruzko diagnostiko parte-hartzailea.	FARAPI KOOP
<b>SOPELA</b>	BIZKAIA	2016/2017	Jai parekideen aldeko diagnostiko parte-hartzailea.	FARAPI KOOP
<b>TOLOSA</b>	GIPUZKOA	2009/2020	Jaien inguruko hausnarketa- eta eraldaketa-prozesua.	FARAPI KOOP
			Jai parekideen aldeko gida sortzea.	FARAPI KOOP
			Gida nola erabili ikasteko sentsibilizazio-saioak.	FARAPI KOOP
			Jaien berdintasun behatokia.	FARAPI KOOP
<b>URDULIZ</b>	BIZKAIA	2014	Jaiak parekide bihurtzeko prozesua: hausnarketa eta esku-hartzea.	FARAPI KOOP
<b>URIBE KOSTA</b>	BIZKAIA	2019-2020	Jaien berdintasun behatokia.	FARAPI KOOP
<b>URRETXU</b>	GIPUZKOA	2019	Jai parekideen aldeko diagnostiko parte-hartzailea.	FARAPI KOOP
<b>USURBIL</b>	GIPUZKOA	2018	Jai parekideagoak eta indarkeria gabeak izateko prestakuntza.	FARAPI KOOP
<b>USURBIL</b>	GIPUZKOA	2019	Jaiak parekide bihurtzeko prozesua: hausnarketa eta esku-hartzea.	FARAPI KOOP
<b>VITORIA-GASTEIZ</b>	ARABA	2016-2018	Blusen eta Nesken Batzordeari bide-laguntza emateko prozesua.	SORTZEN
<b>ZALDUONDO</b>	ARABA	2017	Udal ordenantza ezartzeko partaidetza-prozesua. Jai parekideen sustapena.	AZ PARTICIPACIÓN
<b>ZIZURKIL</b>	GIPUZKOA	2017	Jai parekideen aldeko partaidetza-prozesua: jaie-tako indarkeriaren kontrako protokoloa.	FARAPI KOOP
<b>ZIZURKIL</b>	GIPUZKOA	2019	Jaiak parekide bihurtzeko prozesua: hausnarketa eta esku-hartzea.	FARAPI KOOP
<b>ZUMARRAGA</b>	GIPUZKOA	2019	Jai parekideen aldeko diagnostiko parte-hartzailea.	FARAPI KOOP

UDALERRIA	LURRALDEA	URTEA	DANTZA MOTA	TALDE ARDURADUNA
<b>ANDOAIN</b>	GIPUZKOA	2008	Santa Krutzeko ezpata-dantza.	DANTZAN
<b>AÑORGA (Donostia)</b>	GIPUZKOA	2009	Karmen eguneko ezpata-dantza.	DANTZAN
<b>ARRATE (Eibar)</b>	GIPUZKOA	2005	Ezpata-dantza.	DANTZAN
<b>BEASAIN</b>	GIPUZKOA	2007	Igartzako ezpata-dantza.	DANTZAN
<b>BEASAIN</b>	GIPUZKOA	2019	Loinatz jaietako haurren soka-dantza.	DANTZAN
<b>BERRIZ</b>	BIZKAIA	2019	San Pedro eguneko dantzari-dantza.	DANTZAN
<b>DEBA</b>	GIPUZKOA	2013	San Roke eguneko ezpata-dantza.	DANTZAN
<b>DONOSTIA</b>	GIPUZKOA	2009	Andre Mari eguneko ezpata-dantza.	DANTZAN
<b>DURANGO</b>	BIZKAIA	2015	San Fausto eguneko dantzari-dantza.	DANTZAN
<b>ELGOIBAR</b>	GIPUZKOA	2009	Errosarioko Amaren ezpata-dantza.	DANTZAN
<b>MARKINA- XEMEIN</b>	BIZKAIA:	2020	Aratusteetako saragi-dantza.	DANTZAN
<b>OÑATI</b>	GIPUZKOA	2018	Korpus-dantzak.	DANTZAN
<b>ORDIZIA</b>	GIPUZKOA	2018	Haurren soka-dantza.	DANTZAN
<b>PORTUGALETE</b>	BIZKAIA	2016	Ezpata-dantza.	DANTZAN

## II. ARGITALPENAK ETA ALDAKETA-ESTRATEGIAK INSPIRATZEKO BESTELAKO BALIABIDE ERABILGARRIAK.

### Gidak eta txostenak

- «Elkarte Gastronomikoen garrantzia eta eragina gizartean». (Txosten berezia, Eusko Jaurlaritzaren Defentsa Erakundea, 2010).
- Barakaldoko jaiak genero-ikuspegian oinarrituta antolatzen jarraibideen Gida (Barakaldoko Udala, 2014).
- «Jaiak berdinzaleago bihurtzeko gida» (Tolosa, 2015)
- Jai parekideen aldeko gida (Bizkaiko Foru Aldundia, 2016).
- Arartekoaren 3/2010 Gomendio Orokorra, abenduaren 21ekoa, Emakume eta gizonen arteko berdintasuna jaietan (Arartekoa, 2010)
- Eusko Legebiltzarrak emakumeen eta gizonen berdintasunerako onartu duen otsailaren 18ko 4/2005 EAeko Legearen azterketa: lege berriak zer-nolako eragina duen emakumeak Irungo eta Hondarribiko Alardeetatik kanpo uztearen kontuan. (Arartekoaren txostena, 2005)

### Webguneak

- [www.alardepublico.org](http://www.alardepublico.org) Irungo Alarde mistoaren webgunea da, eta bertan ikus daitezke, besteak beste, 1996tik aurrera egindako Alardeen eta Irungo gatazkaren unerik adierazgarrien grabazioak: albisteak, liskarrak, prentsaurrekoak, adierazpenak, etab.
- <https://dantzan.eus> Dantza sustatu eta hedatzeko Dantzan elkartearen webgunea da. Bideo, argitalpen eta albisteez gain, webgunean jasota dago, baita, berdintasunari eta dantzetan emakumeen parte-hartzeari lotuta izan diren aurrerapausoen erregistro eguneratua, Kattalin Agerrek egindakoa: <https://dantzan.eus/kidea/kattalin>.
- <http://emakumeokplazara.org> webgunean emakumeek osatutako dantza-, antzerki- eta musika-taldeei buruzko informazioa jaso eta sailkatuta dago.
- [Antzuolako Alardea](#) Antzuolako Alardearen eta Mairuaren Alardearen Kultur Elkartearen webgunea da, eta bertan jasota daude elkartearen historia eta hari buruzko albisteak, bideoak eta argitalpenak, baita jaiak jasan dituen eraldaketa nagusien azalpena ere.

### Ikus-entzunezkoak

- «MARIJESIAK 4:00 Bederatzi gau hotzean». Marijesien historiari buruzko dokumentala da, emakumeak parte hartzen hasi zireneko prozesua islatzen duena.
- *Dantzetan ere berdintasunaren alde!* Berrizko Dantzari-dantzak bizi izandako aldaketa-prozesuari buruzko bideo laburra.

- «Festa dezagun gaurdanik geroa!». Bilgune Feministak ekoiztako dokumentala.
- «Mi querida cofradía». Marta Díaz de López Díaz. Emakumeek Andaluziako Aste Santuko prozesioetan eta kofradietan parte hartzeko dituzten zailtasunei buruzko film luze umoretsua.
- «La mujer en la Semana Santa». Canal 8. Zamorako Aste Santuan emakumeak barne hartzeko eta horien parte-hartzea bultzatzeko prozesuari buruzko dokumentala.
- «Herri zahar, andre berri..Radio performativa» (2016). Irrati bidezko esku-hartze artistikoa Antzuolan. Jaien eta plazeraren arteko harremana jorratzen du, baita herriko jaiak birpentsatu eta eraldatzeko abiatutako partaidetza-prozesua ospatu ere.
- «Alardearen seme-alabak». Eneko Olasagasti eta Jone Karres (2013). Hondarribia eta Irungo Alardeetan gatazkaren belaunaldi arteko transmisioari buruzko dokumentala.
- «Harri Magikoak». Mertxe Trantxek eta Arantxa Zabalak Irungo Alardeari buruz zuzendutako film laburra da, emakumeek soldadu gisa parte hartzeko egindako aldarrikapena azaltzen duena.
- «Alarde. 20 años de debate». 19. artikulua. Hondarribiko Alardearen gatazkari buruzko kazetari-erreportajea. Bertaratutakoen, Jaizkibel Konpainiaren sortzaileetako baten eta Oihana Etxebarrieta (EH Bildu) Jaizkibelgo kapitainaren lekukotzak biltzen ditu.
- «¿Tradición o machismo? Un pueblo dividido». Julen Hernández.

## Jardunaldiak, Biltzarrak eta Udako ikastaroak

- (2004, 2006, 2008, 2010, 2012, 2014) «Jornadas sobre la mujer en la fiesta». Alcoiko Fonèvol elkarteak antolatuta.
- (2005, 2007, 2008, 2011, 2015, 2017) «Encuentros Nacionales de Mujeres Cofrades».
- (2005, 2007, 2009, 2011, 2013, 2015, 2017) «Congresos Nacionales de Mujeres Costaleras y Portapasos».
- (2004-2014) «Encuentros Nacionales de Mujeres Costaleras y Portapasos».
- (2005) «Fiestas y Mujeres. Patrimonio Cultural Inmaterial». Ikastaroa Alacanteko Unibertsitatean, apirilak 15.
- (2010) «Rituales festivos y género: Avances y dificultades para la igualdad». Jardunaldiak Sevillako Unibertsitatean, martxoak 17-19.
- (2018) «La centralidad de los rituales en un mundo en movimiento». Jardunaldiak EHU/UPV, uztailak 5-6.
- (2019) «Patrimonio Inmaterial y Desigualdades de Género en las tradiciones festivas en España», Gabeiras Fundazioak UNEDen antolatutako jardunaldia. Madril, irailak 20.

## **Jaiei, ondareari eta emakumeen parte-hartzeari buruz gehiago jakiteko**

- Alcaraz, M. (2014). «*Constitución, tradición y fiestas: la igualdad de las mujeres en el espacio público festivo*», *Corts: Anuario de derecho parlamentario*, 28. zk., 137-160.
- Antuña, E. (2017). «*De reinas a majorettes: representaciones de la mujer en el ritual festivo de la España contemporánea*», *Historia Garaikideko Ikertzaile Gazteen Nazioarteko VI. Topaketaren Aktak*, 1-22.
- Araolaza, O. (2019). «Genero-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan». *Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. (Doktorego-tesi argitaratu gabea)*
- Arrieta, I. (ed.) (2017). «El género en el patrimonio cultural». Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Azpeitia, A. (2016). «*Patrimonio y cultura. El concepto de patrimonio cultural en la normativa vasca*», *Revista de la Facultad de Ciencias Sociales y Jurídicas de Elche*, I. lib., 11 zk., 369-389.or.
- Dueñas, E. X. (et al) (2007). «*Un horizonte difuso: danza y tradición*». Jentilbaratz Cuadernos de Folklore 9. zk. [online <http://www.eusko-ikaskuntza.eus/es/publicaciones/jentilbaratz-cuadernos-de-folklore/ar-17200/> ].
- Fernández, K. (1997). «Mujer, ritual y fiesta. Género, antropología y teatro de carnaval en el valle de Soule». Iruñea: Pamiela argitaletxea.
- Gisbert, V. (2015). «*En nombre de la tradición. Conflictos socio-festivos por razones de género*», *Anuario del conflicto social UB*, 385-401.
- (2010). «*Ni moras ni cristianas: género y poder en las fiestas de Moros y Cristianos de Alcoi*». Cucó, J.; Santamarina, B. (koord.) «*Políticas y ciudadanía: miradas antropológicas*». Germania argitaletxea.
- Gisbert, V.; Rius-Ulldemolins, J.; Hernández, G. M. (2018). «*Cultura festiva, política local y hegemonía social: Comparativa de los casos de los Moros i Cristians (Alcoi), las Falles (València) y La Patum (Berga)*». *RES Revista Española de Sociología*, 28. zk., 1, 79-94.
- Or. Gómez, E. (2018). «*La mujer en las cofradías y romería de la Virgen de la Cabeza*», *Boletín del Instituto de Estudios Giennenses*, 217. zk., 135-153.
- Heuzé, L. (2003). «*La incorporación de las mujeres en las fiestas: las Negras de Petrer (Alicante)*». Albert-Llorca, M.; González Alcantud, J.A. (Argit.) «*Moros y Cristianos. Representaciones del otro en las fiestas del Mediterráneo Occidental*». Granada: Granadako Aldundia, «Ángel Gavinet» Ikerketa Etnologikoen Zentroa / Presses Universitaires du Mirail Université de Toulouse, 103-114.
- Laxa, X. (2005). «*Emakumeekin, askoz hobe doa tradizioa*». Hika, [online <https://dantzan.eus/hemeroteka/emakumeekin-askoz-hobe-doa-tradizioa/> ].
- Martínez, M. A. (2015). «*La mujer en las fiestas de moros y cristianos*», *Antropología Experimental aldizkaria*, 15. zk., 79-87. Jaengo Unibertsitatea [online <https://revistaselectronicas.ujaen.es/index.php/rae/article/view/2358/2001>].
- Rico, M<sup>a</sup> C. (2004). «*Evolución del papel de la mujer en la fiesta de Petrer. Una presencia activa y decidida*». *Moros y Cristianos de Petrel*, 118-121 [online [142](https://www.petrer-</a></p></div><div data-bbox=)

[enfestes.com/wp-content/uploads/2019/02/EVOLUCION-DELPAPEL-DE-LA-MUJER-EN-LA-FIESTA-DE-PETRER.pdf](http://enfestes.com/wp-content/uploads/2019/02/EVOLUCION-DELPAPEL-DE-LA-MUJER-EN-LA-FIESTA-DE-PETRER.pdf)].

Rostagnol, S. (2015). «¿El patrimonio tiene género? Una mirada al patrimonio cultural Inmaterial desde la perspectiva de género». Ondare biziari buruzko lehenengo topaketa nazionala. «Diversidad cultural y Estado. Escenarios y desafíos de hoy». Buenos Aires. 2015eko abuztuaren 12, 13.

Sánchez, P. (2003). «Mujeres y cofradías en Málaga». Malaga: Arguval argitaletxea.

UNESCO (2015). «Igualdad de género. Patrimonio y creatividad».

—(2003). Kultura-ondare immateriala zaintzeko konbentzioa.

## **Bidasoko Alardeei buruz gehiago jakiteko**

Asensio, M. eta Iraola, A. (2018). «Alardeak. Ukatutako Plazara». Berria/Elkar Argitaletxea/Jakin.

Bullen, M. 1997 (a) «Identidad y género en los Alardes de Hondarribia e Irun». *Ankulegi* 1:38-40.

1997 (b) «Las mujeres y los Alardes de Hondarribia e Irun». *Bitarte*, 11:35-56.

1997 (c) «Las mujeres y los Alardes de Hondarribia e Irun». *Arenal*, 4.1 liburukia, 123-145.

1999 (a) «Gender and Identity in the Alardes of Two Basque Towns», William A. Douglass et al. (arg.) «Basque Cultural Studies», 149-177. Basque Studies Program, University of Nevada, Reno.

1999(b) «La construcción de género en el discurso sobre los Alardes de Irun y Hondarribia». *Ankulegi*, 3: 53-61.

1999 (c) «Cambio y confrontación en los Alardes de Irun y Hondarribia». Carmen Díez & Mari Luz Esteban (arg.) «Antropología del Género» (Antropologiari buruzko VIII. Kongresuko Aktak: 2) 69-79, Santiago de Compostela.

2000 «Hombres, mujeres, ritos y mitos: Los Alardes de Irun y Hondarribia». Teresa del Valle (arg.) «Perspectivas feministas desde la antropología social». Bartzelona: Ariel. 45-78.

2003(a) «Changing the gender of festivals». M. Bullen, «Basque Gender Studies», Reno: University of Nevada Press, 252-270.

2003 (b) «Transformaciones socio-culturales y la recreación de una fiesta». *Zainak*24: «Las culturas de la ciudad 2». Donostia: Eusko Ikaskuntza. 937-952 or.

2004 «Eskubide unibertsalak ala kultur berezitasuna ikuspegi antropologiko bat», G. Moreno & X. Kerexeta (koord.) «Bidasoaldeko Alardeak: Herria versus hiria», Udako Euskal Unibertsitatea.

2006 «Derechos universales o especificidad cultural: una perspectiva antropológica», G. Moreno & X. Kerexeta (koord.), «*Los Alardes del Bidasoa: Pueblo versus Ciudadanía*». Lasarte: Antza, 21-47.

2017 «*Genero-sistema eta jaiak: begirada antropologiko bat Euskal Herriko errealityari*». Miren Guilló Arakistain (koord.) «Festak, genero-harremanak eta feminismoa. Begirada teoriko eta antropologikoak, praktika sortzaileak eta plazeraren kudeaketa kolektiboak», 35-54. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Bullen, M.; Diez, C.

2002 «*Violencia y cambio de culturas androcéntricas*», aurkeztutako komunikazioa Antropologiari buruzko IIX. Kongresua, FAAEE, Bartzelona (irailak 4-7).

2008 «*Fisiones / fusiones. Mujeres, feminismos y orden social*». Liliana Suarez, Rosalva Aida Hernández eta Emma Martín, «*Feminismos en la Antropología. Nuevas propuestas críticas*». Donostia/San Sebastián: ANKULEGI antropologia elkarteak. 81-97. <http://www.ankulegi.org/wp-content/uploads/2012/03/0605Bullen.pdf>

2010 «*Matriarchy versus equality. From Mari to Feminist Demands*». M.L. Esteban & M. Amurrio (arg.) «Feminist Challenges in the Social Sciences: Gender Studies in the Basque Country». Reno, Center for Basque Studies, 113-126. <http://basque.unr.edu/docs/CR2.pdf>

2013 «Fiestas, tradiciones e igualdad», Kobie Serie Antropología Cultural, 16. zk.: 13-34, Bizkaiko Foru Aldundia-Diputación Foral de Bizkaia, Bilbo – 2012, ISSN 0214-7971.

Moreno, G. eta Kerexeta, X. (koord.) (2006). «Los Alardes del Bidasoa: Pueblo versus Ciudadanía». Irun: Ereta bilduma.

Moreno, Gorka eta Kerexeta, Xabier (koord.) (2004). «Bidasoaldeko Alardeak: Herria versus hiria». Udako Euskal Unibertsitatea.

Urretabizkaia, A. (2018). «Bidean ikasia» (1993-2016) / «Lecciones del camino» (1993-2016). Nafarroa: Pamiela.